



ATV  
2808



ONK 310.00

W.F.

COMMUNAL FÄRGERNTEN

1. JUNI 1910  
ANNA MARIE JØRGENSEN





# CONFESIOCO, ETA COMUNIODO SACRAMENTUEN GAÑEAN

*ERACUSALDIAC,*  
lenvicico Comunio raco prestatu  
bear diran Aurrentzat, eta bidez  
Cristau acientzat-ere bai.

ESQUEINGEN DIEZTE EUSCALDUNAT  
*D. Juan Bautista Aguirre, Asteasuco Be-  
neficiadu, eta Guipuzcoako Arciprestaz-  
co nagusian Diputadu generalac.*

## TOLOSAN.

---

Iruñeco gure Apaiznagusiaren, eta  
emengo Corregidorearen baimena-  
requin, D. Juan Manuel la Lama-  
ren moldizteguian, 1823.  
Urtean.

\*

# C O N F E S I O C O

A T E

C O M U N I O C O S A C R A M E N T U R A

*L A U P A R T E , E D O P U S C A D I T U .*

Lenengoan eracusten dira, Confesioco Sacramentuari dagozcan gauzac. Bigarrenean, Communioari dagozcanac. Hirugarrenean, nola obraz eguiten dan lenengo bietan hitzez adiraci dana. Laugarrenean, eracusten zayo, alá lenvicico Comunioa eguiten duan aurrali, nola, edo cein Cristauri betiko vicitza doatsuaren bide eder-garbia.

M A R C H 2010

119, oñatiaren gurasoak. Ezin zuten hazi  
gurez gurez, oñatiaren gurasoak. Ezin zuten  
hazi gurez gurez, oñatiaren gurasoak.  
Ezin zuten hazi gurez gurez, oñatiaren  
gurasoak. Ezin zuten hazi gurez gurez,  
oñatiaren gurasoak.

(Continua)

---

## PROLOGO.

**FIN , Á QUE SE DIRIGEN ESTAS INSTRUCCIONES:** y método que para ponerlas en práctica con los Niños , y Adultos , adoptaría el Autor.

**L**a ignorancia de muchos Cristianos á cerca del modo práctico de prepararse para recibir los Sacramentos de la Confesion , y Communion , es un mal contra el cual clamaron los Predicadores , y Escritores celosos , y que no obstante subsiste en muchas partes. ¿Cuál será la causa de esto ? Apenas podrá encontrarse otra tan poderosa

como es la facilidad , con que en muchas Parroquias se admiten los Niños á la primera comunión. En algunas no se les obliga á aprehender las cuatro partes del Catecismo ; en otras se contentan con que sepan estas , especialmente si responden con puntualidad á lo siguiente : ¿Qué es lo que se requiere para una buena Confesión ? ¿Qué cosa es Exámen? ¿Qué el Dolor? ¿De cuantas maneras es el Dolor? ¿Qué cosa es Contrición ? ¿Qué la Atrición ? ¿Para que fue instituido el Sacramento del Altar? ¿Cuantas cosas se requieren para una buena Comunión ? De aquí resulta el que los Niños comiencen á participar de los Divinos Misterios , sin saber que es lo que deben , y como deben practicar para recibirllos dignamente. De aquí el perseverar regularmente en la misma ignorancia

basta la muerte. De aqui el tropezar los Confesores con penitentes tan mal guisados, y desprevenidos, que se ven precisados á disponerlos en el mismo Confesonario, si las circunstancias lo permiten. De aqui finalmente un número inmenso de Confesiones, y Comuniones sacrilegas, ó á lo menos infructuosas. Yo confieso, que es empeño arduo el desterrar del todo esta ignorancia en muchos pueblos derramados en barrios distantes de la Iglesia; pero al mismo tiempo creo, que se remediará en gran parte, si con tesón, y método se procura la instrucción de los Niños antes de la primera Comunion; si ademas al pueblo se le explica el modo práctico de disponerse para la confesion, y Comunion, en Misas mayores, ó otros tiempos oportunos, no una, ó otra vez, sino una gran

*temporada. Y para que el Catequista tenga algun alivio en un Ejercicio tan importante , le presento estas pequeñas instrucciones distribuidas en cuatro partes. En la primera parte se iustruye al Niño sobre la Confesion : En la segunda sobre la Comunion : En la tercera se le hace poner en práctica lo que en las dos primeras se le ha enseñado especulativamente. Y en la cuarta se han recogido las Instrucciones mas importantes , y oportunas , para que un Vascongado viva segun la Ley de Jesu-Criso.*

*El método que convendrá adoptarse en cada Pueblo , dejó con gusto á la prudencia , y discrecion de los Señores Párrocos ; y solo añadiré , que si me viese en la necesidad de haber de emprender una ocupacion tan delicada , procuraría*

valerme, en cuanto fuese posible de las reglas siguientes. I. A ningun Niño colocaria en la clase de los que han comenzado las Instrucciones para la primera Comunion, si no sabe las cuatro partes del Catecismo. Esta es la practica de los Obispados, donde esta Disciplina de la primera Comunion ha estado mas floreciente, y se conforma con el sentir de los autores, que para la primera comunión piden, que el Niño sepa la Doctrina, cuyo compendio son las cuatro partes del Astete. Esto viendo, que algunos me dirán, que no es necesario que se sepan las cuatro partes á la letra, si se saben en cuanto á la sustancia. Es así. ¿ Pero cómo podrán saber los Niños, é idiotas la sustancia de las cuatro partes; y como darán razon suficiente de ellas, si jamas las han

aprehendido , ni con las expresiones con que las explica el Cátecismo , ni con otras ? II. Donde hay Maestro , y Maestra de primeras letras debe procurarse , que los Padres envien á tiempo los Niños , y Niñas á la Escuela respectiva , para que desde la edad tierna comiencen con la Doctrina. III. Aunque no haya este auxilio , la experiencia enseña , que no suelen faltar personas que con amor y caridad sacrifiquen algun tiempo para instruir á los Niños y Niñas. He conocido un hombre , y una muchacha que en las Parroquias donde vivian se divertian en este ejercicio , y hacian segun me aseguraron un bien imponderable á la Juventud. IV. En muchas Parroquias de este País hay barrios tan distantes de la Iglesia que los Niños , y Niñas no pueden asistir á

*la Escuela , ni otra casa de la proximidad de la Parroquia á no bacer sus Padres un empeño extraordinario. Para instruir á los Niños de semejantes barrios , dos medios oportunos se practican en algunos Lugares : el primero es instruir algunos Niños y Niñas de los mismos barrios , para que estos enseñen á los demás ; y el segundo el enviar alguna persona juiciosa , para que durante el invierno los instruya. Ojala se estableciesen en nuestras Parroquias las Cofradías de la Doctrina Cristiana tan recomendadas de la Silla Apostólica. Entonces no habria estas angustias , y en cada barrio los Cofrades cuidarian de la enseñanza de los Niños , é ignorantes en la doctrina. V. Cuando el Niño ha comprendido las cuatro partes del Astete , se le pasa á la clase de los*

están instruyéndose para la primera Comunion. Se le enseña el primer año lo perteneciente al Sacramento de la Confesion: en el segundo lo respectivo á la Comunion; y finalmente se le detiene el tiempo necesario en el modo práctico de prepararse, y recibir ambos Sacramentos. Algunos reputarán esto casi imposible para practicarse con los Niños; pero si consultan con la experiencia de varios Obispados, se desengañarán. VI. A los que se muestran mas aplicados se les debe dar algun premio. Así se práctica en muchas partes; y con extraordinario esmero en Italia. El dia de la primera Comunion á cada Niño se le dará un exemplar nuevo de estas Instrucciones, para que les sirva de Devpcionario. VII. Segun la Disciplina actual de la Iglesia parece mas verisimil, que la

discrecion suficiente para la Confesion no basta para la primera Comunion, exceptuando el peligro de la muerte. para la debida inteligencia de esta regla debe tenerse presente primero: Que en los primeros tiempos de la Iglesia no se esperaba á los años de la discrecion, ó uso de la razon para dar á los niños la primera comunon, sino que se les administraba á una con el Bautismo bajo las Especies de vino. Esta Disciplina dura todavia en la Iglesia Griega, y duró en la Latina hasta el Siglo XII. á lo menos en algunas partes; y Martene Escritor del Siglo, que acaba de espirar, asegura, que el mismo la vió practicarse en Basilea. 2. que en la primitiva Iglesia dos que asistian á Misa comulgaban, y solo se excluia á los Catacumenos; y Penit-

tentes ; de donde se puede inferir que los niños que llegaron al uso de la razon , y asistian al Sacrificio no serian excluidos. 3. Que el Concilio Lateranense IV. celebrado el año de 1215. en el Canon 21. mandó , que todos los Fieles , que hubiesen llegado á los años de discrecion , se confesasen á lo menos una vez al año , y se comulgasen por Pascua. Hay alguna duda sobre si este Concilio se contentó para la primera comunión con la misma discrecion que basta para la confesion ; pero mirando al contesto del Canon , y á la Disciplina que basta entonces se observó en este punto , parece muy creible con San Antonino , que los padres del citado Concilio no quisieron exigir mayor discrecion para el uno que para el otro Sacramento. 4. Ultimamente opinaron in-

*signes Teólogos que para la primera comunión no basta que el niño tenga discrecion para conocer el bien y mal , sino que ademas se requiere que discierna el manjar celestial de la Eucaristia , conozca sus efectos , y pueda gustar de ellos , y la Iglesia en el Ritual nos dió la regla siguiente : Iis, qui propter ætatis imbecillitatem non dum hujus Sacramenti cognitionem , & gustum habent , administrari non debet.* VIII. *La edad en que regularmente llegan los niños á este conocimiento , y gusto de que habla el Ritual , suele ser la que media entre los diez y catorce años , como nos dice el Manual impreso en Salamanca el año de 1591. Communiter ætas huic rei apta ( ut pueris ministretur Eucharistia) esse solet ab anno decimo usque ad decimum quartum , Esto mismo nos*

dice Francisco Suarez. Mas esto no quita el que pueda haber niños en quienes se anticipa la discrecion que se requiere para la primera comunión, ya por el clima, y claridad de entendimiento, ya por una diligente educación. De esta regla se puede colegir, que si los niños empiezan á instruirse á tiempo, basta los catorce años se les podrá enseñar cuanto se requiere, para que reciban la primera comunión con el debido respeto y discrecion. IX. En quanto al pueblo particularmente si hay muchos que ignoren el modo de disponerse para recibir los Sacramentos, procuraría explicarle en Misas Mayores, y otros tiempos oportunos por espacio de dos ó tres años las Instrucciones, que aquí ofrezco á mis paisanos, ó otras que se escriban mejor, siguiendo el orden con

que están puestas. Haria decir al  
chico destinado para este fin una  
instrucción oyéndole el pueblo; y  
ella me sirviría de asunto para  
una, ó mas pláticas; y para este  
fin puede servir mucho la apre-  
ciable obra que en dialecto Gui-  
púzcoano acaba de dár á luz mi  
caro amigo Don Juan Antonio de  
Moguel. Es muy bueno exponer el  
Evangelio del dia; pero nosotros  
vivimos en pueblos donde los Feli-  
greses no pueden acudir á la Par-  
roquia con la comodidad que en Na-  
varra, Aragón, y Castilla; y es  
necesario que primero se atienda  
á lo mas urgente en aquellas bo-  
ras, en que el pueblo pueda asis-  
tir, y esto parece muy confor-  
me al Concilio Tridentino Sess 5.  
cap. 2. de Reformat. X. Las Cédu-  
las de aprobacion en Doctrina Cris-  
tiana deben ser muy caras, para

que el pueblo se mueva á acudir á la Doctrina ; y si en esto se da lugar á contemplaciones , si no se les exámina sino de pura ceremonia , todas las Instrucciones que el Párroco diese en los días Festivos , no alcanzarán para la gente mas necesitada , porque no acudirá á ellas. XI. Con los jóvenes que aspiran al Matrimonio debe observarse con puntualidad lo mandado por el Ilustrísimo Irigoyen , examinandolos seriamente en la Doctrina antes de las proclamas. Si algunas de estas reglas no agradaren á los Catequistas acostumbrados á otro método de menos fatiga , no riñamos por esto , y concluyo con lo que segun escriben Sidonio dijo á Drossulo Satyra 1<sup>a</sup>. Quod justum est scribo , nec multum , Drossule , curo sive huic , sive illi displiceat , placeat.

---

### *Advertencia I.*

Este prólogo se ha puesto en castellano, temiendo que muchos Catequistas no lo leerían de otra suerte.

### *Advertencia II.*

El dialecto en que se escriben las Instrucciones, es un medio entre el de Beterri, y Goyetti. Se diferencia del de Hernani, y San Sebastian v. g. en *dezute*, *dute*, *duenac*, *dutenac* *dituzute*, *dituzte*, &c. que es segun el modo de San Sebastian; y en el nuestro: *dezue*, *due*, *duanac*, *duenac*, *dituzue*, *ditue*.

*Advertencia III.*

Al pie de cada instruccion se pondrán varias veces citas, no porque sirvan para los Niños ; sino porque el Catequista muchas veces deseará saber , y registrar las fuentes de donde se ha extractado la instruccion ; y es mas facil el quitarlas , que ponerlas.

*Advertencia IV.*

Para insinuar la pronunciacion particular que tienen varias expresiones Vascongadas uso del acento circunflexo al modo que en el castellano está hoy en uso : v. g. *gaisúa* tiene su pronunciacion particular que no es facil fixarla mejor que con la crema , ó capucha , en cuyo lugar usan algunos de dos consonantes , como en *tipia* , *maittea* , &c.

\* \* \* \* \*

## LENENGO PARTEA.

**CONFESIOCO SACRAMENTUARI**  
dagozcan Eracusaldiac.

### **LEMBICICO ERACUSALDIA.**

*Cer dan , eta norc Eliz Ama Santari  
utzi eion Penitenciaco , edo Confesioko  
Sacramentua.*

**E**racusleac. A aurra , icasi dezu Asteteren Doctrinako liburuchoa ? Icasi bear dituzu bāda orain Penitenciaco , edo confesioko Sacramentuari dagozcan , gauzac. Esadazu.

G. Eliz Ama Santaren Sacramentuen artean hirugarrena ceinda ? E. Penitenciaco , edo Confe-

sioco Sacramentua. G. Cer dá Penitenciaco, edo Confesioco Sacramentua? E. Becatariaren aldetic viozeco damua ontzeco asmo osoa-requin; aozco Confesioa, eta obrazco satisfaccioa: Eta Confesorearen aldetic absolucion. G. Norc utcion Eliz Ama Santari Sacramen-tu aú? E. Jesu-Cristo gure Ja-nac. (a) G. Jesu-Cristoren etorre-ra baño len ez ote zán Confesioric? E. Moysesi Jaunac letraz exarriric Legue zarra eman cion artean, etzan izan Confesioric, ez eta gueroz ere legue zarraren az-pian vici etciranen artean. G. Moy-sesen Leguean ote zán Confesioric? E. Omen zan, Jauna, Confesioa (b)

(a) *Joannis 20. vide Tridentin. Ses 14. cap. 1. &c. Canone etiam 1* (b) *Vi-de Benedictum XIV. de festis Lib. 1. cap. 2. à num. 25. Tirinum, Calmet, &c.*

baña Sacramentu etzana ; eta becatuac barcatceco indaric , eta queimenic etzuana. G. Beraz Jesu-Cristo etorri zán artean etzan izan becatariantzat barcacionic ? E. Bai, Jauna , Fede , Esperanza , ta onezco damu , edo Contricio osoarequin biurtzen bacitan Jaunagana. (c) G. Nori utzi cion Jesu-Cristoc becatuac barcatzeco escua ? E. Ez edoceñi , baicic Apostoluai , Obispo Jaunai , eta , oec Confesioac aditzezo bidaltzen dituen , Apaizai. (d)

---

(c) *Vide Concilium Tridentinum Ses. 14. cap. 4.* (d) *Vide Tridentinum Ses. 14. cap. 6. & Canon. 10. & Benedictum XIV. de Synod. Dicæces. Lib. 7. cap. 16.*

*BIGARREN ERACUSALDIA.*

*Certaco ipini zuan Jesu-Cristoc  
Confesioco Sacramentua, eta cer  
ondasunac dacarzian.*

**G.** Certaco ipini zuan Jesu-Cristoc Confesioco Sacramentua? E. Batayoa ezquero eguindaco becatuac baratzeco (\*) G. Cer ondasun dacarci barcacio onequin battean? E. Ondasun andiac, etaasco. G. Cein dira? E. Lembicia, barcatzen du beeatuai cegoten betico pena, eta aldatzen du, emen, edo Purgatorioan demboraz buatuco dan, penan. (a) Bigarrena,

---

(\*) Concilium Tridentinum Ses. 14.  
cap. 1.

(a) Trident. Ses. 6. de Justificatione  
cap. 14.

biurteen dio animari, becatuare-  
 quin galdu zuan, graciaren apain-  
 dura, ta soñeco ederra virtute, ta  
 doai ascorequin. (b) Irugarrena,  
 berriro eguiten du Jaincoaren hu-  
 me, ta adisquide, (c) Jesu-Cris-  
 toren senide, Espiritu Santuaren  
 vicilecu,edo Eliza,(d) eta Cerua-  
 ren jabegai. Laugarrena, ematen  
 ditu becatutic aldeguiteco, eta vi-  
 citz onean irauteco Ceruco lagun-  
 zac. (e) Bostgarrena, ematen du as-  
 cotan animaco paquea, ta sosegu  
 gozo bat. (f) Seigarrena, piztut-  
 zen ditu, becatuarequin illac gue-

- (b) *Ezechiel.* 18. *Joel.* 2. *ad Hebr.* 6.  
*Trident.* Ses. 6, cap. 16. *de Justific.*  
 (c) *I. Joan.* c. 3. *ad Roman.* c. 8. *Tri-  
 dent.* Ses. 14. cap. 3. *de Pænit.* (d) *Ad  
 Roman.* c. 8. *ad Rom.* c. 5. 1a. *ad Co-  
 rint.* c. 3. & 6. (e) *Vide Theologos.* (f)  
*Trident.* Ses. 14. cap. 3. *de Pænit.* &  
*Catechism.* *Rom.*

ratu ciran obra on , edo Ceruraco irabaciac. (g) G. Confesatcen diran becatari guciae artzen-ote ditue ondasun oec ? E. Ez , Jauna , baicic Contesio ona eguiten dúenac.

## *HIRUGARREN ERACUSAL-dia.*

*Confesio on batec escatcen dituan gauzac.*

**G.** Cembat gauza bear dira Confesio on bat eguiteco ? E. Bost gauzà. G. Cein dira ? E. Lenengoa exàmina ; (a) bigarrena dolorea , edo eguindaco uiseguiteen damua. (b) Irugarrena onteeco edo , aurtera becaturic ez eguiteco asmoa

(g) *Vide Trident. Ses. 6. cap. 16. & Theologos de revivientia meritorum.*

(a) *Trident. Ses. 14. cap. 5. (b) Trident. Ses. 14. cap. 4.*

(c). Laugarrena Confesioa (d). Bostgarrena Satisfaccioa (e). G. Cembat gauzatara biurteen dira esan dituzun bost oec ? E. Irutara. G. Cein dira ? E. Biotceco damua , aozco Confesioa , ta obrazco satisfaccioa (f). G. Cergatic bost gauza aec biurteen dira iru oetara ? E. Ceren exàmina biurteen dan Confesio onera ; eta ontzeco asmoa eguiazco damura. G. Cer icen eman oi zate biotzeco damuari , aozco Confesioari, eta obrazco satisfacioari ? E. *Penitenciaren iru parteen icena* (g) G. Cergatic ori? E. Ceren irù gauz oec chit bearrac diran Penitenciaco Sacramentua osatceco , eta becatuen barcacioa osotoro iris-teco (h).

---

(c) Trident. *ibidem*. (d) *Trid. Ses. 14. cap. 5. & Can. 6* (e) *Trid. Ses. 14. cap. 8.* (f) *Trident. Ses. 14. cap. 3.* (g) *Trident. Ses. 14. cap. 3.* (h) *Trident. ibidem*

*LAUGARREN ERACUSAL.**DIA.*

*Cer dan , eta nola eguin dite-  
quean exámina.*

*Esan dituzu , Confesio on bat egui-  
teco bear diran bost gauzae.*

*Orain esadazu.*

**G.** Cer da exámina ? E. Eguindaco utseguite , edo becatuen constuac ateratzea. G. Cer eguingo dezu onetaraco ? E. Bost gauza. G. Cein dira ? E. Lembicia , jarrico naiz Jaunaren aurrean lecu egoquiren batean , ta adoratuco det humiltasun , eta errespeto guciarequin , goiceco jaieran eracusten dan bezala. Bigarrena , emango diozcat esquerrac eguin dizquidan mesede guciae gatie , baña batezere , ceren oraindaño ichedon di-

dan becatutic irteteco, eta bera-gana biurtzeco. Irúgarrena, es-catuko diot Espiritu Santuari ar-guaia, ta lagunza nere utsegui-teac ezagutzeco, ongi damutze-co, ta Confesatzeco. Laugarre-na, beguiratuco det, azqueneco confesioan becatu larriren bat az-tu ote citzatan, eta emandaco pe-nitencia eguin nuan, edo ez. Bost-garrena, animaren beguien aur-rean ipíñico ditut Jaincoaren Le-gueco amar Aguienteac, Eliz Ama Santaren bostac, nere estadu, vi-cimodu, eta carguac dituan egui-m-bideac, eta contu ateraco det, nola, eta cemba bider utseguin dedan bacoitzaren contra. Eracu-s-leac. Ongi esan dezu: eta cer dan Jaunaren aurrean jartzea, eta nola gauz oec eguiten diran batzuetan labursegago, eracutsico zatzu hiru-garren Partean.

*BOSTGARREN ERACUSAL-*  
*DIA.*

*Confesio gaiztoac berritzeco nola  
 eguin ditequean exàmina.*

**E**racusleac. Esan dezu, nola eguin bear dan azqueneco Confesiotic oraindañoco exàmina. Demagun, aurtasunetic, edo gueroz eguin dituzula Confesio gaiztoren batzuec: ¿nola eguingo dezu oec berritzeco bear dan exàmina? E. Lemobia, jarrico naiz Jaunaren aurtean, eta adoratuco det humiltasun, eta errespeto guciarequin. Bigarrena, emango diozcat esquerrac, eguin, dizquidan mesede guciac gatic, baña batezere ceren oraindaño ichedon didan becatutic irteeco, ta beragana biurzeco. Hirugarrena, escatuco diot Espíritu Santuari arguia, eta lagunza nere

utseguiteac ezagutzeco, ongi damautzeco, eta Confesatzeco. Lau-garrena, beguiratuco det, cemba-dembora, edo urte dan gaizqui Confesatzen asi nintzala, bataz bes-te urtean cemba Confesio, eta Co-munio egun ditudan bitarte orretan. Bostgarrena, Confesatzen nint-zanean, oroitzan ote nintzan lene-co Confesio, ta Comunio gajztoaz. Seigarrena, animaren beguien aur-rean ipiñico ditut Jainkoaren Le-gueco amar Aguinteac, Eliz Ama Santaren bostac, rere estadu, vi-ci modu, ta carguac dituan egum-bideac, eta kontu ateraco det, no-la, ta cemba bider utseguin dedan bacoitzaren contra. Zazpigarrena, cemba bider utseguin dedan, oroi-tu ecin banaiz, alic onguiena con-tu ateraco det, cer oitura gaizto izan dedan Mandamentu bacoit-zean, astean, edo illean cemba-

bider erortzen nintzan pensamendutuz , itzec , eta obraz guchi gorabera.

## *SEIGARREN ERACUSALDIA*

*Cer dan Confesio onac escatzen duan  
bigarren gauza , ta onec bear  
dituan doaiac.*

**G.** Confesio on bat eguiteco bear dan , bigarren gauza cein dá ? E. Dolorea , edo eguindaco utsegiteen damua. G. Cer doai , edo condicio escatzen ditu damu onee ? E. Lau doai , edo condicio. G. Cein dira ? E. Lenengoa , *Ceruticacoa* , edo sobrenaturala izatea. Bigarrena , barrendic , edo biotzetic jayoa izatea. Irugarrena , becatu larri , edo mortal gucietara zabaltzen dana. Laugarrena , calte , eta gaitz

gucien gañeticacoa izatea (a). G. Cer aditzen dezu *Ceruticaco damuaren* icenez? E. Aditzen det, damu au dala Espiritu Santuaren lagunza, eta graciarequin sortzen dana. Aditzen det gañera, damu au sortzen dala Fedeac eracusten duan damu bide, edo motivoren bategatik. G. Cer aditzen dezu *barrendic*, edo *biotzetic* jayotzen dan *damuaren* icenez? E. Aditeen det, ez dala asco aüaz esatea *damu det*, *Fauna*, ezeta bularrari golpe anadiac ematea-ere, baicic bear dala viotzetic eguiaz, eta venaz sortzen dan *damua*. G. Cer aditzen

(a) *Vide Fpistol 1. ad Corint. c. 12.*  
*2. ad Corin. c. 3. Trident. Ses. 6. cap.*  
*6. & Can 3. de Justific. Prop. 57.*  
*damnatum ab Inocent. XI. Joel. 2. Tri-*  
*dent. Ses. 14. cap. 4. Ezechiel. 18. Ca-*  
*techism Roman. Part. 2. cap. 5. n. 27. &*  
*31. Mattb. 10.*

dezu becatu larri gucietara zabaltzen dán damuarequin? E. Aditzen det, ez dala ascó becatu larri batzuen damua, baicic bear dala guciena. G. Cer aditzen dezu calte, eta gaitz gucien gañeticaco damuaren icenez. E. Alaco eran, eta añ viotzetic damutu bear zaiola becatariari, non naiago luquean beste edocein calte, eta gaitz guertatu balitzao ecen ez becatuan erortzea.

## ZAZPIGARREN ERACUSAL- DIA,

*Cemba t guisatara dan damu Ceruticacoa, edo sobrenaturala:  
Cer dan Atricioa.*

**G.** Cemba t guisatara da damu Ceruticacoa, edo sobrenaturala?

E. Bitara. G. Cein dira ? E. Bata da beldurrezcoa , ta berecoya , eta deritza *Atricioa* ; bestea onezcoa , eta deritza *Contricioa*. G. Cer da *Atricioa* ? E. Damu bat biotzean sortzen dana , lembicia , ceren gauza guciz itsusia dan , Ceruraco eguin , eta bere Semearen odol preciotsuaren costuz erosi guinduan , Jaunaren contra alchatzea , eta becatu eguitea (a). Bigarrena , ceren becatu larria eguitean , galdu degun Jaunaren gracia , eta Ceruraco escu , eta derecha gucia. Irugarrena , ceren becatu larri bacoitzarequin irabaci ditugun betico su , eta garrac , edo infernuco penac (b). Laugarrena , ceren Jau nac guganaco urriquimeniuz deitzen digun becatutic irteteco , eta esqueintzen digun gure esquergabequeria

(a) *Trident. Ses. 14. cap. 4 de Pœnit.*

(b) *Ibidem.*

gucien barcacioa , Jesusen Eriotza , eta merecimentuac bitartecodirala.

(c) G. Cergatic deitzen zaio *Atricioari beldurrezko damua?* E. Ceren sortu oi dan betico vicitza galtzeco , eta betico su , eta garretan erortzeco beldurrez. G. Cergatic deitu diozu *berecoya?* E. Ceren viotzae atriciozko damua sortzen duanean , bere on , eta eguitecoari bacarric begiratzen dion. G. aseο ote da atricioa Confesio ona eguiteco? E. Bera utsic ez da asco becatariari graciaren apaindura ederra emateco , baña prestatzen du au iristeko Confesioko Sacramentuarequín batean (*d*) ; eta onena da beiñ saiatzea Atriciora , ta guero onezko damu , edo Contriciora .

(c) Ses. 6. cap. 6. de *Justificat.*

(d) Ses. 14. cap. 4. de *Pœnit.*

**ZORTZIGARREN ERACUSAL-**  
**DIA.**

*Onerzco damu , edo Contricioaren  
 gañean.*

**G.** Cer da onezco damu , edo Contricioa ? E. Damu bat viotzean sortzen dana , ceren Ontasun , eta Maitagarritasun baztergabea dan Jaunaren contra becatu eguin degun. G. Cergatic damu oni deitu diozu *onezcoa* ? E. Ceren damu au sortzeco vidca dan , ez beldurra , baicic Jaunaren Ontasun , eta Maitagarritasun bazterric , eta neurriric ez duana. G. Atricioa , edo contricioa da obea? E. biac dira onac , baña ascoz pres-tuagoa , ta obea da onezco damua , edo Contricioa. G. Cergatic? E. Ceren , len esan dan bezala , Atricioa bera utsic ez dan asco becatariari

graciaren apaindura ederra emateco; baña Contricioa da damu añindartsua, aña miragarri, ta prestua, non biotzean sortzen dan une, edo puntuau bertan ayenatzen dituan becatu larri guciac, eguzquiac gaüaren illuntasunac ayenatcen dituan eran.

G. Beraz onezco damu, edo Contricioarequin confesatzeco prestatzen bada bat, eta Elizara dijoala bidean iltzen bada Confesiogabe, Cerrura joango da? E. Bai, Jauna, ceren Jaunaren gracian ilco dan. G. Eta beldurrezco damu, edo Atricioarequin prestatzen dana confesatzeco, Elizaraco bidean iltzen bada Confesiogabe, nora joango da? E. Infernura, ceren becatuan ilco dan.

*Eracusleac*: Ongui diozu; orregatic sarritan, eta biotz osoz eguin bear lituque Cristavac Fede, Esperanza, Caridade, ta Contriciozco afectoac, eta oec eguiteco valia diteque, Do-

trinaco liburuchoac dacarren , goiceco jayeraz.

## BEDERATZIGARREN ERA- CUSALDIA

*Cer dan Confesio onac escatzen duan  
birugarren gauza.*

**G.** Confesio on bat eguiteco beat dan , irugarren gauza cein da ? E. Ontzeco , edo aurrera becaturie ez eguiteco asmoa (*a*). G. Nolaco asmoa ote da asmo au ? E. Lembicia , asmo oso , eta sendoa . Bigarrena , becatu gucietara , larrietara beintzat , zabaltzen dana. Hirugarrena , asmo eraguillea . G. Cer aditzen dezu diozunean : asmo oso , eta sendoa ? E. Aditzen det asmo biotz gucitic jayoa , eta alaco sasoian ipintzen dua-

(a) *Concilium Trident. Ses. 14 cap. 4 de Pœnit.*

na becataria , non prest jartzen dan  
 ecergatic-ere aurrera becaturic ez  
 eguiteco , ez eta vicitzagatic , edo  
 eriotzagatic ere. G. Cer aditzen de-  
 zu diozunean : *becatu gucietara ,*  
*larrietara beintzat , zabalzen dana?*  
 E. Aditzen det , Confesio ona egui-  
 teco ez dala asco becatu au , edo  
 ura ez eguiteco asinoa , baicic bear  
 dala becatu , larriric beintzat , ba-  
 tere beiñere ez eguitecoa. G. Asco  
 ote da becatu larriric beiñere ez  
 eguiteco asmoa , becatu venialic bai-  
 cic eguiñ ez duana , confesatzen  
 danean ? E. Ez , Jauna. G. Cereguin  
 bear du bada onelaco becatariac , Con-  
 fesioco Sacramentuaren ondasunac  
 ez galtzeco ? E. Artu bear du asmo  
 osoa becatu larriric ez eguiteco , bei-  
 ñere , ezeta Confesatu dituan , ve-  
 nialac ere , batez ere au , edo ura.  
 Orregatic onena da guchitan eguin-  
 daco becatu venial andiscoteren bat

aitortzea , larriric ez danean. G. Cergatic hori ? E. Ceren errazago sortzen dan guchitan eguin oi dan becatuan ez erortzeco asmoa. G. Cer aditzen dezu diozunean : *asmo era-guillea* ? E. Aditzen det asmo bat , becataria esnatzen , eta azcartzen duana , aurrrera becaturic ez egui-teco neurri egoquiac artzera.

## *AMARGARREN ERACUSAL-*

*DIA.*

*Asmo eraguilleac escatzen dituan  
neurri egoquien gañean.*

**E**racusleac. Esan dezu, asmo *era-guillea* dala asmo bat , becataria esnatzen , eta azcarzen duana, aurrrera becaturie ez eguiteco neurri egoquiac artzera. Ezadazu orain.

G. Cer neurri dira oec ? E. Bearrenac sei. G. Cein dira ? E. Lenen-

goa becaturaco vide , eta perill ur-  
coac beti-betico utzitzea. Bigarrena ,  
utzitza era berean , besteri beca-  
turaco videa ematen dioen , izque-  
ta , eta modu gaizto guciac. Hiru-  
garrena , lagun urcoari bere hon-  
ran , icen onean , edo beste ondasu-  
netan eguindaco calteac deseguitea ,  
eta gauza bere jabeari biurtzea lem-  
baitlen. Laugarrena , becaturen ba-  
tean erorzeco oitura izan bada , au  
escuratzeco , eta ecitzeco venaz sa-  
yatzea: Eta argalasunez irristatzea  
guertatzen bada , lembaitlen alchát-  
zeco aleguiña eguitea Sacramentuen  
sendagaiac artuaz. Bostgarrena , ba-  
coitzaren estadu , vicimodu , eta car-  
guari dagozcan , eguinvideai arre-  
taz erantzutea. Seigarrena , ezagut-  
zea ez guerala gauza , edo gai gue-  
renez , eta Jaunaren gracia , ta la-  
gunzagabe neurri oec artzeco , eze-  
ta *Jesus bat esateco ere :* eta gra-

cia hau contuz billatzea , dala Jaun berari umilqui escatuaz , eta sarritan Sacramentuac artuaz , dala Virgiña chit santa becatarien Ama gozoa Bitarteko ipiñiaz. G. Confesatzena datocen guciac ote dacarte esan dezun bezalako asmoa ? E. Ez Jau na ; omen dira alabaña becatari asco asmoaren iduri utsarequin datocenac.

### *AMAIAGARREN ERACUS-* *ALDIA.*

*Ontzeco asmo-iduri utsarequin confe-*  
*satu oi diran becatarien*  
*gañean.*

**G.** Nor , edo ceiñ ote dira ontzeco asmo eguiazco gabe , edo asmo-iduri utsarequin confesatzen diranac ? E. Asco vide dira , baña ezagutuenac hoec . Lembicia , Dotrina , eta ongui

confesatzeco prestaera icasteco arretaric artu nai ez duenac. Bigarrena , becaturaco bide , ta perill urcoac uzteco viotzic ez duenac. Hirugarrena , besteri becaturaco bidea ematen dioen , hitz loi , eta modu gaiztoac laja nai ez dituenac. Laugarrena, lagun urcoari onran, icen onean , edo beste ondasunetan eguindaco calteac deseguiteco , edo jabeari bere gauza biurtzeco arretaric ez due-  
nac. Bostgarrena , becaturaco oituarac garaitzera venaz sayatu nai ez duenac. Seigarrena , bere estadu , vicimodu, eta carguaren eguinbideaz arduraric gabe vici diranac. Zazpi-  
garrena , lagun urcoaganaco gorrotoa , edo gorrotoaren siñaleac utzi nai ez dituenac.



*AMABIGARREN ERACUSAL-*  
*DIA.*

*Cer dan, Confesio onac escatzen duan,  
laugarren gauza.*

**G.** Confesio on bat eguiteco bear  
dan laugarren gauza cein da ? E.  
confesioa. G. Cer aditzen dezu con-  
fesioaren icenez ? E. Aditzen det  
eguindaco becatuac aitorzea , edo  
esatea barcatzeco escua duan Apai-  
zari. G. Aitorru , edo confesatu bear  
ote dira becatu venialac-ere ? E.  
Ona da , baña ez da premiazco gau-  
za ; eta nola confesatu ditequean be-  
catu venialac baicic ez duana , esan  
dá bederatzigarren Eracusaldian. G.  
Cer doai , edo condicio bear ditu  
Confesioac ? E. Hirutara biur ditez-  
que guciac. G. Cein dira ? E. Umi-

*lla eguzkia, eta osoa izatea.* G. Cerda confesio *umilla* ? E. Umiltasun, eta lotsa eder batequin becatuac aitortzea. G. Cerda confesio *eguzkia* ? E. Aitortza becatuac exâminan arquitu diran eran, eta adiña. G. Cerda confesio osoa ? E. Becatu larri confesatugabeac osotoro aitortza. G. confesatugabe utzitzen badezu becatu larriren bat, ceren exâminan gogora etzatzuh, edo ceren gue-ro aztu zatzun, gaiztoa izango ote da zure Confesioa ? E. Ez, Jauna, hori nere culpaz guertatzen ezpada, baña gueratuco naiz aziutaco becatu hura guero confesatu bearrean. G. Lotsaz, edo gaiztaqucriaz becatu larriac edertzen, edo isilic gor-detzen badira Confesioan, cer becatu eguiten da ? E. *Sacrilegioa* deritzan becatu izugarri bat. G. Cer eguin bear du onelaco becatariac ? E. Berritu bear ditu gaizqui

confesatzen asi zanetic eguindaco Confesio guciac. G. Beraz confesatugabe utzi zuan becatua ezecic , confesatuac ere berriro aitortu ,edo esan bearco ditu? E. bai Jauna, ceren Confesio onarequin bacarric quenzen , eta bucatzen dan becatu larrien confesatu bearra. G. Eta confesatu gabe utzi cituan becatuac aitorzeaz gañera , esan bearco ote du , nola lotsaz ,edo gaiptaqueriaz utzi cituan ? E. Bai , Jauna , ceren onetan dagoan Sacrilegioa deritzan becatua orain diogun trancean. *Eracus leac.* Ongui diozu : eta confesio gaiztoac berritzeco nola eguin ditequean examina , esan zan bostgarren *Eracus aldian.*



*AMAIRUGARREN ERACUS-  
ALDIA.*

*Cer dan Confesio onac escatzen duan  
bostgarren gauza.*

**G.** Confesio on bat eguiteco bear dan, bostgatren gauza cein da? E. Satisfaccioa. G. Cer aditzen dezu Satisfaccioaren icenez? E. Confesoreac emandaco penitencia leyalqui eguitea. G. Confesoreac ematen dion penitencia eguiteco asmo gabe confesateen danac cer becatu eguiten du? E. Becatu larria. G. Emandaco penitencia autsitzentz, edo eguingabe uzten duanac cer becatu eguiten du? E. Ausitzen badu penitencia larria, eta aintzaczotzat emana, becatua izango da larria; baña ausitzen duan penitencia chiquia bada, chiquia, edo veniala izango dá alde onetatic

eguiten dan becatua ere. G. Confesoreac aguintzen dizun penitencia , ecin ongi egui dezakezuna bada, cer eguingo dezu ? E. Umilqui esca- tuco , edo erregutuco diot, alda de- guidala beste penitencia batera , al- da baditeque. G. Confesoreac ema- ten diezten penitenciaz gafiera cer eguiñ oi due Cristau onac ? E. Ont- zat , edo Jaunaren icenean artzen ditue emengo gurutze , ta saminta- sunac ; esqueintzen diozquee Jaun berari beren obra guciac , eta egui- ten due aleguiña Indulgenciac , edo barcacioac irabazteco.

## *AMALAU GARREN ERACUS- ALDIA.*

*Cristau gucioc Confesatzeko degun  
eguinbidearen gañean.*

**G.** Cristau guciac beartuac ote

daude coufesatzera ? E. Bai , Jauna, gaitzarequin-onaren ezagüeran sartu ezquiero. (a) G. Urtean cembat bider ? E. Urtean beiñ bederic. G. Urtearen cer demboraz eguin bear du Cristauac, Eliz Ama Santac aguinentzen duan, Confesio hau ? E. Ez du Elizac señalatu dembora hau , baña Iruñeco Apaiz Nagusiaren mendeko errietañ ala leguez , nola usanzaz garizuman eguiñ oi da. (b) Urtean beiñ ezecie beste cembait aldiz-ere confesatzera beartua ez ote dago Cristaua ? E. Bai, Jauna. Lembicia, hilzecho perillean dagoanean. Bigarrrena , Comulgatu bear badu , eta becatuan arquitzen bada. Hirugarrena , sarritan, edo noicean beiñ confesatugabe ecin becatuaren berriz-

(a) *Concilium Lateranen. IV. Canon. 21.*

(b) *Vide Constit. Synod bujus Diæces. Lib. 5. tit. de Pœnit. & remis. Cap. 1*

caturac utzi baditu. (c) G. Urtean beiñ bederic Confesatzeco aguinte hau, gordetzen ez duenai eer castigu siñalatzen die Eliz Ama Santae? E. Aguintzen du, vicitzan ez daquiela utzi Elizan sartzen, eta hiltzen diranean, ucatu daquiela Elizlurra (d).

## *AMABOSTGARREN ERACUS- ALDIA.*

*Confesatzeco prestatzen ceranean,  
acusatzen asi baño len eguin bear  
dezuna.*

**G.** Confesatza era zoacenean, nola jarrico cera? E. Jarrico naiz belau-nico umiltasun andiarequin, eta ci-

---

(c) *Vide T. T.* (d) *Concilium Lateran.*  
*ubi sup.*

ñatuco naiz (a) G. Beraz jancian , ta egoeran umiltasun , eta modestia andi bat aguertu bear dezu ? E. Bai , Jauna ; orregatic guizonac ez due jarri bear ezpatarequin , ez eta emacumeac ere soñeco arroaquin (b) G. Ongui da besteri bere chanda quendu naiez ibiltzea ? E. Ez , Jauna , eta beragatic icedon bear dio bacoitzac bere chanda , edo aldiari. *Eracusleac* : ongi diozu , baña zarrai , eta ericho daudenai lecu eguita , lembaitlen Confesa ditecen , ederqui dirudian gauza da. G. Besteren becatua aditzen badezu , hura Confesioa eguiten ari dala , esan ote dezaguezu lagun artean ? E. Ez , Jauna , baieic isílic iduqui bear det , Confesoreac iduqui bear duan eran. G. Ongui dá jaquin naiez , Confesio-

(a) *Rituale Roman.*

(b) *S. Carolus Borromæus , Calatayud.*

co gauzac aditzeko moduan , jart-  
zea ? E. Ez , Jauna , ta ongi izan  
ordean da becatu andi bat. G. Acu-  
satzen asi baño len cer esango dezu ?  
E. *Ni becataria* , edo gucia anciña-  
tic Espanan esaten dan bezala , (c)  
edo beintzat erdiraño ; (d) edo *Ni  
becatariaren lecuan esango det Nere  
Jesu-Cristo Jauna.* (e) G. Acu-  
satzen asitzeko aurrean ongi da  
egun onac Confesoreari ematea ? E.  
Ez Jauna ; absolucion artu artean ez  
da hitzeguin bear Confesioari dagoz-  
can gauzac baicic. G. Asieran esan  
badezu *Ni becataria erdiraño* , edo  
hitz betaraño : *Nere culpaz, nere  
culpaz, nere culpa cbit andiaz, gañea-  
raeoa noiz esango dezu ?* E. Absolu-  
cioaren aurretic.

(c) *Rituale Rom. & Manualia Hispana.* (d) *S. Carolus Borromaeus.* (e) *Catalayud in Catecismo.*

*AMASEI GARREN ERACUS-  
ALDIA.*

*Acusatzen , edo cere burua salatzen  
asitzen ceranean , nola hau ongi  
eguingo dezun.*

**G.** Acusatzen asi baño len esan , eta eguiñ bear dezuna aditu degu : esazu orain nola acusatuco ceras ? E. Umlqui , eguiaz , eta osotoro aitortzen dituala nere utseguite , ta becatuac , eta hau eracusten da hirugarren partean. G. Aditu det , acusatzeko demboran contuz utzi bear dirala Confesioeo Sacramentuari ongi ez dagozean hitzac : cein dira oee ? E. Lembicia , hitz , eta hipui alferrac. Bigarrena , hitz loyac. Hirugarrena , besteren icen ona , edo fama guchitzen eta beztutzen dueñac. G. Cer hitz dira alferren ice-

na eman diezun horiec? E. Hitz al-ferrac dira esatea: *Acusatcen naiz nere Fangoicoa bear bezala ez amatuaz; acusatzen naiz eriotza-co orduan etsaiac acusatuco nauan guciaz*; al-ferrac dira becatua esa-teco nastutzen diran hipui, edo con-tuac, baldin luzagatxi oecgabe adi-traci baditeque eguindaco utseguitea.

(a) G. Cer hitz dira loien, edo ci-quiñen icena eman diezunac? E. Hitz loiac, edo ciquiñac dira araguien icenac; eta beragatic seigarren Man-damentuaren contraco becatuac ai-tortu bear dira al dan onestidade guciarequin, becatua ezagutzeco di-ña baicic esaten ez dala. G. Cer hitz dira besteren icen ona, edo fama guchitzen, eta beztutzen duenac? E. Onelacoac izan ditezque, baldin be-

---

(a) *Vide S. Franciscum Salesium in sua Introductione ad vitam devotam.*

catariac, acusatzen danean, icendatzan badu becatuan lagun izan duana, edo Senarrac Emaztearen, eta Emazteac Senarraren becatuac contatzen baditu. (b)

---

(b) *Si pænitens nequeat peccatum suum integré confiteri, quin Confesarius suus veniat in cognitionem socij, seu complicis in peccato, ut sæpe contingere potest conjugatis, disputant T. T. an teneatur adire Confesarium, cui ignotus sit complex? Affirmant Suarezius, Lugo, Antoine, & alij; sed id pro mero consilio habent Tournelius, & alij cum Gersonie. Vide Ligarium, & Autorem additionum ad Antoine.*



\* \* \* \* \*

## BIGARREN PARTEA

**COMUNIOCO SACRAMENTUARI**  
dagozcan , Eracusaldiac.

### **LENENGO ERACUSALDIA**

*Cer dan Comunioco , edo Aldareco  
Sacramentua.*

**E**racusleac. Icasi dituzu confesio-  
co Sacramentuari dagozcan , gau-  
zac. Asi gaitecen comunioco , edo  
Aldareco Sacramentuari dagozquio-  
nac uquitzen. Esazu.

G. Eliz Ama Santaren Sacra-  
men-  
tuen artean laugarrena cein dá ? E.  
Comunioco , edo Aldareco Sacra-  
mentua. G. Cer dá Alderaco Sacra-

mentua ? E. Dá , oguiaren , eta ardoaren anz , eta idurien azpian Jesu Cristo bera Jainco , ta guizon eguiazcoa berequin duncan , Sacramentu guciz miragarria. G. Cergatic deitzen zayo *Comunioa* , edo *Communion* *Sacramentua* ? E. Ceren Cristau fededun gucien animaco janaria , ta edaria dan , ta ala andiac , nola chiquiac , ala aberatsac , nola bearsuac berdin duen janari , ta edari hau artzeco escua , Ceren gañera janari hau ongui artzen duenac bat eguiten diran Jesu-Cristorequin , eta elcarrequin (a). G. Cergatic deitzen zaio *Aldareco Sacramentua* ? E. Ceren Aldarean eguiten esqueintzen , eta artzen dan (b). G. Cergatic iceindatzen da *miragarria* , eta ascoian : *guciz miragarria* ? E. Ceren mi-

---

(a) *Vide S. Paulum i ad Corint. cap. 30.* (b) *A& Hebr. c. 13.*

rari gucien artean andiena , gucien oroipena , eta gucien miragarritasuna berequin duana dan (c).

## *BIGARREN ERACUS ALDIA.*

*Comunioco Sacramentuari eman oitzaizcan, beste cembait icenen gañean.*

**G.** Esan dituzunaz gañera Communioco Sacramentuac ote du beste iconic? E. Bai , Jauna , ta ez bat bacarra. G. Cein dira oec? E. *Eucaristia Jaunaren afaria , Aingueruen ogua , viderako janari , ta edaria , edo Viaticoa , eta guciz Santua .* G. Cergatic deitzen zaio *Eucaristia*? E. Lembicia , ceren Eucaris-

---

(c) *Vide. D. Thom. in festo de Corpore Christi , psalm. 110. & Concilium. Trident. Ses. 13. cap. 2. de Eucbaristia.*

tiac esan nai duan *gracia ona*, eta Comunioco Sacramentuan dagoan gracia ona ezecic, gracia guciaren iturburua, eta Emallea. Bigarrena, ceren Eucaristiaren icenac esan nai duan gañera *esquerrac ematea*, eta Comunioco Sacramentua esquintzea da esquerriac andienac ematea. (a) G. Cergatic deitzen zaio *Jaunaren afaria?* E. Ceren, azqueneco afarian, eta afal ondoan Jesusec egun cituan, gauza miragarrien oroipena dan. (b) G. Cer-gatic deitzen zayo *Ainguueruen Oguia?* E. Ceren Jesu-Cristo dan Ainguueruen atseguin-contentua; eta Jesu-Cristo bera Comunioco Sacramentuan jartzen dan gure animen janari, ta edari izateco. (c) G. Cergatic deitzen zayo vi-

---

(a) *Vide Catechismum. Rom Part 2. cap. 4.* (b) *S. Paul. 1. ad Corint. cap 11. hymn. Sacris Solemnijis.* (c) *Hym. Sacris Sciem. & S. Joan. c. 6.*

*deraco janari , ta edaria , edo Viaticoa ? E. Ceren Ceruraco videan ongi ibiltzeco, eta betico vicitza doatsua iristeco janaria , ta edaria dan* (d) *G. Beraz noiz nai ar-dezazula Comunioco Sacramentua , beti artzen dezu videraco janaria , ta edaria , edo Viaticoa ? E. Bai Jauna. G. Nola bada hiltzeco dagoanari emanen zaionean bacarric deitzen zaio Viaticoa ? E. Ceren Cristauac beti baña batezere hiltzeco dagoanean , artzen duan betico vicitzaren videa. G. Cergatik icendatzen da Guciz Santua ? E. Ceren Sacramentuen artean Comuniocoa bacarric dan Santutasun guciaren Iturburua , eta emailea bera (e) beregan daucana.*

(d) *Joan. c. 6. (e) Trident. Ses. 13. cap. 3. & 5. de Eucharistia.*

## HIRUGARREN ERACUSAL- DIA.

*Norc, eta noiz utci cion Eliz Ama  
Santari Comunioco Sacra-  
mentua.*

**G.** Norc utzi cjon Eliz Ama Santari Comunioco Sacramentu miragarria? E. Jesu-Cristoc berac. G. Noiz? E. Ostegun Santu arratsean. **G.** Esazu nola guertatu zan Mysterio izugarri hau? E. Ostegun Santu arratsean, bucaturic Legue zarrac aguintzen zuan afaria, alcha zan mayetic Jesus: artu zuan guerrian escuzapi bat, eta pertzean ura (*a*). Garbitu ciezten Apostoluai oñac, eta biurtu zan mayera. (*b*) Artu zuan oguia, Eta Consagracioco hitzac esanic, eman cien Apostoluai (*c*).

---

(*a*) *Joan.* 13. (*b*) *Ibidem.* (*c*) *Marc.* 14.  
*& Luc.* 22.

Artu zuan Calizaere ardoarequin, eta Consagracioco hitzac esanic, eman cien Apostulu berai (*d*). Hau eguiñ ondoan esan cien: Nic orain zuequin egun dedana, eguihue zuec ere guerò, Nere, eta gaur arratsean eguiñ, ta bigar eguingo ditudan, gaucen oroipena berritzen dezuela (*e*). G. Beraz arrats onetan eman cien Je-su-Cristoc Comunioco Sacramentua eguiteco escua Apostoluai, eta oetatic datocen Apaiz guciai? E. Bai, Jauna; aguindu cien alabafia egun ceceela berác arrats artan egun zuana (*f*) G. Noiz eguiten dú Apaizac Sacramentu miragarri hau? E. Mezan Consagracioco hitzac ostiaren, ta ardoaren gafiean esatean.

(*d*) *Ibidem.* (*e*) *Luc. 22. &c. 1. ad Corint. c. 11.*

(*f*) *Vide Trident. Ses. 22. Can. 2. de Sacrificio Misæ.*

**LAUGARREN ERACUSAL-**  
**DIA.**

*Cer dagoan ostian Consagracioco hitzac Apaizac esan ditzan artean , eta esan ezquiero.*

**G.** Ostian cer dago ? E. Consagracioco hitzac Apaizac esan ditzan artean ogui pisca bat , eta esan ezquiero Jesu-Cristoren gorputza. (a) G. Jesu-Cristoren gorputza bacarri ote dago ostia Consagratuan ? E. Ez , Jauna , baicic Jesu-Cristo Jainco , ta guizon eguiatzco gucia. (b) G. Beraz Ostia-Consagratuan Jesu-Cristoren gorputzarequin batean arquitzen dira beraren odola , anima , ta Jaincotasuna ? E. Bai , Jauna. G. Nola hori ? E. Ceren Consagracio-  
 co hitzen indarrez jartzen dan os-

---

(a) Trident. Ses. 13. cap. 3. de Eucaristia. (b) Ibidem.

tian Jesu-Cristoren gorputza viceric,  
 eta gorputz viciari dicheozcanac di-  
 ran odola, eta anima. Ceren gañera  
 Jesu-Cristoren Jaincotasuna guizon  
 eguiñzanetic bat eguiña, edo unitua  
 dagoan beraren gorputz, eta anima-  
 requin. (c)

## BOSTGARREN ERACUS AL- DIA.

*Cer dagoan Calizan, Consagracioco  
 hitzac Apaizac esan ditzan ar-  
 tean, eta esan ezquiero.*

G. Calizan cer dago? E. Consa-  
 gracioco hitzac Apaizac esan ditzan  
 artean ardo, ta ur pisca bat. (a) eta  
 esan ezquiero Jesu Cristoren Odola.

(c) *Ibidem.*

(a) *Concil. Florent. in instructione Ar-  
 meniorum: Trident. Ses. 22. cap. 7. de  
 Sacrif. Missæ.*

(b) G. Jesu-Cristoren odola bacarric ote dago Calizan , Consagracioa ez quero ? E. Ez , baicic Jesu-Cristo Jainco , eta guizon eguiazco gucia. G. Beraz Calizan Jesu Cristoren odo-Jarequin batean arquitzen dira beraren gorputza , anima , eta Jaincotasuna? E. Bai , Jauna. G. Beraz Je-su-Cristo gucia dago ostia Consagratu , eta gucia Calizan? E. Bai , Jauna , baña ostian oguiaren , eta Calizan ardoaren antz , ta idurien azpian. G. Ostia Consagratu utsarequin comulgatzen danac , artzen ote du ostia , ta ardo Consagrata artzen dituanac adiña ? E. Bai , Jauna ; arzen du ala baña , ala batac , nola besteac , Jesu-Cristo Jainco , eta guizon eguiazco gucia (c). G. Cergatic

(b) *Trident Ses. 13. cap. 3. de Eucaristia : Ses. 21. cap. 3. de Communiione.*

(c) *Ses. 13.c. 3. & Ses. 21 c. 3. citatis.*

cristau guciac ez dira comulgatzen ostia , ta ardo consagratuarequin , Apaizac bezala ? E. Enzun det , asco lecutan onela comulgatzen cirala cristau guciac anciñaco demboran ; baña quendu zuala Eliz Ama Santac usanza hau, ceren guertatzen zan Jēsu-Cristoren odola comunioco demboran isurtzea , eta gañera , ceren premiazco gauza ez dan era onetan cristau guciac Comulgatzea (d).

## *SEIGARREN ERACUSALDIA.*

*Comunioco Sacramentuan jartzean ,  
eta jarri ezquero Jesu-Cristoc  
eguiten dituan , gauza mi-  
ragarriac.*

**E**racusleac. Esan dezu len Comu-

---

(d) *Vide Cabasutium in sua Notitia Eccl. Sac. 2. Dissert. 5. & Berlendis : Concil. Constantien. Ses. 13 Trident. Ses. 21. cap. 2. & can. 1. & 2.*

nioco Sacramentuari deitzen zaiola guciz *miragarria*, ceren mirari gucien artean andiena, gucien oroipena, eta gucien miragarritasuna berquin duana dan. Esazu."

G. Cer gauza miragarri eguiten ditu Jesu-Cristoc Comunioco Sacramentuan jartzean, eta jarri ezquero? E. Ascó, eta oen artean zorzi chit arrigarriac. G. Cein dira? E. Lenengoa, Consagracioco hitzac esaten diran une, edo puntuau bertan jartcea Sacramentuan Jesus Jainco, eta guizon eguiazcoa, naiz izan Apaiza ona, naiz ez, naiz Católico, naiz heregea. (a) Bigarrena, ecín conta al adiña Elizetan egun oro jartzea, eta egotea Jesu-Cristo, Ceruco bere jarlecua utzi-gabe. (b) Hirugarrena,

(a) Trident. Ses. 7. Canon. 12. *De Sacrament. in genere.* (b, Tridentin. Ses. 13. cap. 1. & Can. 1.

Consagracioco itzac esatean bertan biurzea len ogui zana Jesu-Cristoren gorpuz, eta len ardo zana Jesu-Cristoren odol. (c) Laugarrena, Consagracioco hitzac esan ondoan oguiric, eta ardoric batere Sacramentuan ez gueratzea, baña bai ogui ardoen antza, ta iduriac, nola diran usaia, colorea, gustoa, ta indarra. (d) Bostgarrena, oguiaren, eta ardoaren antz, eta iduri oec artzen dituanari ematea oguiac, eta ardoac adiña indar. Seigarrena, ostia batec duan becin toqui chiquian jartzea, eta egotea Jesu-Cristo Jainco, ta guizon eguiazcoa. (e) Zazpigarrena, ostia erdiratzen, edo puzcatzen danean ez puscatzea Jesu-Cristoren

(c) Trident. Ses. 13. cap. 4. de *Eucaristia* (d) Trident. *ibidem*. & canon. 2. (e) Ses. 13. de *Eucaristia Canon.* 13.

gorputza, eta puscatu ordean oso-  
ric arquitza ostiaren pascaric chi-  
quienean ere. (f) Zortzigarrena,  
Viciric, eta Ceruan dituan doai,  
eta edertasun guciarequin jartzen ba-  
daere, hillaren eran egotea Sacra-  
mentuan. (g) G. Nola guerta ditez-  
que gauz aiñ miragarriac? E. Jain-  
coac nai izate utsarequin, ceren dan  
Gucialduna, edo Omnipotentea. G.  
Sacramentua aguertzen, edo sagar-  
raco demboran goratzen duenean,  
cer ecusten dezu? E. Ez oguiric,  
ceren ez dagoan; ez Jesu-Cristo,  
ceren excutatua dagoan, baicic  
oguiaren antza, ta iduria.

---

(f) *Vide Missam de festo Corporis Christi.* (g) *Vide Trident. Ses. 13. cap. 3. & Joan. in Apocal. cap. 5.*

## ZAZPIGAREN ERACUSAL-

DIA.

*Comunioco Sacramentuac dacartzian ondasunac.*

**G.** Cer ondasun ote dacartzī **Co-**  
**munioco Sacramentuac?** E. Chit an-  
di , ta miragarriac , eta ascò. G.  
Esaitzu andienac bederic ? E. Lenen-  
goa , animaco janaria , eta edaria  
dan bezala , animari graciaren vi-  
cרצה ugaritza (a). Bigarrena , ongi  
prestaturic artzen duanari becatu  
venialac barcatza (b) Hirugarrena ,  
becatu larrian ez erortzeco senda-  
gai chit andia izatea (c). Laugarre-  
na , animaren etsaiac garaitzeco Ce-

(a) *Joan. c. 6. Concilium Trident. Ses. 13. cap. 2. de Eucaristia.* (b) *Concil. Tri- dent. ibidem.* (c) *Trident. ibidem.*

ruco indarrac ematea (*d*). Bostgarrena, becatuac animan utzi oi dituan, zauriac, nola diran oneraco gogoaren gabea, eta gaitzeraco mazertasuna, sendatzea (*e*). Seigarrena, becaturaco oiturac, eta erraztasunac deseguitea, eta virtuteac iristen laguntzea (*f*). Zazpigarrena, prestaera ederrarequin artzen duanaren viotzean isurtzea, ascolan beintzat, bere gozotasun miragarriac; animaco paquea, eta atseguin-contenu garbiac (*g*). Zortzigarrena, berico vicitza doatsuaren prendatzat gure biotzean gueratzea. (*b*).

---

(*d*) *S. Cyrillus Alexandrinus.* (*e*) *Idem.*  
 (*f*) *Idem.* (*g*) *S. Thomás opusc. 57. de Sacram. Altaris.* (*b*) *Trident. Ses. 13. cap. 2. de Eucaristia: Ecclesia. in Antiphona: O sacrum. convivium.*

**ZORTZIGARRN ERACUSAL-**

**DIA.** *San Iñaki oso simea  
erantzera egin zion, eta horrela zortzecoz  
Ceiñ becatu izugarria dán Comunio  
gaiztoa, eta cér bear dan beca-  
tu onetan ez erortzeco.*

**E**san dituzu Comunioco Sacra-  
mentuac dacartzian , ondasun mira-  
garriac : esanguidazu : G. Guciac  
atzen ditue , comulgatzen diranean ,  
ondasun oec ? E. Ez , Jauna , ceren  
asco diran Comunio gaiztoac egui-  
ten dituenac . G. Cer becatu dá Co-  
munio gaiztoa ? E. Sacrilegio guciz  
izugarria . G. Cergatic hori ? E. Ce-  
ren Judasen eran saltzen duan Jesus  
Jainco viciaren Semea , eta beregan  
danez berriro ipintzen duan gurut-  
zeo neque-oñaceen artean ; orrega-  
tic jaten , eta edaten du , S. Pau-

loc dionez , bere betico gale-  
rá. (a) G. Comunio gaiztoa ez  
eguiteco cer bear dá ? E. Hiru gau-  
za ; lenengoa cer , eta nolaco pres-  
taerarequin artu bear dan jaquitea.  
Bigarrena , Jaunaren gracian ego-  
tea. Hirugarrena , barau *naturalean* ,  
edo gau erdia ezquiero ecer-ere jan ,  
eta edangabe egotea. (b) G. Onezco  
damu ,edo Contriciorequin Jauna-  
ren gracian jartzen bada becataria ,  
comulgatu ote diteque ? E. Confe-  
sio gabe ez , Jauna. G. Hiltzeeco pe-  
rillean Sacramentu hau artzen dua-  
nac Viaticoaren eran , artu ote de-  
zaque barauric egon ez arren ? E.  
Bai , Jauna. G. Esan dituzun hiru  
gauz oec ascó ote dira Comunioco  
Sacramentuaren ondasunac arceco ?  
E. Ascó dira , guizoh jaquintsuen

---

(a) I. ad Corint. cap 11. (b) Vide Ri-  
tuale Rom & Catechism Benedicti XIII.  
de puerorum Confess. & Commun.

iritzian , Sacramentuaren ondasunetatic cerbait artzeco , baña ez ugari artzeco. (c).

## BEDERATCIGARREN ERA-CUSALDIA.

*Cer bear dan , Comunioco Sacramentuaren ondasunac artzeco naroro edo ugari.*

**E**racusleac. Aditu degu , Comunio gaiztoa ez eguiteco bear dirala hiru gauza , eta dira nolaco prestaerarequin artu bear dan jaquitea , barau naturalean , eta Jaunaren gra-

(c) *Idem Catechismus. Vide T. T. quorum. Communior, & valde recepta Sententia tenet, ad augmentum gratiae Sanificantis percipiendum in Comunione sufficere tria illa, quae supra referuntur.*

cian egotea. Aditu degu gañera , hiru gauz oec ascó dirala , Comunioco Sacramentuaren ondasunetatic cerbait artzeco , guizon jaquintsuen iritzian, baña ez ugari artzeco. Esan guirazu orain.”

G. Comunioco Sacramentuaren ondasunac ugari artzeco cer gueiago bear da ? E. Bost gauza. G. Ceiñ dira ? E. Lenengoa da , garbitzea anima , becatu larrien loietatic ezecic , venialen gogoetatic ere bai , ta onetaraco lagunduko du ongui confesszeco hirugarren Partean ipiñico dan prestaerac. G. Cergatic garbitu bear da anima becatu venialen go-goetatic ? E. Ceren ala aditzera eman cigun Jesu-Cristoc , Apostoluai oñac garbitzean (*a*) ; eta gañera ceren becatu venialac , ezagüiera osoarequin , eta arduragabe eguiten badira ,

---

(*a*) *Ioan.* 13 : *Vide Tirinum.*

galt-zen diran Sacramentu onen ondasunetatic ascó. G. Cein da bigarrena ? E. Anima ederqui apaintzea Fede , Esperanza , Caridade , eta beste virtuteen afecto aquin , eta onetaraco lagundu dezaque hirugarren partean dagoan Comunio aurreco prestaerac. G. Cein da hirugarrena ? E. Asmo , edo intencio garbia. G. Cer aditzen dezu asmo , edo intencio garbiaren icenez ? E. Aditzen det , Comunioco Sacramentua artu bear degula , ez borchaz , edo vorondategabe ; ez besteac eguiten dueña eguiteagatic ; ez oitura utsez , bai-cic vicitz onean , eta 'Jesu-Cristoren amorioan aurreratzeagatic , eta beste onén anceco fiñen bategatic. G. Cein dá laugarrena ? E. Jancian modestia. G. Eta onela dijoaz arrotasun andiarequin janciric , eta bearbada bularrac estaligabe Comunioco mayean jarizen diranac ? E. Ez Jauna ?

ta orregatic ucatu bear zate Sacramentua (b). G. Cein da bostgarrena ? E. Beldur Santu , ta errespeto andi bat eracustea egoeran , beguiratzean , eta modu guztietan *Noren mayean jarri , eta Nor artu bear dan beguiraturic.*

## *AMARGARREN ERACUSAL-* *DIA.*

*Comunioco demboran , eta ondoren  
eguin bear dana.*

**G.** Cer eguin bear da Comunio-  
co demboran , eta ondoren ? E. Le-  
nengo gauza da umiltasun andi ba-  
tequin , eta belaunico jartzea , ez Al-

(b). *Vide Rituale Rom. S. Carolum in suis Institutionibus ad Confesarios , & Benedictum XIV. Lib. II. Cap. 12. de Sy-  
nodo Diæcesana.*

dare-aurreco lenengo mallan (*a*), baicic Comunioco lecuan: eta guizonezcoac jarri bear due alde batean, emacumezcoac bestean (*b*). Bigarrena, egon bear da zucen, baña beguiac beeronz macurtzen dirala. Hirugarrena, artu bearda escuetan Comunioco zapia. Laugarrena, Jauña datorrenean, poliqui idiquico det aüa, eta azpico ezpañaren gañean ipiñico det mia. Bostgarrena, cerbait ezatu dedin, iduquico det Ostia Santua dembora guchi batean miaren gañean, eta guero irinchico det Fede vici, eta beldur Santu battequin. Seigarrena ausapaiari itsasten hazaio Ostia, artuco det mianren puntarequin, eta irintsico det, eta ala bear bada artuco det urpisca bat (*c*) Zazpigarrena, joango

(*a*) *Rituale Romanum.* (*b*) *Idem.*

(*c*) *Catechismus Benedicti XIII. de puerorum Comunione* pag. 66.

naiz lecu egoqui batera , Jaunare-  
quin viotzez viotz , ordu laurden ba-  
tean bederic (*d*) , hitzeguitera. Zort-  
zigarrena , dembora onetan eman-  
go diozcat esquerrac , eta eguingo  
diozcat nere erregu umillac , eta  
guero ere sarritan oroituco naiz  
eguin didan mesede andiaz. Bede-  
ratzigarrena , ordu laurden batean  
bederic ez det chisturic botaco ; ba-  
ña oarcabean botatzea ez da beca-  
tu ; eta eztulac ematen badu estu-  
tasunen bat , artu diteque istua mu-  
su-zapian (*e*). G. Eta nola eman-  
go diozcatzu Jaunari Comunio-on-  
doco esquerrat ? E. Al dedan on-  
guiena , eta iracurtzen daquiana ba-  
lia diteque hirugarren partean era-  
custen danaz.

---

(*d*) *Vide Rituale Roman. Catechism. ci-  
tat. Benedicti XIII. pag. 67 & Calata-  
yudium.* (*e*) *Vide Rituale Roman : cita-  
rum Catechismum, Calatayud, &c.*

## AMAICAGARREN ERACUS- ALDIA.

*Comunio gogozco , edo espiritualaren  
gañean.*

**G.** Cer Comunioren gañean hitzeguin da aurreco Eracusaldietan ? **E.** Aldareco Sacramentua eguiaz arturic , eguiten dan , Comunioaren gañean. **G.** Omen da beste Comuniomota bat , Sacramentua eguiaz artugabe eguin oi dana ? **E.** Bai , Jauna , eta da *Comunio gogozco , edo espirituala* deritzana. **G.** Cer ote da gogozco Comunio hau ? **E.** Guganaco onguinai , eta amorioz Sacramentoan dagoan Jesus maitagarria artzeco gogo , egarri , ta deseo bero batzuec viotzean sortzea. **G.** Cer bear da gogozco Comunio ona eguiteco ? **E.** Bi gauza ; lenengoa da Jaunaren

gracian egotea (a): bigarrena Fede, Esperanza, ta Caridadezco afecto-aquin viotza prestatzea, eta apaintzea. G. Beraz prestaera onen ondoren eguin, edo sortu bear dira Jesus ona viotzean artzeco, eta idu-quitzeco gogo, egarri, ta deseo berroac? E. Bai, Jauna. G. Non, eta cembañ aldiz eguin diteque gogozco Comunioa? E. Nonere nai, naiz echean, naiz Elizan; eta cembañ aldiz nai dan, aimbeste bider. G. Noiz eguin diteque onguiena, edo obeto? E. Meza enzuten, eta Sacramentua visitatzen danean. G. Eta gogozco Comunio utsa eguiten duñiac artzen ote ditu Saeramentuaren ondasu-

(a) *Tridentinum Ses. 13. Cap. 8. requirit fidem vivam, quæ per dilectionem operatur. Vide Alphonsum Rodriguez tractatu 8. Cap. 15. Ludovicum à Ponte tom. 1. Part. 1. Meditatione 34.*

nac (b). E. Bai, Jauna , eta batzuetan Sacramentua eguiaz artzen duenac baño gueiago. G. Nola hori ? E. Ceren gogozco Comunioa eguiten duana ascoz ederquiago prestatzen dan cembait aldiz , Sacramentua eguiaz artzen duana baño.

## *AMABIGARREN ERACUSAL-*

*DIA.*

*Comunioco Sacramentua artceco  
Cristau guciac duen, eguinvide,  
edo obligacioaren gañean.*

**G.** Cristau guciac beartuac ote daude artzera Comunioco Sacramentua ? E. Sacramento oni dagoquion ezagüeran sartu ezquero bai , Jau-

(a) *Tridentinum Ses. citata Cap. 8. de Eucaristia. Vide Alphonsum Rodriguez loco citato.*

\*

F

na. G. Céntibat bider urtean? E. Elizaren lembicico demboretan Sacramentu hau artu bi omen zuen cristauc Meza enzuten zuen aldi guetian. Asi ciran zabartzen, eta aguindo zuan Elizae, Comulga citecela urtean hiru bider bederic, edo Pazco Ioratuan, Mayatzecoan, eta Egüerriz. Eziran centzatu, gueienac beintzat, Aguiente onequin-ere, eta azquenean aguindu zan Comulga citecela urtean bein guchienez (a). G. Cer demboraz eguin bear da urtean beingo Comunio hau? E. Pazcoa Ioratuan: baña Pazcoaren icenez aditzeh dira orain Erramuticurrengo amabost egunac, Erramu eguna-ere amabost egun oetan sartzen dala (b). G. Non eguin bear da Comunio

---

(a) *Concilium Lateranense IV. Vide Benedictum XIV. de Sacrificio Missæ, & Institutione 45.* (b) *Ita declaravit Eugenius IV.*

hau? E. Bacoitzac eguin bear du bere Elizan, bere Arzaiaaren baime-nic ezpadu bestetan eguiteco. G. Paz-coaco demboraz campora ez ote dago beartua Cristaua cembait aldiz Comulgatzera? E. Bai, Jauna. G. Noiz ote? E Lembicia; hiltzecho perillean arquitzen dancan. Bigarrena, Ceruco janari haugabe ecin garaitu baditu bere griña charrac, edo ecin iraun badezaque Jaunaren gracian. G. Urtean cembat aldiz artu bear lu-quee Cristau guciac janari miragarri hau? E. Guchienez illean beiñ guizon jaquinsuen iritzian (c). G. Nor dira Comunloco mayean jartzea era-gotzi bear zaten becatariac? E. Errian guciac, edo gueienae daquiela gaizqui vici diranac, nola diran gor-rotoan, ordiquerian, adisquidetasun

(c) *Vide Calatayud in Catecismo pag. 119.*

gaistoetan , eta usuretan diraue-nac (*a*).

## AMAIRUGARREN ERACUS- ALDIA.

*Noiz eguin bear dan lembicico Comunioa.*

**G.** Noiz eguin bear due Aurrac lembicico Comunioa ? E. Comunioco Sacramentuaren , ta Sacramentu berac dacartzian ondasunen ezagüe-ra , ta gustoia iguerritzen Zatenean (*b*). G. Noiz azaldu , edo aguertuoi da Aurretan ezagüera , ta gusto hau ? E. Amar urteetatic amalauren bitartean , gueienean beintzat (*c*) **G.**

---

(*a*) *Vide Rituale Romam : et Benedictum XIV. Lib. 7. Cap. 11. Sinodo Diocesana.*

(*b*) *Rituale Roman.* (*c*) *Manuale Salmanticæ editum anno 1591. Vide Benedictum XIV. Lib. 7. Cap. 12. de Synod. Dioces.*

Cer bear da lembicico Comunio hau  
 Aurrac ongi eguiteco? E. Hiru  
 gauza, barauric, eta Jaunaren gra-  
 cian egoteaz gañera. G. Ceiñ dira?  
 E. Lenengoa. Dotrinaren lau par-  
 teac ongi jaquitea (c). Bigarrena,  
 confesioco, ta Comunioco Sacramen-  
 tuari dagozten gauzac-ere jaquitea.  
**Hirugarrena**, ongi confesatzeco,  
 eta comulgatzeco bear dán prestae-  
 ra nola eguiñ icastea. G. Cergaitic

---

(c) *Quatuor illæ partes, in quas divi-  
 ditur Catechismus noster, nihil aliud sunt,  
 quam brevisima summa eorum, quæ ne-  
 cessario scire debet Christianus, ut salvis  
 fiat, alia quidem necessitate medijs, alia  
 vero necessitate præcepti; & communis  
 sententia tenet, pueros scire debere hæc  
 antequam ad primam Communionem ad-  
 mittantur. Quoad pueros; qui fuerint in  
 articulo, vel periculo mortis aliter sentiunt  
 T. T. Vide Benedictum XIV., Lib. 7. cap.  
 12. de Syn. Diæc.*

hori? E. Ceren prestaera hau icas-  
ten ez duan aurra confesio, ta co-  
munio gaiztoa~~c~~ eguiteco perillean  
vicico dan (*d*). G. Pazcoaz, edo ceiñ  
egunet eguin bear due aurrac lem-  
bicico Comunioa? E. Hori erabaqui  
bear du animen Arzaiac. G. Lem-  
bicico Comunioa eguiteco, berritu  
bear ote dira arterafioco Confesioac?  
E. Ez, Jauna, ongi eguiñae badi-  
ra; baña nola aur-demboraco Con-  
fesioac eguin oi diran nolanai, eta  
ardura guichirequin, berritu oi di-  
tue lecu batzuetan lembicico Comu-  
nioraco. Eracuseac.: Ongi diozu:  
eta Confesioac ezecie, bataioan eman-  
daco hitzac-ere berritzen ditue.

---

(d) *Vide Catechism. Benedicti XIII.*  
pag. 58.

**AMAL AUGARREN ERACUS-**  
**- ALDIA.**

*Mezaren Sacrificio miragarriaren  
 gañean.*

**G.** Comunioco Sacramentua dembora berean omen da Jesu-Cristoren Legueco Sacrificio guciz arrigarria ? E. Bai , Jauna : ala eracusten digu gure federatzaile Santac , eta sinisten degu Catolico gucioe (a). G. Cergatik da Sacramentu ? E. Ceren oguiaren , eta ardoaren anz , eta idurien azpian dagoan Jesu-Cristo gure animen janari , ta edari izateco. G. Cergatik da Sacrificio ? E. Ceren dan Trinidade chit Santari Aldarcan esqueintzen zaion doai , eta ofrenda

(a) Trident. Ses. 22. cap. 1. & 2. &  
 Con. 1. de Sacrificio Missæ.

guciz eder , eta onragarria. G. Nola deritza Sacrificio oni ? E. Meza. G. Nori esqueinzen zaio Meza ? E Jaincoari bacarric. G. Nola bada Meza batzuec dira Virgiña chit Santarenac , besteac Apostoluenac , besteac Aingueruenac , edo beste Santuren batzuenac ? E. Ez ceren Meza oec Santuai esqueintzen zaizten , baicic ceren oen oroipena eguiten (\*) eta gure bitarteko Jaunari ipintzen zaizcan. G. Cer ezqueintzen zayo Jaungoicoari Mezaco Sacrificioan ? E. Jesu-Cristo Jaungoico , eta guizon eguiaz-coa bera oguiaren , eta ardoaren idurien azpian. G. Beraz bat dira Mezaco Sacrificioa , eta Jesu-Cristoc gurutzean esqueñi zuana ? (b) E. Bai , Jauna bat dira esqueintzen dan gauzaren aldetik , bañq ez esqueintzeco eran. G. Nola hori ? E. Ceren

(\*) Tridentin. eadem Ses. Cap. 3,

(b) Idem. Cap. 1.

gurutzecoa esqueñi zuan Jesu-Cristoc , isûriaz zuan odola , baña Mezacoa esqueintzen da odolic isûrigabe. G. Mezaco Sacrificioa ote da gurutzecoaren Anza , eta oroipena ? E. Bai Jauna ; eta ipiñi zuan Jesu-Cristoc , adirazteco guri , gure amorioz gurutzean esqueñi zuan , Sacrificioa ; eta onen oroipenac iraun cezán Munduac dirauen artean (c). G. Nori eman cion Jesu-Cristoc Sacrificio hau eguiteco ; ta esqueintzeco escua ? E. Apostoluai, eta oen ondorengo Apai-zai bacarric (d).

## *AMABOSTGARREN ERACUS- ALDIA.*

*Certaco esqueintzen zaion Jangoi-coari Mezaco Sacrificioa.*

**G.** Certaco esqueintzen zaio Jaun-

(c) *Ibidem.* (d) *Idem Cap. 2.*

goicoari Mezaco Sacrificioa ? E. Bost gauzataraco. G. Cein dira ? E. Lemobia , eman alditequean onrarić andien , eta garayena Jaungoicoari emateco. Bigarrena , beraren escu onguilleac egun dizquigun , ontarte , edo mesede gucien esquerrac emateco. Hirugarrena , beraren aserrea palacatzeco , eta gurequin lagun urcoen becatuen barcacioa iristeco. Laugarrena , gure , eta Purgatorio-  
co animen becatu barcatuai dagozten penac pagatzeco. Bostgarrena , Ceruraco bidean bear degun gucia , batez-ere becatutic aldeguiteco , eta onean irauteco Ceruco laguntza uga-  
riac iristeco (a). G. Cergatic Meza-  
co Sacrificioa esquintzea da eman alditequean onrarić andien , eta ga-

---

(a) *Sacrificium Missæ est Latreuticum, Eucharisticum , Propitiatorium , Satisfactorium , & impenetratorium. Vide Tridentinum , & T. T.*


rayena Jaungoicoari ematea ? E. Ceren esqueintzen zaion bere Seme bacar Jesus Jainco ta guizon eguiazcoa , eta ofrenda hau dan neurriric , eta mugaricgabe onragarria. G. Nola Sacrificio onec barcatzen ditu becatuac ? E. Iristen dituala Jaunagandic , becatutic irteteco bear ditugun Ceruco laguntzac. G. Hau onela izanic , nola gueratzen dira ascó beren vicitza gaiztoan ? E. Ceren baliatzen ez diran , becatutic irteteco Jaunac bidaltzen diezten laguntzaz.

### *AMASEIGARREN ERACUS- ALDIA.*

*Nola enzun bear dan Meza , eta cein  
dan moduric errazena.*

**G.** Nola enzun bear dezu Meza Santua ? E. ongui oartua , eta er-

respeto , edo beguiramentu andiare-  
quin nagoala. G. Cein ote da Meza  
enzuteco moduric errazena ? E. Bat-  
zuei agradatzen zate modu bat , bes-  
teai beste bat , baña gucien artean  
errazena dirudi , batezere ezjaqui-  
ñentzat , Jesusen neque-oñaceac on-  
gui gogoan erabiltzea ; eta hau fru-  
tuarequin eguiteco lagun dezaque  
laugarren Partean ipintzen dan *Me-  
zaren enzunvideac.*




## HIRUGARREN PARTEA

*LENENGO BIETAN ADIRACI*  
*diran , gauzac obraz eguiteco*  
*Eracusaldiac.*

*LENENGO ERACUSALDIA.*

**E**racusleac : *Lenengo Partearen*

respeto , edo beguiramentu andiare-  
quin nagoala. G. Cein ote da Meza  
enzuteco moduric errazena ? E. Bat-  
zuei agradatzen zate modu bat , bes-  
teai beste bat , baña gucien artean  
errazena dirudi , batezere ezjaqui-  
ñentzat , Jesusen neque-oñaceac on-  
gui gogoan erabiltzea ; eta hau fru-  
tuarequin eguiteco lagun dezaque  
laugarren Partean ipintzen dan *Me-  
zaren enzunvideac.*



## HIRUGARREN PARTEA

*LENENGO BIETAN ADIRACI*  
*diran , gauzac obraz eguiteco*  
*Eracusaldiac.*

*LENENGO ERACUSALDIA.*

**E**racusleac : *Lenengo Partearen*

*birugarren Eracusaldian esan cinduan, Confesio on batec escatzen dituan, gauzac. Laugarren Eracusaldian esan cenduan, cer dan exámina, eta azqueneco Confesiotic oraindañocoa nola eguin ditequean. Contu daguigun illabete dala, azquena zu Confesatu ciñala : eguzu arreizquierroco examina.*

*Azqueneco Confesiotic oraindaño-co exámina.*

Jarri zaite, nere anima, Jaunaren aurrean Elizan, echean, edo lecu egoquiren batean, au da sinistu ezazu, beguita dagoquizula, lecu gucietañ arquitzen dan, eta gucia arguiro ecusten duan, Jauna. Adorra ezazu umiltasun, eta errespeto guciarequin.

*Jauna adoratzea.*

*Nere Jaun, eta Jaungoicoa ! Zu-*

cera gauza gucien Asiera , ta Iturburua , gucien Iraupena , eta Muga ; edo fiña ; eta ni naiz nerez ezer-eza , eta dedan izate au zure escu ongi lleac emana da. Ala ezagutzen , eta aitortzen det , eta adoratzen zaitut umiltasun , eta errespeto guciarequin.

### *Jaunari esquerrac ematea.*

Milla esquer , Jauna , oraindaño eguiñ dizquidatzun , mesede guciagatik , eta batez-ere ceren ichedon didazun becatutic irteteco , eta Zugana biurtzceo. ? Bafia cer eguiñ al dezaquet nic zure gracia , ta laguntzagabe ?

### *Esca zaiozu Espiritu Santuari bere laguntza.*

Atoz , ó Espiritu Santua ! Atoz beartsuen gurasoa , atoz doáien Emailea : argui ezazu nere adimentua ,

nic nere utseguiteac ezagutzeco, mugui ezazu nere viotza oen gañean damutzeco, aurrera becatutic, eta becatuaren videetatic aldeguiteco, ta Confesatceco. — (*Cerbait laburrago-era onetan: nere Jaun, eta Jaungoicoa! Adoratzen zaitut; Milla esquer, Fauna, eguin dizquidatzun, mesede guciacgatic Betor zure gracia, eguitera noan exâmina, eta Confesio au ongui, eta zure onran eguiteco*).

Beguirá orain, nere anima, cembat dembora dan azquena Confesatu ciñala. Beguirá becatu larriren bat aztu ote citatzun, eta emandako penitencia leyalqui eguin cenduan, edo ez.

I Beguirira lenengo *Mandamentuan*, Dotrina icasteko aleguiña eguin dezun; dala Elizara etorriaz eracusten dan orduetan, dala daquianen bategana joanaz; Jaincoaren itza con-

tuz enzun dezun ; Fede , Esperanza , ta Caridadezco afectoac sarritan eguin dituzun — *Onetan zabartu eta zaitecen oitu zaite goiz-arratsetaco jainerara Dotrinaco liburuchoan dagoan bezala.*

2 Beguirea *bigarren Mandamentuan* , juramenturic eguin ote dezun guezurraren , edo , ongi ez daquizun , gauzaren gañean , eta cemba bider ? Beguirea , izan ote dezun juramentuac erraz , eta sarritan egui teco oitura , eguiazcoac dirala aitza quitzat arturic ? *Hau da oitura cbit itsusia , becatu ascoren sustraia , eta Cristauen echeetatic ayenatu bear dana Juramentu sarritan eguiten duana beteco da becatuz , eta ez da haren echeetic irtengo neque , eta nalgabea , dio Espiritu Santuac.* Beguirea , eguin dezun birauarequin nastutzen dan juramenturic , eguin dezagun contu : *Emendic mugui ez na-*

*dilla , Deabruac naramala , au one-  
la ezpada ; cemba t bider ? Beguira  
esan ote dezun ; Nere animan , au ,  
edo bur a onela da. Cemba t bider ?  
Oitura , edo usanza charra da au-  
ere , eta guizor jaquintsh ascoren irit-  
zian juramentu (a) , eta beragatik er-  
bestetu bear da Cristauen artetic.  
Beguira , lagun urcoari bota diozun  
birauric g Nolaco biraua ? Cem-  
bat bider biotzetic eta cemba t bi-  
der bestela ? Biraua da esatea it-  
zen batzuec , ceñaquin , lagun urcoa-  
ri gaitzen bat opa diogula , aditze-  
ra ematen degun. Oitura icbusi au  
duenac , batez-ere gurasoac , beca-  
tuan vici vi dira , biotzez botatzen*

(a) *Salmanlicenses Tom. 4 trattat. 17  
Cap. 2. Puncto 3. n. 28 pro jurat rijs  
babent cum Suarezio Verba bæc. In ani-  
ma mea : nisi preferens vellit significare :  
hoc , quod dico , est quod haœo , in ani-  
ma mea.*

*ezpaditue-ere.* Beguira, idiai, beiai,edo guizonari ez, beste gauzai biraure bota diezun. Ezta au becatu larria berez, jabeaganonz gorrotoa nastutzen ezpada, baña da izcunza charra, eta Cristauac icasi bear ez duana. Beguira, esan dezun Deabrua, Demonioa, eta cembat bider? Ez da berez becatu larria Deabrua,edo Demonioa esatea, soil-soillie begiratzen zaiola, baña ecarri lezaque onetaraco perilla, batez-ere gurasoetan; eta nola nai da oitura it-susia Cristauaren auan (b). Beguira, promesaric eguin, eta leyalqui eranzun diozun? edo promesaric eguin dezun gaitzen bat norbaiti etorrí da-qion?

3 Beguira birugarren Mandamenduan, jai egunetan Meza enzun centzaqueala enzungabe gueratu ceran,

---

(b) *Vide Calatayud.*

eta cembañ bider? Beguira, utseguteco perillean jarri ceran, dala mugonean echetic abiatugabez, dala bidean erausian egonaz? Beguira, Meza modestia, eta errespeto andia-requin enzun bearrean, ibilli ote ceran batera, eta bestera beguira-ca, edo aldemenecho lagunaquin itzeguiten, edo oec oñaquin, eta ucalandoquin joaz? Dembora lucean, edo laburrean, Mezaren cer partean, eta cembañ bider? Beguira, jai osoetan bear debecatuac eguin dituzun? Cembañ demboran, cembañ bider, bacarric, edo iñoren aurrean? Beguira, aste egunean eguin cintzaquean lanac, soñecoac, edo gurdia adabatzea, abarcaç jostea, Esiac ichitzea, jai osoraco utzi dituzun? (*Badiria cembait guraso, eta nagusi, edo echechoandre Mairuaç baño gorragoac gai onetan*). Beguira, con-tuzcoa izan ceran, aleguiñean *Me-*

za Nagusiac, eta Jaincoaren Hitza enzuteco, Errosariora, eta Dotrinetara joateco? Gaur oetako bacoitzac ez gaitu beartzen becatu larriaren arpian, gucioc baintzat, baña oetatic iguesi ibiltzea marca ebarra da. Beguira, araguiric jan dezun ja-tea devecatua dagoan egunetan? Barreric, edo lagunaquin, eta cem-bat bider? Barauric autsi dezun, barautzeco adiñean sartua bacera, eta artara beartua? Beguira, amarenac, eta primiciac sisatu, edo char-regetic eguin diruzun?

4 Beguira laugarren *Mandamenduan*, gurasoai, edo zure buru dirabai gaitzie opa izan diezun? Cet gaitz, eta cem-bat bider? Beguira, zor zaten errespetoa galdu diezun, dala beguiratze gogorraquin, dala iseciac eguiñaz? edo lotsagabequeriac eranzunaz? Cem-bat bider, eta cem-bat lagunen aurrean? Beguira,

ibilli ote ceran gurasoen aguinduac eguin naigabe? Cembañ bider, eta nolaco gaucetan? Beguira, asi dezun vicimodua icastera ongui saiatu Ceran, dala Escolan, dala jostean, necazaritzan, arotzian, edo beste lanquintzaren batean? Gazteac chit ardura *andia bear du ordu onean echeratzeco*, sarritan Confesatzeco, *Dotrinetara joateco*, lagun gaiztoen batzarreetatic aldeguiteco, eta ez du estadua artzeco àsmoetan asi bear Gurasoen baimengabe. Gurasoak nagusi, ta Ecbocoandreac, ezconduak, eta carguren bat duenak emen begiratu bear due nola, eta cembañ bider utseguin duen beren eguimbi-de, edo obligacióen contra.

5 Beguira bostgarren Mandamentuan, egiaz, eta biotzetic amatu ote dituzun zure lagun urto guiac, eta oen artean zure etsaiac? Egiñ ote dituzun sarritan acto Caridadez-

coac? *Hau eracusten du Dotrinaco liburukoac goiz arratsetaco jaieran.* Beguira, opa izan ote diozun et-saiari gaitzen bat? Cergaitz eta cem-bat bider? Beguira, haren gaitzaz poztu, eta onaz naigabetu ceran? **Gauz andian, edo chiqian?** Oar-cabean, edo oartu ezquero? Cem-bait bider? Beguira, zure etsaiari diosala ucatu, edo musinca eguiñ diozun, edo gorrotoaren siñaleren batzuec aguertu diozatzun? Cem-bat bider, eta cem-bat lagunen aurrean? Beguira, borroca, ucabilca, edo maquilca ibilli ceran, eta cem-bat lagunen aurrean? Beguira, edanean igaro ote ceran, ezaguera galtzera-no, edo aldescorao; cem-bat bider? Beguira, griña lotagarri orretatic sortu, edo etorri ote diran aserreac, hitz desonestoac, queñada itsusi-ac, lagun urcoen contraco erausia-c echean naigabeac, umeen arloteria,

aciera gaiztoa , eta zorrac ez pagai  
zea ? *Becatari-mota hau cbit ne-  
quez sendatzen da , ceren biotzic ez  
duen beren griña cutuna utzitzeco.*

6 Beguire seigarren, eta bederat-  
zigarren Mandamentuetan , garbita-  
sunaren , edo Castidadearen contra-  
co gogoracioetan egon ote ceran ,  
edo poztuaz , edo goisàtuaz , edo de-  
seatuaz , edo ceregandic ayenatzeco  
aleguiñaric eguingabe , eta lecu ema-  
teco perillean ? Oarcabean , edo oso-  
toro oartu ezquero hau guertatu dan ,  
eta cembat bider ? Beguire , ara-  
guizco icenac esan , hipui ciquiñac  
contatu , edo canta desonestoac can-  
tatu dituzun ? Cembat bider , cem-  
bat lagunen aurrean , eta horiec ai-  
deac , eta cer estadutacoac ciran ?  
*Onelaco bitz nazcagarrietaraco ma-  
curtuac , eta oitura zarra duenac ,  
cbit nequez sendatzen dira.* Beguire ,  
erabilli ote dituzun zure beguiac ,

becaturaco videa dacarten gauzai begiratuaz , edo celatan ? Cembañ bider ? Beguira , ganaduac elcarganatuac dabiltzanean , egon ote ceran beguira goisátuaz , edo onetaraco perillean ? *Begui arroac , celatariac , tagucia ecusi bear duenac nequez izango dira garbiac.* Beguira , egon ote ceran hitz desonestoac aditzen , era-gotzi centzaqueala onelaco hitzqueta loia , edo aldeguin centzaqueala ? Beguira , ecin aldeguin centzaqueanean , copeta beltz eracutsi cenduan , edo hau egun lecuan eracutsi ote cenduan poza ? Beguira zure quide-coaren batequin eguiñ dezun jolas , edo ibillera itsusiric ? Cembañ bider ? bacarric , edo iñoren aorrean ? Beguira , jai egunetan , edo beste dem-boretan joan ote ceran lagun gais-toetara , edo becaturaco perilla izan oi dan lecuetara ? Beguira , zure es-tu horiec garbiac izan ote diran ,

garbitasun, edo Castidadeari dagozcan, gauzetañ? Ez da emen gueiago ipintzen iracurlearen gogoa ciquindu ez dedin: becatariac berac guertatu zaionaren contuac atera bear ditu, gauz andiagoric badu.

7 Beguira zazpigarren, eta amargarren Mandamentuan ecer ostu dezun? Cer, eta cembañ bider? Beguira, echecho gazteren baten estalqui izan ote ceran, artoa, garia, edo beste gauzaren bat ostutceco, edo isílca saltzeco? Beguira, gauzaren bat saltzean, edo erostean eguin dezun tramparic neutrrian, pisuan, edo precioan? Beguira, epetan cerbait eman dezunean goyeneco precioa baño gueyago tiratu dezun? Hau da usura deritzan becatu itsusia? Beguira, jocoan tramparic eguin dezun? eta ecer guis-onetan irabaci dezun? Eta trampa ez eguitera, galduco ote cenduan? Beguira, gura-

soen mendean vici diran , gazteaquin oei dagotenaz campora , eta gura soen vorondatearen contra jocatu dezun cerbait ? Besteren gauzaren cuticiari lecuric eman diozun , vide oquerrez hura iristeko gogo , edo asmoarequin ? Vide onez gauza nai iza tea berez ez da becatu.

8 Beguira zortzigarren *Mandamenduan* , egotzi ote diozun norbaiti ez duan falta , edo mancha , edo eguiñez duan oquerren bat ? Cembait bider , eta cer felta ? Beguira , lagun urcoaren bati aurpeguira eman ote diozun lotsatuko , edo naigabetuko duan gauzaren bat , dala berea , dala aide , edo aurrecoena ? Bacarric , edo iñoren aurrean ? Beguira , lagun urcoen falta isillac , edo barreatugabeac aguertu ote diozatzun etzequizquianen bati , edo gueiagori ? Cer faltac , cembat bider , ta cembat laguni ? Beguira , echean igarotzen dana cam-

poan contatudezun? Cer contatu dezun, eta gauz andiac, edo paqueagaleraztecoac ciran? Beguira, egon ote ceran lagun urcoen faltac edo gustoz aditzen, edo erausi oec eragotzi cintzaqueala eragotzigabe? Beguira, lagun urcoaren falta barreatuac aditu, edo contatu dituzun, ceregan poztutzen cerala, ta esaten dezula: *Jaincoac barca deguidala, ongui eguiñ zaio?* Beguira, norbaitec secretoaren azpian esan edo fiatu dizuna contatu dezun? Cembat bider, eta cembati? Beguira, saria aguinduric, edo losenchaquin aguer erazo ote diozcatzun norbaiti urliarren, sandiaren, edo berendiaren faltac, edo isillic gorde bear cituan gauzac? Cembat bider? Beguira, izan dezun lagun urcoaz ariñ, edo erraz gaizqui juzgatzeco, edo haren faltac sinisteco oitura? Beguira, esan ote dezun iñoren calteco gue-

*zurric? = Guezurra erraz esaten duana, erraz erorico da utsegulte andietan-ere.*

*Ona nola eguiten dan azqueneco Confesiotic, oraindaiñoko exámina lenengo Partearren laugarren Eracusaldean esan cenduan bezala. Ez dira gauz asco uquitzen, ceren gucia esa-tea, eta beguien aurrean ipintzea on eztan; eta becatariac gañeracoaren contua atera dezake erraz. Aurrail gogoan arrerazo bear zate lembicia exáminaren asierako prestaera; guero mandamentu bacoitzari dagoen exámina liburutic esanerazo di-teque egun batean pisca bat, bestean beste pisca bat. Ondoren eracusleac aditzera emango die iracurri dana bera, eta onela neque andi gabe oituko dira exámina eguiteko modura.*

**BIGARREN ERACUSAL-**

DIA.

**E**racusleac. Lenengo Partearen bostgarren Eracusaldean esan cenduan, nola exámina egun beardan Confesio gaiztoac berritzeco. Contudaguigun, gaiztoac izan dirala, zuc aurtasunetic egun dituzun, Confesioac, dala ceren bear dan damu, ta ontzeco asmoa gabe confesatuceran dala ceren becatu larriren batzuec lotsaz confesatugabe utzitzen cinduan. Orain guciac berritu nai, eta bear dituzu. Eguizu bada exámina hostgarren Eracusaldi artan esan cenduan bezala.

Auriasunetic oraindañoco Confesioac berritzeco exámina. Jarri zaitet, nere anima, Jaunaren aurrean, Elizan, echean, edo leku egoquirien batean, hau da sinistu ezazu, be-

guira dagoquizula lecu gucietan arquitzen dan , eta gucia arguiro ecus-ten duan , Jauna. Adora ezazu umiltasun , eta errespeto guciarequin.

### *Jauna adoratzea.*

Nere Jaun , eta Jaungoicoa ! Zucera gauza gucien Asiera , eta Iturburua , eta Muga , edo fiña , eta ni naiz nerez ezer eza , eta dedan iza-te hau zure escu onguilleac emana da. Ala ezagutzen eta aitorzen der , eta adoratzen zaitut umiltasun , eta errespeto guciarequin.

### *Jaunari esquerrac ematea.*

Milla esquer , Jauna , oraindaño eguin dizquidatzun mesede guciac-gatic , eta batezere ceren ichedon didazun becatutic irteteco , eta zugana biurzeco : ¿ baña cer eguiñ al dezaquet nic zure gracia , ta laguntzagabe ?

*Esca zaiozu Espiritu Santuari bere lagunza.*

Atoz , ó espiritu Santua ! atoz bearzuen gurasoa ; atoz doayen emailea : argui ezazu nere adimentua, nic nere utseguitac ezagutzeco , mugui ezazu nere biotza oen gañean damutzeco , aurrera becatutic , eta becatuaren videetatic aldeguiteco , ta confesatceco. ( Laburrago : Nere Jaun , eta Jaungoicoa ! Adoratzen zaitut. Milla esquer eguin dizquidatzun , mesede guciacgatic. Beter , Jauna , zure gracia eguitera noan exámina , eta ondorengo Confesioa ongi , eta zure onran eguiteco .

Beguira , nere anima , cembañ urte dituzun , eta cembañ cinduan lembicia confesatu ciñanean ? Beguira , urtean cembañ bider confesatu ceran ? (Aurtasunetic ez , baicic urteren bat-

zuetaco Confesioac berritu bear dituan  
ná , contu hau bera atera bear du  
Confesio , ta Comunio gaiztoen ga-  
ñean ). Beguira , confesatzen ciña-  
nean ezágutzen cenduan, gaizqui con-  
fesatzen ciñala ? Beguira , emandaco  
penitenciac egin bague utzitzen ci-  
duan ? Cér penitenciac ciran , eta  
cembat bider utzi cinduan era one-  
tan ?

Beguira gueró Mandamentu ba-  
coitzean, nola , eta cembat bider ut-  
seguin dezun , baliatzen cerala az-  
queneco Eracusaldian ipiñi dán exà-  
minaz. Cembat bider utseguin dezun,  
ecin esan, edo ecin contua atera ba-  
dezáquezu , oroi zaite , cér oitura ,  
eta cembat demboran guchi gora be-  
ra izan dezun , eta astean , edo illean  
cembat bider utseguiten cenduan. Lot-  
saz becaturic confesatugabe utzi ba-  
cenduan , onena dá aurrenetic Con-  
fesoreari garbiro au esatea. Eguizu

aleguinā berecitzeco pensamentuzco  
becatuac hitzezcoetatic , eta oec  
obrazcoetatic. Seigarrengo becatue-  
tan beguiratu bear da, aidearequin,  
eta cér estadutácoarequin eguin di-  
ran , eta cembañ bider , Azquenean  
ona dā aurrena Confesorearequin  
egotea , eta eracutsico dizun eran  
exámina eguitea , bestela ecin mol-  
datu becera.

## HIRUGARREN ERACUSAL-

DIA.

**E**RACUSLEAC. ¿ Eguin dezu exámi-  
na ? Orain sortu bear dezu eguin da-  
co utseguiten aamu eguiazcoa , eta  
ontzeco , edo , aurrera becaturic ez  
eguiteco asmo osoa. Lenengo Partean  
esan cenduan , onetaraco ipiñi bear  
dirala animaren beguien aurrean da-  
mubide egoquiac , bein beldurrezco  
damu , edo Atricioarenac , guero onez-

H

*coarenac; eta sasoi onean jartzen da-nean biotza, eguin ditezqueala Fede, Esperanza, Caridade, eta Contriciozco afectoac. Dacuscun nola obraz eguiten dezun hau gucia.*

Beldurrezco damua, edo atricioa biotzean sortzeco bide egoquiac. Nere anima (esango det neregan exàminaren ondoren) ¿ecusten dezu, cembał becatu, eta esquergabequeria eguin dituzun zure Jaun, eta Jaungoicoaren, eta zu Ceruraco eguin cinduan Aita onaren contra? Eta norc esan, cembał izango diran ongui ezagutzen ez dituzunac? utzi dezu cere Jabe ona, eta Salvatzallea, utzi dezu zuri betico vicitza eman naiez guizon eguin, eta bere odolaren costuz erosi cinduan, Jauna; eta obraz esan dezu: *Ez det Jaun hau servituco.* Nere anima, ¿ez da hau esquergabequeria guciz itsusia?

¿Cer galdu ez dezu zure becatu,

eta esquergabequeria horiequin? Ay! galdu dezu zure Jaincoa, eta Jaincoa galdu ezquiero gucia galdua da. Galdu dezu beraren gracia, araco soñeco eder hora, cêñiarequin apaindu zuan Espíritu Santuac bataioco egunean zure anima, eta egun cinduan Aita beticoaren ume, Jesu-Cristoren senide, eta Trinidade guciz Santaren Jauregui, edo Eliza bezala, ta azquenean Ceruaren jabe-gai, edo heredero. Galdu dezu Ceruraco escu, zucen, edo derecha gucia: galdu betico vicitza doatsua, betico atseguin-contentuac, eta, Jau-nac zuretzat prestaturic ceuzcan, ondasun mitagarriac. Gueratu cera Jaincoaren aserrearen azpian, eta eisai galgarriaren mendeian. ¡Ay ne-re anima! ta bacenecus cein itsusi-nazcagarria zauden Jaunaren beguietan!

Eta onembeste calteren ordaiñ cer

frutu atera dezu? Cer irabaci dezu, orain lotsatzen zaituen, becatu, hotiequin, galdetzen dizu S. Pablo? Cer, betico su, eta garrac, betico pena, eta oñaceac baicic? Jachi zaite oraiñ viciric pensamentuz oñace oen toqui izugarrita, edo infernura, guerò hill ondoan jachi etaitecen betico? Cer dala, niste dezu, iufernua? Hura da etsai gaitoaren, eta bere servitzarien sice izugarri bat, non betico-tasun gucian egon-bearrac diran oñacez lertzen. Hura dá beti sutan dagoan labe ica-ragarri bat, beiñere itzalico ez dana: Eta becatariac berac izango dira ango ilinchac, eta illetiac. Hura dá susre eracequizco aincira, edo putzu bat, non Satanas bere langilleaquin batean égongo dan betiraunde gucian erretzen. Hura dá, neque, ta pena guciac arquitzen diran, lecua. Nere anima, toqui hau,

eta emengo betico nequeac , eta penac dira becatu eguin dezun bacoitzean zuc irabaci dezun saria !

Alaere zure Jaunaren urriquimendu, edo Misericordiac ichedon dizu , irten zaitecen becatutic , eta betico neque-oñaceen perilletic. Deitzen di zu artzai onae ardi galduari deitu oi dion eran: Eta Jesusen eriotza , eta odol preciotsua bitarteko dirala , esqueintzen dizu zure becatu gucien barcacioa , baldin biotz osoz damaturic , eta confesaturic vicitz on bat eguin naibadezu : *Ez det nai , esaten dizu , becataria galtzea , bailea nigana biurtzea. Nigana biurtzen dan une , edo puntuau aztuco naz eguin dizquidan esquergabequeria guciaz.* Nere anima , aditzen dezu hau , eta etzera bertatic zure Jaincoagana biurtuco ? Etzera damuz deseguingo ? Noiz artean , gaisoa egon nai dezu

becatuen catez lotua , eta etsai gal-garriaren mendean ?

*Onezco damua , edo Contricioa sortzeco vide zucena.*

**N**ere anima , beldurrezco damuaren vide egoquia gogora dituzu : zoaz aurreraséago , eta Fedearen arguiarequin billa ezazu Onezco damuaren videa , edo motivoa. Han da Jaunaren ontasun , edo maitagarritasun baztergabea , ez nolanaí , baicie betico vicitza doatzuaren emalle gure Animien erosle , eta salvatzallea dan aldetic beguiratzen diozula. Zure siniste , edo Fedeac eracusten dizu , Jaun hau dala zu ecet-eceticie atera cinduana , eta aterá bera ezagutzeco , amatzeco ; ta beticotasan gucian berarequin batean Ceruan doatsu izateco. Zure siniste , edo Fe-

deac eracusten dizu , Adan gure lembicico, gurasoáć galdu zuala , fruta devecatua janda eguin zuan , becatuarequin Jaunaren gracia , ta adisquidetasuna , ta Ceruraco escu , eta derecha : eta galdu , ez beretzat barric , baita guretzat-ere. Orregatic Adanen humeac sortzen diranetic arquitzen dira becatu jatorrizcoaren loyez ciquinduac , eta Jaunaren aserrearen azpian. Zure siniste onac eracusten dizu , Adanen becatuac galerazo cigun ; ceruraco gracia , eta derecha guretzat irabaztcoo cerutic jachi zala Trinidadeko bigarren persona , edo Seme Jaincoa , eta guizon eguin zala Espiritu-Santuaren obraz , etagraciaz Virgiňa chit santuaren sablean. Zure sinisteac eracusten di zu , guizon egunda gurutzean eman zuala bere vicitza , eta bere eriotza-quin irabaci zuala guretzat Ceruraco escua , ta araco beat dan gra-

cia. Zure sinisteac eracusten dizu, ipini cituala Ceruco gracia animetan isurtzeco Zazpi iturri, edo Sacramentu beinere agortzen ez diranac, oen artean Batayoco, eta Confesioeo Sacramentuac; Batayocoa, becatu etorquia, edo jatorrizcoa barcatzeco, eta Confesiocoa, Batayoa ezque-  
 ro eguindaco becatuac quentzeco.  
 ¿ Cer gueyago? Ipiñi zuan Aldareco Sacramentu guciz miragar-ria, eta Ceruan vici badaere, dembora berean Sacramentu onetan jartzen da, ango Jarlecua utzigabe. Cer-  
 taco uste dezu? Gurequin, eta gu-  
 re artean vicitzeco; guri emateco be-  
 re gorputza, bere odola, eta bera  
 dan gucia. Mysterio oec guciac Jain-  
 coac berac aguertuac, eta Eliz Ama  
 Santac eracusten disquitzunac dira,  
 eta Catolico guciac sinisten dituenac.  
 Esanguidazu orain, nere anima; guri  
 ongi naiez hau gucia egin duan,

Jaunaren Ontasun , edo maitagarritasuna noraiñocoa izango da ? Naitaez aitortuco dezu , dala Ontasun , edo maitagarritasun neurriric , bazzerric , eta mugaric ez duana ? Eta zuc izan dezu Ontasun onen contra alchatzeco ausardia ? *Arritu zaitezte Cerucoac , eta deseguin Ceruco ateac !* (a) dio Jeremiasec. Eta alaere Aita onac bezala deitzen dizu , eta esqueintzen esquergabe-queria gucien barraciaoa ! Zoaz bada , nere anima , zoaz lembaitlen beragana , Seme ondatzailea joan zan eran ; eta damuz , eta ontzeco asmoz beteric , eguitzu Fede , Esperanza , Caridade , eta Contriciozco afectioac.

*Acto Fedezcoac goiceco jaieran dau den bezala.*

**J**aungoico jaquiunde , ta egua be-

---

(a) *Jerem. 2.*

ticoa cerana! Sinisten ditut venaz, eta biotz guctic, Eliz Ama Santac sinisten, eta eracusten dituan, gauza guciac, ceren zue Eliz Ama Santari aguertu diozcatzun, eta onec ala eracusten dizquidan. Sinisten det Jainco Aita guciz poderoso Ceruaren, eta lurraren Criadoreagan. Eta haren Seme bacar Jesu-Cristo gure Jaunagan. Ceña sortu zan Espiritu Santuaren obraz, eta graciaz: jaio zan Maria Virgiñagandic. Padecitu zuan Poncio Pilatosen mendeau, gutxeficatua, hillar, ta obiratua izan zan. Infernuetara jachi zan, hirugarren egunean hillen artetic piztu zan. Ceruetara igo zan; an dago jarri-rie Aita Jainco guciz poderosoaren eskuietic. Andic etorrico da viciac eta hillac juzgatzera. Sinisten det Espiritu Santuagan. Eliza Santa, Catolica. Santuen Comunioa. Beca-uen barcacioa. Araguiaren resu-

reccioa. Vicitza beticoa. Amen.

Sinisten det, Jesu-Cristo gure Jaunac utzi ciozcala Eliz Ama Santari Zazpi Sacramentu, eta, oen artean Confesioco Sacramentua, Bataioa ezquero eguindaco becatuac barbatze-  
co. Sinisten det, Jesu-Cristo gure Jaunac ipiñi zuala Aldareco Sacra-  
mentu guciz miragatxia, eta Sacra-  
mentu onetan dagoala gure animen  
janari, eta edari izateco, gracia uga-  
ritzeco, eta bere gozota sun miragar-  
riac gure biotzetan isurtzeco. Sinis-  
te onetan vici, eta hill nai det.

### *Acto Esperanzazcoa.*

**N**ere Jaun Jaungoicoa! Zure Se-  
me Jesusen eriotza, eta merecimien-  
tuac bitarteko dirala; eta beraren  
graciarequin aleguiña eguiten dedala,  
esperatzen det zure Ontasun, eta Mi-  
sericordian nere becatuen barcacioa;

eta betico vicitza doatsua ; ceren Zue  
ala aguindu didazun , eta cere hit-  
zeten aiñ leyala ceran. Zu cera on  
guciaren iturburua , eta emallea , eta  
zugandic tste det , Jauna , Ceruraco  
videan bear dedan , gucia.

*Acto Caridadezco , eta Contr-  
ciozcoa.*

**N**ere Salvatzalle Jesus maitagarria ! Zu cera Ontasun baztergabea , eta neurriric ez dezuna , eta beragatic guciz maitagarria ! Amatzen zaitut biotz guzitic zure Ontasun orri beguiraturic : eta Zugatic , eta zure iceanean amatzen ditut nere lagun urco guciac , eta oen artean nere etsayac. Opa diet Cerua , eta araco videan conveni zaten gucia. ¡O Ontasun miragarria ! Damu det Zu ofendiuaz , eta damu det gauza gucien

gafietic. Artzen det asmo osoa ez gueiago becaturic eguiteco, becatuaren videetatic aldeguiteco, eta confesatzeco. *Onen lecuan esan dezaque ala nai duenac: Nere Jesu-Cristo Fauna.*

## **LAUGARREN ERACUSAL-**

*DIA.*

**E**recusleac. Prestatu cera azquenecotic oraindañoco Confesioa eguiteco. Lenengo Partearen amabostgarren Eracusaldian esan cenduan, cer eguin bear dezun acusatzen asi baño len: eta amaseigarrenean esan cenduan, acusatzen ceranean, nola hau ongi eguin dezaquezun. Dacuseun bada, nola acusatzen ceran, azqueneco Confesiotic oraindaño eguiñ dituzun, becatuen gañean.

*Azqueneco Confesiotic oraindañoco  
becatuen aitormena , edo  
confesatzea.*

**N**i becataria confesatzen naizaio Jainco guziz poderosoari, Santa Maria beti Virgiñari, S. Miguel Aingeruari, S. Juan Bautistari, S. Pedro . eta S. Paulo Apostoluai, Santuguciai , eta zuri , nere Aita , becatu gueiegui egun dedala pensamentuz , hitcez , eta obraz , nere culpaz , nere culpaz , nere culpa chit andiaz. (*Hau esaten da acusatzen asitzeco aurrean S. Carlos Borromeoc eracusten digun erara.*)

Jauna , onembeste demborada azquena confesatu nintzala. Eguin nuan, edo eznuan Confesoreac eman cidan penitencia. Aztu citzatan orduan confesatza onelaco becatu. ( Becatu ve-

nialen batzuec aztu arren , ez da oec  
esan bearric urrengo confesioan.)  
Eguin det ustez ongui confesatceco  
bear dan prestaera.

1 Lenengo Mandamentuan. Na-  
guitasunez utzi det batzueta goiz  
arratsetaco jayera Fede, Esperanza,  
Caridade, ta Contriciozco afectuaquin  
batean , devociozco gauzac diralaco.

2 Bigarren Mandamentuan. Hi-  
ru bider esan det: *Nere animan*, bein  
guezurraren , eta bi aldiz eguiaren  
gañean , baña ez det becatu andit-  
zat iduqui , edo iduquidet. Esandet :  
*Nere conciencian* lau bider , baña  
ez det juramentutzat artu. (Jura-  
menturic egun bada, esan bear da  
*cer juramentu* egun diran , cem-  
bat bider , eta guezurraren gañean  
ciran , edo ez: egun dezagun cor-  
tu: *Ala Cerura noala* , *Deabruac na-*  
*ramala* , *emendic mugui ez nadilla:*  
*boec dira juramentu birauarequin*

*nastuac.* ( Bi bider eguin diot birau lagun bati (edo senideari) , esaten diodala : *Eztanda eguingo al den; edo Deabruac eremango al au* , baña ez biotzetic ( dan bezela esan bear da ). **Onembeste bider otseguin diot Deabruari Demonioari** , eta arrayoari , baña ez det becatu mortalzat iduqui .

3 Hirugarren Mandamentuan. Hiru Mezatan ibilli naiz aldameneco lagunaquin hizquetan , eta elcar ucalondo aquin joaz , eta batera , ta bestera , beguiratuaz , baña ez dembora lucean , eta ez nuan gauz anditzat artu . Ostiral batean isilca jan nuan aragui pisca bat . Dotrina , Errosario , eta Vezperetara ez naiz onembeste bider etorri , baña ez det becatu mortalzat iduqui . (*Gueyago duanac esan beardu beregan arquitzen duan bezala* )

4 Laugarren Mandamentuan. Onembeste bider aserrerazo diot gu-

rasoari , aguinduac eguin naigabesz ; baña gauz andietan ez. Escolan , eta beste lanetan sayatu nindequean gueyago , baña zabartu naiz cerbait. (*Gueyago duanac beguiria beza contuz , eta esan beza exáminan arquitu duan bezala* ).

5 Bostgarren Mandamentuan. Ne re zabarqueriaz utzi det batzueta lagun ureoetaraco ongi nai , ta caridadezco afectoae eguitea , goiz-ar ratsetaco jayeran eracusten dan bezala ; baña ez det becatutzat artu , devociozeo gauza dalaco. Bi bider atseguiñ artu det lagun bati gaitz chiqui bat guertatu citzayola , ecusiric. Aserratu ninzan lagun batequin , eta borrocatu guiñan beiñ , baña gorroto andigabe. (*Gueyago duanac , esan beza cerduan* ).

6 Seigarren Mandamentuan. Oartuta pensamentu gaiztoai lecuric eman bazate , hitz loi-desonestoric

esan bada ; beguiac , eta escuac era-  
billi badira gaizqui , edo becaturaco  
moduetan , belarriac zabaldu badira  
hipui çiquiñac , eta araguizco hitzac  
gusioz aditzeco , esan bearda cemba-  
tider guertatu dan hau , cemba-  
tala-  
gun ciran , eta aidetasunic oequin  
cenduan , edo ez (*Gueyago duanac*  
*esan beza cer duan* ).

7 Zazpigarren Mandamentuan, Os-  
tu diot Amari onelaco gauza ez gaiz-  
taqueríataco , baicic nere burua apa-  
intzeco , edo lagunaquin jocoan arit-  
zeco. Ostu ditut guereciac , eta sa-  
garraç auzotic , baña ez ascó. Pillo-  
tan egun det onelaco trampa onem-  
beste bider. (*Gueyago duanac* , *esan*  
*beza duana*.)

8 Zortzigarren Mandamentuan.  
Nere falta bat egotzi diot senide ba-  
ti , eta zan onelaco utseguite. Lagu-  
nen faltac contatu dituc onembeste  
vider , bana etziran andiac : eta

aditzen egon naiz gustoz hiru aldiz besteren utseguiteac. (*Andiac, edo onra viciro uquitzen zuenac ciran, edo ez, beguiratu contuz*). Egan ditut onembeste guezur chiqui, eta lenere esan oi ditut. (*Gauz andiagoac dituanac esan bear ditu exáminan arquitu dituan eran*). Jauna, oec dira azqueneco confesiotic oraindañoko demboran guertatu zaizquidan utseguite, edo faltaric andienac, eta ala bear bada, *acusatzen naiz lagun urcoaren contra bota izan ditudan birau guciaz, eta azquenecoaz*. (*Birauric len beñere bota ez duanac, esan dezaque beste becatu confesatutaco bat guebitan eguiten duana*). Escatzen diot nere Jaungoicoari guciaren barcacioa, eta berotti, nere Aita Espirituala, penitencia, eta absolución. (*Emen contuz aditu bear da Confesoreac ematen duan penitencia, gañeraco hitz onaquin batean, eta*

absolucioa ematera dijoanean esangodei): Argatic erregutzen diot Santa María beti Virgiñari, San Miguel Ainguerauri, San Juan Bautistari, San Pedro eta San Pablo Apostoluai, Santu guciai, tu zuri, nere Aita, erregu deguiozuen nigtic gure Jaungoicoari. Amen.

*Eracusleac. Onembesterequin oarditeque Cristaua, nola confesatu bear dituan becatuac, diranac dirala. Orain gogoan arritzatzu iru gauza. Lénengoa, oraingo confesaldian becatu larriren bat badezu, ez dezu lenecoa esan bearric, baña alaere esan ditzaketzu. Bigarrena: Ni becatariaren azqueneko erdia bucaera esan dezun bezala, esan desaquezula Nere Jesu-Cristo Fauna; gauz oec dira ala baña devocioncoac, eta Confesatzeko modu onari dagozcanac. Hirugarrena, absolucioa artu ondoan, beta badezu, zoaz lecu egoqui batera;*

*eta guero esango dan eran emanguiozcatzu Jaunari esquerrac, eta pres-  
ta zaite Comunioraco.*

## BOSTGARREN ERACUSAL- DIA.

**E**racusleac. Bigarren Partearen amairugarren Eracusaldean esan cenduan, lembicico Comunioa eguin bear duen Aurrac berritu oī dituela oembait lecutan arterañoco Confesioac, ceren Aur-demboraco Confesioac eguiñ oī diran nolanai, edo ardura guchirequin. Hau bera guertatu zatzu zuri-ere, eta eguin dezu exámina. Parte onen bigarren Eracusaldean ecusi degun eran oraindañoco Confesioac berritzeko asmoarequin. Dacuscun nola acusatzen ceran.



*AURTASUNETIC ORAINDA-  
ñoco becatuen aitormena , edo Confesioa , lenecoac gaiztoac izan  
diranean.*

**N**i becataria confesatzen naitzaio & . beste confesioan bezala . Jauña , ditut onembeste urte , etá lenengo Confesioa egun nuanean , nitan aimbeste . Arreizquero confesatu naiz urteán onembeste bider . Aur demboran guertatu citzatan onelaco gaiztaqueria , eta lenengo Confesioan , edo gueroséago utzi nuan lotsaz confesatugabe , (edo ez nuan ecetan artu , baña ezagutzen nuan ona izango etzala egun nuan gaistaqueria bura ) . Guerozco Confesioetan oartzen nintzan (edo ez nintzan) becatu artzaz . Beste ascotanere utzi ditut (edo ez ditut) becatuac lotsaz confesatugabe .

Eguiten nituan Confesoreac ematen cizquidan penitenciac, (*edo eguin gabe*) utzi nituan onembeste bider one-laco, *edo alaco penitencia*.

1 *Lenengo Mandamentuan*. Aurtasunetic izan naiz zabarra Dotriñara etortzeco, Fede, Esperanza, eta Caridadezco afectoac eguiteco, eta lembicico Comunioraco prestatzen asi nitzan artean, ecertan artzen ez nituan gauz oec (*besteac esango du betteric, eta bacoitzac esan bear du igarro zaiona igaro zaion bezala*).

2 Bigarren Mandamentuan, eta era berean besteetan esango ditut eguin ditudan becatuac, dala pensamentuz, dala hitzez, dala obraz. Ecin gogora bazat, cemba bider guchi gorabera utseguin dedan, contu ateraco det, cemba demboran izan dedan oitura, *edo erraztasuna becatu onetan, edo artan erortzeco, eta astean, edo illean cemba bider*

erortzen nintzan guchi gora bera.

Confesioa bucatzen dedanean, eguingo det beste Confesioaren bucaeran esan dana bera. *Eracuskac.* *Ongui esan dezu; baña orain gogoan arrezazu gaurza bat.* Baldin leneco *Confesioac berritu nai badituzu, ez gaiztoac izan diralaco; baicic vorondatez, orduan onguiena izango da, aurrena confesatzea azqueneco confesiotic oraindañoco becatuac, eta gueró berritzea berritu nai dituzunac.*

## *SEIGARREN ERACUSALDIA.*

*Confesioa eguin, eta Jaunaren maiean jartzeko prestaera Cristau gucientzat.*

**E**racusleac. Confesatu ondoan jarri zaite lecu egoqui batean, eta beta badezu, presta zaite Jaunaren maiera joatzen. Prestaera hau eguin ditegue era ascotara, baña oberen

*bat arquitu dezazun artean, balia zaitezque emen ipiñico danaz.*

Eman guiozcatzu Jaunari esquer-  
rac, ceren confesioco Sacramentua-  
requin becatuac barcatu dizquitzun.

Nere Jainco, ta Aita gueiz mai-  
tagarria! Zure Seme Jesusec utzi  
zuan confesioco Saeramentua gure  
animae sendatzeco. Sacramentu hau  
ongui prestaturic artzen duanari bar-  
catzen diozcatzu becatuac, Jesusen  
eriotza, eta merecimentuac bitarteko  
dirala, eta uste det, hau bera eguin  
dezula nerequin-ere, Apaizac bar-  
cacioa, edo absoluciona eman dida-  
nean. ¡O ontasun, eta urriquimentu  
paregabear! Milla esquer, Jauna, me-  
sede berri onegatic.

*Berritu itzatzu Bataioko egunean  
emandako bitzac.*

**E**z naiz, Jauna, esquerrac emana-

requin contentatzen; berritu nai ditut, Bataioco egunean eman nizquitzun, hitzac. Gaurdanic utzi nai det, eta uzten det Satanás betico. Era Satana-sequin batean uzten ditut beraren lagun, eta languilleac, edo Mundu galdua, eta araguiaren, eta nere guta charren naicuntzac. Hau da Ceruáren, eta guizonen aurrean Bataioco egunean Zuri emao nizun hitza, eta hau bera ematen dizut gaur-ere betico. *Abrenuntio.*

Gaurdanic betico utzi nai ditut, eta uzten ditut Satanasen obrac, edo becatuac, eta becaturaco videac. Zoazte nigandie urrutira, adisquide-tasun gaiztoac, eche anima galgarriac, eta lagun dongueen bildura. Hau da, Bataioco egunean egon nizun, bigarren hitza, eta hau bera berriro ematen dizun gaur-ere. *Abrenuntio.*

Guardanic betico utzi nai ditut,

eta uzten ditut Satanesen arrotasun , eta zoraqueriac , dala jantcian , ja-nean , edanean , eta beste gastuetan , dala atseguiñ , eta jolasetan . Hau da , Bataioco egunean nic eman nizun , hirugarren hitza , eta hau bera ber-riro ematen dizut venaz , eta biotz gucitic . *Abrenuntio* . Lagun zaizquiza-quit arren , eta indazu zure lagunz-ugaria aguindu dizudana leialqui eguiteco .

*Arritu zaite , Jaungoico guizon Je-sus maitagarria zugana etortze-co dagoala , oroituric.*

**E**ta oraïñ , nere anima , Nor ote da gaur zugana etortzeco dagoana ? Gauz arrigarria ! Erregue gucien Er-reguea , Aita Santu gucien Aita San-tua , Trinidadeco bigarren Persona , gugatic guizon eguin zana , eta gu-

tutzean vicitza eman zuana bera. Hau  
 gucia guchi bazan bezala , guri on-  
 gui naiez jarri nai izan zuan Alda-  
 reco Sacramentuan , eta jartzen da  
 Consagracioco hitzac Apaizac esa-  
 ten dituanean : eta gaur Sacramen-  
 tu miragarri onetan zure biotzera  
 etorri nai du zuri bere ondasunae,  
 eta bera dan gucia emateco. Nere  
 anima, ¿ nondic zuri onembeste me-  
 sede , eta ondasun ? Arritzen , eta  
 izutzen naiz , nere Jesus ona , Zu ne-  
 re- biotzera etortzeco zaudela gogo-  
 ratzean ; ez da ala baña nere biotz  
 esquergabe hau zurediñaco toquia ;  
 baña izutzen-ere naiz dembora be-  
 rean zure hitz oec aditzean : *Ezpa-  
 dezue guizonaren Semearen gorput-  
 za jaten , eta odola edaten , ez de-  
 zue iritsico betico vicitza diatua.*

¿ Cer eguiñ al dezaquet bada  
 onembeste beldurren artean , nere  
 Jesus oña ? Aitortzen dēt , ez naiza-

la ni Zu nere biotzera etortzeco diña ? Ta Zuc alaere nigana etorri nai ? Eguin bedi , nere animaren Jabe maitagarria , eguin bedi Zuc naidezuna , baña eguizu Zuc lenago Erregueac , echeren batera dijoacenean , eguiñ oi duena. Aurretic bidaltzen ditue oec, echea apaintzeco bear diran , gauzac. Bidalitzazu bada Zuc-ere Erregue gucien Erreguea , nere animaco eche arlote onetara Zu ongui artzeco bear diran apaindurac , edo Ceruco gracia , doai , eta virtueac. Esazu hitz bat , eta eguiña gueratuco da gacia. Atoz , nere Salvatzallea ; eguin zaite nere animaren Jabe. Atoz Jaincoaren Bildots becatuac quentzen dituzuna , senda eza zu nere anima , becatuen zauriz betea. Atoz Ceruco šu animen Berotzallea , zure amoriozco garrärequin ayena itzatzu nigandic becatuaren eutsuac , eta oneraco epeldasunac.

*Comunio Santua artu baño lencbeago : esan dezaquezu biotzez.*

**S**inisten det, Jesus maitagarria, Sacramentu orretan zaudela eguijaz. Hau da nere gorputza, esan cenduan Zuc Sacramentu miragarri hori eguin cenduan arratsean. ¿ Eta norc ez du sinistuko Zuc esandako gauza ? Adoratzen zaitut, nere Jaungoicoa, nere Erregue, eta Salvatzallea.

### ZAZPI GARREN ERACUSAL-DIA.

*Lembicico Comunioa eguitera dijoan Aurrac, nola berritu ditzaquean, bere Arzaia requin batean Bataioan emandako bitzac.*

**C**embait lecutan eguiten da lembicico Comunioa fest-andi baten eran.

Prestatzen dira Aurrac vicitza guci-  
co Confesioarequin : Comunioco eguna-  
nean , Jauna artzeco aurrean , joa-  
ten dira Apaizarequin batean ponte-  
ra . Candela iracequia escuetan di-  
tuela ; berritzen ditue Bataioco egu-  
néan emandako hitzac , eta guero  
artzen due Comunio Santua. Ez da  
**gure errietan oraindic usanz-eder hau**  
artu , baña erraz eguin ditequean  
gauza da hau. Ara nola. Lembicia:  
prestatzen dira Aurrac vicitza guci-  
co Confesioarequin. Bigarrena : adi-  
razten du Arzaia Meza nagusiren ba-  
tean , cer egunez izango dan lem-  
bicico Comunioa. Hirugarrena : era  
bada , ordú siñalatuau esango da Me-  
za Comunio onetaraco. Laugarrena :  
**Comunio artu bear duen Aurrac egoa-**  
go dira , candela iracequiaquin. Bost-  
garrena : Aurrac era onetan daude-  
la Apaizac Aldaretic hitzeguingo die  
lembicico Comunioaren gañean oraiñ

ipiñico dana , liburutic , edo bestela , ondoren berrituco dira Bataioco hitzac , eta emango die Comunioa.

## HITZEGUINGO DIE APAIZAC ERA ONETAN.

**A**urrac , arquitzen cerate Juan andia lembicico aldian artzeo puntuau. Bataioco , eta lembicico Comunioren egunac dira Cristauarenzat egun chit andiac , siñalatuac , eta beti gogoan iduqui bear liraqueanac. Bataiocoa , ceren egun artan irrieten dan Cristaua becatu jatorrizcoaren , eta etsai galgarriaren , mendetic , eta eguiten dan Jaincoaren ume , Jesucristoren senide , eta Ceruaren Jabe-gai. Lembicico Comuniocoa , ceren egun onetan bere biotzera datorquion Erregue gucien Erreguea ; aguintzen dion belico vicitza , eta hitz onen prendatzat bera jartzen , eta guerat-

zen, da Cristauaren biotzean. Eguingo du Jesu-Cristoc guciz leyalqui aguindu duana, baldin guc ala gordetzen baditugu Bataioco egunetic eman guinduan hitzac. Esan guida-zue orain, Aurrac."

- |            |   |
|------------|---|
| Apaizac... | Prest arquitzen cerate Bataioco egunean eman cinduen hitzac berritzeco, eta gordetzeko?   |
| Aurrac...  | Bai, Jauna, Jesu-Cristoren graciarequin batean.   |
| Apaizac.   | Aurra, <i>Abrenuntias Satbanæ?</i> Eusan nai det; gaurdanic betico uzten dezu Satanás, eta Satanasequin batean beraren lagun, eta langilleac, ceñac diran Mundu galdua, edo Munduan vici diran gaistoac, eta araguiaren gura chartac? |
| Aurrac...  | Bai, Jauna, beti-betico<br>K  |

uzten ditut. *Abrenuntio*

Apaizac..

*Et omnibus operibus ejus?*  
Esan nai det , Gaurdanic  
betico uzten dituzu Sata-  
nasen lan, eta obra guciac,  
nola diran becatua , ta be-  
caturaco bid· ac ?

Aurrac..

Bai , Jauna , beti-betico  
uzten ditut. *Abrenuntio.*

Apaizac..

*Et omnibus pompis ejus?*  
Esan nai det : Gaurdanic  
betico uzten dituzu Satana-  
sen arrotasun , eta zoraque-  
riac , dala jancian , janean ,  
edanean , eta beste gastue-  
tan , dala atseguin , ta jo-  
lasetan ?

Aurrac.

Bai , Jauna , beti-betico  
uzten ditut. *Abrenuntio.*

Apaizac.

Arrezazue bada oraiñ  
Jaun andia fede vici , umil-  
tasun , eta errespeto andi  
batequin.

## ZORTZIGARREN ERACUSAL-DIA.

*Comunio ondoan norc-erenai eguin bear luqueana.*

**E**racusleac. Bigarren Partearen amargarren Eracusaldian esan cenduan Comunio ondoan cer eguin bear dan. Artu dezu zuc orain Jaun andia ; zoaz bada toqui egoqui batéra eta eguizu obraz *orduan bitzez esana*.

Nor , norgana , eta certaco etorri zatzun Comunio Santuan. Nere anima , artu dezu Comunio Santua , Aingeruen ogua , ta Ceruco maná. Esnazaite bada , eta fedearen beguiquin beguita , Nor dan Comunioan etorri zatzuna ? Norgana , eta certaco etorri dan ? Nor ote da ogui pisca baten idurian etorri zatzun hau ? Hau da zu ecerecetic eguin cinduan , Jauna bera , eta eguin cinduana be-

ra ezagutzeko, amatzeko, eta beticotasun gucian berarequin batean Ceruan doatsu izateco. Hau da zu Adanen becatuarequin galdua ecusiric, guizon egun zana, eta gurutzeko eriotzarequin Cerurako gracia, ta de-recha zuretzat irabaci zuana bera. Hau zuri bere gracia, eta lagunzac emateko Sacramentuac ipiñi cituana, oen artean Comunioco Sacramentua. ¿ Nor gana etorri da? Gauz arrigarria! izan zu ceran beciñ esquergabea, eta ecereza, eta alaere zugana etorri da zuganaco onguinai, eta amorioz beteric. ? Certaco etorri dala, uste dezu? Etorri da zure janari, ta edari izateco, ta zuri bere ondasunac, eta bera dan gucia emateco.

*Miretsi zaite zugana era onetan Jaun  
andia etorzeaz.*

**N**ondic, nere anima; nondic zuri

onembeste ondasun , eta mesede ? Arriturić gueratu zan Salomon , ceren berac egoin zuan Eliz ederrean vici- zera Jauna etorri citzaion. Arriturić gueratu zan Santa Isabel , ceren ecustera , edo visitatzen joan citzaion Jaincoaren Ama. Arritzen da Eliz Ama Santa , ceren Trinidadeko bigarren Persona guizon egun , eta vicitu zan Virgiña chit Santaren Sablean. Nere Anima ? eta Jaun An- di hura bera zugana etorri bada , eta cerequin badaucazu , etzera miretsi- co ? Jesus ona ! Cer da guizona , eta cer naiz ni , Zu era onetan nizaz oroitzeo ?

*Eguizu Fede , Esperanza , ta Carl- dadezco afectoac , eta ado- raezazu.*

**O** Jesus ona , nere animaren Eros- le , edo Redentore maitagarria ! Si-

nisten det Zu eguiaz arquitzen centrala Aldareco Sacramentuan , eta Sacramentu onetan nigana etorri centrala. Sinisten det Zu ongi artzen Zaituanari ematen diozula Ceruco gracia , ta ongi vicitzeo laguntzac : ta gañera aguintzen diozula betico vicitza ; eta beragatic Zugan ipintzen det nere uste guzia , ceren Zu ceran Jaungoico Gucialdun , edo Gu cia dezaquezuna , eta cere hitzetan guciz Leyala . ; O ontasun guciz miragarria ! amatcen zaitut biotz guci tic , eta zure icenean amatzen ditut nere lagun urco guciac , eta oen artean nere etsaiac. Adoratzen zaitut nere Jaungoicoa , nere Erreguea , nere Salvatzallea.

*Emanguiozcatzu esquerrac.*

**N**ai nuque nic , nere Jesus ona ,

eguin dizquidatzun mesede guciai , eta orain nigana etortzean eguin ditzun oni alic ongiiena eranzutea ; baña aitortzen dei , ez naizala gauza , eta gai onetaraco ezecie , milla bider guchiagorako-ere. Gueyena nic eguin dezaquedana da , esquer umillac ematea. Milla esquer bada , nerre Onguille andia. Alabatu , eta bedeicatu zaitzeela Ceruan , eta lurrean diran gauza guciae. Bedeica zaitzeela Ceruco Eguzquiac , eta izarrac ; lurreco loreac , belarrac , eta itsasoco arraiac. Bedeica zaitzeela lurrean vici diran anima on guiciac. Bedeica zaitzeela Ceruco Querubin jaquintsuac , Serafin Jaunaren amorez eracequiac , eta Ainguero doatsu guciac. Bedeica zaitzala zure Ama maitagari Ainguueruen , eta Santu gucien Erreguiñac.



*Eguin guiozcatzu zure , escari , edo  
erregu umillac.*

Cer uste ez dezaquet gaur Zugandic , nere Salvatzallea ? Eche batean sartzen badira lurreco Erregueac , ez oi dira andic irten echeocoai mesederen batzuec eguingabe. Ta izanic Zu Erregue gucien Erreguea. ¿ Cer ez du Zugandic uste izan bear nere anima beartsu onec ? Berá dan gucia eman duanac cer ucatu al dezaque ? Indazu bada , nere Jesus ona , emendic aurrera becatutic aldeguiteco , eta gracian irauteco doaia. Indazu nere griña charrac , batez-ere áraco gueiena necatzen nauan hora ecitze-ko , eta garaitzeco zure laguntza ugaria. Oroi zaite nere aide , ta ongi-heaz , baita nere etsayaz-ere , ala viciaz , nola hillaz. Gorde ezazu zu-

re Eliza Santa bere etsai gucietatic ,  
baita gure Jaun Erreguea-ere bere  
echecho guciaquin.

Jesusen anima , virtutez bete nazazu. Jesusen viotza , amorez erre nazazu. Jesusen gorputza , salva nazazu. Jesusen odola , Ceruco amorioz zora nazazu. Jesusen viotzeco ura , garbi nazazu. Jesusen icerdia , graciaren vicitzaz bete nazazu. Jesusen Pasioa , indartsu eguin nazazu. O Jesus ona , adi nazazu. Zure llaguen artean gorde nazazu. Zugandic aldeguiten ez arren utzi. Etsai galgarriagandie gorde nazazu. Nere eriotzaco orduan dei nazazu. Ceregana eraman nazazu. Cere aldean ipiñi nazazu. Zure Santu , ta Aingueruaquin alaba zaitzadan secula gucion. Amen.



## LAUGARREN PARTEA

**ERACUSTEN ZAYO, ALA LEN-**  
*wicico Comunioa eguin duan Aurra-  
 ri , nola edoceiñ Cristauri betico  
 vicitza doatsuaren vide eder-  
 garbia.*

*Lenengo Eracusaldia.*

**B**etico vicitza doatsua iristeko ez  
 da ascò lembieico Comunioarequin ,  
 edo beste edoceñequin ongi asitzea ,  
 baicic iraun bear da vicitz onean :  
 eta cer onetaraco bear dan.

Jarri cera , Cristaua Jaunaren gra-  
 cian? Poztu gaitecen egun onetan bau  
 da Jaunaren ontasunac neretzat ar-  
 guitu duan eguna , esan dezaquezu.

Egun onetan urratu dituzu Egyptoko cateac ; garaitu dezu etsai galgarria , eta igaro cera Jaunaren bendicioetako lurrera. Egun onetan aye- natu dituzu becatua , eta onec berequin dacartzian illuntasun , edo tristurac. Egun onetan biurtu cera zure Aita Cerucoagana , Evangelioko se- me ondatzallearen eran , eta zure Ai- ta onac apaindu zaitu graciaren so- neco ederrarequin. Eman dizu *Ca- ridadea* deritzan virtutearen eraziu- na , eta gañera Ceruraco videan on- gui ibiltzeco oñetacoac , edo lagunt- zac. Azquenean eman dizu zure ani- maren janaritzat bere Seme bacarra , Bildots becatuac quentzen dituana. Asi cera ongui betico vicitza doatsna iristeko videan. Baña beguira ; ez da asco ongui asitzea , baicic itaun bear dezu vicitz onean. Ongui asizan Saul ; Ongui asizan Judas ; eta ongui asi ci- ran infernuan daudenetatic ascó , baña

galdu ciran , ceren vicitz onean iraun etzuen. *Azqueneraño dirauéna salvatuco da* , dio Jesu-Cristoc (a).

¿Eta cer bear ote da onetaraco ? Ascó , baña gucia biltzen du Davidec hitz oetan *Aldeguizu becatutic , eta eguiuzu onguia* (b). Ez dio Jaunac iñori aguintzen vicitz onean irauteco doaia , zabartu ez gaitecen ; baña ez dio ucatzen beldur Santu batequin becatutic aldeguiten , eta obra ónetan diardunari (c).

Hau onela izan , eta alaere ni vicitu naiz ardura aiñ guchirequin ? Nere Jaungoicoa ! Zu cera nere ustegua , eta zure laguntza ugariaren ustean erabaqui det Zu servitza , becatutic aldeguitca , eta obra onai jarraitza. Virgiña chit Santa ,

---

(a) *Matb.* 10. (b) *Psalm.* 36. (c) *Vide Concilium Trident.* Ses. 6. Cap. 13 de *Justificat.*

becatarien Ama gozoa lagun zaiquiz-  
quit arren , nere astmo oec leyalqui  
gordetzen.

## BIGARREN ERACUSALDIA.

*Cer becatutic gaste Euscaldunac be-  
rezquiero aldeguin bear duan.*

**A**ldeguizu becatutic , esaten digu Davidec. Hitz oec adirazten digüe , aldeguin bear degula edocein becatutic. *Ene Seme* , esaten cion Tobias zarrac gazteari; *gogoan iduqui ezazu beti Jaungoicoa* , eta beguirat , ez lecuric eman becatuari cere biotzean (a). Alaere badira becatu baizuec besteac baño ondoren negargarria- goac dacartzienac , ala animaraco , nola erri , eta echeetaraco , eta oe-

---

(a) *Tobias Cap. 4 v. 6.*

tatic aldeguiten ezpadu gazteac , galduco du bere burua , eta eguingo ditu nortaqui cemba t calte. Enzun eza zu bada , gazte Euscalduna , cerbecatu diran arreta chit andia gazte demboran escatzen duenac , galdu etzaitecen.

Lenengoa da alferqueria. Ezpada gaztea oitutzen dagocan vici moduan necatzera , dala escolan , dala necazaritzan , edo beste vicimodua icasteco lanetan , galdua da , ala Jaunaren , nola munduaren beguietan ; ez du alabaña iñore-ere begui onez ecusten alfertra. Onetan bear lizaquean contua errieta artu gabez , ondatzen dira onrarequin dembora lucean iraun duen echeac , gaitzgui ilez betetzen dira erriac , eta becatariz infernua. *Lanean ari nai ez duenac , ez dezala jan , dio S. Pauloc. (a).*

---

(a) 2. ad Thesalon. Cap. 3.

Bigarrena da, juramentu erraz eguitea, naiz eguiaren gañean izan. *Ez dedilla juramentuetara zure aua oitu, ceren oitura onec becatu ascó dacartzian*, dio Espiritu Santuac (b). Ez dezazula bada icasi ascoren guisa esaten: *ara gurutzea; emendic mugui ez nadilla; ala Cerura noala; Deabruac naramala; nere animan.* Oitu zaite esatera *bai, edo ez, Cristoc eracusten digun bezala.*

Hirugarrena dá, birauac eguitea lagun urcoaren contra. Hau da oitura chit itsusia, eta gazteac icasten badu, nequez utzico du. Ala ecussten da egun oro, eta cembait echestan becatu jatorrizcoa, edo originala bezala igarotzen da aurrecoetatic ondorengoeetara. Ez dezazula aitzquiatzat arju: *biotzetic ez dituzula botatzen, ceren oitura duanac nor-*

baitequin mintzen danean , erraz biotzetic botaco ditu. Gañera emanen du ejemplo charra , eta hau iritsi oi da , gurasoetan beintzat , becatu larrira. Idiai , beiai , eta beste escutarteko gauzai birauac botatzea ez da berez becatu larria , baña zuc ez dezàzula hizcunde onelacoric artu , ceren malla onetatic bestera erraz irristatu cíndezquean.

Laugarrena dá *Deabruari* , *Demonioari* , *arrayoart deitza*. Ez det esan nai , gaistoari deitza utsutsic dala becatu larria , edo mortala , baicic oitura itsusia Cristauaren auan ; oitura beiñ artu ezquero , utzi ez oida obiraño , eta gurasoetan exemplo gaiztoa dacarrena. Oitu zaite Jesusen , eta Virgiña chit Santaren iceña auan eta biotzean erabiltzera. Ayena bedi zure autic , eta Cristauen echeetatic etsai galgarriaren icena.

Bostgarren becatua da edanean

igarotzea. Gazteac , ederretsi ezquerro edanari , nequez chit utzico du bere oitura lotsagarria , eta izango da bere , eta beste ascoren galgarria , eta desonra. Gàurdanic betico arrezazu griña char oni lecuric ez emateco asmoa.

Seigarren becatua da hitz loi-desonestoac , edo araguiizcoa esatea Beguira , oitura hau artu duenac oitura berarequin joan oi dira obirano. Hau da miñ ance bat nequez sendatzen dana , eta ecin conta al anima galtzen dituana. S. Pauloc ez du nai arag<sup>iz</sup>co becatuaren icenic aitatzaera. Aldeguizu becatu-mota onetatic , bajta lagun mingaiñ enasciñiac dituenetatic-ere.

Zazpigarren becatua da Erligio-soen , eta Jaunaren Ministroen contra nolanai , edo beguiramenuric bague hitzeguitea. Hau da Luciferrec , heregeac , eta Cristau gaistroac era-

cutsi duen hizcuntza. Zabaldu da minance hau izurriaren eran , eta an- diac dira eguiten dituan calteac. Ez dezazula icasi zuc erá onetaco hiz- quetaric : gorde guiezu zarrai , eta Jaunaren Ministroai errespeto andia. Azquenean etzaitezela oitu , aditzen dituzun gauzac erraz contatzera , la- gun urcoaren onra , eta icen ona uquitzen bada , ez eta guezurra esa- tera-ere.

### **HIRUGARREN ERACUSAL- DIA.**

*Cer dan, eta nola aldeguin bear duan  
gazteac escandaloa deritzan  
becatutic.*

**A**zqueneco Eracusaldian uquitu diran , becatuaz gañera bada beste bat chit contu andia escatzen duana gure aldetic , eta icendatzen da es-

*candaloa.* Escandaloaren icenez aditzen da lagun urcoari becaturako *videa*, *oña*, *edo lagunza ematea*, dala gaitzaqueria *eracutsiaz*, dala artan *lagunduaz* losenchaquin, edo bestela, dala etagotzi litequeala, eragotzigabez. Ez due ecertan artzen asco gazteec becatu-mota hau, eta ecertan artu ordean, cembat eta becatu gueiagotaraco videà ematen duen dala hitzez, dala obraz, eta egemplo gaiztoz, ambat gueiago berengan pozutzen, eta arrotzen dira, eta bear bada laudatzen ere bai lagun artean. Ala guertatzén da hitz araguizcoa esateco, hipui ciquifiac contatzeco, modu itsusietan ibiltzeco oitura dueñaquin. Bañia zuc, cristaua, gorroto andi batequin beguira zayožu becatu mota oni, eta aldeguizu bera-gandic arretxa andi batequin. Oinetataco lagunduco dizue asco pensamiento oec.

Lenengo pensamentua : Satanas munduaren asieratic ari dá Jaungoi-coari guerra eguiten, eta animac infernura amilderazten : ta zu Cristaua, jarrico cera Satanasen morroi, eta languille, lagun urcoari becaturaco videa ematen diozula ?

Bigarren pensamentua : lagun urcoaren anima Ceruraco videan ipintzea costa citzaion Jesu-Cristori gututzeo eriotza gogorra ; eta erosi zuan bere odol preciotsuaren costuz : § eta zuc quenduco diozu Jesu-Cristori aimbeste costataco anima, eta emango diozu etsai galgarriari ?

Hirugarren pensamentua : zure lagun urcoaren anima da Jaunac eguna betico vicitza doatzua iristeco : § eta zuc amilderazo nai dezu betico su, eta garren artean ?

Laugarren pensamentua : escandaloa ematen duana beartua dago calteac aleguiñean deseguitera : § eta no-

Ia hau eguingo du, espadaqui no-  
rañoco calteac eguin dituan? Bear-  
bada anima batzuec infernura dira  
argatic; besteac argandic icasi zuen  
becatua zabaltzen, edo batari, eta  
besteari eracusten ari dira. Becatua-  
ren izugarria; Ay! *Escandaloa eman-  
ten duanaren zori gaiztocoa*, dio Je-  
su-Cristoc (a).

Nere anima, eguzu asmo osoa,  
lagun urcoari beñere becaturaco vi-  
deric ez emateco, ez hitzez, ez exem-  
plo gaistoz. Oraindañoco calteac ale-  
guiñean deseguiteco, vici zaite Jesu-  
Cristoren Legue Santa escatzen duan  
eran, eta cere vicitz onarequin era-  
cutsi guiezu zure lagun urcoai Ceru-  
raco videa. Ala eguin zuan Davi-  
dec, eta esaten cion Jaunari: *Era-  
cutsico diet becatariai Ceruraco vi-*

(a) *Matb.* 18.

*dea , eta zugana biurtuko dira gatz-toac (a).*

## *LAUGARREN ERACUSAL-DIA.*

### *Jocoaren gañean.*

**J**ocoa , ezpada de vecatuetacoa, eta eguiten bada bere demboran , eta neurrian , ona da dio S. Francisco Salesio (b). Baña cer guertatzen da ? Badabill gazte ariña batetic bestera : biltzen da beiñ , ta berriz , ta asco-tan jocalariaquin : asitzen da jocoari ederreisitzentz , eta azquenean gueratzen da jocoraco guciz etziña , macur-tua , ta itsutua. Jocoaren , eta jocoraco itsumenaren gañean hitz bi esan

(a) *Psalm. 50:*

(b) *S. Franciscus Salesius Part, 3 Cap. 31 Introductionis ad vitam devotam.*

nai dizquitzut, nere gazte Euscaldu-na. ¡Oxala ipiñi albanaza itsumen hau zure beguien aurrean dan bezalacoá, ta dan bezaiñ animen, echeen, eta errien galgarria ! Oxala Euscal-dunen erri gucietan arguito adiraci albalitez jocoraco jayera eragabe-coac dacartzian becatu, ta ondoren izugarriac ! Etsayaren sare, ta bísca onetan erori etzaitezen, adiracico di-zut, benic beiñ, cer bear dan beca-turic gabe jocatzeço. Adiracico di-zut urrena, ecin conta al becatu, ta ondoren negargarri dacartziala joco-raco itsumenac. Asi gaitecen ber-tatic.

Jocoaren icenez emen aditzen da jocatzea, ez nola nai, baicic ipintzen dala cerbait irabazlearentzat. ¿ Cer ote da becaturic gabe hau egui-teco bear dana ? Ara cer.

I Lenengo lecuan bear dan gauza dà, ez jocatzea joco devecatuan ; ba-

dira ala baña jocoen artean batzuec devecatuac ez daudenac , eta oeratik dira pillota , saltoa , bolac , trucoac , baita cembait cartajoco ere. Badira beste joco batzuec , berenez gaistoac ez izan arren , ecarti oi dituen calteac gatic devecátu diranae , eta onelacoac dira suertezco , edo fortunazco joco guciac Ansiñatic devecatu cituan Elizac onelaco jocoac (b) , eta hau bera egun zuen Espaňaco gure Jaun Erregueac (c) ; baña ez dira

(b) Tridentin. Ses. 22 Cap. 1 de Reformatione. (c) Leg. 18 tit. 7 lib. 8 Recompillationis. *Verba bujus legis irritare videntur contractum; inhabiles enim reddit ludentes ludo prohibito, ut suum faciant lucrum. Nibilominus nolui id significare sermone vulgari, quia Lexcitata vix in praxi recepta est ut irritans, et in simili casu monet Antoinius, standum esse consuetudini receptae, et non abrogatae per Legem.*

contentatu Erregue berae onembesterequin, baicic devecatu ditue jocoaren videz guertatzen ciran, ascó gauza. Devecatu ditue osotoro trabesac, dana dala jocoa (*d*). Devecatu due Legueac diona baño gueyago jocoan ipintzea (*e*). Devecatu due guerocó jocatzea (*f*). Devecatu due dirua ez beste gauzaric jocatzea (*g*). Devecatu due languilleac, eta alogueran, edo jornalean dabilizanac jocoan aritzea astegunetan, goiceco seietatic amabien, eta aratsaldeco ordu bietatic arratseco zortzien bitartean (*b*). Devecatu due azquenik jocoan aritzea edaria saltzen dan lecuan, baita echetan jocalariai jocoraco toquia ematea ere (*i*). Ona cembat gauza devecatu dituen gure Jaun Erregueac jocoen gañean. Emendic

(*d*) *Leg.* 18 *citata.* (*e*) *Ibidem.* (*f*) *Ibidem.* (*g*) *Ibidem.* (*b*, *Ibidem* *i*)

atera ezazu , garbiro , ta becaturic gabe jocatu nai duanac ez dituála autsi bear aguinte oec , beintzat gai andian. Diot hau , ceren guizun jaquintsuen iritzian era onetaço Leguéac ez diezá gauza chiquiai beguiratzen (j). Orregatic ez da becatutzañ ematen emacumeac bateco ezpatara , edo urrera ardita jocatzea , edo beste jocoren bátean trabes chi qui bat egüitea.

2 Becaturic gabe jocatzeko bear dan bigarren gauza da , jocoan ez ipintzea nai dezuna eguiteco escua dezun gauza baicie. Emendic eciñ joca dezaque gurasoen mendeian vici danac oen baimenaren neurrian bai eie , eta alacoaquin jocatzen díenac ez due berendutzen irabacia , baldin galzalleac igarotzen badira gurasoen baimenaren , edo beintzat dagoten

(j) *Vide Antoinium cum Notis R. P. Stradell.*

neuriaz campora (*l*). Era berean, ecin jocoan ipiñi diteque ostutaco gauzarric, ez eta limosnac, edo beste obra onac eguiteco utzi dizuena ere.

3 Hirugarrena, ez da iñor jocoraco borchatu, ez cuturtu bear guezurrez, hitz gaiztoz, eta engañoiz, ascoc eguiñ oi duen bezala (*m*).

4 Laugarrena, ez da tramparic eguin bear jococo leguen contra. Gui-

(*l*) *Vide Salmanticenses tomo. 3 tractatu 24 de Contracti. C. 4. Puncto 3 n. 54. et Ligorium.* (*m*) *Qui alterum induxit ad ludendum vi, doio, minis, vel imperitiam simulando, eumque vicit, tenetur restituere lucrum secundum sententiam Lesij, Antoinij, Tournelij, quia est causa damni, cum ex sua injuria alter damnum patiatur. Ligorius distinguit: si collusor cogens alterum ad ludendum superet coactum in peritia ludendi, Sentio, ait, teneri ad restituendam saltem partem lucrati juxta mensuram peritiæ, qua præcelleret alteri. Si autem non superet in peritia ludendi,*

sa onetaco trampa da tantoac ostutzea , cartac isillic marcatzea , edo siñalatzea , gañetic beguira daudena- quin queñuz elcar adiizea , eta besteac duan jocoa onela jaquitea. Era onetaco trampaquin irabazten duanac biurtu bear du irabacia , baita tramparic egun espalitz besteac irabacico zuana ere (n).

5 Bostgarrena , ez da jocatu bear , baldin jocatzea becaturaco videa bada zuretzat , edo bestearenzat , egun dezagun contu birauac botatzeco ,  
*tenet posse retinere lucrum ; quia tunc non coatio , sed potius casus erit causa dan- ni , cum metum passus sicut perdidit , ita æquè poterat lucrari. Illud certum vide- tur , quod si metum passus restitucionem petat pecuniae amissæ , tenetur ad eam me- tum incutiens*

(n) *Fraudibus vincens alterum , tenet- tur 1 restituere lucrum 2 tenetur etiam restituere quod alter certo lucratus erat fraude non interveniente. 3 si dubium sit ,*

juramentuac nola nai eguiteco , pa-  
guea galtzeco , eche coac naigabesz  
erquituric ipintzeco , umeai aciera  
charra emateco , dagoten bezalaco  
dote , eta irteeragabe utzitzeco , zor-  
rac beren oñean iduquitzeco , edo  
beste eguinvide , edo obligacioren  
bati ez eranzuteco. Emendic ezagu-  
tu dezaguezu , nere Euscaldun ona  
guchi izango dirala jocalarien ar-  
tean becaturaco vide urco , eta pe-  
rill andian vici ez diranac.

---

*an alter lucraturus esset, si fraus abfu-  
isset, Salmanticenses dicunt, fraudato-  
rem non teneri restituere, nisi quod certè  
alter lucraturus esset, cum in dubio me-  
lior sit conditio possidentis. Ligoriū adhæ-  
ret huic sententiæ, si fraude victus, fru-  
de non interveniente non habebat majorem  
spem lucrandi, quam periculum perdendi.  
Si vero maior esset spes victoriæ, teneri  
victorem, ait, ad dandum alteri quan-  
tum valer hæc spes, qua per fraudem  
privatus est.*

6 Seigarrena , jocoan ez da ipini  
bear diru asco ; jocoa ala baña as-  
matu zan atseguin artzeco , ta bar-  
runa alaitzeco , utziric beste quez-  
cæ alde bat ; eta diru ascó jocatzen  
bada ez du alaitzen jocalaria , bai-  
cic alaitu ordean quezcaz betetzen du.

7 Zazpigarrena , ez da igaro bear  
jocoan dembora lucea ; bestela ez da  
izango atseguin artzea , baicic necat-  
zea , dio S. Francisco Salesec.

8 Zortzigarrena , becaturic bate-  
re gabe jocatzeco , artu bear da as-  
mo , edo intencio garbia . Onelaco  
asmoestatic bat da jocatzea batec be-  
re burua alaitzeco , guero bere lan ,  
eta eguitecoai obeto equin deguien.

9 Azquenean , contu , dio S. Fran-  
cisco Salesec , zure gogo , ta bietza  
ez ipintzeaz jocoan (o) . Santuac dio-

---

(o) *Nota : bæc requiruntur , ut omnino  
vitimus peccatum in ludo tum mortale ,  
tum etiam veniale , at etsi non omnia ob-*

na zuc ez eguitera , guchica eroriaz joango cera jocoraco gura itsu batean , eta guero nortaqui cembañ utseguite , ta becatutap amilduko ceteran . Bafia goacen aurrera , ta dacuseun , nola eciñ conta al diran jocoraco itsumenac dacartzian becatu , ta ondoren negargarriac .

Ez da erraz adiraztea , ez eta ezagutzea ere cembañ becatu , eta ondoren negargarri dacarizian jocoraco maectasun , eta itsumenac ; bafia bai , ecin conta al dirala oec , eta zuc cerorrec ezagutu dezaquezu egui hau erri ascotan guertatzen danari beguiratze utsarequin ; zoaz ezperen cerbait diran errietara , eta beguirako ondo , cer guertatzen dan orain uquitzen degun gayean .

Cer ecusico de-

---

*serventur, non illico inferenum, id esse mortale; sed Judicium ferendum secundum ea, quæ requiruntur ad peccatum mortale.*

zu ? Ecusico dezū festen , eta pillo-tajocoen aitzaquian biltzen dirala batetic , eta bestetic jocalariac. Billatzzen due neque andi gabe jocoraco toquia , eta ari dira Legueac devecatzen duan jocoan gau , ta egun. Sarritan estaltzen da maya urrez , eta cillarrez , eta bereala ecustenda ecergabe. Onela diardue jocoan batac bestea mutildu dezan artean. Nor , edo cein ote dira jocalari oec ? Batzuec dira zorra zorraren gaiñeguiñ , eta oei eciñ eranzun diezanac ; besteac bearbada errietako car-gudunac ; batzuec gazteac , besteac zarrac. Ecusico dezu , pillota-jocoa , edo idiapustua danean ugari eguiten dirala trabesac , Leguez devecatuac badaude ere. Ecusico dezu pillota jocetan , eta legueac devecatzen ez dituan beste edoceiñetan ipintzen dala isilic , eta guciac daquiela dirua , Legueae siñalatzen duanaz campora.

Ecusico dituzu edaria saltzen dan lecuetan jocoan diarduela ez guchic; eta era berean astegunetan languiileac, eta beren nequearequin vici bear duenac, legueac devecatzen duan demboran. Ecusico dezu, nola gurasoen mendean vici diranetatic asco dabilzan erriz erri, eta festaz festa jocoan, eta eraquerietan. Al ferrac dira gurasoen onguiesan guciac, onelaco gazte jocalariai galerazteco ibillera char oec: aurrera dijoaz beren griña charrac daramatzian toquietara, eta billatzen duena,edo gurasoai ostutzen diezena ondatzen due edanean, jocoan, eta gaiztaquerietan. Ecusico dezu, nola iguesi dabilzan jocalariac. Meza nangusietatic, erosario, eta dotrinetatic. Ecusico dezu jocoraco itsumen char onetatic jayotzen dirala lagun arteco paquearen galtzea, gorrotoa, iscambilla, borroca, buruac autsit-

zea , eriotzac , eta onraz aguertzen ciran echeac ecerezera biurtzea. ¿Nai dezu orzindic gueyago ecusi ? Zoaz bada carceletara , eta gazteluetara , eta an ecusico dituzu ascó burniz beteac , ceren jocoari , eta guero lapurretari ederretsi cioen. Zoaz urcamendietara , galde ezazu , nor cincilica jarri oi diran an ? Eranzungo dizue , aratzen diran gueyenac dirala jocalariac , beren griñia charra ez uzteagatic lapurreta , ta eriotzac eguiñ cituenac. Esanguidazu orain , nere Euscaldun ona , esanguidazu arren : hau gocia onela bada , dan bezala , ¿ez dira ecin conta al joceraco itsumenac dacartzian becatu , ta ondoren negargarriac ? Bai eguiaz , bai.

Nai dezu zuc , gazte Euscalduna , calte izugarri oetatic aldeguin? Eguztu bada contuz orain esango dizudana. Lenvicia : aldeguizu joco devecatuetatic , baita trabesac eguitetic

ere. Ez dizut esan nai fortunazco jocoetan gauza pisca bat ipintzea , edo beste jocoetan trabes chiqui bat eguitea dala utseguitate andi bat , baicic aditzera eman nai dizut , etzaitecela oitu gauz oetara , chiquitie andira igaro etzaitecen. Bigarrena , devecaturie ez dauden jocoetan ere , egunin dezagun contu , pillota jocoan , ez ipiñi diru ascó , baicic atseguiñ artzeo diña bacarrir. Hirugarrena , ez ipiñi zure biotza jocoan , baicic atseguiñ arrézazu neurri , ta modu onean , guero obeto eguiteco dagozquitzun lanac. Laugarrina , ez jocatu jai egunetan Meza nagusi , errosario , ta dotrinaco demboran. Azque-nean aldeguizu jocalari gaiztoetatic , nola diran birauguilleac , eta paquea galtzeeo videa eman oi duenac , eta oitu zaite ordu onean echeratzera. Era onetan aldeguingo dezu jocoac dacartzian utseguitate , andietatic be-

derie. Gure errietan jocorie egoquienac mutil lentzat dira pillota , balanca , bola , edo birlac , eta saltoa , baña onena pillota : ojala utziaz ezpalijoaz mutillac joco hau ! Nescachac igaro dezaquee jai arratsaldetako dembora , Dotrina esaten , edo eusquerazco libururen bat iracurtzen , eta iracurtzen dana enzuten ; eta ondoren joca dezaquee cartetan. Baña nescachac jocatu bear due nescachaquin , eta errespetoco andreren bat béréquin duela ; bestela jocorie onenac ere erraz gaiztotuco dira.

## *BOSTGARREN ERACUSAL-*

*DIA.*

*Miñantze ceiñ izugarria dan becaturaco oitura , eta nola ardura andia artu bear dan ontan ez erortzeco.*

**E**doceiñ becatu larri da gauza

chit gaiztoa , eta samiña , Jeremias-  
sec adirazten digun bezala ; ¿ eta cer-  
izango da becatua becatuaren gañean  
eguitea , eta artzea becaturaco oitu-  
ra , edo erraztasuna ? Oitura hau da  
miñance edo gaitz bat guchitan sen-  
datzen dana. Ala ecusten da egun  
oro biraugu illeaquin , edaleaquin ,  
hitz desonestoac esateco oitura due-  
naquin. Esana dago : *Anz arturac  
obirailo.* Espiritu Santuac berac esa-  
ten digu : *Gaiztaqueriara oitutzen  
baguera , onera jarrico guerala Etio-  
piacoac bere larru beltza , eta cata-  
motzac edo tigreao bere mancbac ut-  
zitzen dituanean (a).*

Becaturaco oitura da miñance bat  
animaren beguiac illuntzen dituana.  
Alfer da guizon bat jaquintsua iza-  
tea ; becatuari ederretsi ezquiero ,  
gau illun batean bezala gueratuco da

animaco gauzeta. Ala ecusi zan Sa-  
lamonequin.

Becaturaco oitura da gaitz bat ,  
malluac ingudea bezala , guerotic  
guerora gueiago gogortzen duana  
becatariaren biotza. Esan diteque  
Job Santuac Luciferregatic diona :  
*Gogortuco da onelacoaren biotza ar-  
ria bezala , eta mallucaria ari zaion  
chingudearen eran (b) ; Eta onela  
gogortu ezquero becatariaren biotza  
cer guerta diteque ? Cer , ezpada  
ecertan ez artzea Jaunaren hitza ,  
eta gaztiguac ? Jo cinduan , dio Je-  
remiasec onelaco becatariaz , cere  
cigorrarequin , eta ez due eguin-  
daco gatztaquerien damuric artu ;  
ceatu cinduan , eta ez due icasi na-  
izan zuc eracusten ceñiena (c).*

Becaturaco oitura da gaitz-mota

(b) Job. 41 (c) Jerem. 5.

bat alñ izugarria , non bere ondoren  
ecarri oi duan becatuaren berrizca-  
tura berizcaturaren gaiñ , egun oro  
dacuscun bezala. ¿ Era becatuaren  
edoceiñ berrizcatura gueiz izugarria  
bada , cer izango da berriz , eta ber-  
riz gaitzaren mendera biortzea ? One-  
laco becatariac dira , Escritura San-  
tae dionez , góra bota duana berriz  
*jatera biurtzen dan zacurra beza-  
la (d).*

Azquenic becaturaco oitura da mi-  
ñance bat becatari gaisoa amilca da-  
ramana becatuen neurria igarotzera.  
Gure Jaunac beregan erabaquia dau-  
ca , cembañ becatu barcatuco dioz-  
can bacoitzari. Neurri hau ez da gu-  
cientzat berdiña. Ainguetu gaiztoac  
pensamentuzco becatu batequin amil-  
du ciran Cerotic Infernura ; eta S.

(d) Proverb. 26.

Gregorioe dion bost urteco Aurrac juramenturen batzuec eguinda igaro zuan neurria , eta betico galdu zan. Neurria igarotzen duan becatu hau da , betico eriotza berequin daraman becatua ; eta hau irintsi ezquero , beti betico galdua da becataria. Ez dá gueíago , ongi sendatuco , eta gueratuco da , Ceruco euri , eta inz gozo-ae uquitzen ez duan , lur elcorra bezala. Becatu onetan amilderazo oi du becatari itsua bere oitura gaistoac. Ecusten dezu , nere anima , ceiñ miñance izugarria dan becaturako oitura ? Beguire bada gaitz onetan ero-ri etzaitecen Iñoiiz becaturen batean irristatzea guertatzen bazatzu , ez erantsi becatua becatuari , esaten di- zu Espiritu Santuac (e) ; lembaitlen alcha zaite damuz beteric.

## *SEIGARREN ERACUSALDIA.*

*Becatuan erori nai ez duanac aldeguin beardu becaturaco vide , eta perill , batez-ere urcoetatic.*

**P**erilla maite duana , perillean bucatuco da , dio Espiritu Santuac. Ala guertatu da dembora gucietan. Perillean jarri zan Salomon , eta erori zan , eta hau bera guertatu citzaion Davidi-ere. Beraz erori nai ezpadetu becatuan , aldeguin bear dezu becaturaco vide , eta perilletatic , batezere urcoetatic.

Ez dá Ceruan , eta ez dá lurrean , guretzat becaturaco vide , eta perilla ecarri ez lezaquean gauzaric , aimbesteraño gaude gaitzerontz macurtuac. Alaere ez dira berdiñac beca-

turaco vide , eta perill guciac. Beca-turaco vide , eta perill bata dá *urruticoa*. Deitzen zaio onela , ceren beregandie urruti dauean becatua , **etia** guchitan amilderazo oi duan ar-tan. Bazoaz Elizara , eta ecusten de-zu guizon , edo emacume bat ongui-jancia ; ecuste hau uts utsic becatu-raco vide , eta perill *urruticoa* da , **eta** etzaude onelaco perill urruticoe-tatic igues eguitera beartua , bestela igues eguiñ beatrac-guiñaque Mun-du onetatic.

Becaturaco beste vide , eta perilla da *urcoa*. Deitzen zaio *urcoa* , ceren vide eta perill onetan jartzen dana , edo dagoana , sarritan erortzen dan becatuan , edo beintzat erortzeco pe-riill andia dan , sayets guciatara on-gui beguiraturic. Contu daguigun , an , edo emen biltzen dirala jaietan mutillac , eta nescachac : aritzen dira dembara pusca batean **carta-jocoan**,

eta ondoren , edo , bitartean guertatu oi dira hitzqueta desonestoac , hi-puhi cíquiñac , eta queñada lotsagarriac. Batzarre onetara joatea da becaturaco *vide* , eta *perill urcoa*. Hau bera guerta diteque festara, edo danzara joatearequin , edo urliarequin , eta sandiarequin hizquetan egonaz.

Becaturaco vide , eta perill urcoa batzuetan da *vorondatearen contracoa* , eta naitaere eciñ batec utzi dezaqueana calte andigabe. Arquitzentz da bat carcelan , guizon eta emacume limuri-errebesen artean, eta becaturaco videa sarritan ematen dioela ; badijoa bestea itsasoan , eta hau bera guertatzen zaio oncico lagunaquin. Becaturaco vide , eta perill oecurcoac dira , baña vorondatearen contracoac , ceren naita-ere eciñ utzi ditezquean. Beste batzuetan becaturaco vide , eta perill urcoa da *vorondatzcoa* , ceren calte landigabe

utzi ditequeana dan , eta onelacoac dira gueienac.

Guerta diteque , gauzaren bat bez gaitza ez izatea, eta gaitza izan leuan , edo ordean ona izatea , eta al-ere ascorenzat becaturaco vide , eta perill urcoa ecartzea. Ala eguzquiaren , eta izarren edertasuna anciñaco demboran izan zan gende ascorenzat idolatriaraco videa. Era berean ezconza , Soldadu sartzea , errietako carguac artzea , ez da batzuenzat becaturaco videa , baña bai ascorenzat. Argatic zuretzat becaturaco videa , ta perill urcoa diran , batzarre , lagun gaitzo , hizqueta , eta naspilletatic aldeguin bear dezu , *besteac badijoacela* aitzaquiatzat emangabe. Bear bada aentzat ez da aimbeste perill , nola zuretzat , edo ezagutzen ez due ; eta nolanai dijoacela besteac , zu beartua zaude becaturaco vide , eta perill urcoac

utzitzera , utzi albaditezque. Aingauza bearra da hau , non onelaco perilletan jartze utsa-ere becatu dan , guerò perillari dagocan becatua eguita cerbaitec eragotzico balu ere. Daguigun contu , urlarenzat jai-ar ratsetan ostatura joatea dala moscortzeco vide , eta perill urcoa ; badijoa ala-ere , baña biurtezn da eche ra ardoric uquitugabe , ceren aitu dan. Ez da aldi onetan orditzen , baña ordi baliz bezala co becatua egui ten du , ceren berenaeiez artaraco vide urcoan jartzen dan.

Becaturaco vide , eta perill urcoa izateco ez da sarritan becatuan erori bearrie , baldin era danean erortzen bada bat. Urtean beiñ da iñuteria , urtean beiñ dira erri bacoitzeko festac , eta araco hermita haren inguru an eguiñ oi diran gazte , ta zaren batzarreac ; ala-ere ascorentzat dira dembora horiec becaturaco vi-

de , eta perill urcoac. Gañera guer-  
ta diteque becaturaco vide , eta pe-  
rill bat *urcoa* izatea becatuan erori  
baño-ere lenago , baldin sayets gu-  
cietara beguiraturic erortzeco perill  
andia bada. José anciñaco Jacoben  
**Semea** etzan bere echechoandreare-  
quin becatuan erori ; baña cegoan  
echean , egon zan baño gueiago ego-  
tea izango zan becaturaco vide , eta  
perill urcoa , ceren orpoz orpo cer-  
raiquion emacume gaizto hura. Ar-  
gatic , capa onen atzaparretan utzi-  
tic , igues eguin zuan echetic.

Aditzen dezu , nere anima , cer ,  
eta nalacoac diran becaturaco vide,  
eta perill urcoac. ¿ Eta nai dezu ve-  
naz , eta viotzetic becatuan ez erort-  
zea ? Aldeguizu bada onetaraco vi-  
de , eta perilletatic. *Lazoetatic al-*  
*deguiten duana seguru arquitzen da ,*  
dio Espiritu Santuac (a). Beguira ,

bazter gucietan zabalduac dauzca et-saiac becaturaco sare , eta lazoac.

## ZAZPIGARREN ERACUSAL-

*DIA.*

*Becaturaco bideac ez utzitzegotic  
becatariac eman oi dituen , ait-  
zaquien gañean.*

**B**ecaturaco vide , eta perill urcoetan nasturie vici dan becataria , arquitzen da etsai galgarriaren catez lotua , eta betico su , eta garren artera amiltzeco zorian. Ala-ere gauz arritzeco! Octatic asco daude becatuan illoratuac , eta ez due heren catea gaittoen mendetic irten nai; eta hau eguiñ ordean , eman oi ditue , becatuaren videac ez utzitzeco , aitzquia. Zu ere , nere anima , engañatu etzaitzan etsaiac , adiraci nai dizquitzut aitzquia octatic batzuec.

Lenengo aitzaquia: *joango naiz*, esango du becatariac, *joango naiz araco eche artara*, non neretzat arquitzen dan becaturaco videa; *joango naiz beste perill artara*, baña ez det ecergatic-ere becaturic eguin nai. Engañatzen cera, Becataria. Becaturaco vide, eta perill urcoan bere naiez sartzen danac nai du becatua, hitzez ezpada, obraz. Argatic dio Espiritu Santuac: *Perilla nai duana*, *perillean bucatuco da*. Guertatzen zaio onelaco becatariari arguaren inguruau jostatzen dabillen chimirrica, edo ingumari guertatu oizaiona. Badabill argui-inguruau chimirrica arin arin: beguiratzen dio, eder deritza, eta cembateta gueiago beguiratzen dion ambat gueiago lli-lluratcen da. Alderatzen zaio arguari bein, ta berriz, eta erretzen zaio orain egoa, guero zancoa. Ezta alaere centzatzen, eta atzenean gue-

ratzen da gucia erreia , eta hilla. Hau bera guerriatzen zaio becaturaco vide , eta perillera joan nai duanari.

Bigarren aitzquia : *ecin egon nai-teque urliarequin , edo sandiarequin bitz eguingabe ; baña uste det , eman-go didala Jaunac becatuan ez erortzeo gracia.* Engañatzen cera ; ceren Jaunac emango dizu becatuaren videoetatic aldeguiteco gracia ; baña aldeguin lecuan cere naiez sartzen bacera becaturaco videan , utzico zaitu cere griña charren atzaparretan. Atocea , cere naiez sartcen bacera carobi eracequi batcan , nai dezu gorde zaitzan Jaunac erretzetic ? Ez dezu ecusten , hau dala zoraqueria andi bat ?

Hirugarren aitzquia : *esango diot urliari , utzi dezala vicitza gaiztoa , bucatu airala gure contuac , eguin dezala Confesio on bat.* Atocea , ta aitzquia orrequin itaun nai dezu be-

caturaco videan? Uste dezu, esan horiequin cenzatuco dala urlia? Da-guiguna contu; otsoac ardiren bat erabilli duala itotzeco zorian. Andic gueroséago badijoa ardia otsoa da-goan lecura, eta esaten dio: *Otso Fauna, etzaitecela izan oraindaño becein ardicoia, arrezazu vici modu on bat.* Atocea, uste dezu, orrem-besterequin onduco dala osoa? On-du ordean egotzico diozca atzapar-rac ardi choroari, eta eguingo du artzaz gura duana. Hau bera guer-tatuco zaio, esan dan aitzaquiare-quinbecaturaco videa utzi nai ez duanari.

Laugarren aitzaquia: *urlaren ecbera joaten naiz, baña ez gauza gaiztotara; sandiarequin egoten naiz, baña ez da aspaldian becatu-ric guertatu.* Izan bedi egua oraiñ esan dan hau gucia; ¿baña baldin zurcegoerac, ibillerac, eta moduac

ematen badue juicio gaiztoac eguiteco , eta esan-mesa pisuetaraco videa , eztaquizu quendu bear dezula vide hau ? S. Pauloc esaten digu , utzi bear ditugula gauza gaiztoac ezecic , gaiztoen antza duenac-ere (a).

Bostgarren aitzaquia : *Cer esango due , ecbe artatic irteten banaiz , edo ará joaten ezpanaiz ?* *Cer , urliarequin bitzeguiten ezpadet ?* Atocea , *¿* badaquie , edo ez zure vicitza gaiztoaren berri ? Ezpadaquie , bera-gatic ez due ecer esateco videric , ceren milla vide , eta modu izan oñ diran eche bat utzitzeco , eta bestera igarotzeco , onequin , edo harequin guchi hitzeguiteco. Baña baldin badaquie errian batzuec , edo ascoc zu-re berri , poztueo dira oec , vide zu-cenean sartu cerala , ecustean. Eta

(a) 1. ad Thesalom. C. 5.

ez uste izan, ez daquizquiela zure  
contuac: galde ezperen ilurria, su-  
caldeai, eta labeurreai.

Seigarren aitzquia: *Al banu ut-  
zico nuque becaturaco vide bau: arc  
paquea emango balit, ez nioque nic  
gaitzeraco videric emango; ġ baña  
certan nago ni, eta cér izango da  
nizaz barequicoa galdu ezquiero?* Ato-  
cea, ? eta eztaquizu, anima bat ba-  
carra dezula, eta hori galtzen ba-  
dezu, gucia galduco dezula betico?  
*Zure escuac, edo oñac ematen badi-  
zu becaturaco videa, ebaqui ezazu,  
eta bota ceregandic, esaten dizu Je-  
su-Cristoc (b): Hau da, zure escu-  
oñac beciñ gauza bearra baliz-ere  
zuri becaturaco videa ematen dizun  
hori, quen ezazu ceregandic, alde-  
guizu.*

---

(b) *Mattb. 18. et Marc. 9.*

Zazpigarren aitzaqueia : berorrec  
 dion becein gauza bearra bada beca-  
 turaco vide , eta perillac utzitzea ,  
 eguingo det bori : botaco det urlia ;  
 edo irtengo naiz eche artatic ; ez naiz  
 gueiago ara joango ; baña eman bear  
 dit gaur *absolucion*. ; Ah guezurtia !  
 Cembañ vider orrelaco hitzac eman-  
 dituzu , eta ala-ere lenecoan bertan  
 gueratu cera ? Milla juramenture-  
 quin aguinduko bacendu-ere etzatzu  
 sinisteric eman bear , Santo Thomas  
 Villanuevac dionez : eta San Fran-  
 cisco Xavierrec dio , etzatela abso-  
 lucioric eman bear ez gorrotoan vici  
 diranai , ez beateren gauza biurtu  
 cezaqueela , biurtugabe egon dira-  
 nai , eta becatu loien vide , eta pe-  
 rillac utzi ez dituenai. Utzi itzatzu  
 bada , Cristaua , vide , eta perill ho-  
 riec benicbein ; presta zaite Confesio-  
 on bat eguiteco , eta orduan da ab-  
 solucion artzeco sasoya.

Zortzigarren aitzaquia : *utzi nuau becaturaco videa ; gueroztic ez da gure artean guertatu ten bezalako gauz andiric. Eman bear dit arren absolucioa.* Atocea , eta ez dira izan edo erregalochoa , edo elcarrequin hitz egutegiko videra irrieteac , hitz loyac , queñadac , eta oen ancestro gauzac ? Bai , Jatuna , diozu : gela ori da becaturaco videac venaz , eta viotzetic utzitzea ? Ez , baicic viotzez aetan egotea. Uizi itzaiztu eguiatz , eta viotzetic , eta bitartean etzaude absolucioa artzeco prestatua.

Ona , nere anima , nolaco aitzquiak , eta apucoac billatu oi dituen becaturaco videetan nastuac vici diranac. Hau guerta ez daquizun , igues eguiuzu , eta salva ezazu zure anima , Jeremias ec deadar eguiten digun bezala (c).

# ZORTZIGARREN ERACUSAL-

## DIA.

*Errietañ eguiñ oi diran fest-egune-  
tan etsaiac prestaturic dauz-  
can , becaturaco vide , eta  
lazoen gañean.*

**E**guiñ oidira errietañ festac , edo mysterio andiren baten videz , edo , bitarteco , edo onguilletzat onratzen duen , Santu , edo Santaren eguna dalaco , Fest oec lembicico Cristauen demboran ciran festa ederrac , garbiac , Jaunaren , eta Santuen onragarriac . Barautzen ciran vezperatic ; arratsa Elizan igarotzen zuen oracioan ; eta eguna cotorrenean comulgatzen ciran , eta obra onetan iga-rotzen zuen .

Baldin egungo eguneko festac an-

ciñaco aen pare ipintzen badituzu, ecusico dezu, ez duela elcarrequint antzie. Anciñaco festetan onratzen ciran Jauna, eta Santuac; oraingoetan desonratzen dira era ascotara. Anciñacoetan obra onac eguiñaz eracusten zan gure Erligio Santaren edertasuna, eta virtutearen videa; oraingoetan eracusten da becatua, ascotan beintzat, eta eguin dira ide-loen festen aheco. Hitz batean egun oetaraco prestatzen ditu etsaiac becaturaco aseo vide, eta lazo. Entzun itzatzu, Cristaua, oetatic bat-zuec.

Jarri zaite festegunetan ecusi oídiran gauzai beguiraldi bat ematen. Ecusico dezu, egun horietan gauac, eta egunac igarotzen dituela ascoc iscambillan, jocoan, eta edanean, batezere araco hermit-artan festa danean. Ecusico dezu, guizonezcoac, eta emacumezcoac, zarrac, eta gaz-

teac eguna arguitu baño len dijoa-cela basoetan nola-nai, eta lasaique-ria andian. Ecusico dezu, nola her-mitaren inguruac betetzen diran gen-dez, eta nola iñoren beldurgabe iga-rotzen duen eguna zoraquerietan. Ecusico dezu, asco biurtzen dirala échera illundu ezquero. ¿ Nore esan, cembat becaturaco vide, eta perill prestatuco dituan etsaiae, onela her-miten ingurura fest-aitzaquian gen-dea biltzen danean? atoz erriaren barrumbean eguiten diran festai-ere beguiratzera. Ecusico dituzu place-tan, batez ere illuntzera dijoanean, fedegabeco gendeen artean-ere itsu-siat izango liraquean modu asco, ala hitzetan, nola queñadetan. Ecusico dituzu echeac, carrerac, zocoac, videac nescachez, eta mutillez be-teac. Arrituric gueratuco cera, adi-tuco, ta ecusico dituzun gauzaquin, eta esango dezu: *¿Oec dira Cris-*

*tauen festac. ? ; Hau da Jaunaren , eta Santuen onran eguiten dan festa? Ez , baicie becatuen suteguia , etsaiaren sare , eta lazoz betericaco videa , eta garbitasun , edo Castidadearen eriotzaco d moora.*

Nere anima , oroi zaite ; Bataio-  
co egunean beti- betico utzi cinduala  
Munduaren zoraqueria oec. Aldegui-  
zu becaturaco vide , eta perilletatic.  
Fest-egunetan jocatu nai badezu , edo  
beste jolas garbiren batean dembora  
igaro nai badezu , izan bedi hau Jau-  
naren beldur Santua duen laguna-  
quín ; bestela guertatuco zatzu beste  
ascori guertatu zaiona , edo becatuan  
erortzea , eta galtzea Jaunaren gra-  
cia , ta adisquidetasuna.



## BEDERATZIGARREN ERA-CUSALDIA.

*Iñuteria deritzan demboraco perillen gañean.*

Jesu-Cristo gure Jauna Mundura etorri zan artean, genderic gueienac, edo alde aldean guciac vici ciran Jainco eguiazcoaren ezagüera gabe, eta Jaincoaren lecuan adoratzan cituen nortaqui cer gauzac, eta oen artean asco guizon, eta emacume gaistoere bai. Jainco guezurrezco oetatic bi ciran Luperco, eta Baco, eta oen onran eguiten cituen festac iñuterian. Deitzen diogn onela urte berritic austerrerañaco demborari, eta beste lecu batzuetan deritza : *iñoteriac*, *iáuteriac*, *aratuzteac*, *zampanzartac*.

¶ Cer festa ote ciran iñuterian Lu-

percori, eta Baçori eguiten citzaizten, festac? Guciz lotsagarriac; festoetan eguiten zan gucia ala baña etzan erguelqueria, luxuria, guizonac, eta emacumeac nola nai ibiltzea, ordiqueria, eta iscambilla besteric. Jesu-Cristoren Legue Santac ayenatu cituan idoloac, edo Jainco guezurrezcoac; baña ez dira ayenatu, oec onratzeco gende fedegabeac ipiñi cituen, festa, eta usanza loi-lotsagarriac. ¿Cembañ becaturako vide, eta perill ez dira arquitzen zori gaistoco egun horietan? ¿Cembañ ánima ez dira amiltzen becatuaren osiñean? Eguia hau ezagutzeco, begira, egun horietan loisaric bate-regabe egunoi diran, gauzai. Zoázerriz erri, ecusico dituzu asco elcarren leyan edanean igarotzen. Ecusico dituzu nescachac mutillen, eta mutilliac nescachen jancian, eta bazter gucietan erguelqueriaz gala egui-

ten duela. Ez due dembora onetan  
inoren beldurric , ez beguiac , ez mi-  
hiac , ez belarriac , ez escuac. ? Cer  
esango det illuntzeo puntuau eguiñ  
oi diran danza lotsagarriaz ? ? Cer ,  
echeetan , eta videetan guertatuco  
diran, lasaiqueriaz ? ? Cer ?

Baña quen ditzagun beguiac ido-  
latriaren cutsu nazcagarri oetatic ,  
eta zuc , nere anima , eguizu asmo  
osoa perill oetatic aldeguiteco. Hau  
da Eliz Ama Santae gucioi escat-  
zen diguna , eta hau guri eraguiteco  
ariu ditu neurri ederrac. Onetaraco  
ipiñi zuan Candelari eguneko festa  
Virgiña chit Santaren onran , ceren  
egun onetan eguiñ oi ciran idoloen  
onran asco ibillera , eta jolas ciquiñ.  
Onetaraco garizumaren aurreco hi-  
ru igandeetan osca dagote bere hu-  
me guciai , utzi ditzeen Munduko zo-  
raqueriac , eta presta ditecen Ceruco  
ondasun, eta atseguiñ contentuac ira-

bazteco. Onetaraco erri andietan ipintzen du Jaun Andi-Sacramento-tua agirian berroguei orduz iñutu-rico azqueneco hiru egunetan. Ez da erri chiquietan onembeste era, baña ; cerc eragotzico dizu aguertu bat-zuec Elizara eguitea , eta Jesus mai-tagarria , egun oetan , ecusten di-tuan , charqueri , ta videgabean or-dez federi vici batequin adoratzea , eta onratzea ? Eta Elizara etortzeco eraric ezpadezu , ; cerc eragotzico di-zu , cere echetic hau bera eguitea ? Ezpadaquizu nola hau eguiñ gueró ipiñico da liburacho onetan Era-cusaldi laburcho bat onetaraco. Ira-curtzen ezpadaquizu , ez orregatic naigabetu , eguizu biotz onarequin aleguiña Jesus onratzeco , dala agur umillez , dala Fede, Esperanza , Ca-ridade, ta Contriciozco afectoz , da-la erregu , eta estacioren batzuec eguiñaz.

## AMARGARREN ERACUSAL-DIA.

*Becatutic aldeguiteco gauza bearra  
da animaren lenengo etsaia , edo  
Demonioa garaitza.*

**A**ldegitzu becatutic : hau da vicitz onean azqueneraño irauteco , eta betico vicitza doatsua iristeco bear dan lenengo gauza. Aurreco Eracusaldietan uquitu dira lan hau ongi eguiteco cembait vide guciz egoquiac , eta bearrac. Orain begiratu bear dezu , nere anima , cein gauza bearra dan zure lenengo etsaia garaitza.

Animaren etsaietatic lenengoa , eta gueien erreguea da Demonioa. Hau da bere antustez , edo Soberbiaz Munduaren asieratic Jaincoaren con-

tra alcha zan Ainguero gaiztoa, eta Cerutic betico su, eta garren artera amildu zana. Deitzen zaio era ascotara; batzuetan *Demonioa*, bestetan *Deabrua*; batzuetan *Satanas*; besteetan *Lucifer*; batzuetan *Anciñaco Sugaea*, ceren Suguearen aotic hitzeguin, eta bere losenchaquin engañatu zuan Eva; besteetan *guezurraren Aita*, edo *Gurasoa*, ceren guezurrez becatuan amilderazo cituan lembicico gurasoac. Etsai galgarri onec bere mendean ditu beste ecin conta al adiña Ainguero gaisto, antustean jarraitu cioenac, eta oez baliatzen da animai bazter gucietan guerra eguiteco. Jesu-Cristoc bere eriotzarequin garaitu zuan artean andia izan zan etsai galgarri onen esqua, eta aguintea; bada Munduaren bazter gucietan, edo beintzat gueienetan, ayenatu zuan Jainco eguiazcoaren ezagüera, eta Jaincoaren le-

cuau bera adoratu zuen genderic  
gueienac (a). Baña Jesu-Cristoc ga-  
raitu zuan gurutzean , eta gueratu  
zan Catean dagoan Zacurra bezala.  
Ariditeque zauncaz onelaco Zacurra ,  
baña ez dio utsiquiric eguingo be-  
raren ortzetara dijoanari baicic. Hau  
bera guertatzen da etsai izugarri one-  
quin ; eguin dezaque zaunca , edo be-  
re losenchaquin , eta gogoracio char-  
raquin eman dezaque becaturaco vi-  
dea , baña ez dio iñori utsiquiric  
eguingo , bere naiez aren lazoetan  
nastutzen danari baicic. Alaere ani-  
mac engañatzeko baditu milla tram-  
pa , eta lazo , eta oetan ez erortzeco  
ernai vici bear dezu. Zure inguruau  
dabil beti gau , ta egun ; zaitzen zai-  
tu lagun artean , eta bacarric zaude-  
nean ; jaieán , eta astean , jatean ,  
eta edatean , lotaracoan , eta esnat-

(a) Psalm. 95.

zean; ezagutzen du, ceiñ dan zure sayets argalena, eta ceiñ zure gria nagusia, edo zugan gueiena aguinentzen duana, eta andic asico zatzu guchica, eta urrutitic lazora deitzen. Ernai bazaude ezcutatuco da, eta zabantua bazaude, erasoco dizu alde-gucietatic. Hau da, nere anima, zue garaitu bear dezun lenengo etsaia. Garaitzen da hau oracioz, eta umiltasunez. Oracioz, Jaunari deitzen diozula estutasun gucietan, Aurracobere Amari deitzen dion eran. Umiltasunez, ezagutzen dézula, etzerala cerez gai eisai hau garitzeco, eta zure uste gucia ipintzen dezula Jau-nagan. *Fangoicoa gure alde bada, nor da gure contra?* Ez deguiozula deitu etsaiari ascoc eguiten duan bezala: Sarritan ezan ezazu biotetic *Jesus, María, ta José*, batezere estutzen bazaitu tentacioac, eta igues eguingo du etsaiac.

*AMAIAGARREN ERACUS-**ALDIA.*

*Becatutic aldeguiteco gauza bearra  
da animaren bigarren etsaia,  
edo mundua garaitzea.*

**A**nimaren bigarren etsaia da Mundua ; baña Munduaren icenez ez dezu aditu bear Munduko eche eder galant hau ; ceren eche hau da Jauñaren escuetako obra miragarria , guizonaren vici lecua , eta berac bear dituan gauzaz ederqui ornitua dagoan Jaureguia. ¿Cer ote da bada *Mundua* deritzan bigarren etsaia ? Munduko eche onetan vici diran gaiztoac , dio S. Agustiñec , dirala zarrac , edo gazteac , ezeconduac edo ezcongaiac , guizonac , edo emacumeac .

Gaiztoen talde hau da animaigerra egiten ari dan exercitua , eta bere Aguintari nagusia du Satanás. Hi-

ru guisatara eguiten du mundu gaiztoac guerra. Eguiten du benic-bein becatua , eta becatuan amiltzeco videac eracutsiaz dala exemplo gaiztoz , dala losenchaz. ¿ Eta norc eztaqui cembañ anima achitzen dituan Munduac era onetan ? Eguitendu gainera Munduac guerra onren , doaien, eta ondasunen ustearen bискarequin. Desleiala da bere hitzetan , eta gueienean onraren lecuan ematen ditu desonrac , penac , eta naigabeac; eta ondasunen ordez utzi oi ditu bere servitzariac Calean , edo Ospitalétan Alaere ecin conta al adiña anima engañatzen ditu. Atzenean guerra eguiten du munduac berarequicoa galtzeco beldurrez. Beldur hau zabaldua dago bazter gucietan , echeetan , errietako batzarretan , eta eskuadra gucietan , eta onequin , edo harrequin utseguin dedin beldurrez , eguiten dira eguin bear ez liraquean

gauzac , edo éguingabe uzten dira  
eguin bear liraqueanac.

Nere anima , aldeguin nai dezu  
becatutic ? Utzi bada mundua , edo  
gaistoen taldea beti-betico , Bataioan  
aguindu cenduan bezala : *Mundua-  
ren adisquide izan nai duana eguiten  
da Jaincoaren etsai* , dio Santiago  
(a). Utzi betico lagun gaistoac ; eta  
ceregan erabaqui ezazu ecergatic ez  
eguitea becatu dan gauzaric ez Mund-  
duaren ustean , ez Munduarequicoa  
galtzeco beldurrez.

## *AMABIGARREN ERACUSAL-*

*DIA.*

*Becatutic aldeguiteco gauza bearra  
da animaren birugarren etsaia ,  
edo araguia garaitzea.*

**A**nimaren birugarren etsaia da ara-  
(a) *Jacobi 4.*

guia. Araguiaren icenez emen aditzen da gaitzeraco gugan arquitzen dan gura, eta macortasuna, dala vorondatean, eta adimentuan, dala sentiduetan; baña nola sentiduen gura charrac saloagoac, eta nabarbenagoac diran, guciai ematen zate *araguiaren icena* (a). Gaitzeráeo gura char oec gurequin jaiotzen, gurequin acitzen, eta gurequin vicico dira lorraren gañean gauden artean; eta dira gure etsairic andienac, ceren guerengandie ecin osotoro quendu ditzaquegun.

(a) *Caro in Scriptura sumitur aliquando pro natura hominis corrupta peccato, aliquando vero pro ipsa concupiscentia ad malum, ut in I pistola ad Roman Cap. 8. v. 9. Concupiscentia autem sedem habet non solum in sensualitate, sed etiam in mente. Vide Belarminum tom 4 Controvers. Lib 5. de Amisione gratiae, et Statu peccati Cap. 15.*

Araguiac, edo gaitzeraco gura  
 charrac guerra izugarria eguiten dioe  
 animari; asaldatzen due alabaña,  
 batzuetan antuste, edo soberbiaren  
 aldetic; emendic dator bacoitzac be-  
 re burua laudatzeco, ihoren men-  
 dean ez egoteko, guraso, ta Buru  
 diranen aguinduac ez eguiteco gura;  
 emendic besteac baño gueiago izan  
 nai bat, dala onran, dala edertasuncan  
 edo jancian. Beste batzuetan asaldat-  
 zen du lurreco izanen, edo ondasu-  
 nen egarriac; emendic ditugun gauza-  
 quin ez contentatzea, bear adiña izan  
 arren; degunari biotza itsastea, eta  
 besterenari-ere atzaparra egotzi nai  
 izatea. Batzuetan equiten dioe ani-  
 mari gorputzaren atseguiñ lizunen  
 gogoetac; emendic ecusi bear ez li-  
 raquean gauzac ecusteco, eta debe-  
 caturic daudenac adiizteco, hitzegui-  
 teco, contatzeco, uquitzeco naicun-  
 deac. Besteetan equiten dioe bere et-

saiaren contra aspertzeco , apendutzeco , edo venganza artzeco zaléac. Batzuetan estutzen du jateco , ta edateco gogoac, ongi dan neurriaz campora ; besteetan , illuntasunez , eta tristuraz betetzen due lagun urcoaren onrac , eta haren berri onac. Atzenean anima gaisoae iguerritzen , eta ezagutzen du beregan oneraco atzerapen , eta naguitasun andi bat. Eta norc esan , gaitzeraco gura oetatic beste cemba t jaiotzen diran , sustrai gaiztoen alsuma , edo musqui-  
llac bezala ?

Ecusten dezu , nere anima , cer , eta nolacoa dan zure hirugarren et-saia? Ecusten dezu , cer vicilagunadituzun zure echapean bertan ? Garrantzu bear dituzu bada gaitzeraco gura char oec , baldin becatutie aldeguin nai badezu : *Jesu-Cristorenac diranac ucatu , eta gurutzeficatu due araguia bera gura guciaquin , dio S.*

Pabloc (b). Hau aguindu cenduan Bataioco egunean , eta hau eguzu , ucatuaz zure gura charrai , berac es- catzen duena , eta zure sentiduac , beguiac , belarriac , mingaña , eta escuac gordetzen dituzula gauza de- becatuetatic. Esca zaiozu Jaunari umilqui , eta sarritan bere gracia , ta laguntza , ceren hau gabe gai etze- ran lan onetaraco.

### *AMAIRUGARRENERACUSAL- DIA.*

*Becatutic aldeguiteco gauza bearra  
da gaitzeraco gura , griña ,  
edo pasio nagusia  
garaitzea.*

**G**aitezaco gugan arquitzen di- ran gura , griña , edo pasioac ez di-

---

(b) *Ad Galatas Cap.5.*

ra guciac berdiñac ; izango da oen artean bat besteac baño gueyago tontorra alchaizen duana , eta animali becaturaco guerra gueyago ematen diona. Aur demboran griña bat izango da nagusi , gazte demboran beste bat , eta zartzean beste bat. Batzuen griña nagusia izango da antustea , edo soberbia , arrotasuna , eta gucian aguintari izan naia. Besteena izango da edaneracoa. Batzuena gorputzaren atseguiñ lotsagarrieta racoa , dala hitzez , dala escuz , dala beguiz , dala bestela. Besteena ondasuna ondasunari erantsitzecoa , naiz vide zuñenez , naiz vide oquerrez ; besteena lagun urcoaz nola nai bitzeguitecoa. Batzuena borrocan , iscambillan ibiltzeco , besteena alferqueriaraco. Griña , eta pasio nagusi oec ecitzen , eta escuratzen ezpadira , gaztechoac diran bitartean , eta hau egun lecuan oitutzen badira , gura duenarequin

irtetera , chit nequez escuraco dira. Alaere , gauza negargarria ! Gaitzeraoco gura , eta griña gucien artean gueiena barcatzen zaiona , izan oi da griña nagusia , ceren maiteena dan. Eguiten du becatariae griña nagusia-requin Saulec Amalecitaquin eguin zuana. Agwindu cion Jaunac dese-guin , eta urratu citzala Amalecitac , barcatugabe , ez andiai , ez chiquiai : ez eta ganaduai-ere. Hil eituan Sau- lec Amalecitac , baña barcatu cion Erregueri , baita onen artalde eder-rai-ere , eta aserrerazo cion Jaunari (a). Hau bera eguin oi du becatariae bere griña charraquin ; garaitu-co , eta hilouratuco ditu bear bada oetatic cembait , baña griña gucien nagusi , eta Erregueari barcatzen dio. Ala guertatzen da gueienean eda- neraco , hitz desonestoac esateco , la-

---

(a) 1. *Regum Cap. 15.*

gun urcoaz nolanai miztoa erabiltzeco griña nagusia duenaquin; ez due viotzie oni vicia quentzeco, eta herequin daramee obiraño.

Nere anima, ¿nai dezu becatuan ez erortzea? Beguirea bada, cein dan zure griña, ta pasio nagusia, eta oni besteen Erregueari bezala vicia quendu bear diozu. Eci, edo garaitu dezula, uste izan arren, ez zabartu, ceren S. Bernardo dionez, lepoa ebaquita ere berriro aguertu oi dan. Griña nagusia garaituric equin guieu zu besteai-ere banaca, eta beti asi zaite burua gueiena alchatzen duanagandie. Onela aldeguingo dezu becatutie, *Nere ondoren etorri nai diñanac uci leza bere burua, edo bere griña charrac, esaten dizu Jesu-Cristoc* (b).

**AMAL AUGARREN ERACUS-****ALDIA**

*Becatutic aldegulteco gauza bearra  
da berenez becatu ez diran , gau-  
cen gurac-ere , dagoten , neurri ,  
eta muga-barrumbean  
loturic iduquitzea.*

**G**aitzeraco gura , eta grifaz ga-  
ñera badira , nere anima , beste gu-  
ra , eta deseo batzuec , berenez beca-  
tu ez diran gaucen gose , eta egarri  
gueiegui bat ecarri oi duenac . Ezta-  
quit oec , edo gaitzeraco grifac be-  
caturaco perill gueiago dacarten Be-  
catura arguiro zaramatzian gura ,  
eta naicuntza erraz ezagutzen dezu ,  
eta ala nai izatera , garaitzeco neut-  
riac artzen dituzu ; baña , berez be-  
catu ez dan , gauzaren gurari erraz

barcatzen zaio : badijoa aciaz , eta mallaz malla eramango zaitu becatu ascotan erortzeco perill urcora. Asi-  
 co da zure gogo , eta biotza gura hari itsasten ; oarcabean bezala oso-  
 toro itsatsia gueratuco da ; eta sasoi onetara iristen danean , perill urcoan  
 zaude era , eta trancea datorrenean , Jaunaren Leguea ausitzeco. Beguire  
 ezperen egun oro guertatzen danari. Urlia onra-zalea dá , eta onra nai  
 izatea , bacoitzac bere mallan , eta dagocan éran , ezta becatu ; alaere  
 ascorentzat da becatu ascotan erort-  
 zeco perill urcoa gura hau , ceren  
 oni itsatsia dauqueen biotza ; eta nor-  
 baitec uquitzen baditu alde onetatic ,  
 erori oi dira gorrotoaren , eta erau-  
 si pisuen becatuetan. Sandia dá on-  
 dasunzalea ; ondasunac nai izatea vi-  
 de onez , eta bere mallan ongui iga-  
 rotzeco , ez dá becatu. Alaere griña  
 onetan ascoc ipintzen due biotza , eta

nastutzen dira ecin conta al adiña becatutan. Berendia arquitzen da ezconzeco astmoaquin, era onic aguertzen bada ; eta ezcondu nai izatea, Jaincoac , eta Eliz Ama Santac nai duen bezala , ez da becatu. Alaere aiinbesterañocoa da ascoren ezcondu-nai hau, non amilderazten dituan ascò becatutan. Hau bera guertatzen da, ápaineduretan , eta beste munduko gaucetan biotza ipintzen bada.

Nere anima : zure Jaun, eta Ja-bea bat bacarra da; hau da zure Jaungoicoa. Berac eguin cinduan ece-rezetic , eta berac erosi cinduan, guizon eguin, eta gurutzean vicitza emanic. Ez du nai beragan baicic zuc zure biotza ipintzea. *Amatuco dezu, dio, zure Jaun eta Jaungoicoa zure biotz guciaz*; beraz ez dezu emengo onra , ondasun , eta atseguin-conten-tuetan ipini bear : eta hau guerta ez daquizun , zure gura , eta deseoa es-

cura bear dituzu, edo lotu dagoten neurri, eta muga barrumbean. Hitz batean, becatu ez diran gauzaz bezaz-ere baliatu bear dezu, Jaungoicoa biotz osoz amatzeco laguntza diran bezambat. Argatic dio S. Pauloc: *Emazteac dituenac, vici bitez, ezpalitue bezala: negar eguiten due-nac eguiten ezpalue bezala: atseguin-contentuz vici diranac, atseguin-ic ezpalue bezala: erosturac eguiten dituenac, erositaco gaucen jabe ezpa-lira bezala (a).* Esan nai du, Jaincoaz osteronceco gauzetan ez dala biotza ipini bear, eta oen gura, eta desoac ucatu, eta eci bear dituzula. Hau ez egitera amilderazoco za itue becatu ascotan.

(a) *Ad Corint. Cap. 7.*



**AMABOSTGARREN ERACUS-  
ALDIA.**

*Becatutic aldeguiteco gauza bearra  
da tentacioac garaitza: eta cér  
onetaraco eguin bear dan ten-  
tacioaren aurretic , tenta-  
cioaren demboran ,  
eta ondoren.*

**L**urraren gañean vici cetan artean, tentacioen bagae équingo dizue , ne- re anima. Hau da gure lembicico gu- rasoen becatuac berequin dacarren ondoren negargarria. Argatic cion Job Santuac : *Guerra da guizona- ren lurreco vicitza gucia* (a). Zoaz noranai ; zoaz , naiz lagun artera , naiz bacardadera , eta toqui gucie-

---

(a) Job. Cap. 7.

tan arquituco cera tentacioen guer-rarequin, dala etsai galgarriaren, dala munduaren aldetic; baña gerra-ric andiena izango da zure gura, eta griña charrac emango dizuena. Es-critura Santan iracurzen dá cembait aldiz, Jaincoae tentatu duala nor bait; baña aditzen dá, *progatu dua-la nequeren haterquin oneraco*, Ala eguin zuan Tobiasequin, Abrahane-quin, Job Santuarequin. Etsai gal-garria bacarric da munduarequin, eta araguiarequin gaitzeraco tentat-zallea. Argatic Jauna servitzeco as-moa artzen duanac *presta beza bere anima tentacioa datorreneco* (b), eta pelea bedi garaitzeco. Eztago boste videric becatutic aldeguiteco. Enzun ezazu orain, cer eguin bear dezun tentacioaren aurretic, tentacioaren demboran, eta ondoren.

---

(b) *Ecclesiastici* 2.

*Tentacioaren aurretic eguin bear dana.*

**L**embicia: Etzaitecela cere naiez sartu tentacioan, S. Gregorioc esaten digun bezala; bestela erraz iga-roco cera becatuaren perillera, eta emendic becatura, egun oro guer-tatzen dan bezala. Sarean sartzen ba-da bat, erraz gueratuco da trabatu-rie, Escritura Santan adirazten za-eunez (c). Ez dizut esan nai, utzi dit-zatzula zure eguin-videac, pensa-mentu gaisto edo beste tentacioren bat etorri dedin beldurrez; baicic et-zabiltzala tentacioen billa bezala (\*).

**Bigarrena :** Contuz beguiratu bear

(c) Job. C. 18. (\*) *Non est idem peri-culum temptationis, ac periculum peccati; alias enim vix quidquam effici posset, quin periculum peccandi proximum incurre-mus. Vide Calatayud.*

dezu, cein dan zure animac duan saietsic argalena, edo ceiñ aldetic gueiena utseguiñ oi dezun, ceren andic guerraric andiena etsaiac eman-go dizun. Alde argal hau gordetzeco etsaiaren equiñ-aldietatic, ipiñi bear diozcatzu sendogarri onac, dala Jaunari, eta Virgiña chit Santari laguntza escaiuaz, dala Sacramentuae artuaz, eta asmo sendoac eguiñaz tentacioari lecuric ez emateco. Guerra-co demboran gaztelu bat gorde nai duanac, alde argalenari contu eguiñ oi dio arreta andienarequin.

Hirugarrena: Etsaia garaitu nai badezu, ez fiatu ceregan, baicic zure uste gucia ipintzu Jaunaren laguntzan: eta uste onequin zaude alai, eta biotz andiarequin etsaiaren tentacioac garaitzeco. Era onetan pres-tatua dagoanagandic laster aldegui-ten du etsaiac. *Ceiñ argala dan gu-re etsaia!* dio S. Bernardo; bada

*ez du iñor garaitzen , garaitua izan nai duana baicic.* S. Pauloc biotz prestu batequin esaten zuan : *Jaungoicoa gurealde bada , nor da gure contra?* (d). Jauna , esaten cion Job Santuac : *jarri zaite nere alde , eta betor nornai nere contra* (e).

### **Tentacioaren demboran eguin bear dana**

**A**ditu dezu, nere anima, cer eguin bear dezun tentacioaren aurretic. Ezta asco hau , etsaia garaitzeco. Badira guerraric ez dan demboran guerrari trebeen eran hitzeguiten duenac , baña datorrenean guerra , eta peleantu bearra , biotzgabe , eta cer eguiñ eztaquiela gueratzen diranac. Hau berri guerta eztaquizun zuri-ere , si-

---

(d) *Ad Roman. C. 8* (e) *Job. C. 17.*

nistu ezazu , etsaya , eta onec pres-  
tatzen dituan , tentacioac garaitzeco,  
peleatu bear dala ; orregatic icasi  
beardezu ongi peleatzeko modua.  
Adi ezazu orain modu hau , beste  
oberen bat ezpadaquiza.

Lembicia : Tentacioa datorrenean,  
etzaitecela asi musinca , edo burua-  
requin ibillera farragarriac eguiñaz,  
ceren bestela , are gueiago etsayac  
estutuko zaituan.

Bigarrena : Ez dezu pelean sar-  
tu bear beldur gueieguirequin , ce-  
ren onelaco beldurrae berac ugarit-  
zen dituan tentacioac. Ipintzu zure  
ustea Jaunagan ; ñ eta Jaunarequin  
batean peleatzeco , noren beldur izan  
bear dezu ?

Hirugarrena : Iguerritzten dezunean  
tentacioren bat datorquizula , dala  
garbitasunaren , dala lagun urcoa-  
ten contra , zoaz lembaitlen begui-  
ra dagoquizun Jaunagana , eta ten-

tacioa oles eguiten asitzen bada-ere biotzaren ateetan , ez eranzun ; onela aldeguingo du etsaiac , lotsaturic bezala , ceren ateric idiqui ez diezun. Hau da tentacioa garaitzeo videric onena , eta errazena. Ezpazaio lapurri utzitzen echean sartzen , calte guchieguin dezaque echeo gaucetan.

Laugarrena : Ascorian , edo gueienetan guertatzen dana dá anima oartu baño len tentacioa isilic pensamenturaño igotzea , eta gaitzeraco mandatuac eguiten asitzea. Oraindie ere erraz garaitu diteque , baldin bereala anima alchatzen bada Jaunaganonz , eta tentacioari eranzungabe equiten badie gogoracio onai. Mandatari batec laster aldeguingo du eche batetic , echeocoandreac , edo nagusiac ecertan artzen ezpadio mandatua , eta erantzun-eragabe equiten badie beste lanai.

Bostgarrena : Baña zabartzen | dá

ascotan anima, ongi oartugabez, nola pensamentu, edo gogoracio charra datorquion. Asitzen da begiratzen, nolacoa, churia, edo belcha, polita, edo itsutsia dan, eta emendie dator esnatzea echapeco gente de gaizqui ecia, edo gaitzeraco guza, eta griña charrac. Eta anima orduan arquitzen da perill andian, contuan erortzen danean armac artu, eta gogotic saiatzen ezpada etsaiaren contra peleatzeko. Orduan lenengo arma da esatea : *Vici bedi Jesus, bil bedi becatua.* S. Miguelee, Luciferren contra peleatu zanean, otseguin zuan : *Nor faincoa bezalako-ric?* Bigarren arma, deitza biotz osoz Jaunari, eta Virgiña chit Santari : *Tauna, gorde nazazu, galdua naiz bestela.* Ala deitu cion S. Pedroc Jesu-Cristori, itsasoan itotzeo perillean ecusiric bere burua. *Virgiña guciz Santa, zure sortze*

*garbiaren icenean gorde nazazu becatutic.*

Seigarrena : Beñ baño gueiagotan guertatzen da , tentacioac ez aldeguitea , deitu arren , esan dan bezala , Jaunari , eta Virgiña chit Santari ; eta aldeguin lecuan erasotzea animari , eracequitzen diola eche guciari. ¿ Cer egungo du animac estutasun onetan , etsaiaren mendean , edo becatuan ez erortzeco ? Eguin bear duana da , erri batean etsaia sartu ondoan , an ceuden guerrariae eguin oi duena. Utziric erria , iga-rotzen dira gaztelura : equiten die etsaiac bombaquin , bañá ezciàtzen dira , onetaraco berariaz eguiñac dauden , lurpeco echeetan. Hau bera éguin bear dezu zuc-ere tentacioaren suac echeari eracequitzen dionean : joan bear dezu pensamentuz , edo gogoz , eta biotzez lecu egoqui batera , eta egon zaite an ezcutatu-

rie, tentacioac dirauen dembora gu-cian. Batzuec pensamentuz jachitzen dira infernura, eta ecusten ditue ango suac, eta garrac, ango neque, ta oñace izugarriac; besteac gogora ecartzen ditue Jesusen neque oñaceac, eta era badue, belaunico jartzen dira Jesusen oñetan: an daude berari deiez, eta ez dira alchatzen tentacioa itzali dedin artean. Batzuec go-goz, edo pensamentuz joaten dira Jesusen saietsera, eta sarturic barrena, egon oi dira an, Jesusi be-re lagunza escatzen; beste batzuec, laster eguiten due, lecuguciac betetzen dituan, eta beti beguira dagoquin-gun, Jaunagana: deitzen dioe umil-qui, datorquiela laster laguntzera, gorde ditzala etsaiagandic. Ona nere anima, nola peleatu zaitezquean tentacioac garaitzeo; baña onetaraco icasi bear da peleatzeko modua.

*Tentacioaren ondoren egun bear dana.*

**L**embician: Tentacioaren ondoren etzaitezela jarri berriro hari beguiratzzen, jaquin naiez *cer izan dan*, eta *nola peleatu ceran*, *batez-ere garbitasunaren contraco gaucetan*. Lecurie biotzean eman *ezpadiozu* continu erori ezquero, ez guero beguiratze. Beiñ baño gueyagotan gueratzen dá tentacioco dembotan ongi irten zana, ondoren garaitua gueratzea, ceren jarri zan tentacioari begira, Lot-en emaztea Sodomari begira jarri zan bezala. Aterazuan hau Jaunac Sodomako su, eta garren artetic, eta aguindu cion Aingueruac, etzezala Sodomaronz beguiratu. Laster aztu zán Lot-en emaztea Aingueruaren esanaz; jarri zan

**Sodomari beguira , eta gueratu zan gatzarri biurtua , eta hilla. Hau berria , edo onen anceco gauza bat gueratzen zate bada cembaiti animaren aldetic , ceren tentacioitic ongui irten ondoan jartzen diran igaro dana ecusten , eta miratzen.**

**Bigarrena : Jaunari esquerrac ematea , ceren tentacioan erortzetic gorde zaituan. *Indartsuen armac deseguin dira* , Jauna , esan dezaquezu Escritura Santarequin , eta argalac indartsu eguin dituzu (f). Zuri esquerrac , Fauna.**

**Hirugarrena : Beguira , ceiñ virtuteren contra izan dan tentacioa , eta virtute hari dagozcan pensamentu , eta obra onac egitzu : eguin dezagun contu , soberbiaren aldetic eguin badizu etsaiac , ezagutu ezazu ceiñ**

gauza charra , eta ecereza ceran , eta egitzu gauzariic umilenac gogoz. Hau bera eguin dezaquezu beste virtuteetan.

Laugarrena : Beguira , zure tentacio horiec zure aldetic ote duen quendu dezaquezun sustrairen bat : eta hau quen ezazu , bestela zurequin izango dira tentacioac tentacioen gaiñ.

Bostgarrena : etsaiac cembait uentan paquea eman arren , ez fiatu ; zai dago , eta celatan dabill , noiz zu zabarturic arquituco zaituan , era-sotzeco bere indar guciarequin. Argatic ernai egon beak dezu beraren contra peleatzeco. Oitu zaite sarritan , beguira dagoquizun , Jaunagana biotzá jasotzera ; oitu zaite virginia chit Santari , eta Ainguero guardacoari deitzera , eta Sacramentuac maiz artzera. Onela tentacioetatic beretatic ateraco dituzu frutu andiac.

**AMASEIGARREN ERACUS-**  
**ALDIA.**

*Moden zoraquerien gañean.*

**A**ditzera eman dizquitzut zu enganatzeco etsayac prestaturic dauzcan asco sare. Igano gaitecen oraiñ soñecoen modetan ezcutaturic dauzcan becaturaco perillac ecustera.

Orain laroguei ta bost urterafio leku guchi izan zuen Espanan soñecoen modac. Aguertzen ciran noizzean beiñ cembait janciera arro, eta itsusi, baña bereala devecatzen, eta ayenatzen ciran legue indartsuaquin. Asi zànguero (*a*) eguzqui aldeco gu-

(a) *Vide Laurentium Herbas Historia de la vida del Hombre t. 6 pag. 337. et Feijoum Teatro Critico Tom. 2 Discursu 6.*

re auzoa janciera berriac Erreñu onetan zabaltzen , eta aimbesteraño lhilluratu , eta choratu gaitu , non guizonac biurtuaz dijoacen guizanch , eta emacumeac anyere , inguma ,edo chimirrica , lecu batzuetan beinzat . Aitorizen dá , ondatu bearrac dirala echeac , guisa onetan dijoacela gauzac , eta alcere egunetic egunera gueituaz , eta ugarituaz dijoa zoraqueria hau . Beste toqui batzuetan hau guertatuko baliz ez lizaque izango añ gauz arrigarria ; baña emen Euscal- dunen errietan , non eche ,edo aciendae laburrac diran ; emen , non campotic ecartzen dan jantciraço beardegun gucia ; emen , diot , hau guertatzea , da ecusten ézpaliz nequez sinistu litequean gauza . Eta gaizerdi lizaque lurreco ondasunetan gueratuko balira datocen calteac ; baña igarotzen dira animacoétara ere ; cernen moden biscarequin oarcabeau be-

zala etsayac daramazquian asco becatuaren perilletara , eta eraguiten diezte , nortaqui cembat utseguite.

Nola onembesteraño itsutzen , eta choratzen ditu etsayac aimbeste anima ? Ara nola , Badacus etsaiac , nola Cristauac eman zuan Batayoco egunean hitza aldeguiteco munduaren arrotasun , eta zoraquerietatic ; baña alaere gazte dan bitartean aguertu nai duala bere burua ederqui apaindua. Eracusten diozca bada bere quideacoac modara apainduric dabilzanac , eta esaten dio : *Zu etzera boriec baño guebiago. ¿Cergatic etzera boriec bezala jancico?* Zaletzen dá gaztea jantciera berri , ta modacoaquin ibiltzeco. Ona munduko arrotasun , eta zoraquerietan irristatzeko gazteari etsayac prestatu oi dion lenengo malla. Badabill gaztea ecussten diuan modai jarraituaz : guerotic guerora gueyago itsutzen dá mo-

detara , eta azquenean ez du onic aguertzen diran-janciera berriac egun ditzan artean. Aimbesterañocoa da batzuetan itsumen hau , non gazte moda-zaleá prest arquitzen dan janciera berriac egniteco , naiz zorrac zorren gaiñ egun ditecela , naiz ez ; naiz echecho paquea galdu dedilla , naiz ez. Sasoi onetara etorzen danean anima etsayaren sarean achitua , edo becatuan amildua arquitzen dá. Atocea g̃eta cembat izango dira gaurco egunean , onela vici diranac ?

Zue , nere Cristaua , ez ipiñi zu-te gogo , eta viotza modetan. Aldeguizu lagun heró , ta munduaren arrotasunen ondoren dabilzanetatic ; eta iñoz cere burua apaíndu bearbadezu , izan bedi hau modestia , eta onestidate andiarequin.

**Q**uope si , enkastilapena osakotz egi , usluzen zuzen

**AMAZAZPIGARREN ERACUS-****ALDIA**

*Janciera arroá , ta gueyeguien gañean.*

**M**oden zoraqueriac uquitu ditugu azqueneco Eracusaldian. Hitz bi orain esan nai dizquitzut janciera arro , ta gueyeguien gañean. Enzun contuz.

Ezagutzeco , noiz , eta nola izan ditequean janciera bat arroa , ta gueyegua , ez da ascó soñecoaren garrayi beguiratzea ; guerta diteque alabaña Urliarenzat gueyegua ez izatea duan cargu , ta mallagatic , eta Sandiarenzat gueyegua izatea. Hau ongi ezagutzeco bada , videric errazena , ta egoquien da beguiratzea , cer mallan , eta nolaco eraquin

arquitzen dan apaintzen dana : cer adiñ duan , eta cer usanzac diran hura vici dan toquian. Azquenean , cer demboraz ipintzen dan janciera. Beguira benic-bein , cer mallan arquitzen dan apaintzen dana : baldin servitzaria jantcitzen bada nagusia , edo echechoandrea bezala ; berc icerdiaquin vici dana Zaldun , edo Marques baten eran , janciera hau izango da arroa , gueyeguia , mallaz camporacoa. Beguira urrena , nolako érac dituan apaintzen dánac ; ceren áscotan guerta diteque Urlia , ta Sandià mallaz berdiñac izatea , eta alaere bata zorren azpian , bestea eraz vicitza. Baldin zorrez beteric dagoana illuraturic badabill apainduren ondoren eraz vici dana bezala , esaten duala antustez puzturic : *bori adiña banaiz*: onelaco janciera izango da arroa ; ta gueyeguia , ceren Jaunac eman diozcan modu , eta eraz

campora igarotzen dan , bearbada  
 bere , ta beste ascoren caltean. Be-  
 guira zayozu gañera apaintzen da-  
 naren adiñari ; ceren batzuetan gaz-  
 teagan ongi dirudian janciera , zar-  
 ragan izan diteque arroa , gueyegua,  
 farragarria. Illea urdin , ortzac co-  
 loca , ta aurpegua cimurturaz betea  
 dauzcan andre bat , ecusico bacendu  
 emezortzi urteco nescacha baten eran  
 apaindua z cer esango cenduque ? Be-  
 guiratu ezazu guerò cer usanza di-  
 ran apaintzen danaren errian ; ceren  
 toqui batzuetan gueyegua ez dan  
 apaindura besteetan izan liteque. Az-  
 quenean beguira , cer demboraz ipint-  
 zen dan janciera ; ceren egun batean  
 ongi dirudian soñecoa , izan diteque  
 bestean arroa , gueyegua , eta chit  
 gaizqui dirudiana ; eguin dezagun  
 contu , eztai batean ongi dirudian  
 janciera , izango da arroa illeta ba-  
 tean , edo confesatzera zoacenean.

Ona nola ezagutu dezaquezun , noiz , ta nola izango dan janciera bat arroa , ta gueyeguia.

Janciera arro , ta gueyeguia betida becatu , ceren , Batayoan aguindu guenduan , modestiaren muguetatice igarotzen dan. Batzuetañ izan oida becatu veniala (a) , eta ascotan mortala , dacartzian ondoren gaitoac gaitic , edo apaintzen danaren sasoi , eta asmo charra gaitic. ⁊ Noiz guertatzen ote dá guisa onetan jan-

(a) *Disputant Theologi , an excessus notabilis in ornatus corporis , non ex pravitate , sed ex levitate , aut mera jactancia sit peccatum mortale. Aliqui sentiunt esse mortale , sed communiter asseritur per se esse veniale ; per accidens autem fieri mortale , ratione alicujus pravitatis connexæ. Videsis Lesium , Antoine , et alios , et hoc esse videtur sententia S. Thomæ 2. 2. q. 169 art. 1. et 2.*

ciera bat becatu larri, edo morta-  
lera iristea? Ara noiz.

Janciera bat izan diteque aïñ arroa, gueyeguia, eta mallaz goiticoa, non erraz eman dezaquean errian exemplo gaistoa beste calte ascorequin batean, eta z norc eztacus orduan izango dala becatu larria? Badaquizu, urlaren ondasun guciac dirala echeren batean servitzea, edo gurasoac bere neque, ta icerdia-  
quin irabasten duana, ta alaere ecus-  
ten dezu, goimallaco andreac, eta  
damac baño ere gueyago apaintzen  
dala. ¿ Cer esango dezu, onembeste  
arrotasun dacutsunean? Eta cer ez  
dà erausico errian, eta ingurueta?  
(b). Bigarrena, janciera arro, eta  
gueyeguia izango dá becatu larria,  
emendic badator echecho paquearen

---

(b) *Vide Antonium, Cuniliati, Calata-*  
*yud. &c.*

galtzea , zorrat ez erantzutea , umeac gaizqui acitza , dembora egoquian estaduric ez ematea (c). Hirugarrena , janciera arro , ta cosiu andicoac errietara dacartzianac eguiten du becatu larria , S. Bernardino Senacoa-requin cembait guizon adituc era-custen digünez , ceren vide andia ematen duan beste asco tentacio one-tan erortzeco , eta zorrac zorren gaiñ eguiteco. Eta non dira echee-taco erriertac , aurpegui illun , eta muquerrac ? (d). Laugarrena , jan-ciera arro , ta gueyegua izango da becatu mortala , ipintzen bada exem-plo guciz gaistoa , edo escandaloa emango duan demboran , edo toqui-an ; eguin dezagun contu ; badijoā bat ostiral Santu egunean Elizara , edo

(c) *Vide eosdem.* (d) *Sunt , qui contra-rium rueri vollunt , sed vide Calatayu-dium.*

beste egunen batean confesatza  
soñeco arroquin, eta goibeac ongi  
estaligabe, gora escandalo  
andia emango Inqueala orduan one-  
laco jancierac? Doña Sancha Car-  
rillo janciera arroquin joan citza-  
yon beiñ confesatza Juah de Avi-  
lla animen Maisu andiari: esan cion  
onec: *Infernus usaya dacar, beror-  
rec.* Esan onec arpoi baten eran  
niquitu zuan dama bere biotzean:  
biurtu zan echera, eta guero izan  
zan modestiaren, eta onestidadea-  
ren ispilla. Bostgarrena: janciera  
arro, ta gueyegua izango da be-  
catu mortala, onelaco apainduretan  
ipintzen bada biotza, alaco eran,  
non oec, ez uzieagatic prest arquits-  
zen dan zorrail ez erantzuteco, echeaz,  
umeaz, gurasoaz quezcaric, eta con-  
juric ez iduquitzeo. Azquenean jan-  
ciera arro, ta gueyegua izango da  
becatu mortala, ipintzen bada nor-

baiti becaturaco bisca prestatzeco asmoarequin.

Ecusten dezu , noiz , ta nola becatu larri , edo mortalerá iritsi ditetzean janciera arro , ta gueyeguiac ? Eta alaere ceñ ardura guchiarequin oen ondoren dabiltza gaurco egunean Cristauac ! Zoaz ezperen erri andietara ; aimbestieraño zabaldu da oetan zoraqueria hau , non iguerrico ez dezun , nor diran bemallacoac , nor bitartekoac , eta nor goiagocoac : badirudi , bazter gucietan aditzen dala ots bat , diona : *emen gucioc guera berdiñac.* Zoaz erri chiquietara , eta oetan ere arquituco dituzu janciera arro , ta gueyeguien cutsu píscac , eta iguerrico dezu , ascoc dioela , obraz bederic : *Guc ere nai guenduque.* Arquituco dituzu ez guchi gaur eguindako sonnekoac bigar salduco dituenae , eta bigarcoac elzi , ceren Urliac , edo

Sandiac aguertu duan janciera berriren bat, Arquituco dituzu beste batzu ec janciera arrotz, eta costu andicoac errietara dacaztenac : emendic echeetan zabaltzea ecin irozo ditezquean apaindurac , eta ecin esan littezquean adiña calte. Arquituco dituzu asco janciera berrietará añ itsutuac , non prest arquitzen diran edoceñ gauzataraco , oec eguitea-gatic.

Nere Euscalduna , aldeguizu janciera arro , ta gueyeguietatic. Zure modestia izan bedi ezagutua , esaten digu S. Pauloc (e).

### *EMEZORTZIGARREN ERA-CUSALDIA.*

*Onestidadearen contra etsayac asmatzen dituan jancieren gañean.*

**E**z da etsaya contentatzen janciera

(e) *Ad Philip. C. 4*

arro , ta gueyeguiac zabalkzearequin munduan ; baicic egun oro asmatzen ditu , onestidadeari guerra emateco egoquiac diran, asco janciera lotsagarri. Jaunari esquerrac , ez da gure errietara oraindaño zabaldu izurri hau , baña erraz zabaldu litteque gende gaztea contuan mugonez ipintzen ezpada. Eta ona cergatik oraiñ hitzeguin nai dizudan onestidadearen contraco janciera lotsagarrien gañean. Asi gaitecen bertatic.

Onestidadea , orain uquitzen degun gayari dagocan eran hitzeguiten degula , da virtute chit eder bat , ayenatzten dituana castidadearen contraco modu itsusi guciac , dala hitzeguitean , beguiratzean , ibilleran , dala gorputza apaintzean : Virtute bat , gure hitz , eta obrai ematen diena apaindura , ta edertasun bat nori nai agradatzen zayona. Virtute onec escatzen du lenengo lecuan es-

taltzea bacoitzac bere gorputza, gauza itsusietaraco videric ez emateco, ez bere buruari, ez besteri. Etzan onelaco bearric, Adanec Paradisuko arbolaren fruta devecatua jan zuan artean, ceren zucentasun, edo justicia originalaren doayez apaindua cegoan. Autsi zuan Adanec Jauñaren aguintera, eta bereala oartuzan, nola arquitzen zan soñecoriegabe, eta orobat guertatu citzayon Evari ere: lotsatu, eta lembaitlen estali ciran. Gueroztic Adanen umeai escatzen die onestidadeac, estaltzea gorputza ongi, eta egua hau ezagutu izan due gende guciac, ez errixtan vici diranac bacarric, baita basatiac ere. Alaere etsayac asmatu izan ditu modu guciz itsusiak gaí onetan. Izan ciran noiz bait Baco Jainco guezurrezcoa adoratu zuenac. Onen onran eguiñ oi cituen iñutrian festac; ¿ baña cér festac? guciz

ciquiñ, eta lotsagarriac. Izan dira heregeen artean ere Bacoren festen anceco ibillerac eguiten cituenac. ¿ Eta cér? ez otedira cristau Catolicoen artean ere ecusten, onestidadeac debecatzen dituan, modu lassaiac? ¿ Ez dira ecusten cembait lecutan mutillac igueri, norcrai ecusi ditzaquean toquietan? emacumeac gobada, edo lixiba jotzen, gorputzak ongi estaligabe, eta bearbada lotsa guchirequin iñoren aurrean erantitzen dirala? Ez dira añi lotsagarriac; baña lasayeguiac bai, araco soroetan atorra, edo alcandora utsean lanean aritzen diran emacume, ta guizatzar aec. Eguia da beterrico toquietan onelaco loituraric ez dala.

Onestidadeac escatzen du bigaren lecuan, guizona guizonaren, eta emacumea emacumearen jancian ibiltzea. Ala aguintzen zuan Jaunac Le-

gue zarrean (*a*). Guerta diteque premia esturen batean , edo etsayetatic igueseguiteagatic , guizonac emacumearen , eta emacumeac guizonaren soñecoac ipintzea , eta hau ez da becatu , Santo Tomasec eracusten digun bezala (*b*). Ala eguiñ izan due cembait doncella virtutetsuc becaturako perilletic igueseguiteco : oen artean Teodora Antioquiarac , eta beste Corintoco batec (*c*). Baña gaizqui dirudian gauza da premiaric gabe hau eguitea , ta aintzacotzac iduqui da fedegabeen artean ere. Alaeurre sarritan ecusten omen dira gaurco egunean videetan emacumeac guizoben eran janciae : eta edoceñec dacus , ceiñ ondoren charrac ecarri litzaquean erguelqueria onec , gure errietan zabalduco baliz.

(*a*) *Deuteron. C. 22.* (*b*) *Vide Tirin. ad Caput 22 Deuter.* (*c*) *Vide eumdem.*

Onestidadeac escatzen du hirugarren lecuan , emacumezcoac erabiltzea beac era onean estaliac. Hau da gauza bat edoceñec ezagutzen duana ; baña alaere noicean bein etsayac aguertzen ditu janciera batzuec chit egoquiac emacume erguelac, ibili ditecen beetaco apainduaç , eta aztala eracutxiaz. Cembait lecutan asi omen dira emacumeac galtza lu- ceac gonapean erabiltzen. Ez da hau gauza guciz arrigarria ; baña bai tela ederrezcó abarcac ipintzea , aztala aguertzea , trabaquin bezala zancoac lotutzea , Elizan ere ecin belaunico jarri dirala. Hau gucia , ta gueyago ecusi omen da dembora oetan cembait erritan.

Onestidadeac escatzen dū laugarten lecuan , colcea , ta bularrac ongi estaliac erabiltzea. Hau da euscaldunen artean beti ongi gorde dan oitura ederra. Alacre ecusiaz , cem-

bait emacume arrotzec sorbaldaren erdia, ta besoac aguirian darabiltzela, ta colco gucia eracusten duela salgai, itsasten da cembait lasaiqueria, eta ascoc aditzera ematen due, era baliz guisa onetan ibiltzeo, ez liraqueala azquenecoetatic izango. Esanguidazu ezperen ; ez dira gure errietan ere batzuec, goyac ongi estaligabe dabilzanac? besteac zatarrezco bulto andiae ipintzen dituenac? besteac gorontza estu, eta laburraquin bularrac aleguiñean larritzen; anditzen, eta estaliac, baña cineilica eracusten dituenac? Cer aditzera ematen due onelacoac? Cer, era izatera, gueyago ere eguingo luqueela baicie? Zuc, nere euscaldu na, etsayac engañatu etzaitzan alde onetatic, gogoan arrezazu orain esatera noana. Lenvicia: colcoa ta bularrac estaligabe, ta inguruetan apaingarriaquin erabiltzea, da gait-

zeraco gura erraz esnatu dezaquean  
 gauza bat , eta beragatic guizon ja-  
 quintsu ascoren iritzian becatu lar-  
 ria (d). Bigarrena: onelaco lasaique-  
 ria itsusiaren oitura , edo usanza ,  
 ez dan errietan hau sartzea , gucien  
 iritzian da becatu lartia edo mor-

---

(d) *Natalis Alexander , Antoinius , Cu-*  
*niliati , Calatayudius existimant , mulie-*  
*res , quæ ad sui ornatum ubera ostendunt , graviter allicere ad luxuriam , et*  
*binc peccare graviter . Salmanticenses cum*  
*alijs dicunt , collum , et ubera nuda os-*  
*tendere ornatus causa juxta morem pa-*  
*tria nequaquam incitare graviter ad libi-*  
*dinem . Ligorijs fatetur , denudationem*  
*pectoris posse esse adeo immoderatam , ut*  
*non possit excusari à scandalo gravi ; quod*  
*si denudatio non sit taliter immoderata ,*  
*et alicubi adesset consuetudo , ut mulieres*  
*sic incederent , asserit , exprobrandam qui-*  
*dem esse , sed non omnino damnandam*  
*de peccato mortali .*

tala (*e*). Hirugarrena : oitura , nazcagarri hau devecatu zuan Inocencio icen onetaco Aita Santu amai-cagarrenac , eta excomicu nagusia-ren azpian aguindu zuan , emacumeac colcoa , ta bularrac leporaino estali citzeela estalqui tapitu battequin (*f*). Espaňaco legueac ez dande biguñagoac gai one-tan ; bada emacume gaisto becatuaren sariarequin vici diranai bacarric uzten dieza bularra aguirian duela ibiltzeco janciera , bear bada nor diran eza-gutuac izan ditecen. Gañera onelaco janciera edo ebaquitzen , edo josten , edo jostea aguintzen duanaren contra ipintzen due berroguei milla mara-

(*e*) *Vide Ligorium ita dicentem: Non nego quod illæ feminæ , quæ hunc morem alicubi introducerent , sane graviter peccarent.* (*f*) *Vide Cuniliati , et Lucium Ferraris v. Femina.*

vidiren, eta urte bico erbestearen pena: hau lenengo aldian; eta urrengoa lau urteko gaztelua (g).

Onestidadeac escatzen du bostgarren lecuan emacumeac Elizara joatea, ez gorputz utsean indi-olloac bezala, baicic era onean estaliac, batez ere usanza on hau dan lecuetan, Espanian dan bezala. S. Paul loc nai du, emacumeac Elizan egotea estaliac, eta hau, gaitzeraco videric eman ez dedin, Clemente Alexandriacoac dionez (b); eta ala eguiten due euscaldunac. Orregatic izango lizaque exemplo chit itsusia, gure errietako emacumeac joango balira meza nagusi, vezpera, ta doctrinac, edo sermoiac enzutera eder-

(g) *Vide Novissimam Compilationem: Autos acordados: Auto 1. tit. 12. lib. 7.*

(b) *S. Paul. Ad Corint. C. 11. v. 13 vide Tirinum.*

qui apainduac , eta gorputz utsean. Onela joan vide zan norbait erri bat- tean orain dembora guchi danean ; baña mezemalleac quenerazo zuan Elizatic Ez dezazula esan , cembait lecutan emacumeac gorputz utsean egoten dirala Elizan ; ceren ez di- ra emengo usanza onac trucatu bear beste Errefuetaco usanza charraga- tic. Emen , eta lecuric gueyenetan ez da gaizqui dirudian gauza , ema- cumeac aurpegua aguirian erabilt- zea ; baña Arabian izango litzaque escándalo andia ; an alabaña estalt- zen ditue burua , ta aurpegua ca- purueharequin : onec beguien parean du zurdazco sare bat , ta emendic ecusten du emacumeac nondic ibilli ditequean , eta norequin hitzeguiten duan. Emen , eta Europa gucian emacumeac irteten dira echetic , eta badabiltza , batzueta beintzat , da- gozten eguitecoetan , eta etzaio iñori

gogoratzen, usanza gaistoa dala hau; baña Chinan izango lizaque gauz itsusia ceren an emacumeen usanza dan beti echean egotea, eta hau galdu ez dedin, jayotzen diranetic alacó eran lotzen, eta estutzen dieztea oñac, non gueratzen diran oñie ezpalue bezala, edo beintzat ecin erraz oñez ibilli ditezquean eran. Emendic atera ezazu, gure Elizetan emacumeac apaindurie gorputz utsean egotea izango litzaqueala gauza chit itsusia, beste cembait erreñutan ala egoten badira ere. ¿ Baña cer asmatu du etsay madaricatuac emengo oitura ederra galerazteco? así da modaten icenarequin zabaltzen manteliña farragarri batzuec, egoquiac gorputz gucia aguirian erabiltzeco; batzuec alabaña doi doia iristen dira lepoa estalzeraño, besteac dira añ lasai, eta sareac, non gorputz gucia ecusten dan manteli-

ñaric ezpaliz bezala. Onelacoac ate-  
ra bear liraque Elizetatic.

Onestidadeac escatzen du atzenean,  
janciera ez ipintzea , urliagan , edo  
sandiagan gaitzeraco gura erace-  
quitzeo asmo lizunarequin. Ez det  
oste , Cristau aciera onecoetatic asco  
izango dirala asmo añ lotsagarriare-  
quin apaintzen diranac ; baña ez di-  
ra nosqui guchi , cembait becatu  
eguiteaz , eta eraguiteaz quezcaric ez  
duenac : eta onelacoac nequez izan-  
go due asmo garbia heren janciere-  
tan. Eta nolacoanai izan dedilla oen  
asmoa , baldin janciera bada beca-  
turaco vide andia ematen duana ,  
ez da gueyagoren bearric apaindura  
onelacoa becatu izateco.

Ona , nera Cristaua , cer jancie-  
rac asmatu dituan etsayac Onestida-  
dearen contra. ¿ Eta hau ezagutu-  
ric , ez dituzu utzico Zoraqueria oec  
beti betico ? Etzaitezela engañatu

munduaren iduripen eta Iosenchauquin, baicic jarrai guiozu Onestidadearen Virtute ederrari.

## EMERETZIGARREN ERACUS- ALDIA.

*Apaindura gueyegui, ta lotsagarriac janeitzeco asmatzen diran aitzaquiac. Deseguiten dira oec, eta aguertzen da, nola becaturicgabe, eta munduac eracusten dizun baño ederquitago apaindu zaitezquean.*

**A**zqueneco bi Eracusaldietan hitzeguin dizut janciera gueyegui; ta lotsagarrrien gañean. Aditu bear dituzu orain, janciera oec ez uzteco asmatzen diran, aitzaquiac. Uquituco ditut avrrena aitzquia octatic politenac, eta aguertuco det, ichura,

eta iduripen utsa baicic ez dirala. Eracutsico dizut guero , nola beca-  
turic gabe eta munduac eracusten di-  
zun baño ederquiago apaindu zai-  
tezquean. Ezun contuz.

Eguindue , ta eguiten due ascò  
aleguiña Aita Santuac , Obispo Jau-  
nac , ta gañeraco animen Arzayac  
ayenatzeco Cristauen errietatic apa-  
indura gueyegui , ta lotsagarriac.  
**A**laere oee beren oñean daude , edo  
obeto esateco ugarituaz dijoaz egu-  
netic egunera , ¿Certan ote dago hau?  
**E**tsayac , gazteac engañatzeco , era-  
custen dituan aitzaquietan. Aitz aqui  
oec aditu bear dituzu modazaleen au-  
tic , eta adituaz goacen eran dese-  
guingo ditut. Onetaraco goacen mo-  
dazaleac alic onguiena apainduric  
arquitzen diran eche , edo toquiren  
batera. Ozta ecusico gaitue , asico  
dira beren jancieren alde hitzeguiten,  
ceren , aurreco Eracusaldiáç aditu-

ric , mínduaç dauden. Bataç esango du : *Fauna, eztaquit cer gogoac eman dion , gure jancieren contra aiñ samiñ , aiñ gogor , eta garratz hitze- guin duanean.* Gu apaintzen guera usatzen dan eran: *¿eta nai dū berrorec , guc gueren huruac ez apaint- zea besteac bezala ?* Urlia , zaude asaldatugabe , eta soseguz. Hitzeguin det nic cerbait jancieren gañean , baña ez samiñ , eta garratz , baicic Jesu-Cristoren Legue garbian vici dan edoceñec ontzat eman bear duan eran. Hitzeguin det janciera arro , eta gueyeguien contra , ceren zuc ongui ezagutu dezaquezun beza- la , oetatic dator aimbeste eche gal- duac egotea , aimbeste gazte dago- ten aciera , ta estadua artugabe gue- ratzea , eta zorrac Cerutaraño dea- dar eguitea. Hitzeguin det gañera , onestidadeari guerra eguiteco etsa- yac asmatzen dituan jancieren con-

tra , baña ez , gai onec eescatzen  
duan beceiñ garratz. Onelaco jan-  
cieren ondoren bazabiltza , ez dezu  
cere burua garbituco , *ala usatzen*  
*da esanarequin.* Atocea , i ez da usat-  
zen munduan lagun urcoari charque-  
ri , ta videgabeac eguitea ? i Ez da  
usatzen munduan lagun urcoari beca-  
turaco bisca ipintzea ? i Eta azque-  
nean ez da usatzen munduan betico  
su , ta garren artera joatea ? Beraz  
aitzaquia chit argala , eta Cristaua-  
ten auan gaizqui dirudiana , da esa-  
tea , *gu apaintzen guera usatzen dan-*  
*eran.* Hau esan dezaquezu videz , eta  
ongui modestia , ta onestidadeare-  
quin jancitzen diranai jarraitzen ba-  
diezu , baña ez bestela.

Bigarren aitzaquia : Jauna , dio  
beste batec : *ni ezcondua naiz , eta*  
*apaintzen naiz senarrari atseguin*  
*eguiteagatic.* i Senarrari atseguin egui-  
teagatic ? Ongui eguiten dezu , mo-

destia , ta onestidadearen muguetatik irtengabe apaintzen bacera. Ala dio Santo Tomasec (a). ¿ Senarrari agradatzeagatic apaintzen cera ? ; Eta zure senarra añ ona ote da, non agradatzen zayon zu batetic bestera ibiltzea nescach erguel baten eran , eta anyere bat eguiña ? ; Senarrari agradatzeagatic apaintzen cera ? ; Eta nolacoa ibilli oi cera echean ? Bearbada guciz chaldana , eta enasa , alaco eran , non ecin guizonac gustoz begira deguiquezun. Bazoaz guero campora , ta orduan aguertzen cera arrotasun andiarequin , eta modestiarren cutsuricgabe apaindua ? ; Ceruste dezu , esango duela ecusten zaituenac ? Guchienez S. Francisco Salesc diona , hau da : *Noren beguiat atseguint eman nañ ote die urlia onee onembeste apaindurarequin ?*

Hirugarren aitzaquia : Jauna , dio  
 bestie urliac : *apaintzen naiz ni alic  
 ederquienā , baña ez lagun urcoari  
 becaturaco videa eman naiez.* Izan  
 bedi ordu onean egua zuc diozuna ;  
 baña ez da hori ascò : uc becaturic  
**ez** eguiteco. Atocea , baldin zure jan-  
 ciera gueyegua bada , eta emendic  
 badator , ecin irozo ditzaquezun , zor-  
 rac eguitea , lenecoaí ez eranzutea ,  
 echecho paquea galtzea , eta ascori  
**exemplo** gaistoa ematea , **z** norc ezta-  
 cus zure apaindurac izango dirala be-  
 catu Jaunaren beguietan , asmo gais-  
 torie **ez** dezula zuc esan arren ? Ga-  
 ñera , baldin zure janciera bada be-  
 caturaco vide andia ascorentzat .  
**z** Cer esan nai du zuc onelaco asmo-  
 ric **ez** izateac ? Zuc zugan danez  
 gaitzeraco lazoa prestatzen dezu ,  
**z** eta **ez** dá hau Jesu-Cristoren Legue  
 garbiac devecatzen dizun janciera ?  
 Cristaua , **ez** dezazula arren orrelaco

zoraqueriaquin cere anima betico galdu. Enzun ezazu Atenasco erri andian guertatu zan gauza bat Phryne Atenasco dama acusatu zuen Areopago ceritzan tribunalaren aurrean, gaistaqueria itsusiren bat guertatu citzayolaco. Tribunal hau zan ancianaco demboretan izan ciran gucien artean zucenena , eta guchienean bacituad oguei ta amaica Juez. Sentencia eman bear zan egunean joan zan dama Tribunalaren aurrera : hitzeguin zan onen gaistaqueriaren contra ; eta bere alde zuan Letradutzat guizon jaquintsu bat. Eguin zuan onec ascò aleguiña ateratzeco Phryne eriotzaren penagabe ; baña Joezac etziran erraz biguntzen , edo beratzen ciranac , eta , eriotzaren pena damari bota nai cioela , cirudian. Orduan joan zan Letradua Frine cegoan toquira , quenerazo cion estalquia , eta ipiñi zuan orain cembait

Jecutan damaç dabiltzan eran , edo bular gucia agiriz zuala. Ecusi zuen Juezac , eta gauz arritzecoa ! Lén aiñ zucena zan tribunal hura , bigüindu zán , eta Juez aec etzuen biotzic izan eman bear zuen Sentencia emateco (b). Beguira otain , Cristaua , cér calteac istorri ditezquean janciera lotsagarrrietatic , nolacoanai izan dedilla ipintzen dituanaren asmoa. Cergaiticbait onelaco apaindurai deitzen die San Geronimoc : *gura gaizto , eta loyen berogarriac : eta San Ambrosioc* emacume apainduari deitzen dio : *Demonio gucien echea.* ¿Eta Espiritu Santuac berac cer esaten digu ? *Quen ,* dio : quen zure beguiac emacume apainduagandic (c).

Laugarren aitzquia : *Fauna , ez det nic , erligioco ordenetan bezala ,*

(b) *Vide Feijoum : Teat. Crit. tom. 2 discurs. 6. (c) Eccl. 9.*

beti paret artean vicitzeco gogoric ,  
 edo hitz batean gucia esateco , ez det  
 Monja izateco ametsic egun : nic nai  
 nuque :: Asco dá , adiizen det orrem-  
 besterequin ceren billa zabiltzan.  
 Atocea , ta uste dezu , janciera arro ,  
 ta gueyeguiac , ta janciera onesti-  
 dadeari guerra eguiten dioenac , la-  
 guntzen duela zuc billatzen dezuna  
 arquitzeco ? Engañatzen cera , eta  
 eztaquizu zurequin hitzeguin oi duen  
 ezcudarien gogoco berri . Nic esango  
 dizut oee gogoan darabiltena , baña  
 isilic , eta iñore aditzen ez gaituala:  
 ezcudari oetaco bat jartzen dá hitze-  
 guiten , janciera gueyeguietan go-  
 goa ipini duan batequin , eta dio be-  
 regan *Urlia bau* , dio , ichura one-  
 coa , ta egoquia dá dembora pisca  
 batean umore onean egoteco ; baña  
 betico ? Nic dedana guchi da onen  
 jancia , eta modac irozotzeco . Ezcud-  
 dari bera jartzen dá beste batequin

hizquetan ; ecusten du burua moz-  
 turic , goi guiac aguirian dauzcalal  
 g̃cer uste dezu , diola beregan ? San-  
 dia onec , eztaquit , cér burua dau-  
 can : Emacumearen apaindura dá ille  
 ederra , eta hau burua mozuric jar-  
 ri dá , ceren illegabeco atsoren bat-  
 zuec moda hau aguertu duen. Aita  
 Santuac , Obispo Jaunac , eta gañe-  
 raco animen arzayac deadar eguiten  
 dué colcoa aguerturic dabiltzan ema-  
 cumeen contra. Espanaco Legueac  
 uzten dieza guisa onetan ibiltzen ;  
 baña nori ? Emacume gaisto , beca-  
 tuaren sariarequin vici diranai bacar-  
 rie : ta onec ez dio eceri beguirat-  
 zen , medari baicic. Eein bere aur-  
 peguira esango zayo , baña mingain  
 gaistoac darauste ezti pisca batequin  
 igortzi bear lizaqueala. , Ta hau nic  
 artu betico ? Ez , ez. Orra cér con-  
 tuac ateratzen dituen zurequin asco-  
 tan hitzeguin duen ezcutariac. Orra

nola, bær bâda modestia, ta onestidadearequin iritsico liraquean, erae galtzen diran janciera gueyegai, ta lotsagarriaquin. Ala guertatu zate ascori, eta ez dira centzatu heren buruac cimurturic ecusi dituen artean.

Bostgarren aitzaquia : *Jauna*, dio berendiac : *gu apaintzen guena ongi idurin naietz; eta etaere ez due guciac*, billatzensidueña arquitzen. Ongui irudin nai izatea bez dâ becatu gazte ezcongayetan, ez eta onetarazco heren buruac modestia, ta onestidadearequin apaintzea ere Ala dio S. Francisco Salesee. Baña <sup>g</sup>ongui irudin uste dezu, aguertzen diran janciera nazcagarriai jastritzem diezula? *Ongui irudin uste dezu ez dagoquizun eran apaintzen cerala?* Engañatzen cera: eta jaquizu ascorren farragarri izan oi cerala gure jancieragatik. Nic esango dizut, nola becaturicgabe, eta mundnac

eracusten dizun baño ederquiago apaindu zaitezquean.

Jesu-Cristoren Luegue ederrac ez dizu devecatzen apaintzea cere burua Jaunaren beldur Santuarequin, modestia , ta onestidadearequin. Jaunaren beldur Santuac ayenatzen dí becatua ; modestiac quentzen ditu jancieren arrotasunac ; eta onostida-deac ematen dio janciari gracia ,edo edertasun andia. Onela zuc cere burua apaintzeco , jantei zaite zure es-tadu , ta mallari dagocan eran. Ala esaten dizu Santo Tomasequin San Francisco Salesee (d). Ez asi besteac aguertzen dituen janciera gúciaé eguin navez ; ceren bestela erraz igaroco cera gueyeguira , eta mallaz campora. Etzabiltzala beste errie-

(d) *S. Thom.* 2.2. q. 196 art. 2. ad 3.  
*S. Franciscus Salesius Introductione ad vitam devotam.*

tan darabiltzquien costu andico soñecoac zu vici ceran toquira era-cartzen, ta ez esan, badezula cere-quin; asco izango dira alabaña zure errian, janciera orrelacoetaraco era guchirequin arquitzen diranac, eta zure janciera modacoac nolerebait beartuco lituque beste orrembeste eguitera. Izan zaite jancian garbia, chucuna; ez arroa, San Francisco Salesec esaten dizun bezala (e). Ezta ongi guizona emacumearen, eta ema-cumea guizonen eran apaintzea, ta afe guchiago guizonaren jancian ibiltzea; devecatu zuan hau Jaunac Legue zarrean, eta an esaten dā nazcagarria dala Jaunaren aurrean onela jancitzen dana (f). Zoaz Eli-zara Jaunaren echeari dagocan gar-bitasun, eta modestiarequin. Guizoa batzuec dira aiñ zacarrac, baldanac,

---

(e) *Salesius ibidem.* (f) *Deuteronom. C. 22.*

enascac, non Meza enzutera joan oideiran belaunetan galtzac estugabe, ta chuparen, edo almillaren besoac cincilica dituela. Emacumeac ez due joan bear Elizara gorputz utsean, videz dijoacenean, eta eein bestean baicie. Etzaitcela oitu mantelinaro lecuau tela sareac ipintzera, batezere Elizara, Confesatzera, edo Comunio Santua zoacenean. Aita Santu Inocencio, eta Clemente amaicagartean aguindu zuen, ez daquiela Confesatzeco, ta Comulgatzeco lecuric eman modestiagabe, bular, eta sorbaldac estaligabe dijoacenai (g). Aguintzen erdue, izan bear duala estalquiac, ez lasai, edo sarea; bai-cic tapitua.

Orra, nere Cristaua, nola apaiondu zaitezquean becaturic gabe, eta

— (g) *Vide Benedictum XIV lib. 11 Cap. 12 n. 6 de Synod. Diæcesan.*

munduac eracusten dizun baño eder-  
quiago. Cerez ederra baceta are eder-  
rago emango dezu ; eta ezpacera,  
modestia , ta onestidadeac ederluco  
zaitue ; oec dira jancieratik ederre-  
na , eta dembora berean gaitzeraco  
videric ematen ez duana ; janciera  
hau da vide zucena emengo erac ez  
galzeco , eta iristeko betiko vietza  
doatsua. Hau opa det zurequín ne-  
retzat. Amen.

### **OGUEIGARREN ERAKUSAL-**

*DIA.*

*Jancian , edo soñecoetan modestia ,  
ta onestidadea gordetzeko biru  
pensamentu egoqui.*

**J**ancieren gañean aditu dezunare-  
quin, uste det, artu dezula asmo osoa  
modestia , ta onestidadearequin ba-  
cic ez apaintzeco cere burua. Asmo

onetan zu sendoago eguiteco ; hiru pensamentu beguien aurrean ipiñi nai dizquitzut. Enzun contuz.

Lenengo pensamentua izan bedi zure janciera nolacoa nai ; izan bedi asma ditequean ederrena ; gér adierazten ote dizu ipintzen dezun bacoitzean ? Adirazen dizu lenengo lekuau , galdu cenduala Adanegan , edo bera becatuan erori zanean Jaunaren gracia , eta Ceruraco escu gucia : galdu cenduala zucentasun , edo *Justicia originalaren* doái miragarria ; ta hau galduric , zure gura , ta griña guciac gueraiu cirala gaitzerronz guciz macurtuac , eta ceran gucia era lotsagarrrian : emendic cereburua alic onguiena estali bearra. Adirazten dizu urrena , zu cerala berre Jaun , Jaungoico , ta Eguillearen contra alcha zan jatorri desleyal , ta esquergabea , eta eriotzaco sentencia cere contra daramazuna. Hau

gucia ezagutzeko, ecartzu gogora gure lenvicico gurasoai guertatua. Eguin cituan Jaunac Adan, eta Eva Ceruraco, eta apaindu cituan bere graciaz, eta doavez. Doai oen artean bat zán *Zucentasun*, *edo justicia originala* deritzana: doai bat Adanen, eta Evaren gura, ta griña guciac ceuzcana ezaguera zucenaren, eta vorondatearen azpian eta vorondatea Jaunaren nayaren mendean. Adanen, eta Evaren gura, *edo griñac orduan etziran batere asaldatzen, lotsagabetzen, eta alchatzen echecho nagusiaren, edo vorondatearen contra, ta beti ceuden prest, morroi leyal batzuec bezala, vorondateac aguintzen ciena eguiteco.* Adan, eta Eva sasoi, eta paquia gozo onetan vici citan Jaunaren aguintea autsi zuen artean. Soñecoricgabe ceuden, eta alaere etziran lotsatzen, ezeta oartzen ere,

nola ceuden , ceren justicia originalaren apainduae arquitzen ciran Gañera , doai onec gordeco cizuan Adan , eta Eva , berac nor izatera , eriotzatic : eta emengo dembora betetzean , joango ciran Cerura viceric Hau bera guertatuco zán ondoren goaquin ere . Baña autsi zuen Adanec , eta Evac Jaunaren aguintera , jaten zuela Paradisuco arbola baten fruta , eta galdu zuen Jaunaren gracia , eta Cerurako escuvide gucia , ez berentzat bacarrie , baita guretzat ere : galdu zuen Zucentasun , edo justicia originalaren doaya ; eta une artaile bertatic asi ciran Adanen , eta Evaren gura , ta griñae asaldatzzen , bacoitza bere videz , presa bat erraizen danean úrac heren videan abiatzen diran bezala , eta gueroztio ez due paquearie ematen . Oartu ciran Adan , eta Eva , nola arquitzen ciran soñecoricgabe : lotsatu , ta lem-

baitlen estali ciran al zuen eran Gainera gueratu ciran eriotzaren azpian, edo hill bearrac. Argatic dio S. Pauloc: *becatuaren saria dala eriotza* (a). Beraz, Cristaua, zuc cere burua apaintzeco, ipintzen dezun jancierac adirazten dizu, galdu cendua-la Adanegan Jaunaren gracia, eta Ceruraco escu gucia, ta gueratu ciñala era lotsagarrian, edo cere burua estali bearrean. Beraz zure soñieco bacoitzac beguien aurrean ipintzen dizu, zu cerala Jaunaren, edo Erregue gucien Erregueren contra alcha zan jatorricoa, eta eriotzaco sentencia beti cerequin daramazuna. Ongui, ḡta hau onela izanic, janciera arro, ta lotsagarrien billa ibilliko cera? onestidadea gordetzeko bacarric munduan aguertu ciran so-

fiecoac, ¿eta zuc onestidadearen contra biurtuko dituzu?

Bigarren pensamentua: ¿nolaco jancierarequin apaindu ciran Adan, eta Eva, Mundu guciaren jabeac baciran ere? Adan zán mundu gucico Jaun, eta jabea; Eva zán beraren emaztea, eta biac ciran mundu gucian izan diran, eta, izango diran Erregue gucien sustraya. Alaere, ¿nolaco jancierarequin apaindu ote ciran? Escritura Santac, Adan, eta Evarequin guertatua aditzera ematen digunean, bi jancieraren berriac ematen dizquigu: janciera bata izan zán berac eguiña. ¿Badaquizu nolacoa? pico, edo beste arbolaren baten ostoz, eta adarrez moldatu zuena. Bigarren janciera izan zán Jaincoac berac eman ciena, eta hau larruzcoa. Atozea orain: ¿cér aditzera ematen digu Jaunac, Adani, eta Evari emaniezten soñeco aquin? ¿cér

jancian gorde bear degun modestia,  
ta onestidadea baicic?

Hirugarren pensamentua: cer hitz eman einduan batayoco egunean? Egun andi artan etzinduan Eliz Ama Santacartu nai izan bere umeen artean, Ceruaren, Ainguero, ta guizonen aurrean, orain esango ditudan hitzac emangabe. *Urria*, esan cizun batayatzalleac Elizaren ice-nean: *¿gaurdanic betico uzten dituzu Satanás*, eta beraren langilleac, ceñac diran mundu galdua, edo munduan vici diran gaitztoac, eta araguiaren gura charrac? *Bai*; *uzten ditut betico*, eranzun cenduan. *Abrenuntio*. Galdetu cizun berriz: *¿gaurdanic betico uzten dituzu Satanásen lan*, eta obra guciac, nola diran becatua, eta hecaturaco videac? *Bai*, eranzun cenduan; *uzten ditut beti betico*. *Abrenuntio*. Galdetu cizun hirugarren al-

dian : *Gaurdanic betico uzten dituzu Satanasen arrotasun*, eta zoragueriac , dala jancian, janean, edanean, dala gastuetan , eta jolasetan ? *Bai* , eranzun cenduan , *uzten ditut beti betico*. *Abrenuntio*. Ona zuc batayoco egunean eman cinduan hitzac. i Cer gueyago bear dá báda , zuc , osotoro , ta sendoro erabaqui dezun bezala , modestia , ta onestidadeari jarraitzeco jancian? Ala esaten dizu S. Pauloc (b) , ala aguindu cenduan Christautu ciñanean , eta ala uste det eguingo ere dezula.

(b) *I. ad Timot. Cap. 2.*



**OGUEI TA BAT GARREN  
ERACUSALDIA.**

*Betico vicitza doatsua iristeco ez da ascó becatutic aldeguitea; gauza bearra da gañera bacoitzac bere estadu, eta vicimoduan obra onac, edo Cerurako irabaciak eguitea.*

**B**etico vicitza doatsua iristeco lenengo lecuan bear dan, gauza da becatutic aldeguitea. *Aldeguizu gaitzetic*, esaten digu Davidec, eta onen gañean izan dira aurreco Eracusaldiac. Baña ez da asco gaitzic ez eguitea, ezpaditu obra onac eguiten bacoitzac bere vicimodu, eta estaduan. Argatia ez dá contentatzen David esatearequin: *Aldeguizu becatutic, edo gaitzetic, baicic onoren dio, Eguizu onguia, edo obra*

onac. Hau aditzera eman cigun Je-su-Cristoc, pico alferrá mada rica-tu, eta igarturic utzi zuanean (a) Hau bera adiraci cigun Eliz Ama Santac, argui eracequia escuetan ipiñi cigunean batayoco egunean. Be-ras zu, Cristaua, ni, eta gucloc be-artuac gaude obra onac eguitera, bacoitza bere estadu, eta vicimo-duan, baldin betico vicitza iritsi nai badegu.

— ¿Cer aditzen ote dá obra onen icenez? Ez gauz andi, ta miragar-riac eguitea, hillac piztutzea, eriac sendatzea, mendiac batetic bestera aldatzea, baicic edocein obra on, dala andia, dala chiquia, ongi eguiña bada. — ¿Cer doai, edo condicio bear ote ditu obra batec ona, eta ongi eguiña izateco? Lau doai.

Lenengoa, sobrenaturala, edo Ceruticacoa izatea. Ceruticacoa, ceten Espiritu Santuaren gracia, tagunzagabe ecin Jesus bat-ere bear bezala esan dezaquegun, San Pau-loc dion bezala (*b*). Ceruticacoa gañera, ceten eguinbear dan, ez lurreco fiñen bategatik, baicic fedeac eracusten duan motivoren bategatik. Bigarrena, eguiten dan gauza berez ez ona, ez gaistoa bada, nola dan: *jatea*, *edatea*, *lo eguitea*, *paseatzea*, *bitzeguitea*, Ceruraco irabacia izateco, eguin bear da Jaunari agradatuco zayon eran, eta demboran Hirugarren doaia da, obra ona eguiten duana Jaunaren gracian egotea. Más adarrac ecin eman dezaque fruturik cepari ez dausquiola; eta era berean ecin zuc-

---

(*b*) *1. ad Corint. c. 12.*

cre eman dezäquezu obra onen , edo Ceruraco irabacien fruturic , Jaunaren gracian ezpazaude , ceren Jesu-Cristo Ceruco ceparequin bat eguiña etzauden (c). Alaere becatariac ez ditu utzi bear obra onac , ceren becatutic irteteco laguntzen duen.

Laugarren doai , edo condicioa dá obra ona eguitea Jaunaren onra eta gloriaraco (d). Era onetan , eta doai oequin eguindaco obra guciak , andiac , eta chiquiac añ ederrac , eta valio andicoac dira Jaunaren be-

(c) *Joan Cap. 15.* (d) *Quidquid sit , an opus meritorium requirat , ut sit elicitum , vel saltem imperatum à virtute Charitatis , ut affirmat Bellarminus , an vero sufficiat , ut sit opus supernaturale , & amici Dei ut asserit Suarezius : Certum videtur , opera , quæ diriguntur ad gloriam , & bonorem Dei meritoria esse. Vide Calatajud.*

guietan , non bacoitzarequin irabazten dan Ceruco Erreñua , eta betico vicitza doatsua. Necazariac , arotzac , arguiñac , ardatzleac , oquifiac , hitz batean bacoitzac bere vici moduan eguiten dituan lanetan irabaci dezaque Ceruco Erreñua. ¡Ceiñ ona gure Jangoicoa ! Bada betico vicitza irabazteco vide añ erraza prestatu digu !

Nere anima , cer animaco ondasunac , eta obra onen gordairuac etzinduan gaur idoquico , aditu dezun eran cere neque , eta lanac egün bacindu ? ¿ Baña nola arquitzen ote cera ? Lotsa zaite Jaunaren autrean zure naguitasunaz , eta aurrera vici zaite obra onac , ongi , eta arreta andiarequin eguiten dituzula.

**T**orai-Ciarratxeta

**OGUEI, TA BIGARREN ERA.**  
**CUSALDIA.**

*Obra on, edo Ceruraco irabaciac es-  
 catzen duen, asmo, edo inten-  
 cio garbiaren gañean.*

**Z**u nor izatera, ugari eguin ditzaqueru, nere anima, zure estado, ta vici moduan bertan obra on, eta Ceruraco irabaciac, ecusi dezun bezala. Baña ez dá asco onetaraco obra onac eguitea nola nai, baieic eguin bear dira asmo, edo intencio garbia-requin. Zure beguia, hau dá, zure asmo, edo intencioa oquerra bada, zure lanac, zure neque, eta obrac oquerrac, illunac, eta Ceruraco irabaciric ez decartenac izango dira, Jesu-Cristoc berac aditzera eman cigunez (a). Asmo, edo inten-

(a) *Mattb. 6.*

cio garbia dá gure lan , eta obrac eguitea Jaunaren onra , eta gloria-raco , azqueneco Eracusaldean esan dan bezala. Hau eracusten digu S. Pauloc , dionean : *Eguiten dezuen gucia , dala bitzez , dala obraz , egui-zue gure Jaun Jesu-Cristoren ice-nean (b)*. Naiz jan ; naiz edan , naiz beste gauzaren bat eguin dezazuela , egui-zue gucia Jaincoaren onra , ta gloriaraco (c).

Asmo edo intencio garbi otequin gure lan , eta obrac eguiteco , bear dira bi gauza. Lenengoa dá , Jaunati esqueintzea bere onra , eta gloria-raco , eta esqueintzea guciac. Ato-zea ezperen , ¿ norena cera ? *Etzératé cerenad* , esaten digu S. Pauloc , baicic Jesu-Cristorenac (d). Jesu-Cristorenac , eerent ecer-ezetic

(b) *Ad Colosens*, cap. 3: (c) *I. ad Corint.* c. 1 c. (d) *I. ad Corint.* cap. 3. § 6.

eguinduan. Jesu-Cristorenac, ceren bere odol preciotsuaren costuz erosi guinduan. ¿ Norentzat bada izan bear due gure hitzac, gure pensamentu, eta obrae, Jesu-Cristorentzae baicic? ¿ Nori esqueñi bear diozeagu, Jabeati baicic? Norena dan arbola, arenatzat izan bear due frutuac. Atozea gañera, ¿ etzaude beartua amatzena zure Jaun, eta Jaungoicoa zure biotz guciaz, zure indar, eta alegría guciaz? ¿ Eta nola era onetan amatuco dezu; ezpadiozcatzu, esqueintzen bere onra, ta gloriazko zure hitz, pensamentu, eta obra guciac? Argatic oitu zaite, nere anima, goicetic Jaunari esqueintzera zure biotza, zure lan, eta neque guciad.

Gure lan, eta obrac Cerurako irabaciak izateko, ez dá asco goicetic Jaunaren onra, eta gloriazko esqueintzea, bear dá gañera asmo eder,

onec eraguitea guri obra onac. Argatic goicean esqueñi arren Jaunari egun gucico hitz, pensamentu, eta lanac, baldin guero eguitei baditugu beste asmo lurrezoren bategatik, egun dezagun contu, Monduaren alabanzac iristeko: galduco degu Cerurako irabacia, eta gure obra onac izango dira ustelak, edo azalprinz ederra bai, baña mamiric ez duenac. Eta ona cergatic beiñ baño gueyagotan guertatzen dan, cembaitec obra on ascorequin Cerurako irabaci guchi eguitea, ceren goiectic artu zan, asmo, edo intencion garbia erraz aldatzen, eta lur biurtzen dan, ernai vici espada bat. Esan diteque gure asmo, edo intencioa batzueta dala goicean urrea, geroséago cillarra, eta azquenean lur utsa. Hau guerta ez dedin, eguatean berritu, bear dá noicean beiñ goiceko asmo ona. Ez dá ontaraco

neque andiren bearrie; asco dá Jain-coaganonz biotza jasotzea, eta esa-tea naiz hitzez, naiz gogoz: *Jauna goiceco asmoan bertan arquitzen naiz zure icenean, eta onran iزان bitez nere lan guciac, eta orain egultera noan bau-ere bai.*

Nere anima, cein gauza negar-garria zuri guertatu zatzuna! Necatu cera asteetan, illetan, eta ur-teetan obra onae eguiten, eta alaere arquintzen cera Ceruraco irabaci guchirequin, eeren zure asmo, edo intencioa erraz aldatzen zan Mundu-ganon. Centza zaite bada, eta emen-die arrerra egitzu gauza guciac as-mo garbiarequin, eta Jaunaren on-ta, eta gloriaraco.



**OGUEI, TA HIRUGARREN  
ERACUSALDIA.**

*Celñ frutu ederrac , eta santutasun ceiñ miragarria dacartzian bacoitzac bere vicimoduco lanac asmo , eta intencio garbiarequin eguiteac. Contatzen da Florenciako penitente andi bati guertatua.*

**A**ditu dezu , nere anima , cer asmo ,edo intencio escatzen duan obra onac , eta Ceruraco irabaciak , eta nola hau eguin , eta berritu dezaquezun erraz. Ezta hau eguiaz neque andia , ezeta jaquiunde andiren bat escatzen duana-ere. Edoceiñ necazaric , eta languillec , arreta , eta ardura pisca bat artzearequin , eguin dezaquean gauza dá , iracurtzen jaquin ez arren. ¿ Eta norc esan , ceiñ

frutu ederrac, eta santutasun cein miragarria iritsi dezaquezun cere vici modu, ta estaduan? Hau nol-ere bait ezagutu dezazun, enzun itzatzu, asmo, edo intencio garbiac dacartzian, frutu ederretatik batzuec, Lenengoa da: etsai galgarriari goiceticie biotzeco ateac ichitzea. Ernai dabil hau, zure biotzaren jabe gue ratzeco esnatzen ceranean. Zaitzen zaitu lotan zaudenean, eta ozta igueritzen dizu esnatzera zoacela, eguiten du aleguiña zure biotzera sartze-  
co, eta onetaraco bidalduco dizquitzu zure arazo, edo eguitocoen quez-  
cac, eta cembait aldiz gogoracio itsusiac. ¿Eta cembait vider lenago-  
tic prestatzen ditu ames loyac? Ba-  
ña oitutzen bacera goiceticie, edo es-  
natzen ceranetic Jaunari zure biot-  
za, pensamentu, eta lan guciac es-  
queintzera, ichitzen diozcatzu ateac  
etsaiari, eta aldeguiten du. Bigar-

ren frutua dá biotza zabaltzea betico vicitzaren ustearequin. Asmo garbiarequin bere obrac eguiten dituan, animac badacus servitzen duala Erregue gucien Erreguea, Jaun bat guciz altsua, eta eciñ gueyagoraño bere hitzetan leyala; Badacus, Jaun onec bere adisquide, ta servitzariai aguintzen diela betico vicitza, eta onen usteac zabaltzen dió biotza, arintzen diozca neque guciac, eta gozatzen emengo gurutze, ta saminutasunac. Hirugarren frutua dá animaco pauea gozo bat. Jaincoa dá pauea eguiazcoaren iturburua; eta nola asmo, edo intencio garbiarequin bere lán gucietan diardunac Jaun paueatsu oni beguiratzen dion gucian, gueratzen da soseguz, eta pauea ederrean, maiz emengo gauzac ongi, eta gustora, naiz oquer intenditecela. Laugarren frutua da eguiten diran lan andi, eta chiquia-

quin eta ecer ez dirudien gauzaquin-  
ere betico vicitza , eta Ceruco Er-  
reñua irabaztea. Añ miragarria da  
asco , edo intencio garbiaren indar-  
ra , non lanic , eta obrarie chique-  
na-ere alchatzen duan Ceruco Erre-  
ñuaren irabaci izateraño. Eguizu con-  
tu , zure echean arquitu dezula ait-  
zur bat indar aiñ arrigarria duana ,  
non uquitzen dituan gauza guciac,  
eta lurreco socorrac berac-ere urre ,  
eta cillar biurtzen dituan. Atocea ,  
aitzur hau utziric zocoan , arico ci-  
ñaque besteren batequin ? Ezetz  
esango didazu. Aitzur onen ancecoa  
dezu bada asmo , edo intencio gar-  
bia , Onec uquitzen duan gucia bi-  
urtzen du batzuetan cillar , bestee-  
tan urre , besteetan diamante , edo  
biurtzen du Ceruco Erreñua balio  
duan irabaci. Bostgarren frutua dá ,  
eguiten dan lan , eta neque bacoit-  
zarequin animaco gracia , eta santiu-

tasuna ugaritzea , edo gueitutzea.  
 g Norc esan , eta norc ezagutu-ere  
 norañoco gracia , eta santutasuna  
 bildu dezaquean bacoitzac bere esta-  
 du , eta vici moduan , baldin asmo ,  
 edo intencio garbiarequín jarraitzen  
 badie bere lanai ? Hau ederqui adi-  
 razten digu Florencian penitente an-  
 di bat guertatu citzaionac. Vici zan  
 hau Florenciaco eremu batean ora-  
 cio , barau , eta penitencia asco egui-  
 ten cituala. Gogora citzaion bein ,  
 Munduan zán animaric virtutetue-  
 na , edo santuena zala. Aditu zuan  
 Jaunaren ots bat , esaten ciona , ja-  
 chi cedilla Florenciara ; billa cezala  
 Pedro zurradorea , eta onen virtute ,  
 eta santutasuna andiagoac cirala. Ja-  
 chi zan bada gure Eremutarra Flo-  
 enciara ; topatu zuan noiz bait Pe-  
 droren echea , eta bien artean igaro  
 zán , orain esango dedan , hizqueta .  
 G. Atozea , Pedro , cér barau ate-

ratzen dituzu ? Galdetu cion Ere-mutarrac.

E. Barau guchi ; edo batere ez, eranzun cion Pedroc.

G. ¿Cer cilicio darabiltzu gorput-zean ? Galdetu cion Eremutarrac.

E. Batere ez, eranzun cion Pedroc.

G. ¿ Egunean cembañ ordu ora-cioan igarotzen dituzu ? Galdetu cion bertiz.

E. Batere ez, eranzun cion Pe-droc.

G. ¿ Cer eguiten dezu bada ? Gal-detu cion azquenean.

E. Orduan esan cion Pedroc : Nic eguiten dedana dá hau. Goicean jai-quita bereala jartzen naiz belauni-co : Ematen diozcat Jaunari biotz osoz esquerrac, ceren arguitu dan eguna bera servitzeco eman didan. Gueró esqueintzen diozcat nere biotza , eta egun gucico hitz , pensamen-tu , eta obrac , guciaquin , eta ba-

coitzarequin berari agradatu naiez. Hau eguiñ ondoan equiten diot lanbari. Hau dá nic eguiten dedan gucia Eremutarrac, adituric Pedroceciona, ezagutu zuan bere pensamenduaren zoraqueria, eta Pedroren virtute, eta santutasunaren anditasuna. Ieasi ezazu bada zuc-ere, nere anima, zure lan, eta obrac asmo garbiarequin eguiten, eta zuc ateraco dituzu emendic frutu asco, oen artean virtute, eta santutasun andi bat.

### *OGUEI, TA LAUGARREN ERACUSALDIA.*

*Obra on, eta Ceruraco irabaciac eguin  
nai baditugu, prest egon bear degu  
Jaunaren vorondatea eguiteco, eta  
vorondate onequin gurea bat  
eguin bear degu.*

**E**guin guinduan Jaunac emen be-

raren vorondate Santua eguiteco, eta  
 gueró berieotasun gucian berarequin  
 batean Ceruan doatsu izateco. Jain-  
 coaren Semea bera Cerutic jachi zan,  
 berac esaten digun bezala (a), Jau-  
 naren vorondatea eguiten guri era-  
 custeco, eta eracutsi cigun chit eder-  
 qui, ala hitzez, nola obraz. Aita,  
 esaten cion Getsemanico baratzan:  
*Aita, albaditeque igaro bedi nic  
 edangabe pasioco neque-oñaceen Ca-  
 hiz bau; baña eguin bedi zuc nai de-  
 zuna, eta nai dezun eran.* Ona no-  
 la prest cegoan Jesus bere Aitaren  
 naia eguiteco. Elzan prest egotea-  
 requin contentatu, baicie beraren vo-  
 rondatea eguiteagatic igaro cituan  
 pasioco neque-oñaceac, eta eman  
 zuan gurutzean vicitza. Hau bera  
 eguin bear du bada obra on, edo Ce-

ruraco irabaciac eguin nai dituanac: prest egon bear dū beñic-beñi Jaunaren vorondatea eguiteco, eta vorondate hau aguertzen dioe amar Aguinte, edo Mandamentuac, Eliz Ama Santaren bostac, eta, bacoitzac bere estaduan dituan, eguin-videac. Aguertzen dioe gañera Jaunaren vorondatea gurasoen, eta buru diranen aguinduac, eta, berez, edo bestez gure oneraco Jaunac presatzen dituan, neque, gurutze, eta samintasunac. Emendic atera ezazu, nere anima, ez dezula obra on, eta Ceruraco irabaciric batere eguingo, prest ezpazaude Jaunaren vorondatea eguiteco, gauza larri, edo pi-suetan bederic, ceren sasoi gaisto onetan zauden bitartean Jaunaren gracian etzauden. Atera ezazu bigarrena, obra onac, edo Ceruraco irabaciak ugari eguin nai badituzu, Jaunaren vorondatea eguin bear de-

zula , gauz andietan ezecic chiquietan-ere , ez becatu larria dalaco gauza chiquietan utseguitea , baicic ceren onela ezagüera , ta vorondate osoz sarritan utseguiteac galerazten dituan , asco obra on , eta amilderazo oi duan guchica becatu larrian. Ateraz ezazu azquenean , prest vici bear dezula Jaunaren vorondatea eguiñ nai dituanac , equin bear die lan onai Jaunaren naya eguiteagatic , edo berbera dana , bere vorondatea bat equin bear du Jaunaren naiarequin. Emendic dator ascoren lan , neque , eta obra onac iduri utsac izatea , eta esan oi dan bezala *icbura bai , ta quemenic ez.* ¿Cergatik oie ? Ceren eguiten ez dituen Jau-

naren vorondateari beguiraturic, bai-cic beren griña , edo genioa servitzeagatic , edo Munduaren beguietan argui emateagatic.

Nere anima , zaude prest gauza gucietan Jaunaren vorondatea eguiteco ; eta vorondate hau izan bedi zure guiyari. Zure lan , eta obretan zure vorondatea uni ezazu , edo bat eguin Jaunarenarequin , dala gurasoen aguindua eguitean dala beste gaucetan. Hau eracutsi cigun Jesus-Cristoe. Hau bera eguzu Jau-nagandic , edo lagun urcoetatic datozquitzun neque , eta naigabeetan : esan guiozu sarritan Jaunari : *Eguin bedi , Jauna , zuc nai dezuna , eta zuc nai dezun eran. Indazu zure lagunza , neque bau zure icenean iga-rotzeco.*

## V



*OGUEI , TA BOSTGARREN ERACUS-  
aldia.*

*Obra onen , edo Ceruraco irabacien gor-  
dairu ugari-aberatsac daude emengo ne-  
que , eta gurutzeac pacienciaz , eta fau-  
naren icenean eramatean. Uquitzen  
da virtute bau , eta ipintzen dira  
bera iristeko cembait  
pensamentu.*

**A**zqueneco Eracusaldian ecusi dezu , nola prest egon bear dezun Jaunaren vorondatea gauza gucietan eguiteco. Ecusi dezu gañera , era berean prest egon bear dezula emengo neque , eta gurutzeac pacienciaz eramateco. Orañi begoiratu bear dezu , nola neque , ta gurutzeac era onetan eramatean dauden obra onen , eta Ceruraco irabacien gordairu ugari , eta aberatsac.

Ozta aguertzen da guizona lurrauen gâ-  
ñean , inguratzen due alde gucietatic ne-  
queac , penac , eta gurutzeac , eta jar-  
raitzen dioe beti , nora nai dijoala. Ne-  
que eta gurutzac arquitzen ditu echean ,

campoan, bacardadean, eta lagun artean: neque, eta gurutzeac etsaietatic, adisqui-deetatic, aideetatic, eta arrotzetatic: eta azquenean erortzen dā eriotzaren atzaparretan. *Guerra utsa da*, cion Job Santuac, *guizonaren lurreco vicitza (a)*. Hau gucia dator gure lembicico gurasoen becatutic. Baña aisi miragarria, eta ona dā Jau-na ganza gucietan, non neque, eta pena oetan beretan prestatu dituan guretzat on-dasun chit andiac, edo obra on, eta Ceruraco i abacien gordairu ugari-aberatsac. Nola ote? Eramaten dirala pacienciaz, eta Jaunaren icenean. Arma haugabe galdua cera, nere anima, emengo nequeen, ecaitzan, eta baguen artean; onequin, ningura batequin bezala, gorde dezaquezu zu-te animaren oncia, eta gorde ez nola nai, baicic ugaritzen dituzula animaco gracia, eta Santutasuna, eta Ceruraco irabaciak. Argatic esaten digu San Pauloe: gauza bearra dala guretzat paciencia, Jaunac aguindurie dauzcan ondasunac iristeco (b). Paciencia dā virtute bat laguntzen diona

(a) Job. c. 7.

(b) Ad Hebr. C. 10. v, 36.

animari neque , naigabe , eta gurutzeac eramaten ongi , eta Jaunaren icenean , eta ditu hiru malla, Lenengoa dá , aleguiñean igues eguiñ nai izatea neque , ta gurutzeatik ; baña al-ere datocenean , irozotzea gorrotoari , edo beste becaturi lecuric emangabe , ceren a la aguintzen duan Jaunac. Hau dá pacienciaren beeneco malla, Bigarren malla dá , neque , eta gurutzeen iguesi ibilli gabe , datocenean vorondate prest batequin artza ; ceren hau dán Jaunaren vorondatea. Hirugarren malla dá , atseguiñ , eta contentuarequin artza eta igarotzea gurutze , neque , eta videgabeac , ceren hau dan Jaunaren gogoco gauza , edo Jaunari agradatzen zayona. Ala poz andia artu zuen Apostoluac , S. Lucasen dionez , Juduen batzarreac azotatu cituanean Jesu-Cristogatic ( c ). S. Pauloc bere neque an-dien artean cion : *gañez eguiten dit pôzat* ( d ). S. Andres , ecusiric beretzat prestaturic cegoan gurutzea , asi zán osca esaten : ; *O gurutze santa ! aspaldi deseautua , ansiaz amatua , ta billatua : ar nazazu guizonen artetic , eta eraman nazazu nere*

( c ) *Actor.* 5. ( d ) *a. ad Corint. cap. 7.*

*Maisuagana.* ; Ecusten dezu cer dán paciencia? ; Ecusten dituzu virtute onen mallac? ; Norc esan, norañoco irabaciæc eguingo dituzun Ceruraco videan, arma onez baliatzen bacera, egun oro etorrieo zaizquitzen, neque, eta gurutzeetan? Entzun itzatzu orain, virtute hau iristen lagunduko dizuen, cembait pensamentu.

Lenengo pensamentua: edo ongi, edo gaizqui neque, naigabe, eta gurutzeac igaro bearra cera lurraren gailean vici ceran artean. Gaizqui igarotzen badituzu, ugaritzen dira nequeac, galtzen dezu bearbada becaturen batequin cere burua, eta betico vicitza. ; Cergatic bada pacienciara etzera sayatuco?

Bigarren pensamentua: ongi badaramazquitzu emengo nequeac, beguira da goquizun Aita Cerucoac emango dizquitzu bere lagunza, eta gracia ugariac, eta oequin arinduko, eta gozatuco dira: eta eguingo dituzu Ceruraco irabaci andiac. Esan guidazu bada, nequea arindu badezaquezu, ez nola nai, baicic irabaci andiaquin, ; cergatic ugaritu nai dezu cere nequea, eta barrenko sartintasuna?

Hirugarrena: Nondic nai datocela zure

neque, eta gurutzeac, beti egnia izango dā, zure Jaun, eta Aita onac zure onelaco bidaltzen dizquizula. Gaizqui eguingo du bear bada zu naigabetzen zaituan lagun urcoac, baña Jaunac utzitzen dio gaitz hori eguiten, zuc zure ecer eza ezagutu dezazun, eta leyalquiago Jaun bera servi dezazun. ; Eta zure onagatic Jaunac bidaltzen dizun nequea, ez dezu ontzat artu bear?

Langarren pensamentua : Jaunaren adisquide guciac; Virgiña chit Santa, eta Jesus-Cristo bera neque, eta gurutzeen videotic igaro dira; ; Eta zuc ez diezu jarraituko onelaco guiarai?

Nere anima, arrezazu astio osoa gaurdanic ontzat artzeco datoquitzun neque, naigabe, eta gurutzeac, Jaunaren naia, eta vorondatea eguiteagatic. Etzaitecela oitu neque, eta estutasunen bat etortzean, etsayari otseguitera, birauac botatzera, eta lagun urcoaren contra edocein gauza esatera, baicic esqueñi guiozu Jaunari gucia beraren icenean: esan zaiozu: *Eguin bedi, eguin bedi zure vorondatea nola Cerruan ala lurrean*

*OGUEI , TA SEIGARREN ERACUS-*  
*aldia.*

*Virtute , eta santutasun andira igotzeco  
 videa da neque , eta gurutzeetan , eta  
 gauza gucietan Jaunaren vorondateari  
 beguiratuta Jaunac nai duana bera  
 nai izatea. Hau eracusten digu  
 Errromako Teologo andi bati  
 guertatuac.*

**O**bra on , eta Ceruraco irabacien ma-  
 mia bezala dá Jaunaren vorondatea eguitea,  
 eta Jaun berac nai duana gue ere nai izatea ,  
 batecere nequeac , eta gurutzeac da-  
 tozquigunean. Einendic , cembat eta obe-  
 to gure vorondatea bat eguiña dagoan Jau-  
 naren naiarequin , ambat gueiago acitzen ,  
 eta ugaritzen dá virtute , eta santutasuna.  
 Hau ongui eracusten dizu , Juan Taulero  
 ceritzan , Errromako Teologo andiari guer-  
 tatuac. Guizon andi , eta virtutetsu hau  
 zortzi urtez egon zan Jaunari escatzen ,  
 aguer ceguiola berari agradatzeco videa.  
 Aditu zuan beiñ Jaunaren ots bat esaten

ciona: *Zoaz S. Pedroren Elizara*, eta an arquituco dezu, zuc nai dezuna eracutsico *dizun*, guizon bat. Joan zan Eliz artara: arquitu zuan ateetan escale bat ofieratic elbarritua, eta soñeco zár batequin erdi estalia. Asi zan Teologoa escale onequin hitzeguiten, eta ara bien artean igarosa.

*Teologoac.* Jaincoac dizula egun on, adisquidea esan cion *Teologoac.*

*Escaleac.* Ez det gogoan, egun gaistro-ric oraindaño izan dedala: Erantzun cion *Escaleac.*

*Teol.* Jaincoac eguiñ zaitzala zori oneco.

*Escal.* Esquer milla, Jauna, zure vorondate onagatic, bafia egundaño ez det jaquin, cer dán zori gaistoa, eta doaca-berastina.

*Teol.* Adisquidea, Jaincoac dizula deseо dezun gucia.

*Escal.* Jauna, ez det esparic izateco ez gairic, ez videric, ceren gauza guciac datoquidan nere gogoaren, eta voronda-tearen neurrian.

*Teol.* Adisquidea, zu zauden bezala egon, eta nola izan zaitezque diozun be-cciñ doatsu? Hitzeguin guidazu arren garbiago, edo arguiroago.

*Escal.* Atseguin andiz eguingo det, Jauna, zuc dioxun hori. Zuc eman dizquidatzu *egun onac*. Nic erantzun dizut, *ez dedala gogoan egun gaistoric orain-dan* *no izan dedala*; ceren otz, edo bero, euri, edo ateri, argui, edo illun eguin dezala, alabatzen det nere Jaungoicoa, eta egun guciac dira neretzat berdinac, beti da alabaña bat oen emallea. Esan didazuurrena: *Faincoac eguiñ nazala zori oneko*. Nic eranzun dizut, *egundaño ez dedala jaquin, cér dan zori gaistoa, eta doacabetasuna*; ceren naiz gose izan, naiz egarri, naiz oñacequin, eta gaitzen azpian egon, naiz litnosnaric ez deguideela eman naiz bai, ezagutzen det, gucia datorquidala Jaunagandic: eta nola nic nai *ez dedan*, Jaunac nai duaga baicic, dala hau gozoa, dala samiña, arquitzen naiz soseguz, eta nere biotza dago atseguincontentuz betea. Ona, cergatic *egundaño jaquin* *ez dedan cér dan zori gaistoa*.

*Teol.* Nere adisquidea, onac dira esan dituzun gauz horiec, baña esan guidazu: *¿cer eguingo cenduque, botaco bacindu Jaunac infernara?*

*Escal.* Jaquizu, baditudala bi beso chie

sendoac , eta indartsuac : bata dá nere ece-rezaren ezagüera , eta umiltasuna , eta one-quin adoratuco nuque Jaunaren voronda-tea , eta berari eutsico nio que. Beste be-soa dá Jaunaren amorioa. Amatzen det nere aleguiñi guciaz , eta gauza gucien ga-ñetic , eta amorio onequin eutsico nio que beti , era toqui gucietan , Onela , edo bioc gueratuco guiñaque infernunic campora , edo bioc jachico guiñaque ara : eta Jaincoa-requin amorioz bat eguiña egotea , infer-nuan bertan-ere , izango litzaque doata-sun andiagoa , Jaincoaren amoriogabe Ce-ruan vicitzea baño.

*Teol.* Arrituric gueratu zan Teologoa escalearen eranzute miragarriarequin , eta sinistu zuan , hurasé zala billatzen zuan guizona. Alaere Jaunari ongienia agradat-zeco , videa obeto ezagutu naiez , eguiñ ciozcan beste galde batzuec era onetan.

*Teol.* ¿ Nondic etorri cera , adisquidea toqui onetara ?

*Escal.* Jaincoagandic.

*Teol.* ¿ Non arquitu dezu Jaincoa ?

*Escal.* Munduko gauzac maitatzea utzi nuan toquian.

*Teol.* ¿ Eta norá zoaz ?

*Escal.* Jaungoicoagana.

*Teol.* ¿ Non vici dá Jaungoicoa?

*Escal.* Vorondate ona , eta biotz garbia duen guizonetan : hau dá Jaincoac nayen duen vicilecua.

*Teol.* ¿ Eta nor cera zú , adisquidea ?

*Escal.* Jauna , ni naiz Erregue.

*Teol.* ¿ Zu Erreguz ? ¿ Non dá zure Erreñua ?

*Escal.* Emengo nere Errefiua dago nere animan : nere gorputza , nere gríña eta sentiduac daude ezagüera zucenaren , eta vorondatearen mendean : eta ezagüera , eta vorondatea daucat Jaunac nai duan-eraco prest. Orra , nola naizan eguiaz erregue , eta non dan nere erreñua ; ez da , ez , Munduko Erreñu gucien artean bat-ere nerea bezeiñ pägeatsuric.

*Teol.* ¿ Norc , edo cerc alcha zaitu , adisquidea , virtutearen malla aiñ goi orretaraño ?

*Escal.* Guizonaquin guchitan , eta Jaincoarequin sarritan hitzeguiteac , berarenai , edo vorondatearequin nerea bat egutien dedala. Onela arquitu det Jaungoicoa , eta , lurrean guizonac iritsi dezaquean , doatasun , eta zori on gucia.

Ecusten dezu , nola escale bategandic

icasí zuan Teologo batec Jaincoari *ongui*<sup>ee</sup>  
na agradatzeco videa? Ecusten dezu, nola  
virtute, eta santutasun andi batera igo  
zaitezquean, baldin zure neque, eta gu-  
rutzeen artean zure nai, eta vorondatea  
Jaunarenarequin bat eguiten badezu. Sa-  
ya zaite bada emendic aurrera onetara.

### **OGUEI, TA ZAZPI GARREN ERA- cusaldia.**

*Jaunaren aurrean edo beguietan jartze,  
eta ibiltzearen gañean. Adirazten da,  
cer dan ibillera bau, eta ceiñ vide  
ederra dan, ala becatutic alde-  
guiteco, nola obra onac ongi  
eguiteco.*

**Z**abiltza nere aurrean, eta zu izango  
cer a virtutetzua, eta santua, esan cion  
Jaunac Abrahani (*a*). Hitz oetan Jaunac  
adirazten dizu, nere anima, Jaun beraren  
aurrean, edo beguietan jartzea, eta ibilt-

---

(*a*) Genes 17 Vide Alphonsum Rodriguez de Præsentia Dei.

zea dala vide chit ederra , ala becatutic aldeguiteco , nola obra onac ongi eguiteco. Jaunaren aurrean , eta beguietan jartzea , eta ibiltzea , ez da nola nai beraren aurrean egotea , eta ibiltzea ; Jauna alabaña toqui gucietan dago , eta arguilo ecusten gaitu gu, naiz gauaz, naiz egunaz , eta era berean ecusten ditu gure hitz , pensamendu , eta obra guciac , ala andiac , nola chi-quiac , ala onac , nola gaistoac. Alaere gueyenean ez gaude , ez gabiltza gú Jaunaren aurrean , ceren erraz aztutzen gueran Jaungoicoaz , eta bera utziric igarotzen gueran Munduko gaucetara. ?Cer ote dá bada Jaunaren aurrean , eta beguietan jartzea , eta ibiltzea ? Bi gauzatara biurzen dá hau. Bata dá fedearen arguiarequin gogora ecartzea , eta sinistea , leku gucietan , eta gú gauden toquian bertan arquitzen dala Jaungoicoa , eta arguilo ecusten dituala gauza guciac , igaroac , igarotzen , eta igaroco diranac : *Andia dá Jaunaren izatea , eta ez du bucaeraric , dio Baruc Profetac (b) Ceruaren erpiña baño goragocoa dá : infernuaren ondoa baño ondo-*

*ragorcoa dā : igarotzen ditu luraren bantzter , eta muga guciac , eta itsasoa baño zabalagoa dā ,* dio Job Santuac (*c*). Izate guciz andi onen barrumbean vici guera , *muguitzen guera , eta gaude , esaten cien S. Pauloc Atenascoai (d).* Bere jaquimndearequin arguiro ecusten ditu gauza guciac , eta ecusten ditu , ez nola nai , baicic diran bezala. Berdin dā Jaunarentzak gaua , nola eguna , illumbea , nola egunaren erdia , orregatic dió Escritura Santak , *eguzkia bera baño-ere arguagoac dirala Jaunaren beguiac (e).* Egua oee gogora ecarri , eta sinisten badezu , non ere nai , eta zauden toquian Jaunaren aurrean , eta beguietan zaudela , eta ecusten ditusalā gauza guciac , han izango dā Jaunaren aurrean jartzea , eta beraren aurrean ibiltzeco bear dan lembicico gauza. Bigarrena dā , siniste onezaz baliatza gauden , eta gabiltzen lecuetan Jaunaganondz biotza jasotzeco , bear degun lagunza , ta gracia escatzeco , uñilqui bera adoratzeco , Fede , Esperanza ,

(*c*) *Job c. 11.*

(*d*) *Act. Apost. Cap. 17.*

(*e*, *Ecclesiastic Cap. 23.*

eta caridadezco afectoac eguiteco. ¿Ecus-  
ten dezu, cer dan Jaunaren aurrean, eta  
beguietan jartzea, eta ibiltzea?

Vide hau chit ederra dá, ala becatutic  
aldeguiteco, nola obra onac ongi egui-  
teco. Bebatutic aldeguiteco; ¿nola alabaña  
izango dezu becaturako ausardia, oártzen  
bacera Jaunaren aurrean zaudela, eta be-  
guira dagoquizula? Pensamentu onec gor-  
de cituan becatuan erortzetic perill guciz  
andian Susana, eta José antiiñacoa, eta bes-  
te eciñ conta al. Era berean dá vide chit  
ederra obra onac ongi eguiteco. Langui-  
lle, edo servitzari bat, nagusia beguira  
dagoquionean, contuz ari dá bere lanean:  
ta are contu, ta arreta andiagoarequin Er-  
regueren beguietan, eta Erreguec nai  
duan lanean ari bada. ¿Nolaco arretarequin  
bada ez dituzu eguingo obra onac, bal-  
din oartua bazande, Erregue gucien Er-  
regaea, eta zure Jaungoicoa beguira da-  
goquizula? Era onetan Legue naturaleco  
Patriarca Santuac igo ciran virtutearen er-  
piñera, artean libururic, sermoi, eta con-  
fesioco, eta comunioco Sacramenturic ez-  
pazan-ere. Argatic Jaunaren aurrean ibilt-  
zeco jayera hau guciz asco laudatzen, eta

chit goyen ipintzen dué San Ambrosioc, San Agustinec, San Basilioe, eta beste santu ascoc.

Nere aninna, lotsa zaite, oraindaño vide añ ederra icasi gabe viciuaz. Oitu zaite sarritan Jaunaren aurrean, eta beguietan jartzera, eta ibillzera. Beguita dagoquizun Jaunari egun guiozcarzu noicean beñ agur umillae; esca zayozu bere gracia, eta lagunza premia gucietan; sarritan alcha ezazu beragana viotza, eta zuc ceregan ecusico dezu, cein vide ederra dan vide hau becatutic aldeguiteco, eta obra onac ongui eguiteco. Ez dá onetaraco jaquiunde andiric bear; naiz iracurtzen ez jaquin, naiz bearrean, edo norbaitequin hizquetan ari, egun dezaquezun gauza dá Jaunaren aurrean espirituz jartzea, eta ibiltzea.

**OGUEI, TA ZORTZIGARREN ERA-**  
*cusaldia.*

**G**oiceco jaiera, Dotrináco liburuabean  
ipiñi zan eran.

**E**cusi dezu, nere aninna, nola aldeguin

bear dezun becatutic, eta eguin bear dituzun zure estadu, eta vici moduan obra onac, betico vicitza doatsua iritsi nai badezu. Ecusi, edo aditu dituzu leneco Erausaldietan asco neurri, edo vide eder, zure eguiteco andi, eta bacar onetan lagunduko dizuensac. Orain aditzera eman nai dizquitzut, euscaldun onac eguiñ oidi tuen, cembait obra on. Batzuec dira egun orocoac, bestetar aste oro, illoro, urteoro, eta urteko debhora batzuetan eguiten diranac Asi gaitecen goyceco jayeratic.

*Fanci zaite goicean modestia, eta onestidadearequin, Aita gurea, Ave Maria, Credoia, edo beste oracioren batzuec esanaz. Farri zaite Jaunaren aurrean, oroitzen cerala, nola beguira dagoquizun. Adora ezazu umiltasun, eta errespeto guciarequin. Eman guiozcatzu esquerrac, eta esqueñi guiozcatzu zure pensamentu, bitz, eta lan guciac era onetan.*

### *Jauna adoratzea.*

**N**ere Jaun, eta Jaungoicoa! Zu cera gauza gucien Asiera, eta Iturburua, eta gucien Iraupena, eta Muga, edo Filla; eta

ni naiz nerez ecereza , eta dedan izate hau zure escu onguilleac emana dá. Ala ezagutzen , eta aitortzen det , eta adoratzan zaitut umiltasun , eta errespeto guciarequin.

*Jaunari Esquerrac ematea.*

**M**illa esquer , Jauna , oraindaño egun dizquidatzun mesede guciac gatic. Milla esquer , ceren ecer-ezetic egun ninduzun , eta egun zu emen , ezagutzeco , amatze-  
co , servitzeco , eta guero beticotasun gu-  
cian zurequin batean Ceruan doatsu iza-  
teco. Milla esquer , ceren zure Seme Jesu-  
sen odol preciotsuarequin Adanen becatua-  
ren mendetic atera , eta zure Elizaren ume  
Bataioan egun ninduzun. Milla esquer at-  
zenean , ceren igaro dan gau onetan vicit-  
za gorde didazun.

*Jaunari pensamentu , bitz , eta obrac  
esqueintzea.*

**E**squeintzen dizquitzut , Jauna , gaurco  
nere pensamentu , hitz , eta obrac. Betor-

Jautia, zure lagunza, eta gracia, egun ditzadan nic gaurco nere lanac zuc nai dezun eran, eta zure onra, ta gloriaraco. Artzen det, gaurco obraquin irabaci ditzakitedan, barcacio guciac irabaztero asmoa, eta izan bitez nere erregeu, eta obra onac Aita Santuac onetaraco adiraciric dauean fiñeraco.

*Betaric ez danean, bau gucia laburtu ditteque era onetan*

**N**ere Jaun, eta Jaungoicoa! Adoratzen zaitut umiltasun, eta errespero guciaren quin. Milla esquer, Jauna, oraindai egoi ditzuidatzun mesede guciagatic, eta ceren igaro dán, gau onetan vicitza gorde didazun. Esqueintzen dizquitziut nere pensamiento, hitz, eta obrac. Beter, Jauna, zure lagunza, eta gracia, egun ditzadan nic gaurco nere lanac zuc nai dezun eran, eta zure onra, ta gloriaraco. Artzen det, gaurco obraquin irabaci ditzakuedan, barcacio guciac irabazteco asmoa, eta izan bitez nere erregeu, eta obra onac Aita Santuac onetaraco adiraciric dauean fiñeraco. — *Purgatorioko animanzat ira-*

baci nai badiuzu bercacioac, arrezazu asmoa. norenizat nai dezun, barentzat izan ditecen indulgenciac.

Exámina, eta egun guciracō asmo onac.

**O**roi zaite emen dembora pisca batean, lembicia, cer utseguite eguin dezun bart-danis onca. Bigakrena, cer Mandamentu gueyena outsi oi dezun. Hirugarrena, zure griña charren artean, cein dan nagusi, edo indarsuena. Esca guiozu Espiritu Sanjua bere lagunza, ta gracia, esaten diazula guis onetan.

Atoz, o Espiritu Santua, atoz beart-suen gurasoa: atoz doaien emallea: argi-ezazu nere adimentua, nic nere utseguiteac ezagutzeko, Mugui ezazu nere biotza oen gañean dainutzeko.

Zaude orain guchi batean zure utseguiteac, eta oen sustraiac gogora ecartzen isillic. :: Eguizu asmo osoa aldeguiteco becatutic, eta becatuaren videetatic, batez-ere araco guejena eguiñ oi dezun becatu artatic. Arrezazu asino sendo bat escuratzeo, eta ecitzeko orraco zure griña, eta

genio char ori. Arrezazu zure Bitartecotzat Virgiña guciz Santa, Zure Aingueru guardacoa , S. José , eta zure iceneco Santua. . . . Egitzu orain Fede , Esperanza , Caridade , eta Contriciozco afectoac Hirugarren Partean ipiñi diran eran ( Arratseco jayeran-ere ipiñico dira bereala ).

## *OGUEI , TA BEDERATCIGARREN Eracusaldia.*

*Nola , goicetic asmoa artu dezun eran ,  
eguartean eguin ditzazquezun zure lan ,  
eta nequeac Jaunaren onra , eta  
gloriaraco.*

**N**ere anima , goicetic esqueñi diozcatzu Jaunari zure pensamentu , hitz , eta obrac beraren onra , eta gloriaraco. Bañad hau onela eguiñ-arren , ez dezu , guero eguiten dituzun , lan , eta nequeaquin Cerrurako irabaciric eguingo , goiceco esqueñi , eta asmo ederraz azturic , necatzen batera Munduaren losenchac , eta alabanzac irabazteco , edo zure genio , eta seta serbitzeagatic , edo beste oen antecetor filien ba-

t gatic. Hau guerta ez daquizun , oitu zaite sarritan gogora ecartzera, nola lecu gucietan zauden Jaunaren aurrean , eta beguietan , eta nola beguira dagoquizun. Gañera oitu zaite noicean beñi beragana viotza jasotzera , goiceco asmo onac berritzera , eta bear dezun lagunza escatzera ; baña aldi bacoitzean ez dembora luceric igaro. Ara nola eguin ditequean hau.

### *Lanean asitzean.*

Nere Jaun , eta Jaungoicoa ! Goicecoan bertan arquitzen naiz : izan bedi nere lan hazi zure onra , eta gloriaraco.

### *Lana bucatzean.*

Esquerrac Jauna , ceren lan hau eguiten lagundu didazun. Ez nazazula utzi aurera-ere.

### *Orduac aditzean.*

Ave María , eta Gloria esan oi dira , eta guero esaten dá : *Virgiña cbit Santa , alaba ezazu beti-beti Jaungoicoa , eta ez arrer guri utzi beraren contra becatu eguiten.*

*Utseguieren bat guertatzen zat-zunean.*

Orra, nere Jaun ona, ceiñ charra, eta ecer-eza naizan! Goicean eman dizquit-zut aimbeste hitz becaturic ez eguiteco, eta esqueñi dizquitzut nere hitz, pensamendu, eta obrac zure onra, eta gloriara-co: eta zin ecusten dezu ceiñ laster zuzaz, eta emandako hitzaz aztu naizan. Damudet, Jauna, nere esquergabequeria one-zaz, eta guciaz! ; O ontasun guciz maitagarria! Gorde nazazu becatutic.

### *Noicean beiñ.*

Oroi zaite, beguira-beguira dagoquizula Jauna, eta prest dagoala zuri betico vícitza, eta ondasunaac, eta emen-ere on izango cenduquean gucia emateco. Esan zaiozu: ;O Ontasun neurriric, mugaric, eta bazterric ez dezuna! ;O edertasun beti anciñacoa, eta beti berria! Amatzen zaitut biotz gucitic.

### *Tentacioren bat datorrenean.*

;O nere Aita ona! Gorde nazazu etsaya-

zen lazoetatic ; gorde nazazu , galdua naiz bestela. Vici bedi Jesus , hil bedi becatua.

*Neque , edo Calteren bat guertatzen danean.*

Jauna , Zuc daquizu , cér ongui dagoen nere animari : eguin bedi , eguiñ bedi , Jauna , zure vorondatea Adoratzen , eta bedeicatzan det zure icen Santua.

*Lagun urcoagandic neque , edo gurutzeren bat datorrenean.*

Jauna , zure icenean izan bedi neque , eta gurutze hau ; barcatzen diot urlari eman didan naigabe , eta opa diot Cerua , eta araco videan bear duan gucia.

*Etsaiari berri gaisto , edo calteren bat datorquionean.*

Jauna , opa diot urlari on gucia , eta eman zaiozu arren oraingo bere nequea ongui igarotzeco , edo zure icenean ontzat artzeco lagunza.

*Etsaiaren onac embidiaren gura cimurra  
esnatzen duanean.*

Jauna, Zugatic, eta zure icenean amatzan det nere lagun urco hau, opa diot Cerua, eta aracó videan on izango duanguecia, baita oraingó on hau-ere zure servitzeco, eta Cerua irabazteco.

*Jateracoan, edo afaritaracoan.*

Jauna, gauza gucien, eta nere "contua daucazunac bezala prestatu dezu neretzat vicitzeco bear dedan gucia, eta janari, ta edari hau. Zure icenean, eta zu servitzeco artuero ditut. *Aita gurea, Ave Maria, ta Gloria.*

*Gosaria, bazcaria, edo afaria  
bucatzean.*

; Gure Jaun, eta Aita maitagarría, on guciaren emallea, eta iturburua! Milla esquer oraindaño eguin, dizquidatzun mese-de guciacgatic, eta ceren artu ditudan janari, eta edari hau neretzat prestatu dezun. *Aita gurea, Ave Maria, Gloria, eta Sal-*

*vea. Atzenean Purgateguian , edo Purgatorioan dauden animen alde Aita gure bat.*

*Eguancean , eguerdian , eta illuncean , Ave Mariac esateco ezquilla aditzean.*

### *Latinez.*

*Angelus Domini nuntiavit Mariæ. Eranzuera : Et concepit de Spiritu Sancto. Ave Maria , graciaz betea , &c. Eranzuten da : Santa Maria , &c.*

*Ecce ancilla Domini.*

*Eranz. Fiat mihi secundum Verbum tuum. Ave Maria , &c. Eranzuten da : Santa Maria , &c.*

*Et Verbum Caro factum est.*

*Eranzuera : Et habitavit in nobis. Ave Maria &c Eranzuten da. Santa Maria , &c. Gloria Patria , &c.*

### *Oremus.*

*G*ratiam tuam , quæsumus Domine

mentibus nostris infunde ut qui Angelo nuntiante Christi Filij cui incarnationem cognovimus, per passionem ejus, & Crucem ad resurrectionis gloriam perducatur : Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.

*Eusqueraz.*

Jaunaren Aingueruac ecarri cion Virgiña Mariari Ceruco mandatua.

Eta Espiritu Santuaren obraz , eta graziaz gueratu zan aurdun. *Ave Maria &c.* *Eranzuten dá :* Santa Maria , &c.

Ona ni Jaunaren Servitzaria.

*Eranzuten dá :* Eguin bedi nigan zue diozuna , eta diozun eran. *Ave María , &c.* *Eranzuten dá :* Santa Maria , &c.

Eta Jaincoaren Hitz Andia , edo Trinidatadeco bigarren Persona araguiz jancizan. *Eranzuten dá :* Eta vicitu zan guizonen artean. *Ave María &c.* *Eranzuten dá :* Santa Maria , &c. *Gloria , &c.*

*Oremus.*

**F**rregutzen dizugu , Jauna , isúri deza-zula gure animetan zure gracia , Aingueruac adiraciric zure Seme Jesusen guizon

eguitea ezagutu degunač béraren Pasio, eta gurutzeco eriotzagatic betico piztutze doab-  
suaren glorian sargaitean : Jesu-Cristogatic beragatic. Alabiz.

**E**rregu oec eguiten dira belaunico ; ba-  
ña larumbat arratsetic igande arratseraño ,  
eta Pazcoa-larumbat eguneco vezperetatic  
Trinidad eguneraño zutic. Bacoitzean ira-  
bazten dira eun egunetako barcacioac , eta  
illean bein barcacio , edo indulgencia osos  
confesatzen , eta comulgatzen danac , baña  
erregutu bear dā Principe Catolicoen arte-  
ko paquesgatic , heregia deseguin , eta  
Eliz Ama Santaren onra , eta gloria uga-  
ritu dedin (a).

### *Sagataco ezquilla aditzean.*

¡O nere Salvatzalle maitagarria ! Apai-  
zac Consagracioco hitzac esan dituan unean  
bertan jarri cera zu Aldareco Sacramen-  
tuau gurequin , eta gure artean vicitzeco.  
Ala sinisten det , eta adoratzen zaitut nere

---

(a) *Benedictus XIII. & XIV.*

Jaungoicoa, nere Erregnea, eta Salvatzilea bezala. Bedeica zaitzeela Ceruco Aingeru, eta doatsu guciac. Bedeica zaitzeela Jurreco anima onac, eta gauza guciac.

*Jesusen agoniako ezquilla arratsaldeko bideruetan jotzen danean.*

; O Jesus ona! Ordu onetan zu egon cihan gurutzean hiltzeco zorian, eta hilcian nigatic. Cer eguin, eta cer igaro bear ez nuque nic zure icenean? Izan bitez zure onran nere neque, eta gurutze guciac. *Aita gure bat, eta Ave Maria.* Ostiraletan esaten dira belaunico bost *Aita gure, eta bost Ave Maria*, eta irabazten dira barcacio, edo indulgenciac (b).

*Arratsean animen ezquilla jotzen danean.*

Badaquizu, esazu: *de Profundis* asitzan dan Salmoa; ezpadaquizu hau; esazu *Aita gurea, Ave Maria, eta azquenean: Requiem aeternam dona eis, Domine. Et*

---

(b) *Benedictus XIV. die 13 Decemb. an. 1740.*

*lux perpetua luceat eis. Requiescant in pace. Amen.* Erregu hau beti eguiten da belaunico; bacoitzean irabazten dira eun egunetako barcacioac, eta urtean bein barcacio osoa; baña onetaraco confesatu, eta comulgatu bear dá: eta erregutu-ere bai Príncipe Católico en arteko paqueagatic, heregia bucatu, eta Eliz Aina Santaren onra, eta gloria ugaritu dedin (c).

### *OGUEI, TA AMARGARREN ERA- CUSALDIA.*

*Arrats oro eguin ditzaquezun obra  
onac.*

**A**rratsetan esan oi dá Virgena chit Santaren Errosarioa, eta ascoc ondoren eguiten due Dotrinaco liburuchoan dagoan arratseco jaiera. Zuc-ere gauz oec ongi eguin ditzatzun, aditzera emango dizut, Jeinbicia nola esan dezaquezun ongi Errosarioa. Bigarrena, latinez, eta euskeraz ipíñico dizut Ama Virgenaren Letania. Hirugarrena, ipíñico det arratseco jayera Dotrinaco liburuau dagoan eran

---

(c) *Clemens XII. die 14 Aug. an. 1736.*

*Nola esan dezaquezun ongi Erro-  
sario Santua.*

**E**rrosarioa esateco jayera dá Virgiña chit  
Santaren gogocoa , eta Aita Santo Domin-  
gori berac eracutsia. Onequin ~~eneun~~ mil  
illa herege baño gueyago eracarri cituan  
Santuac Elizaren barrutietara. ¿ Eta norc  
esan cemba t becatari jayera onen videz  
atera cituan becatuen osiñetic? Etzaitecela  
contentatua Errosarioa nola nai esateare-  
quin , baicic esazu ongi , eta Eliz Ama  
Santac nai duan eran , hau dá , gogora  
ecarriaz Jesu-Cristoren vitzari , eriotza-  
ri , eta piztutzeari dagozcan Misterioac.  
Onela errezzatzen duenenzat barcacio asco ,  
eta andiac , elcarren leyan bezala , eman  
ditue Aita Santuac ; bafia Misterio oec no-  
la gogoan erabilli eztaquianac esan beza  
Errosarioa alic onguiena , eta Jesus bere  
Ama maitagarriarequin onratzeco , eta ala-  
batzeco gogoarequin , eta irabacico ditu  
besteac bezala indulgenciac. Ala erabaqui  
zuan aita Santu Benedicto XIII. (a). Has-

---

(a) *Benedictus XIII. Constit. quæ incipit: Pretiosus.*

telen, eta ostegunetan gogoan erabilli oñiztiraletan Jaincoaren guizon eguita, eta ondorengo vicitza eta Misterio oei derizte. *Atseguiñezcoac*: hastearte, eta ostirala Jesusen neque, oñace, eta eriotza; eta Misterio oei derizte: *Dolorezcoac*: Igan-dean, haste azquenean, eta larumbatean Jesusen piztutzea, eta ondorengo Misterioac, eta icendatzen dira: *Gloriosoac*: Ara nola eguiten dan hau gucia.

*Hastelen, eta ostegunetan ciña zaite,*  
*eta esazu.*

Lenengo Misterioa: Adanen becatuarequin galdua gueratu zan, guizonarenzat Ceruco gracia, eta araco escua irabazteco eguin zan guizon, Trinidadeko bigarren Persona Virgínia chit Santaren Sabelean Espíritu Santuaren obraz, eta graciaz *Aita gurea*; amar *Ave María*, eta azquenean *Gloria Patri*.

Bigarren Misterioa: Virgínia Amaren visitacioa, edo Santa Isabél ecustea. *Aita gurea*; amar *Ave María*, eta azquenean *Gloria Patri*.

Hirugarren Misterioa: Jesusen jaiotza-

*Aita gurea*; amar *Ave Maria*\* eta azquenean *Gloria Patri*.

Laugarren Misterioa: *Ama Virgiñaren Purificacioa*, eta Jesusec Aita Eternoari eguin cion presenta, edo ofrenda. *Aita gurea*, eta *Ave Mariac* len bezela.

Bostgarren Misterioa: Jesusi, artean gaztechoa zala, Jerusalengo Elizan guertatua, eta nola an bere Amac arquitu zuan. *Aita gurea*, amar *Ave Maria*, eta azquenean *Gloria Patri*. Hoec esan ondoan Letania.

*Hastearte, eta ostiraletan ciña zaite,*  
*eta ezazu.*

Lenengo Misterioa: Jesusen Getsemaniko iluntasun, tristura, eta odolezco icerdiac, *Aita gurea*, amar *Ave Maria*, eta azquenean *Gloria Patri*.

Bigarren Misterioa: Jesusec gure amorez artu cituan azoteac. *Aita gurea*, amar *Ave Mariac*, eta azquenean, *Gloria Patri*.

Hirugarren Misterioa: Jesus Erregue gucien Erregue aranzaz corotua. *Aita gure*, amar *Ave Maria*, eta azquenean *Gloria Patri*.

*Laugarren Misterioa : Jesus Calvarioko mendira gurutzea soñean daramala. Aita gurea , amar Ave Maria , eta azquenean Gloria Patri.*

*Bostgarren Misterioa : Jesus gure amorioz , eta gure becatua gatic gurutzean iltzez josia , eta billa. Aita gurea , amar Ave Maria , eta azquenean Gloria Patri. Hoec esan ondoan Letania , guero ipiniko dán bezala.*

*Igande , Hasteazquen , eta Larumbatetan. Ciña zaite eta esazu.*

*Lenengo Misterioa : Jesusen piztutzea , eta Virgiña chit Santaren orduco atseguiñ contentua. Aita gurea amar Ave Maria , eta azquenean Gloria Patri.*

*Bigarren Misterioa : Jesusen Cerura igotzea , eta Jesusen Amaren orduco atseguiñ andia. Aita Gurea , amar Ave Maria , eta azquenean Gloria Patri.*

*Hirugarren Misterioa : Espiritu Santuaren etorrera , eta Jesusen Aina orduan artu zuan atseguiñ andia. Aita gurea , amar Ave Maria , azquenean Gloria Patri.*

*Laugarren Misterioa : Ama Virginaren*

**Ceruratzea.** *Aita gurea*, amar *Ave María*, eta guero *Gloria Patri*.

Bostgarren Misterioa : *Ama Virgiharen Coroacioa Aita gurea*, amar *Ave María*, eta azquenean *Gloria Patri*. Hoec esan qndoan Letania, oraiñ ipiñico dán bezala. *Misterio oec luceago dazartzie Aita Men-diburuc*, eta *Curdaberazec*.

## **AMA VIRGINAREN LETANIA**

*latiñez.*

**K**Yrie éléison.

R. Kyrie éléison.

Christe éléison.

R. Christe éléison.

Kyrie éléison.

R. Kyrie éléison.

Christe audi nos.

R. Christe audi nos.

Christe exaudi nos.

R. Christe exaudi nos.

Pater de Cælis Deus.

R. Miserere nobis.

Fili Redentor Mundi Deus.

R. Miserere nobis.

Spiritu Sancte Deus.

R. Miserere nobis.

**Sancta Trinitas unus Deus.**

R. Miserere nobis.	Ora.
<b>Sancta Maria. Ora pro nobis.</b>	
Sancta Dei genitrix.	Ora.
Sancta Virgo Virginum.	Ora.
Mater Christi.	Ora.
Mater divinae gratiae.	Ora.
Mater purissima.	Ora.
Mater castissima.	Ora.
Mater inviolata.	Ora.
Mater intemerata.	Ora.
Mater immaculata.	Ora.
Mater amabilis.	Ora.
Mater admirabilis.	Ora.
Mater Creatoris.	Ora.
Mater Salvatoris.	Ora.
Virgo prudentissima.	Ora.
Virgo veneranda.	Ora.
Virgo predicanda.	Ora.
Virgo potens.	Ora.
Virgo clemens.	Ora.
Virgo fidelis.	Ora.
Speculum justitiae.	Ora.
Sedes Sapientiae.	Ora.
Causa nostrae latitiae.	Ora.
Vas spirituale.	Ora.
Vas honorabile.	Ora.

Vas insigne devotionis.	Ora.
Rosa mystica.	Ora.
Turris Davidica.	Ora.
Turris eburnea.	Ora.
Domus aurea.	Ora.
Fœderis. arca.	Ora.
Janua Cœli.	Ora.
Stella matutina.	Ora.
Salus infirmorum.	Ora.
Refugium peccatorum.	Ora.
Consolatrix affictorum.	Ora.
Auxilium Cristianorum.	Ora.
Regina Angelorum.	Ora.
Regina Præiarcarum.	Ora.
Regina Prophetarum.	Ora.
Regina Apostolorum.	Ora.
Regina Martirum.	Ora.
Regina Confessorum.	Ora.
Regina Virginum.	Ora.
Regina Santorum omnium.	Ora.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi. R. Parce nobis Domine.	
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi. R. Exaudi nos Domine.	
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi. R. Miserere nobis.	

## OREMUS.

**G**ratiam tuam , quæsumus Domine,  
meatibus nostris infunde , ut qui Angelus  
nuntiante Christi Filij tui incarnationem  
cognovimus , per passionem ejus , & Crucem  
ad resurrectionis gloriam perduca-  
mur . Per eundem Christum Dominum nos-  
trum , Amen ,

*Eusqueraz.*

**J**auna , urriquitu zaite guzaz.  
E. Jauna , urriquitu zaite guzaz.  
Jesu-Christo , urricaldu zaite guzaz.  
E. Jesu-Christo , urricaldu zaite guzaz.  
Jauna , urriquitu zaite guzaz.  
E. Jauna , urriquitu zaite guzaz.  
Jesu-Christo , adi gaitzatzu.  
E. Jesu-Christo , adi gaitzatzu.  
Jesu-Christo , enzun gaitzatzu.  
E. Jesu-Christo , enzun gaitzatzu.  
**C**eruetaco Aita Jaincoa.  
E. Urriquitu zaite guzaz.  
Seine Jainco Munduaren Erosle , edo Re-  
dentorea.  
E. Urriquitu zaite guzaz.

Espiritu Santu Jaincoa.

*E. Urriquitu zaite guzaz.*

Trinidad guciz Santa, Jainco bat bacarra.

*E. Urriquitu zaite guzaz.*

Santa Mariá.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Jaincoaren Ama Santa.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Virgiñen Virgiña Santa.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Jesu-Christoren Ama.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Ceruraco graciaren Ama.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Ama guciz garbia.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Ama guciz Casta.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Becaturic beñere izan etzenduan Ama.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Ama Tacharic gabea.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Ama mancharic gabea.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Ama maitagarria.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Ama miragarría.

*E. Errugu ezazu gugatic.*

Ecer ezetic gucia eguin zuanaren Ama.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Salvatzallearen Amà.

*E. Erregu ezazu gugatic*

Virgiña guciz zogui, eta cintzoa.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Virgiña Onragarria.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Virgiña laudagarria.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Virgiña al, edo escu andia dezuna.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Virgiña biotz-beraa.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Virgiña leyala.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Virtute gucien ispilla.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Jaqiundearen jarlecua.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Gure atseguin, eta pozaren videa.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Onci Espirituala.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Onci Onragarria.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Jayera , edo devociezco onci bicañmira-garria.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Arrosa mysteriozcoa.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Daviden Torrea. (\*)

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Torre guciz eder-Ceruco doayez apain-dua. (\*\*)

*E. Erregu ezazu gugatic.*

(\*) *Davidem Torrea.* ; Cer esan nai ote da hitz oetan? Ara cer , Jerusalengo Erria etsayetatic gordetzeco , egun zuan David Erregueac Torre sendo bat , eta an , premia zaneco , cincilica ceuden arma-mota guciac. Argatic Letania onetan Virgiña chit Santa Daviden torrearen pare ipintzen dá , eta deitzen-ere zaio *Daviden Torrea* , ceren dan Eliz Ama Santa gordetzen duan Torre *sendo* , eta etsayac garaizeco Ceruco armaz guciz ornitua.

(\*\*) Torre sendoa ezecic dá Virgiña chit Santa Torre guciz ederra , Ceruco doayez , virtutez , eta Santutasunez chit apaindua. Argatic deitzen zayo Letanian : *Marfilezco Torrea* ; baña hitz oen lecuan ipishi dá hit-

Urrezco Jauregui ederra.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Pasquearen Arca.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Ceruco atea.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Goiceco izarra.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Erien osasuna.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Becatarien gorde-lecua.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

zac adirazten duena , gende jaquin ezac  
uste izan ez deceen Virgiña chit Santa da-  
la *Marfilezco* gauzaren bat. Añeiñaco dem-  
boran Erregue , eta guizon andiac , batez-  
ere Orientean, edo Eguzquia irteten dan  
aldeco bazterretan , oazurac , guelac , eta  
echeac apaintzen cituen , marfilezco cha-  
pae an-emen ederqui eransiaz. Emendic  
deitzen dio Letaniae Virgiña chit Santari  
*Marfilezco Torrea* , ceren era miragarrian  
apaindua dagoan , ez Iurreco apaindura-  
quis , baicic Cerucoaquin: eta ona cergatic  
Letanian Eusqueraz ipiñi diran bitz oec:  
*Torre guciz eder-Ceruco doayez apaindua*

**Nequetan daudenen Consolatzaldea.**

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Christauen lagunza.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Ainguueruen Erreguiña.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Patriarquen Erreguiña.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Profeten Erreguiña.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Apostoluen Erreguiña.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Martirien Erreguiña.

*E. Erregu ezazu gugatic.*

Confesoreen Erreguiña. (\*\*\*)

*E. Erregu ezazu gugatic.*

(\*\*\*) Confesoreen Erreguiña. Hitz oen  
quin ez dira adirazten Confesioac entzuten  
dituen Apaizac, baicic Martirioa igaro ga-  
be virtute, eta Santutasun andian beren  
egunac bucatzen dituen guizon guciac.  
Hoec beren vicitza ederrarequin aitortzen,  
eta confesatzen due Jesu-Cristo, eta adi-  
razten due, prest arquitzen dirala, bera  
ez uzteagatik igarotzeco edocein neque,

**Virgiñen Erreguiña.**

*E. Erregu ezazu gugatic.*

**Santu gucien Erreguiña.**

*E. Erregu ezazu gugatic.*

**Jaincoaren bildots Munduco becatuac  
quentzen dituzuna.**

*E. Barca guizcutza, Jauna, gure be-  
catuac.*

**Jaincoaren bildots Munduco becatuac  
quentzen dituzuna.**

*E. Enzun gaitzatzo, Jauna.*

**Jaincoaren bildots Munduco becatuac quent-  
zen dituzuna.**

*E. Urriquitu zaite guzaz.*

### *Oremus.*

**E**rregutzen dizugu, Jauna, isuri deza-  
zula gure animetan zure gracia, Aingue-  
ruac adiraciric zure Seme Jesu-Christoren  
guizon eguitea ezagutu degunac, bera-  
ren Pasio, eta gurutzeco eriotzagatic be-

eta gurutze, eta orregatic ematen zate  
**Confesoreen icena.** Vide **Benedictum XIV.**  
**de Canonizatione Sanctorum.**

tico piztutze doatzuaren glorian sar gaitean : Jesu-Cristo beraren videz. Alabiz.

*Letanien ondorengo joyera.*

**J**arri gaitecen Jaunaren aurrean , oreitzenten guerala , nola beguira dagoquigun. Adora dezagun umiltasun eta errespeto guciarequin. Eiman deguiozcagun esquerrac , eta esqueñi deguiozcagun gure pensamendu , itz , obrac eta loa. (*Hau esango díos Errosario bere echezoaquin , edo lagunaquin esaten duanac .*)

*Jauna adoratzean.*

**N**ere Jaun Jaincoa ! Zu cera gauza gucien Asiera , eta Iturburua , gucien Iraupena , eta Muga , edo Fifia ; eta ni naiz nerez ecereza , eta dedan izate hau zure escu onguilleac emana dá. Ala ezagutzen , eta aitortzendet eta adoratzen zaitut umiltasun , eta errespeto guciarequin.

*Jaunari esquerrac ematea.*

**M**illa esquer , Jauna , oraindaño eguiñ

dizquidatzun , msesede gueiaegatic. Milla esquer , ceren ecer ezetic eguin ninduzun , eta eguin Zu emen ezagutzeco , amatze-  
co , servitzeco : eta gueró beticutasun gu-  
cian zurequín batean doatsu izateco. Mi-  
lla esquer , ceren zure Seme Jesusen odol  
preciotsuarequín Adanen becatuaren men-  
detic atera , eta zure Elizaren ume bata-  
yoan eguin nazun. Milla esquer atzenean ,  
ceren igaro dan egun onetan vicitza gor-  
de didazun.

*Jaunari pensamentu , hitz , obrac , eta  
loa esqueintzea.*

**E**zqueintzen dizquitzut , Jauna , ga-  
onetaco nere pensamentu , hitz , obrac , eta  
loa. Atoz , Jesus ona , vici zaite nere viot-  
zean , eta gorde nazazu etsayaren sare ,  
eta amets gaistoetatic.

**Exâmina.**

**O**roi gaitecen emen písca batean lem-  
bicia : Cer utseguite eguin degun goicetic

*oraindano. Bigarrena, gueiegui autsi oī degun Mandamentu bura gorde ote degun, goicetic asmoa artu guenduan bezala. Hirugarrena, leyalqui, eta arretarequin saiatu ote gueran araco gure griñabar nagusi, eta genio gaisto bura escuratzera, ecitzera, hilduratzera. Esca deguiogun Espiritu Santuari bere lagunza, eta gracia.*

Atoz, ó Espiritu Santua, atoz beartsuen gurasoa, atoz doayen emallea! Argui ezazu nere adimentua, nic nere utseguiteac ezagutzeco: mugui ezazu nere viotza oen gafiean danutzeco.

*Gauden oraiñ guchi batean gure gaurco utseguiteac, eta oen Sustraia gogora ecartzen isillic::: Eguin dezagun asmo osoa aldeguiteco beratutic, eta becatuaren videetatic, batez-ere araco gueiena eguiñoi degun becatu artatic. Ar dezagun asmo sendo bat escuratzeco, ta ecitzeko araco gure griña, eta genio char bura. Ar ditzacun gure Bitartecotzat Virgiñia guciz Santa, gure Airgueru Guardacoa, S. José, eta gure ieneco Santua::: Eguin ditzacun orain Fede, Esperanza, Caridade, eta Contriciozco afectoac.*

**J**aungoicoa, Jaquiunde, ta egua beticoa cerana! Sinisten ditut venaz, eta biotz guctic, Eliz Ama Santac sinisten, eta eracusten dituan, gauza guciac, ceren Zuc Eliz Ama Santari aguertu diozatzun, eta onec ala eracusten dizq:uidan.

Sinisten det Jainco Aita guzic poderoso Ceruaren, eta lurraren Criadoreagan. Eta haren Seme bacar Jesu-Cristo gure Jaungan. Ceña sortu zan Espiritu Santuaren Obraz, eta graciaz: jayo zan Maria Virgiñagandic. Padecitu zuan Poncio Pilatosen mendean, gurutzeficatu, hillat, eta obiratua izan zan. Infernuetara jachi zan, hirugarren egunean hillen artetic piztu zan. Ceruetara igo zan, an dago jarriric Aita Jainco guciz poderosoaren escuyetic. Andic etorrico dá viciac, eta hillat juzgatzen. Sinisten det Espiritu Santuagan. Eliza Santa, Catolica, Santuen Comunioa. Becatuen barcacioa. Araguiaren resurreccioa. Vicitza beticoa. Amen.

Sinisten det, Jesu-Cristo gure Jaunac utzi ciozcala Eliz Ama Santari zazpi Sacramentu, ta oen artean Confesioco Sa-

crámentua batáioa ezquero egundaco becatuac baratzeco. Sinisten det , Jesu-Cristo gure Jaunac ipíni zuala Aldareco Sacramentu guciz miragarria , ta Sacramentu onetan dagoala gure animen janari , eta edari izateco , gracia ugaritzeco , eta bere gozotasun miragarriac gure viotzetan isúrtzeco. Siniste onetan vici , eta hillnai det.

*Acto Esperanzazcoa.*

**N**ere Jaun Jaungoicoa ! Zure Seme Jesusen eriotza , eta mereciéntuac bitarteko dirala , eta beraren graciarequin alegría eguiten dedala , esperatzen det zure Ontasun , eta Misericordian nere begaueen barcacioa , ta betico vicitza doatsua , ceren Zuc ala aguindu didazun , eta cere hitzetan aín leiala ceran Zu cera Onguciaren Iturburu , eta Emallea , eta Zugandic uste det , Jauna , Ceruraco videan bear dedan gucia.

*Acto Caridadezco , ta Contriciozcoa.*

**N**ere Salyatzalle Jesus maitagarria ! Zu Z

cera Ontasun baztergabea, eta neurririt ez dezuna, eta beragaitic guciz maitsgarria. Amatzen zaitut viotz gucitic zure Ontasun horri beguiraturic. Ta Zugatic, etá zure icenean amatzen ditut nere lagun urco guciac, eta oen artean nere etsayac. Opa diet Cerua, eta araco videan conveni zaten gucia. ; O Ontasun miragarria! Damu det Zu ofendituaz, eta damu det gauza gucien gañetic. Artzen det asmo osoa ez gueiago becaturic eguiteco, becatuaren videetatic aldeguiteco, eta confesatzeco.

### *OGUEI, TA AMAICA GARREN Eracusaldia.*

*Igande, eta beste jai egunac Santificaszearen gañean.*

**E**cusi dezu, nere anima, nola egun oro, goicean, eguartean, eta arratsean ugari eguin ditzaquezun obra on, eta Ceruaco irabaciak. Orain beguiratu bear dezu lenengo lecuan, cerraco ipishi dituan Eliz Ama Santac igande, eta beste jaiac. Bigarrena, cein lotsagarrria dan Cristau ascoren egun oetako yicitza. Hirugarrena,

nola zuc igaro bear dituzun egun oec obra onetan, eta Ceruraco irabacieu gordairua gueitutzen, eta acitzen dezula.

Guizonea, bere Juna ecerezetic ateria, eta luraren gañean ipisi zuanetic, beartua dago bere Eguile ora ezagutzena, amatzera, eta onratzena, ez biotzez bacarric, baita gorputzez, edo agurri diran obra onaquin-ere. Edocefic datus, lan hau ongi eguiteco, alde bat utzi bear dirala Munduko eguiteco, eta arazoak. Argatic Jaunac beretzat bereci, eta autu cituan cembait egun Israeltarrai eman cien leguean, oen artean *Lorumbata*. Eta egun hau, Leguea eman cienean ezecic, lenagtere beretzat marcatu zuan Jaunac, Israeldarrac Egipotic irten ciranean (*a*). Larumbateko jaya ipini zanetic laster arquitu zuen Israeldarrac guizon bat basoan egurretan, eta Jaunaren aguinez quendutioen vicia arricā (*b*)

Etorri zan Jesu-Cristo, eta aitu ciran Legue zarreco Aguienteac, eta Ceremoniac; baña etzan aitu, era ecin aitu citequean Jauna amatzeco, eta onratzeco de-

(a) *Exodi* 16. (b) *Numer.* 15.  
Z2

gun egun-vide, eta zor andia. Argatic Apostolu Santuac larumbataren lecuan su tu zuen *Igandeak*, edo, Jesus hilien arte tic piztu zan, eguna, eta esan nai du *igandeak* litibotic, eta eriotzaren atzapar retatic Jesusec egun zuan igoera, piztuzen zala bēisi-ērē ez hiltzeo. Igandeaz gañera badira Jesu-Cristoren Elizan beste jai, eta festa asco; batzuec ipin̄i cituen apostoluac berac, besteac Eliz Ama Santac, besteac Obispo Jaunac Jesu-Cristoc emandaco eskuarequin. Emendic atera eza zu, Eliz Ama Santac ipin̄i dituala igande, ta beste jayde Jauna amatzen, adoratzen, eta onratzen igaro ditecen, eta demboran berean gue obia on, eta Ceruraco irabaci ac errazago, eta ugariago eguiteco. Onetaraco againtzen du, enzuñ dezagula contuz, eta errespeto andiarequin Meza Santua, eta ez dezagula egun ianic premiagabe. Onetaraco ipin̄iac dauzca usanza on asto, nola diran Errosario, Vezpera, eta beste onelaco gauzac. Onetaraco atzenean dira Platicac, Dotrinac, eta Sacramentuac.

Alaere zinor eztaqui, cein lotsagarria dan ascoren jay egunetako vicitza? Cembat izango dira Meza nagusiric enzuten ez

duenac , Jaincoaren Hitzac uquitu ditzan  
 beldurrez? ; Cembat , mezaurrean erausian  
 daudenac Eliz inguruan? ; Cembat Elizan  
 bertan , edo lo , eta errespetoric gabe?  
 ; Cembat urte gucian Dotrinate iguesi da-  
 biltzanac? ; Cembat jay egunetan lan de-  
 vecatuac eguiten dituenac? Jai egunetan  
 abarcac jostea , esiac , eta soñeco zarrac  
 adabatzea: jai egunetan gurdiaç prestat-  
 zea , trallu-cigorrac , eta cildai-gaiac billat-  
 zea , eta ecartzea: ; Cer esango det , obra  
 onen lecuan becatua becatuaren gañera  
 eguiteaz? ; Noiz jaietan baño gueyago-  
 guertatzen dira ordiqueriac , borrocac , eta  
 iscambillae? ; Noiz guertatzen dira beran-  
 du echeratzeac , gurasoen , eta echeetaco  
 raigabeac? ; Noiz nescachen , eta moti-  
 llen bildurac , hizqueta loyac , jolas , eta  
 ibillera lotsagarriac? ; Cer esango du Jau-  
 nac onelaco jai egunaz? ; Cer , Isaiasen  
 autic len esana daucana baicic? Gorrotoz  
*beguiratzen diet zuen jai egunai (c).* ; Ne-  
 re Jaungoicoa ! Hau dá Cristau ascoren jai  
 egunetaco vicitza , eta onen ancecoa izan  
 dá nerea-ere.

Zuc, nere anima, beguira ondo certaco ipiniac dauden igande, eta jaiac. Ez de-  
zazula esan; ascoc darausten bezala, fes-  
tac santificatzen dituala Mez osoa enzun,  
eta lanic premiagabe eguiten ez duanac  
(d). Ez du Elizac becatu larriaren az-  
pian aguintzen bi gauz oec baicic, beint-  
zat Obispadu onetan, eta gueyenetan-ere;  
baña ez ditu onetaraco bacarric ipiñi fes-  
tac, len aditu dezun bezala, eta bi gauz  
oequin bacarric contentatzen bacera, er-  
raz becatutic becatura amilduko cera. Ar-  
gatic eguzu zuc aleguiña becatutic, eta  
lagun gaistoeztatik aldeguiteco; Meza na-  
gusiac, Vezperac, eta Dotrinac entzute-  
co; eta etorri ecin bazaitezque, igaro eza-  
zu echean Dotrinaren parte, edo pusca  
bat bacarric, edo lagunaquin. Oitu zaite  
ordu onean echeratzera, eta lagun onaquin  
baicic ez jolastera; eta atzenean oitu zaite

---

(d) *De obligatione audiendi Verbum Dei  
in Parochia disputare solent T. T. Vide  
Benedictum XIV. in Synod. Diæces Lib.  
11 Cap. 14. Vide etiam Constitutiones  
Synodales huius Diæcessis, ubi de 1. Ec-  
clesiæ præcepto: Cuniliati, &c.*

maiz, eta ongi prestaturic. Sacramentua artzera, eta,urreco Eracusaldian esan dan eran, Errosario Santua esatera.

## *OGUEI, TA AMABIGARREN ERA-* *cusaldia.*

*Illaren lendabikico igande, ta Virgiña chit Santaren festetan Jesus maitagarriari Aldareco Sacramentuan, eta beraren Ama guciz Santari Errosarioko Aldarean agur umillae, eta onguinaiezko visitac eguiteco vide erraza.*

**A**ditu dezu, nola igande, eta jayac igaro bear dituzun: orain aditu bear dezu illaren lembikico igandeetan eer eguin bear dezun. Gure errietan Ama Virgiñari jayera dioenak sartzen dira, Errosarioko Cofradian, eta confesatzen dira illaren lembikico igandeetan. Egun oëtan, eta Virgiña chit Santaren festetan visitatzen due Sacramentua, eta guero Errosarioko Aldarea, eta oncla irabaci ditzaquee asco barcacio, edo indulgencia. Uste det, nai-ko dezula zuc-ere eguin han bera, eta onetaraco eimen ipiniko zatzu modu erra-

za. (*Elizara ecin bazatozque , gauz ona izango da echean devocio bau eguitea, Elizaronz jartzentzera*). REUTER

*Jarri zaite Jesus Sacramentatuaren aurrean , eta esqueñi guiozcatzu eguitera zoacen visitac.*

**A**doratzen zaitut , Jesus maitagarria ; esqueintzen dizquitutz orain egun uste ditudan visitac , eta erreguac zure onran. Izan bitez oec zure Fede , eta Eliza Santa zabaldu , eta ugaritu dedin : Principe Catolicoac paquean vici , eta heregia guciac deseguin ditecen. Eta irabaci nai nituque , Jauna , gaurco visita oequin irabaci ditzan quedan barcacio guciac , Aita Santuac nai duan eran , eta fiñeraco eguiten ditudala. Alabiz , edo ala guerta dedilla.

### *Asi ezazu Jesusen visita*

**N**ere anima , ¿ nor ote dá oguiaren idurien azpian Aldareco Sacramentuan ezcutaturik dagoana ? Hori dá Trinidadeco bigarren Persona , Ait Eternoaren Semea , eta Aitarequin Jaincotasunean , eta Perfec-

cio gucietan berdiña. Hori dá , Adanec berrtzat , eta guretzat galdu zuan , Cerurako gracia , eta escu , edo derecha guri biurtzeco guizon eguna zana , eta guruzean vicitza eman zuana. Hori dá guganaco onguinai , eta amorioac gañez egunie , gurequin , eta gure artean guerata nai izan zuana , eta gueratzen dana Sacramentu guciz miragarri orretar . *Etzaituet utzico ume zurtzac bezala esan , cien Apostoluai ; orra , zuequin nago , eta egongo ere naiz Mundua Mundu dan artean (a) . Emen guebi batean gogora ecartzu Jesusen guganaco ontasun baztergabea , eta gure esquergabequeria :::*

— Han guria egun nigatic gure Salvatzaileac ! Eta ni alaere beragandie iguesi ! Aimbeste vider beraren contra becatu eguin ! ; Noiz artean , nere anima ; noiz artean izan nai dezti aisi esquergabea ? ; O nere Jesus ona ! Sinisten det , Sacramentu orretan arquitzen cerala gau , ta egun gure zai bezala , eta guri zure ondasunak eman naiet . Adoratzen zaitut , eta dani det oraindaiñoco nere esquergabequeria gu-

---

(a) Joan. 14: Math. 28.

ciaz. Gaurdanic artzen det asmo osoa zu, sarritan visitatzeco, adoratzeco, eta nere agur umillac eguiteco. *Emen biru Aita gure, Ave Maria, ta Gloria.*

*Eguizu orain Errosarioko Aldarearen visita.*

**O** Virginia gunciz Santa! Becatarien Bitarteko, eta Aina gozoa. Lotsaz (edo alquez) beteric aguertzen naiz gaur zure aurrean, eta zu visitatzen; aimbeste dira alabaña, zure contra eguin ditudan, charqueri, ta videgabean. Baña dembora berean zure Urriquimentuac, eta ondu nai duen becatarienzat aguertzen dezun biotz biguiñ orrec nacar zu onratzena. ¡Norc eman leguiquedan niri zu alabatzeko diña lizaguean mihi garbi eder bat! Ez naiz, Ama maitagarria; ez naiz ni ontaraco ezecie, guchiagorako ere gai etet nic eguin dezaquedana dá balistzea Aingueruaren, eta Eliz Ama Santaren hitzaz, zu onratzeco, eta nere erregu umillac eguiteco.

*Agur Maria, esan cizun San Gabriel Aingueruac Ceruco mandatuarequin etorri citzatzunean, eta hau bera diot nic ere*

berarequin. Zure icenac izutzen ditu et-sai guciac, ayenatzen ditu tentacioen bagac, arintzen, eta gozatzen ditu gure ne-queac, eta alaitzen ditu justuac, eta be-catariac.

*Graciaz betea.* Hau dá San Gabrielec eman cizun alabanza. Graciaz betea zure sortzean: graciaz betea, Aingueruac agur eguin cizunean: eta graciaz betea vicit-zan, eta eriotzan. Zure animaco graciac, zure virtute, eta edertasunac garaitzen di-tu Ceruco doatu guciac. *Jauna dá zure-quin!* O Trinidade guciz Santaren Järlein ederra! Zure biotzean, egon dá, eta da-go Aita Eternoa bere alabagan bezala; Semea bere Amagan, eta Espiritu Santua bere Esposagan bezala.

*Bedeicatus cera andre gucien artean.* Bedeicatua, esleitua, eta antua Virgiña gucien artean. Bedeicatua Ama gucien artean. Bedeicatus, ceren becatuaren man-charic, eta cutsuric ecusi etzenduan. Be-deicatua, ceren garbitasunaren caltegabe sortu cenduan Jesus Espíritu Santuaren obraz, eta graciaz. Bedeicatua, ceren zu-re bularretan ací cenduan gauza gucien Eguilie, eta Jabea bera.

*Eta bedeicatua dà Zure Sabeleco fruta Jesus.* Hau dà, bedeicatua ececic, bedeicacio gucien iturburua: hau vicitza eguiatzkoaren arbola, eta dembora berean betico vicitza doatzua guretzat prestatu zuan zure frutu miragarria. Eta zu cera beraren Ama Santa, gure Bitarteko, eta Larguntzalle andia. ¿ Norgana vide eguingo degu, zugana baicic?

*Santa Maria, Jainkoaren Ama.* Bai, Virgiña chit Santa : Jainkoaren Ama cera. Eta hau onela izanic, ¿ cér iritsi ez dezaquet, zu Bitarteko zaitudala?

*Erregu ezazu gu becatarioc gatic.* Zuc cerorrec onguiena dacutsu, nolaco perillen artean arquitzen gueran. ¿ Cer izango lizaque guzaz, zuc ez laguncera! Erregu ezazu bada arren gugatic orain, baña batetx ere eriotzaco ordaan; bai arren Maria Virgiña gozoa.— *Emen biru Ave Maria*



**OGUEI , TA AMAIRUGARREN ERA-  
cusaldia.**

*Illaren birugarren igandeetan Aldareco  
Sacramentua vicitatzeo modu  
erraza.*

**V**irgiña chit Santaren jaieran vici diran, Euscaldunac eguiñ oi ditue illaren lembicico igandeetan, aditu dituzun, obra onac. Era berean Jesus Sacramentuari, edo gure amorioz Sacramentuan dagoanari cerbait devocio dioenac, eguiten ditue illaren hirugarren igandeetan Jesus onratzeo cembait gauz on. Hirugarren igandeetan eguiten dá gure erriean Jesusen Biotzaren devocioa, edo Minerva. Confesatzen dira asco; aguerturio ipintzen dá Sacramentua; erregutzen zayo dembora onetan, eta escatzen zayo gure premiac estaltzeo bear dana; eguiten dá Sacramentuarequin procesioa, eta atzenean beste egunetan baño visita gueiago eguiñ oi zaizca Sacramentuari; eta gauz oequin irabaci ditezque asco barcacio, edo indulgencia. Visit oec engui eguitea dá jaiera

chit andi , ta ederra , ta zue icasi bearcen-  
duqueana. Ara onetaraco modu erraza.

*Jarri zaite Aldareco Sacramentuaren aur-  
rean ; adora ezazu , eta esquiñi zaiozu ,  
eguitera zoacen , visita.*

**S**acramentu orretan gure amorioz zau-den Jesus maitagarria : adoratzen zaitut nere Jaungoicoa bezala , ta nere anima-ren Erregue , ta Salvatzallea bezala. Es-queintzen dizut Visit hau zure onran , eta zure guganaco amorioari nolerebait eran-zuteco ; eta dembora berean Principe Catolicoen arteko paqueagatic , heregia guciac deseguin , eta zure Elizaren onra , eta glo-ria ugari tu ditecen. Irabaci nai nituque , visi-ta onequin irabaci ditza quedan barcacio guciac , eta onetaraco egun nai det hau , Ai-ta Santuac siñalaturic daucan , fiñeraco.

*Ecartzu gogora norainoko ongi nai , eta  
amorioa aguertu digun Jesusec Aldareco  
Sacramentua ipintzean , eta Sacra-  
mentuan bertan.*

**N**ere anima , ¿nai dezu ezagutu nora-

bioco orgui nai, eta amorioa agnertu di-  
 gun Jesusec Aldareco Sacramentua ipint-  
 zean, eta Sacramentuan bertan? Begira  
 bada lenengo lecuan, cer egun zuan os-  
 tegun Santu arratzean. Arquitzen zan Je-  
 sus gugatic bere vicitza eimateco vezpe-  
 ran, eta Mundu onetatic bere Altzagan  
 laster joan-bearrean. Ecusten zuan etsai  
 ascoren artean gueratu bear guenduala.  
**Gañez** eguincion guganaco onguinai, eta  
 amorioac, eta asmatu zuan gure artean  
 beti vitzeco vide guciz miragarri bat,  
 edo Aldareco Sacramentuan jarrea, eta  
 egotea, eta dembora berean Ceruan. Be-  
 guira gañera ceisi gauza miragarriac egui-  
 ten dituan Sacramentu orretan. Ozta Apai-  
 zac esaten ditu Consagracioco hitzac, unè,  
 eta puntu artan bertan jartzen dà Jesus  
 Sacramentuan, izan dedilla Apaiza naiz  
 ona, naiz gaistoa; eta jartzen dà Apai-  
 zac nai duan lecuan, eta nai duan dem-  
 boran. ¿Certako ote? Gurequin vicitze-  
 co, gure biotzetara etortzeco, eta guri  
 eimateco bere gorputza, bere odola, eta  
 bera dan gucia: eta bere atseguin-conten-  
 tuac ditu gurequin egotean. Esadazu  
 orain nere anima; hau gucia eguiñ badu

gure amorioz Jesusec, z norañocoa izango dá beraren guganaco onguinai, eta amorioa? *Emen guebi batean gogoan erabiltzu onguinai, eta amorio bau.*

Jesús maitagarria! ¿Hau onela, eta ni alaere zuretzat izan naiz aini esquergabea? ¿Cer egun al dezaquet nic zure onguinai, eta amorio baztergabe horri erantzuteco? ¿Cer, ezpada oraindañoco usseguiteaz negar eguitea, eta aurrera zu amatztea ta servitza? ¿Cer, ezpada zugana sarritan etortzea, eta adoratza? ¡O Ontasun paregabeea! Zugan sinisten, eta esperatzen det, eta amatzen zaitut biotz gucitic. Lagun zaiquizquit, Jauna, Zu amatzen, eta servitzen. Oroi zaite, Jauna, Eliz Ama Santaz, gure Aita Santuaz, eta Obispoaz: Oroi zaite gure Jaun Erregueaz, nere aide, ongnille, eta lagun urco guciaz.

Jesusen anima, virtutez, bete nazazu. Jesusen biotza, zure amorioz erre nazazu. Jesusen gorputza, salva nazazu. Jesusen odola, Ceruco amorioz zora nazazu. Jesusen viotzeco ura, garbi nazazu. Jesusen icerdia, graciaren vicitzaz bete nazazu. Jesusen Pasioa indartsu egnin nazazu.

O Jesus ona , adi nazazu. Zure llaguen , eta biotzaren erdian gorde nazazu. Zugan-dic aldeguiten ez arren utzi. Eta gal-garriagandic gorde nazazu. Nere eriotza-co orduan dei nazazu. Ceregana eraman nazazu. Cere aldean ipiñi nazazu : Zure Santu , ta Ainguerauaquin alaba zaitzadan secula gucietan. Amen.— *Emen biru Aita gure , biru Ave Maria , eta Gloria.*

### **OGUEI , TA AMAL AUGARREN ERA-cusaldia.**

*Noiz nai , baña batez-ere iñuterico az-  
queneco biru egunetan , eta ostiraletan  
Jesus Sacramentatua visitatzeko  
modu erraza.*

**J**arri zaite Jesusen aurrean ( Elizara ecin datorqueana jarri diteque bere echean Eliza dagoan aldera ): adora ezazu , eta esqueñi guiozcatzu zure egun oetaco vi-sitac , dembora onetan Munduac eguiten diozcan esquergabequeria , eta videgabe itsusiak nol-erebait ordaintzeco. Guero beguira , nolaco esquergabequeriac ecus-ten dituan Aldareco Sacramentuan. Az-quenean eguizu Contriciozco afectoac ,

bera sarritan ecusteco, edo visitatzeko asmoarequin.

*Jesus adoratzea.*

**S**acramentu orretan gure amorioz ezcutaturic zauden, Jesus maitagarria! Adoratzen zaitut, Jaungoico, ta guizon eguiazcoa, Erregue gucien Erreguea, eta Munduaren Salvatzallea. Ezqueintzen dizut oraingo visit hau egun oetan Munduac eguiten dizquitzun charqueri, eta videgabean ordaña bezala, eta guisa berean esqueintzen dizquitzut egun oetako nere obra on guciac: eta oequin irabaci ditezquean barcacio, edo indulgencias irabaci nai ditut, Aita Santuac adirazten duan, fiñeraco nere erregu, ta lanac eguiñaz.

*Nolaco esquergabequeria, ta videgabeac ecusten dituan egun oetan Jesus onac Aldareco Sacramentuan.*

**J**esus ona! Etxiñan contentatu gugatic gurutzean vicitza ematearequin; baicic guquin, edo gure artean vicitzeo gueratu nai izan cenduan Aldareco Sacramentuan; ta or zaude gau, ta egun, guraso

gucien artean onena bezala. *Zuequin nago*, diozu, ta egongo-ere naiz *Mundua Mundu dan artean* (a): *bau dá nere at-seguincontentua* (b). ¿Baña nola eranzun diogu zure ongiñai, ta amorio bazterga-be oni? ¿Nola erantzuten dioe Cristau as-cooc egun oetan? Esquergabequeria, eta videgabe itsuaquin. Atozea ezperen, nere anima. ¿Cembañ, eta cembañ dira, Jaun hau artzera dijoacenac Judasen eran, edo biotz loiarequin? ¿Cembañ berandutic berandura baicic Jaun hau artu nai ez due-nac, eta orduan-ere ecíñ gueiagoan? ¿Cembañ, Jaun hau artu ondoan Elizatic ignesi dijoacenac? ¿Cembañ, Elizan bertan, eta Jaunaren beguietan federic, beguiramen-tu, edo errespetoric gabe daudenac? Eta hau gucia guchi baliz bezala, egun oetan utzitzen due Jesus beraren ume, edo adis-quideen eran vicitu diranac-ere, ascooc beint-zat. Elcarren leyan, eta eyaca dijoaz Mun-duco zoraquerietara, eta becatuaren vide, eta perilletara. Hitz batean, egun oetan ura bezala edaten dá becatua, eta quezca-ric gabe berriro gurutzeficatzan dá Jesus.

(a) *Math.* 28. (b) *Proverb.* 8.

¿ Cer gueiago ? Lotsatzen dirala , dirudi Cristauac Jesus egun oetan visitatzeaz , eta adoratzeaz . *Emen zaude dembora pisca batean gauz oec gogoan erabilliaz.*

Nere anima ¿ ecusten dezu , nolaco esquergabequeria , ta vide-gabea ecusten dituan Jesusec Aldareco Sacraimentuan , batezere egun oetan ? Eta hau ezaguturicere , ¿ utzico dezu Jesus bacar-bacarric , eta joango cera Munduaren zoraquerierrara ? Hau jaquin , eta ez diozcatzu zure agur umillac eguingo ? Ez diozcatzu egungo cere aguertuchoac , edo visitac ? Eta hau ecin badezu , echetic bederic ez dezu adoratuco ? Asco dira oraindañoco esquergabequeriac . *Atozte , dio Jesusec ; atozte migana nequetan zautenac (c).* O Jesus onguinai , ta amorio neurriric , eta mugarrigabea ! Damudet , Jesus , zure contra eguin ditudan , esquergabequeria guciaz . Artzen det asmo osoa Zu emendic aurrera sarritan adoratzeco , eta visitatzeco , echetic bederic batez-ere inuterico zoraquerien demboran . *Hiru Aita gure , biru Ave Maria , eta biru Gloria.*

**OGUEI, TA AMABOSTGARREN ERA-**  
**cusaldia.**

*Urteco dembora jaquiñetan, eta premia  
 danean eguiñ oi diran errengu, eta  
 Letanien gañean.*

**G**ure Jaungoicoa guciz on, eta ongi-  
 llea dá; baña nai du guc ezagutzea, bera  
 dala on guciaren iturburua, eta emallea,  
 eta berari escatzea, Ceruraco videan bear-  
 degun, gucia: animacoac oso, ta oro, ta  
 gorputzari dagozcanac, Cernraco videan  
 on izango diran neurrian. Hau ederqui  
 eracutsi cigun Jesu Cristoe *Aita gurearen*  
 oracio miragarrian, baita beste aldi asco-  
 tan-ere. Videz dijoan adisquide bat sartzen  
 bazaio zuetako beti, eta ezpadu cer emam,  
 cer eguingo du? Joango dá auzora, edo  
 beste adisquederen baten echeria, eta ateac  
 joco ditu. Guerta diteque auzoac, edo  
 adisquideac oitic jaiquitzeo gogo char-  
 ra iduquitzea, baña beisi, ta berriz, eta  
 ascotan jotzen badezu atea, onez, eta  
 adisquidetasunez ezpada-ere, aserrezz, eta  
 zu at-ondotic bidaltzeagatik bederic,

jaiquico da, eta emango dizu cere adis-quideari ipintzeo bear dezuna. Gañera, zuc cere Aitari escatzen badiozu ogua, Aitac oguiaren lecuan emango dizu arri coscorra? Escatzen badiozu arraia, emango ote dizu Suguea; eta escatzen badiozu arraultza, emango ote dizu arrabioa? Ez eguiaz. Eta izanic zuec, ceraten bezala, charrac, eta gaistoac, gauz onac umeai ematen badaquizue, cembatez obeto emango dizquitzue zuen Aita Cerucoac bear dituzuen ondasunac, batez-ere animacoac? Hau gucia, eta gueiago gai onetan eracusten digu Jesu-cristoc, eta esaten digu, *Esca ezazue, eta emango zatzue: Oles eguihue Aita Cerucoaren ateetan, eta idiquico zaizquitzue (a)*.

Hau ongui ciaquianac bezala, S. Marcos egunean eta Ascencioren surreco egunetan eguiten diozca Eliz Ama Santac Jaunari bere erregüiac era, eta modu anciñatic ipiñi zan batean, eta erregu oei esaten diegu: *Letaniac.* San Marcos egunecoac ipiñi, edo beintzat zabaldu vide ci-tuan S. Gregorioc, eta Ascencioren aur-

---

(a) *Luc. Cap. 12.*

recoae S. Mamertoc (b). Erregu oec ipifiaic daude Jaunaren aserrea vigüintzeco, eta artzen ditugu bitartecotzat Virginia chit Santa, Ceruco Aingueru, ta doatzu guiac. Escatzen degu gure becatuen barcacioa, eta gañera escatzen ditugo, amaraco, eta gerputzeraco bear ditugun, gauza guiac. Erregutzen dá Eliza guagiatic, Aita Santuagatic, baita gure lagun urco viei ta hillagatic-ere Letaniac, esan dán egunetan ezecie, beste aseotan-ere eguiñoi dira, batzuetan paquea, besteeatan etsayac garaitzea; batzuetan euria, besteeatan ateria; batzuetan gaitz andiren baten ayenatzea escatzen dala. Aincuñaco demboretan cristauac modestia andiarequin bildu oi ciran Elizan Letaniac eguiteco; prestatzen ciran Jaunaren aserrea gozatzeko, ta vigüintzeco, eta austerraz bezala autsa artzen zuen buruan. Eta cer eguiten due Letanien egunetan oraingo cristauac? Eaditue eeertan artzeu Eli- zaren usanza eder oec, eta banacaren batzuec ez, beste guiac ez dira aguer-

---

(b) *Vide Benedictum XIV in suis Institution. Pastoral. institutione 3. tom. 1.*

zen Elizara. ; Eta datocenētatic batzuec cer egun oi due egun horietan ? Batzuec devocioric batere gabe ibillico dira Letaniaco demboran ; besteac sartuko dira an , edo etnen , eta bear bada eguna igaroco due edanean , eta iscambillan. ; Hau dā Jaunaren aserrea itzalzeco modua ? Eta miretsico guera , baldin uzta-abostu charrac ecusten baditugu ? Miretsico guera gure gañera etortzeaz guerra , gaitz , edo eritasun iztigarriac , gosea , eta beste neque-mota guiciac ? Miretsi gaitecen Jaunaren ontasun , eta pacienciaz : miretsi gaitecen gure contra ez etortzeaz errietara artzac , otsoac , catamotz , edo tigreac , Leoyac , eta beste pistia guiciac.

Nere anima , zu izan zaite contuzcoa Letanietara etortzeco , eta guertatzen bazzatu , etortzea eragozten dizun , gauzaren bat , echetic erregtu guiozu Jaunari , enzun ditzala. Eliz Ama Santaren escariac. Onetaraco gauza ona izango da lenengo lecuan goiceco jaiera eguitea , laugarren Parte onetan ogiei , ta bigarren Eracusaldean ipiñi dan bezala. Guero esan dezaquezu , oraiñi ipiflico dan ofrecimientu , edo esqueñia.

Nere Jaun, eta Aita maitagarria, esqueintzen dizquitztut Eliz Ama Santarequin batean gaurco Letaniac. Aitorzen det, ez naizala oec zuc aditzeko diña, baha alaere uste det, enzungo dezula zure Elizaren erregua, eta etmango diguzula oraingo premia onetan bear degun lagunza, Zu obeto onratzeco, ta servitzeco. Jau na isuri ezazu zure bendicinoa erri onetan, eta Elizaren ume gucietan; gorde gaitzatzu becatutic, eta eriotza gaistotic. Amen.

### *OGUEI, TA AMASEIGARREN ERA- CUSALDIA.*

*Euscaldun onac bere batayoco egunaren urte-betean eguin bear luqueana.*

**A**nima on ascoc urte oro eguiñ oi due beren batayoco egunaren oroiplena, eta oni deitzen diogu *urtebetea*, edo *urte urena*. Egun onetan confesatzen dira. Guero beguiratzen due contuz, Norc, ta no la alcha dituan cristauaren izate, eta onra endira. Cein miragarriac diran onra onequin batean artu cituen ondasunac. Az-

queean ematen diozquee Jaunari esquer-rac, eta berritz-en ditue batayoco egunean emandako hitzac. Han bera eguin dezaque-zu zuc-ere, nere anima, urte oro zure batayoco egunean, edo aurreco igandean. Onetaraco emen ipinico zatzu modu erraz bat, confesatu ondoan batayoco egunaren oroipena ongi eguiñeco.

### *LENENGO PENSAMENTUA.*

**N**orc alcha zaituan cristauaren izate, eta onra andira? Cristaua cera, nere anima. Nondic dezu izate, eta onra han? Norc alcha zaitu onra ait andira? Alcha ote zaitue zure ohra onac? Baña cer obra on izan cintzaquean, Adanen becatuarequin loitua baceuden cere sortzetic? Cer obra on eguingo cenduan, obaren, eta gaitzaren ezagueraric ezpacenduan artean? Alcha ote zaitue zure gurasoac, edo aurrecoac? Ez; horietatic alabaña ez dezu becatuan sortua izatea besteric. *Orra*, cion Davidec, *gais-taquerian sortua naiz*; *becatuan sortu nin-duan nere amac*? Ote datorqizu cristauaren izate, eta oura, ceren cristau-erriar

sortu ciñan? Ez; ecin conta al hiltzen dira alabaña cristau errietan batayoric gabe. Etzaitecela alferric necatu; Jaunaren ontasun, eta urriquimentuac bacarric alcha zaitu cristauaren izate, eta onra andira. Argatic Dotrinac esaten dizu, *cristaua centrala Jaincoaren graciaz*, edo mesedez. Nere Jaungaycoa! Ecin conta al anima utzi dituzu batayo gabe, eta niri egun didazu mesede, eta onra hau? O ontasun, eta urriquimentu miragarria!

## BIGARREN PENSAMENTUA.

*Nola alcha zaituan Jaunac onra ontarra.*

**B**eguire, nere anima, bigarren lekuak, nola alcha zaituan Jaunac cristauaren izate, eta onra orretara. Gauz arrigarria! Eeusi zuan Jaunac, Adanen becatuarequin galdu cenduala Ceruco gracia, eta araco escu gucia: eta zuri hau biurtzeco, jachi zan Cerutic, edo guizon egun zan Trinidadeko bigarren Persona. Eman zuan zngatic gurutzean bere vicitza, ipiñi cituan zazpi Sacramentu, ta oen artean bat

Adanen becatua , edo jatorrizcoa zuri baratzeko. ¿ Ecusten dezu , nola , eta cenibat nequeren costuz alcha zaituan Jaunac cristauren izate , eta onrara ?

### **HIRUGARREN PENSAMENTUA.**

*Ceiñ miragarriac diran , onra onequin battean artu dituzun , ondasunac.*

**B**eguireira hirugarren lecuan , ceiñ andiac , eta miragarriac diran cristauren iza-te , eta onrarequin batean artu cinduan , ondasunac. Ozta batayatzalleac esan cituan Sacramentu oni dagozcan hitzac , isúrtzen zuala zure gañera bear zan ura , une , edo puntu artan bertan Espiritu Santuac janci cinduan graciaren soñeco ederrarequin , eta ayenatu zuan becatu jatorrizcoa , edo originala ; apaindu cinduan Fe-de , Esperanza , eta Caridadearen virtutea-quin , ta oequin batean isuri cituan zugan bere doayac ; eguin cinduan Jaincoaren beraren ume , ta adisquide , Jesu-cris-toren senide , eta Espiritu Santuaren Jau-regni , edo Eliza bera. Eman cizun az-

quenic Ceruraco escu, edo derecha, eguiten cinduala ango jabegai. Aditzen dezu, ; cee ondasunac artu cinduan cristauaren izate, za onrarequin batean ?

*¿Cer ordaiñ, arrituric esan dezaquezu, nere anima; Cer ordaiñ emango diot Faunari eman dizquidan ondasun oec gatic ? Garbi gorde bear nuan nic batayoco egunean eman cidan graciaren soñeco ederra, eta hau adirazten zuan escuetan ipini cideen zapi zuriac. Baña ay ! aimbeste vider loitu det, eta galdu soñeco eder hora!*

*¿Cer ordaiñ emango diot Faunari eguin dizquidan mesede oecgatic guciac gatic ? Adi ezazu cer esaten dizun berac : oroi zaite ceiñ onra anditic amildu ceras, becatu eguin dezunean, eta biur zaite zure Jaunagana : ez eransi, edo ez egotzi beca-tua becatuari.*

*¿Cer ordaiñ emango diot gañera nere Jaun, eta onguille ecin andiagoari ? Egui-zu batayoco egunean aguindu cenduana, esaten dizu.*

*; O ontasun baztergabea ! Milla esquer, Jauna, gaurdaño eguin dizquidatzun on-tarte, eta mesede guciac gatic, baña ba-tez-ere ceren batayoco egunean eman ce-*

ñidan cristauren izatea , eta onra. Hau da onra gucien artean andiena , eta gucien cimendua. Bedeica zaitzeela Ceruac , lurrac , eta gauza guciac. Aitortzen det ceñ gaizqui eranzan diedan zure mesede oei , zeta cer egui dezaquet . Jauna ezpada datmuz , eta negarrez nere esquergabequeria itsusia aleguiñe an deseguitea ? Cer egui al dezaquet , ezpada urte oro , eta sarritan batayoco nere hitzac berritzea ? Egun artan eman nizun , Satanás , eta Satanásen lagunac betico utzitzeco , hitza. Hitz hau bera ematen dizut berriro. *Abrenuntio.* Egun artan eman nizun , Satanásen lan guciertatic , edo becatutic , eta becatuaren videetatic aldeguiteco , hitza. Hitz hau bera ematen dizut gaur betico. *Abrenuntio.* Egun artan eman nizun Satanásen arrotasun , pompa , eta zoraquerietatic aldeguiteco hitza ; eta gaur hau bera ematen dizut. *Abrenuntio.* Erabaqui det , Jauna , Zu amatzea , ta servitza venaz , eta biotz guciarequin. Lagun zzizquizquit arren , asi dedan eguiteco andi oni jarraitzen , eta onetan irauten. Amen.

**OGUEI, TA AMAZAZPIGARREN  
Eracusaldia.**

*Euscaldun onac urtearen bucaeran eguiñ  
bear duana.*

**A**sco lecutan urtearen bucaeran eguiñ  
oi omen da fest andi bat, confesatzen dira  
Cristau onac; eguiten da Sermoya, eta  
guero Jaunari esquerrac emateco cantat-  
zen da *Te Deum*. Ezta gure errietan onem-  
besteraño aci, ez zabaldu jaiera eder hau.  
Baña zuc, nere anima, urtearen bucaeran  
eguizu Confesio on bat: gueró beguira  
ezazu, lenengo lecuan, certaco eman di-  
zun Jaunac igaro dan urtea beste gauz  
ascorequin. Bigarren lecuan, ceiñ gauza  
bearra dan, Jaunac ematen digun, deim-  
bora ez galtzea. Hirugarrena, nola igaro  
dezun joan dan urtea beste oraindañoco  
guciaquin batean. Eman guiozcatzu Jau-  
nari esquerrac, ceren vicitza gorde dizun  
oraindaño, eta aimbeste mesede eguin diz-  
quitzun. Esca zaiozu zure esquergabeque-  
ria gucien barcacioa; berritu itzatzu, ba-

tayoco egunean eman cinduan, hitzac, aurreco Eracusaldian bezala. Ara nola eguiñ dezaquezun hau.

## **LENENGO PENSAMENTUA.**

*Certaco eman dizquitzun Jaunac igaro dan urtea, eta beste ondasunac.*

**N**ere anima! Zure Jaun onac eman dizu igaro dan urtea, baita zure vicitza-co guciac-ere. Eguin dizquitzu bitarte orretan nortaqui cembañ ontarte, ta mesede. Ascó, eta ascó hil dira dembora orretan, eta batzuec zu baño gazteagoac, sendoagoac, eta gure ustean zu bafio bearragoac: eta zuri gorde dizu vicitza, eman dizquitzu vicitzeco bear cinduan gauzac. Gañera, nolaco erac, eta ceiñ ederrac ez dizquitzu prestatu animaraco? ¿ Certaco eman ote dizquitzu bada Jaunac igaro dan urte hau, eta gañeraco gauzac? ¿ Certaco, zure fiñ goi-miragarria billatzeko baicic? Hau da zure Jauna ezagutzea, amatzea, eta beticotasun gucian berarequin batean Ceruan doatsu izatea. Hau

da , ez besteric , zure fiña , ta hau 'billatzeko eman dizu igaro dan urtea , eta besto ascori ucatu die. ¿ Nondic , nere anima ; nundic onembeste mesede ?

• \*

## BIGARREN PENSAMIENTUA.

*Ceiñ gauza bearra dan , Jaunac ematen digun , dembora ez galtzea.*

**G**auza guciac eguin ditu , eta egungo ditu Jaunac , bacoitza bere neurri , ta pisuarequin ( a ) Neurtuac , contatuac , eta pisatuac daude beraz bacoitzaren urteac , illac , asteac , eta egunac , eta ez dā iñor-ere neurri onetatic igaroco . *Laburrac dira , Jauna , cion Job Santuac , guizonaren egunac , eta zugan gordea dago cembañ diran beraren vicitzaco illac ( b ) . Ipiñi diozcatzu guizonaren vicitzari cerorec daquizquitzen mugac , eta ecin oetatic igaro diteque . Emendic atera ezazu , lenengo lecuan , ceiñ centzugabequeria andia dan esatea : Jaunac emango dit vicitza ontzeco dembora : guero onduco naiz .*

(a) Sap. 12. (b) Job. C. 14.

Ez dá gure Jaungoicoa guizona bezala al-dacorra ; eta beragatic zuretzat neurtu , eta mareatu duan demboraren mugac ez ditu aldatuco. Oec gaizqui igarotzen badituzu , galduco cera betico. Ateraz , bigarren lecuan , guciz bearra dala , Jau-nac ematen digun dembora ez galzea. Argatic dio S. Pauloc ; *Dembora degun bi-tartean daguigun onguia (c)*.

### HIRUGARREN PENSAMENTUA.

*Nola igaro dezun , joan dan urtea , bess-te oraindañoco guciaquin batean.*

**H**au gucia , zure siniste , edo fedeac eracusten dizun , egua da , nere anima. Eta ala-ere nola igaro ote dezu juan dan urte hau ? Nola gañeracoac-ere ? Igaro ote dituzu Jauna amatzen eta servitzen ? Igaro ote dituzu Jaunaren Hitza , eta Dotrinac enzuten ? Sacramentuac ongui , eta sarri-tan artzen ? Zure griña charrac ecitzen , hilduratzan , eta escuratzen ? Igaro ote di-

---

(c) *Ad Galat. C. 6.*

tuzu zure estadū, eta carguaren eguin-videai eranzuten, eta vicitz onaraqun eche-coai, eta beste lagun urcoai Ceruraco videa eracusten? Ay; nere anima! Hau eguin lecuan igaro dituzu joandan urtea, ta beste guciac becatua becatuaren gañean eguiten. Ezta zure urte gucien artean arquitzen bat bacarra-ere, obra onetan, eta Jaincoa servitzen igaro dezunic. Baña cer diot nic urte bat, ezpada arquitzen ill bat, aste bat, ez eta egun bat-ere, Jaunaren servitzen osotoro igarodezunic? Iguesi ibilli cera Jaincoaren Hitzagandic, eta Dotrinitic, edo entzun dituzu, frantuaren gose, ta egarrigabe eta besterentzat bacarric balaria bezala. Iguesi ibilli cera Sacramentuetatic, eta zure vicitza izan da asorentzat becaturaco vide, ta sarea. O itsumen izugarria! Ta alaere zure Jaun onac ichedon dizu!

Nere Jaun, eta Jatingoicoa! Milla esquer, ceren igaro dan urte hau, eta orain-dañoco guciac eman disquidatzun. Milla esquer, horietan eguin dizquidatzun ontarte, eta mesede guciac-gatic. Lotsatzen naiz, Jauna, Zu servitzen, eta amatzen igaro bear nituan. Egunac aiñ gaizqui iga-

roaz. Damuturic arquitzen naiz zure contra eguin ditudan becatuaz , eta asmo osoarequin aurrera ematen dizquidatzun egunac Zu servitzen igarotzeco. Zoaz nigandic etsai galgarria: utzitzen zaitut gaurdanic betico. *Abrenuntio.* Zoazte nigandic Mundu gaistoa , eta becaturaco sare , eta lazoac zabaltzen dituzuen guciac. Zoazte nigandic becatua , ta becatuaren videac ; gaurdanic betico utzitzen zaituet. *Abrenuntio.* Zoazte nigandic Munduaren zoraueriac , eta arrotasunac , ala jancian , no la beste gauza guzietan. *Abrenuntio.* Ala aguindu nizun , Jauna , batayoco egunean , eta ala orain-ere aguintzen dizut: Zu cera nere Jaun , eta Janngoicoa , nere Aita , ta lagunzallea ; indazu báda zure gracia , ta lagunza ugaria , eta eguingo det leyalqui gaur aguindu dizudan gucia Amen.

### *Iracurleari.*

Mezaren enzun-videoa dá urrengo Erasusaldian ipiñi uste dedan gauza. Batzuei agradatzen zate modu bat , besteai beste bat ; baña gucien artean erracena , eta fruturic gueyena ecarri oi duena dá noasqui

Jesusen neque-ofiace , eta gurutzeco eriotza  
gogoan erabiltzea , ta emendic biotza mu-  
guitzea becatuen daimura , Jaunaren ongi-  
nai , ta amoriora ; eta gogozco Comunioa  
eguitea , bigarren Partean esan dan bezala.

**OGUEI , TA EMEZORTZIGAR-**  
*ren Eracusaldia.*

*Meza enzuteco vide , edo modu erraza.*

**Z**oaz Elizara mugonean , ta certara  
zoacen gogora ecartzen dezula. Farri zaite  
belaunico , eta Evangelico demboran ez ,  
beste gucian zauds onela , aldezunean ,  
Meza errezzatuetan bederic. Evangelico  
demboran zaude chutic , adirazten dezula ,  
prest arquitzen cerala , jaunac Evange-  
lioan aguinzen dizquigun gauzac eguiteca  
(a). Adora ezazu , fauna , ta esqueñi guio-  
zu , enzutera zoacen , Meza , era onetan.

---

(a) *Vide Rubricas Missalis Romani , et Gavantum ad eas. Vide etiam Benedictum XIV Lib. 2. Cap. 7. n. 14 de Sacrificio Missæ.*

Trinidad guciz Santa, Aita, ta Semea  
ta Espiritu Santua, Jainco bat bacarra, eta  
hiru Persona cerana. Adoratzen zaitut  
umiltasun, eta errespeto guciarequin. Es-  
queintzen dizut enzutera noan Meza hau,  
lenengo lecuan : Zuri gauza gucien Asie-  
ra, eta iturburuari bezala, onrari e andiena  
emateco. Bigarrena, egun dizquidatzun,  
ontarte, eta mesede gucien, esquer zure  
dianacoak emateco. Hirugarrena, nere, eta  
lagun ureo vicien becatuen barcacioa iris-  
teco. Laugarrena, Purgatorioko animen  
alde. Azquenean esquintzen dizut Jesus  
maitearen ofrenda an, emandeguidazun,  
Cerurako videan bear, eta on izango de-  
dan gucia, batez-ere becatutie aldeguite-  
co, eta vicitz onean irauteko doaia.

*Mezaren asieratik Sagararao eroi zaite  
ondo, estegun Santu arratsetik Jesusek  
igaro cituan neque-oñaceaz, eta nola  
bigaramonean eman zuan gurut-  
zean bere vicitza.*

**I**rteten da Apaiza Mezaren Sacrificio izu-  
garria esqueintzera. Irten zan Jesus Jert-  
salendic Getzemaniko baratzara gugat-

Aita Eternoari Pasioco neque-oiñaceac, eta vicitza esqueintzera. Asitzen dà bere Aitari erregutzen; ecusten ditu animaco beguien aurrean Munduaren becatu guciac, eta oegotic igaro bear dituan nequeac. Ecusten du, gueyenac alaere utzi naico ez duela becatua, eta galduco dirala; eta oötatic bat izango dala Judas. Illuntzen, eta tristuraz betetzen zaio barren gucia: iznitzen due pasioco neque oñaceae, ta ecatzen dio Aitari, *igaro dedilla Pasioco Caliza berac edangabe.* Alaere egun bedi, esaten dio, *Zuc nai dezuna*, eta *Zuc nai dezun eran.* Jartzan dà odolezco icerditan, eta hiltzeco zorian.

Nere anima: Zure esquergabequeriac, eta becatuac onembesteraino necatzen due Jesus, eta zu etzera mugiturco oen gainean negar eguitera, eta vicitz on bat artzera?

Getzemanico neque oen ondoren bereala asi ciran neque, oiñace, eta naigabeen ujola berriac. Badator Judas Saltzallea, eta adisquidearen idurian ipintzen du Jesus bere etsaien atzaparretan. Igues egutien due Apostoluac. Badarabilte Jesus Ierusalenen echez eche, Calez Cale, emea

zorotzat , an Munduan zan guizonic 'er rebesena , ta gaitoena bezala. Ceatzen , eta urratzen due azotez. Beguire , nere anima , nola utzi duen zure becatuac Jesus ! Burutic asi , ta oñetaraño zauri bat eguiña dago gucia : eta alaere zuri ongui naiez ontzat artzen ditu aimbeste neque , ta oñace . ¿Eta Jaun hau ez dezu amatuco , ta servituco ?

Jesusen borrero , ta etsaiáć etziran alaere aspertu , eta ase beraren odolez. Aditu zuen , Juduen , eta Israeltarren Erregue eguin nai izan zuala bere burua , eta aitzquia onequin equin cioen videgaberic andienac berriro asmatzeari. Quentzen diozquee bere soñecoac ofiace andiaquin , eta utzitzen due lotsa andian. Jancitcen dioe soñeco gorri bat. Erregueren idurian ipintzeco. Sartzen dioe buruan aranzazco Coroa bat , nortaqui cembañ ofiacerequin. Ipintzen dioe Erregueren cetro , edo bastoitzat cañabera bat ; eta asitzen zaizca isecaz , Erregueri bezala agurrac eguiten . ¿Cer gueyago ? Loitu cioen aurpegui eder bura beren carcaisá , eta chistu ciquiñaquin. Beguire Erregue gucien Erregue , eta gucien Eguilleari pauso onetan ! Ay !

¿Eta hau nigatic? Adora ezazu, nere anima, adora ezazu zure Jaungoicoa, zur Erreguea, eta Salvatzallea.

Etziran oraindic Juduac Jesus necatzez aspertu. Cuturtu zuen Pilatos, Jesusi gurutzean vicitza quentzeco, Senteocia ematera. Ipintzen dioe soñean bere gurutzea. Asitzen dá Calvarioraco videan; baña, igaro cituan, arratsa, ta goiza igaro ondoan, ¿nola joan al citequean Jesus Calvarioco mendira? Erorca noasqui, eta berreroac eztenca, ta osticoca eraiquitzenzuela! Eta videan gueldi cequien beldurtez, gurutzea eramateco eman cioen laguntzat Simon ceritzan\* Cyreneco guizon bat. Onembesteraño necatu, eta aunatu zuan Jesus nere becatuen cargac!

Noiz bait iritsi zan Jesus Calvarioco mendira. Josten due gurutzean iltze sendoaquin. Aguertzen dá Munduaren Salvatzallea gurutzean josia, ta lapur biren erdian. Miragarriac dira dembora onetan guertatu ciran gauzac. Janci zan Cerua beltzez, ucatzen ciozcalal eguzquiac bere argui ederrac lurraldi. Erregantu cion Jesus Aita Eternoari bere etsayen alde. Lapur onduari aguindu cion Paradisoa. Hit-

Eguin cion bere Ama maite penaz, eta naigabez beteari. Aditzera eman cion Aita Eternoari lén, ta guero ceraman neque izugarria. Aguertu zuan egarri andi bat, eta emancioen ozpiña. Ezan zuan orduan: *Bucatu dà;* bucatu dirá, Escritura Santa, eta Profetac nere pasioaren gañean anciñatik adiraci cituen, gauzac, eta egun detnic nere gaiñ artu nuan eguiteco andia. Eguin zuan ots andi bat esaten zuala: *Aita, zure escuetan uzten det nere espiritua.* Hil zán Jesus munduaren Salvatzallea.

Ecusten dezu, nere anima, ¿cér neque oñaceac gure amorioz igaro cituan Jesu-sec? ; Ecusten dezù nola gurutzean eman zuan bere vicitza? eta eztaquizu Meza Santua dala Jesusen neque-oñaceen, eta gurutzeco eriotzaren Anza, iduria, ta Oroipena! Ala aditzera eman cigna San Paulo Apostoluac (b). *Emen gogoan ongi erabilli ezazu nolaco ongi nai, eta amorioa zor diczun Jesus onari.*

### SAGARACO DEMBORAN.

**D**embora onetan zaude isilic, Consa-

---

(b) 1. ad Corint. c. 11.

*gracioco bitraquin eguiten diran gauza  
miragarriac gogora ecarriaz. (c). Jauna  
albatzen duanean Apaizac , eguin guioz-  
catzu Jesusizure agurrac , eta ongui-etor-  
riac. Esayozu.*

;*Nere Salvatzalle guciz maitagarria !  
Ongui etorria izan zaitezela. Adoratzen  
zaitut nere Jaungoicoa , Erregue gucien  
Erreguea , Eta Munduaren Salvatzallea.  
Bedeica zaitzeela Ceruco Aingueruac , eta  
doatsu guciac ; bedeica zaitzeela anima on  
guciak , eta Canta decela Eliza guciare-  
quin : Bedeicatua Jaunaren icenean etor-  
ri zacuna.*

*Egitzu Fede , Esperanza , Caridade , ta  
Contriciozco afectoac.*

**O** Jesus ona ! ; Nere animaren vicitza,  
eta doatasuna ! Zu cera Trinidadeko bigar-  
ren Persona. Zu , guretzat Ceruraco gra-  
cia , eta escu , edo derecha irabazteco ,  
guizon eguiñ ciñana , ta aimbeste neque-

---

(c) *Vide Benedictum XIV. in opere ci-  
tat. Lib. 2, Cap. 15 num. 31. : Alij sunt  
bac in re Gallorum mores.*

oñace, ta azquenic gurutzeco eriotza iga-ro cinduana ; hirugarren egunean piztu , eta guero Cerura igo ciñana. Zu , Ceruan dezun , Jarlecua utzigabe , Meza Santuan gugana etorri Cerana. ; Certara ote ? Gu-gatic igaro cenduan gurutzeco eriotzaren oroipena guri berritzera. ; Certara gueiago ? Gurequin , eta gure artean vicitzera , guri ematera zure gorputza , anima , odola , eta ceran gucia. ; O Ontasun miragarria ! Sinisten ditut Misterio hoec guciac , ceren Zuc aguertu diozcatzun Eliz Ama Santa-ri , eta onec ala eracusten dizquidan Es-peratzendet , Jauna , zugan nere becatuen barcacioa , eta betico vicitza , zure lagun-zarequin becatutic aldeguiten , eta vicitz onean irauten dedala. ; O Edertasun pare-gabea ! ; Ceiñ berandu ezagutu zaitudan ! ; Ceiñ berandu amatu ! Amatzen zaitut biotz gucitio ; eta zure icenean amatzen ditut ne-re lagun urco guciac. Ay ! ; Eta utzi nic Zu aimbeste vider ! ; Izan ni noizbait zure etsaí andietatic bat ! ; O pena ! ; Ojala le-nago milla vider hil baninz ! Damudet Jau-na , eta damudet zure ontasun bazterga-beari beguiraturic : arzen det asmo osoa ez gueyago becaturic eguiteco.

*Aguertu guiozu Jesusi bera zure biotzean artzeco gose , ta egarri andi bat, eta bau dá gogozco Comunioa.*

**C**eñ andiac , eta ugariac diran , Jesus maitagarria , zure servitzarienzat Sacramentu orretan gorde dituzun ondasunac ! Zori onecoac Sacramentu hori ongi artze- co eran prestatuac dauden animac ! Zori onecoac , ceren zurequin bat eguingo di- ran . Zori onecoac , ceren betico vicitzaren emallea bera , eta doatasun guciaren Itur- burua berengan iduquico duen . Zori one- coac , ceren zure gozotasun miragarriac progratuco dituen . Zori onecoac atzenean , ceren etsai guciac garaitzeco indarrez be- teco dituzun . Nai nuque , Jauna , nic-ere Zu nere Onguille andia nere biotzean idu- quitza , baña aitortzen det ; *ez naiz ni Zu nere echean sartzeko diña.* Alaere fedeac eracusten dit , Zuc eguin ditzaquezula Sa- cramentua artugabe-ere , Sacramentuare- quin eguiten dituzun , mesedeac . Asco dá Zuc nai izatea : asco dá Zuc hitz bat esa- tea , gucia eguiña gueratzeco . Esazu ba- da , nere Jesus ona , hitz bat , eta nere ani-

ma sendatuco dā , eta artuco ditu , gurezat ecarrí dituzun , ondasunetatic Zuc nai dituzunaç , eta nai dezun neurrian . Amen . *Hau eguiten da Apaiza Comulgatu arteco demboran , ez lasterca , baicic soseguz.*

*Jaunari esquerrac , Comunio ondoko oracioac Apaizac esaten dituan bitartean.*

**E**squer milla , Jauna , ceren gugana etorri nai izan dezun , eta gure oneraco esqueñi diozun Ait Eternoari , gurutzean esqueñi cenion , Sacrificioa bera .

*Apaizac bendicioa ematean.*

**T**rinidad guciz Santa , Aita , ta Semea , ta Espiritu Santua ! Meza eman duan Apaizac orain dion eran , indazu Zure bendicioa , egun hau , eta beste guciaic igareteco Zu adoratzen , servitzen , eta amatzen .

*Mezaren bucaeran.*

**J**auna , Zure baimenarequin banoa orain nere lan , eta eguin bideai eranzutera . La-

gun zaiquiza oec zure onran, eta glo-  
riaraco eguiten. Alabiz.

## *OGUEI, TA EMERETZIGARREN Eracusaldia.*

*Aurrac Meza laguntzen ongi icastero +  
Escola-Maisuetatic aditu bear lituquen +  
cembait gauza.*

**N**ai dezu icasi Meza ongi laguntzen? Aditu bada arretarequin esatera noan gauz-oec. 1.<sup>a</sup> Garbitu bear dituzu escuac. 2.<sup>a</sup> Asitzen danean Apaiza Mezaraco soñecoac ipintzen, eman zaiozu guerricoa, edo *Cingulua albaren* gañetic, escu batarequin erz bata, ta bestearéquin bestea Hau eguiten dá Mezemallearen atzetic. 3.<sup>a</sup> Albarenen beco ertzac ipiñico diozcatzu berdiñ, eta aldaroric gabe, lurra baño beatz betez gorago. 4.<sup>a</sup> Prestatua ezpadago Aldarea, eramaitzu Misala, ta arguiac: ipintzu Misala bere lecuan, ez idiquia batzueg eguiten duen bezala, baicic ichia. 5.<sup>a</sup> Ez dira Candelac eracequi bear, Meza esaten Apaiza dagoan, Aldarean, baicic lamparan. 6.<sup>a</sup> Mezemallea dijoanean Aldareaur-

rera, arguiozu escuieco alderic bonetea (boneteduna bada); ipintzu Aldare-ondoko, edo alboco maichoan. An egon bear due ardoaren, eta uraren onciac-ere. Aldarearen aldean mairic ez danean, ipintzu bonetea al dezun lecuan. 7.<sup>a</sup> Mezaren asieran jarri zaite Apaizaren eñquerretic belau-nico, ez Apaizaren parean, baicic atzerascago: eta beti egon zaite Misala ez dagoan aldetic: Misala badago Epistolaren aldetic, zuc egon bear dezu Evangelioarenjetic; eta Misala dagoanean Evangelioaren aldetic, zu egongo cera bestetic. 8.<sup>a</sup> Evangelioa esaten dán bitartean, eta Apaizari cerbait ematen diozun demboran, zaudet zutic, baña gafieracoan belaunico. 9.<sup>a</sup> *Confiteor Deo* esaten ari ceranean, hitz oetan: *Et tibi Pater, Et te Pater* Itzuli eza-zu guchi bat burua Apaizaganonz. Ez esan, batzuec bezala, *Et vovis fratres, ez vos fratres*, ceren Mezemalleac bacarric onela esan bear duan. 10. *Kyrie eleysioniac* esan oi ditu Mez-emalleac berac, berac, ceren laguntzalle guchi diran daquienac nola eranzun, baña obeto izango lizaque biac chandaca esatea, gueró ipiñico diran eran. 11. Aldarearen alde batetik

bestera igarotzen ceranean , belaunica zai-te erdian belaun batarequin. 12. Garizuman Profecien ondoren Mez-emalleac esaten du : *Flectamus genua* ; eta eranzuten zayo : *Lovate* : eta Profecia bacoitzaren bucaeran eranzuten dá : *Deo gratias*. 13. Garta-temporetan hau bera eguiten dá , ez ordean larumbatean azqueneco Profecia-ren ondoren. Era berean ez dá erantzuten *Deo gratias*. Ostiral Santuz , ta larumbat Santuz Profecien ondoren , ez eta ascören iritzian Espiritu Santuaren Pazco-aurreco larumbatean-ere. 14. Oguiardoac esqueintzera dijoanean Apaiza , ez dezazula quendu Calizaren estalquia , eta are guchiago patenarena , ceren Mez emallearen eguitecoa dán haú ; baña ongi dirudian gauza dá Calizaren estalquia dolestatzea. 15. Apaizac Calizara ardoa bota nai duanean , arrezazu ard-oncia , muñeguiñ , eta eman-guiozu Apaizari berari quirtenaz arganonz. Ezaio onciari baicic muñeguiten. 16. Gueró arrezazu uraren oncia ; ipiñi guiozu aurrean prest Mez-emalleari , artu dezan bear dan ura : eta hau eguiñ ondoan , eramango dituzu onciac beren toquira. 17. Prestatuco dezu , Aldarearen-

ertzean Epistolaren aldetic dagoan , Es-  
cu-zapichoa : artuco dezu escu ezquerrean  
platera , escuiean uraren oncia , eta bot-  
aco diozu Apaizari ura beatzatara , oec gar-  
bitzera datorrenean. Mez-emalleac dionean  
*Orate fratres* , zaude isilic *Ave Maria* bat  
esateco demboran , eta gueró ezazu : *Sus-  
cipiat Dominus &c.* 19. Mez-emalleac dio-  
nean *Sanctus* , jo ezazu chincherria hiru  
vider , aldi bacoitzean bi golperequin  
( Dembora onetan Eliza batzuetan ipint-  
zen due Corporalen aldainenean Epistola-  
ren aldetic Candela eracequi bat , len ceu-  
denaz gañera , eta itzaltzen due Comunioa  
bucatzean ). 20. Ostia Consagratura alchat-  
ze o demboran jo ezazu chincherria hiru  
vider , aldi bacoitzean bi golperequin , lem-  
bicia Consagracioco hitzac esanic belauni-  
catzen duanean Apaiza ; bigarrena goratzen  
duanean Ostia Consagratura , hirugarrena  
beeronz dscarrenean. Hau bera eguizu Cali-  
za **Consagraten** duanean. 21 : Chincherria  
ez dá jotzen *Sanctus*-eco , eta Consagracioco  
demboran baicic , eta beste demboraren ba-  
zeau jotzen badue cembait lecutan , hori  
ez dá Elizaren Ceremoniac ala aguintzen  
duelaco , baicic zeren *Sacristauren* bat-

zuei aña gegoac eman dien. 22. Apaizac  
 goratzen duanean Ostia Consagratus, ja-  
 sotzen dā Casullaren beco ertza pisca bat,  
 era hau bera eguiten dā Caliza alchatzen  
 duan demboran-ere. 23. Apaiza. Juna ar-  
 zera, edo comulgatzena dijoanean, arrit-  
 zatzu uraren, ta ardoaren onciac, jarri  
 zaite belaunico beraren aldean: alcha zaite  
 gueró, eta bota guiozu lembicioan ardoa  
 bacarric Calizara, eta bigarrengoa ar-  
 doa, eta ura beatzen gañera (*atzen esaten*  
*due beste lecu ascotan*). Ez dezu onciare-  
 quin uquitu bear, ez Caliza, ez Apaiza-  
 ren beatzic. 24. Ipiñi itzatzu ardoaren, ta  
 uraren onciac heren lecuan: arritzatzu  
 Calizaren, eta patenaren estalquiac, eta  
 eramaitz u beste aldera - eta andic alda eza-  
 zu Misala Epistolaren toquira. 25. Ez de-  
 zazula estali cerorrec, ez patena, ez Ca-  
 liza: eman zaiozu escuetara Apaizari beiñ  
 patenaren estalquia (baldin badu), eta  
 guero Calizarena. 26. Apaizac, Comu-  
 nioaren ondorengo oracioa, edo oracioac  
 esan ezquiero, utzitzen badu Misala zaba-  
 lic, igaro ezazu hau Evangelioaren alde-  
 ra. 27. Azqueneko Evangelioa bucaturic,  
 beera datorrenean Apaiza, eman guiozu

bonetea escura. 28. : On lizaque Eliza bakoitzean Meza laguntzen duen mutillentzat ipintzea janci egoquiac. 29. : Meza-bitartean Comunioa eman bear bada, presta itzatzu Sagrarioco guiltza, eta Comuniotako zapia; eman guiezu hau Comulgatzeko caudenai, eta esazu *Confiteor Deo*, &c. 30 : Apaizac Comunioa emateko demboran, Comulgatzen dan bacoitzari esaten die : *Corpus Domini nostri Jesu-Christi custodiat animam tuam in vitam aeternam* : eta berac esaten du: *Amen*. Argatic ez dezazula eranzun zue, ascoren guisara, *Amen*. 31. : Mez-ondoan Comunioa ematen bada, eguizu orain esan dana bera. 32. : Mezaz campora ematen danean, prest ipintza guiltza, beatzac garbitzecoa Apaizac bearco duan, ura, eta escuzapia; guero Comunioa emateko demboran esazu *Confiteor Deo*. Hau esaten dá, Copoia ateratzen duanean Apaizac Sagrariotic Corporalen gañeta. 33. Apaizac batzuetan, Comunioa ematen duanean Mezaz campora, eguiñ oí du oraiñ esango dedana: badijoa Aldare aurrera, eta asitzen dá esaten: *In nomine Patris &c. Adiutorium nostrum &c. Confiteor Deo &c.* eta

Iaguntzalleac eranzuten dio: *Ad Deum,*  
*qui lætificat &c. Qui fecit Cælum &c.*  
**Confiteor &c.** (a) Gafieracoa dā len esan  
dán bezala.

Mezaren mamia, edo Sustancia Munduco lecu gucietan bat dā; baña ezta gucietan esaten Ceremonia berdiñaquin. Erromaco Misalac dacartzian Ceremonisquin esaten due Apaiz Secularrac, haita Erli-gioco ordenetako batzuec-ere. Baña Santo Domingoren Ordenacoac, Carmengoac, San Bernardorenac, Cartujarrac esaten due beren modura. Toledon bada Capilla bat.

(a) *Sunt aliqui, qui, dum Communio-nem ministrant extra Missam, utentur hoc modo, quia ita nos docet, ut ajunt, Manuale Toletanum. At Manuale Toleta-num loquitur, secundum mores antiquos Hispaniæ, de Comunione ministranda infirmis, non vero sanis; et quod hos alius erat mos antiquus Hispaniæ, ut viderè potest in Manuali Salmantica edito anno 1591. Unde securius est sequi Rituale Romanum: De ordine ministrandi Commu-nionem.*

non esaten dán Meza , Espanian anciña esaten zan guisara , eta deitzen zaio *Mozarabeen Meza*. Enien ipinico dá Meza laguntzeco modua , Apaiz Secularrai , eta Erromaco Misalac dacarrerenan esaten duenai.

### *BERROGUEI GARREN ERACUSAL-dia.*

*Erromaco Misalac dacarren eran Meza esaten duan Apaizari laguntzeco modua.*

*A*paizae dio : In nomine Patris , & Filij & Spiritus Santi. Amen.

*Introibo ad Altare Dei.*

*Leguntzalleac erantzuten du : Ad Deum , qui latificat juventutem meam.*

*Ap. Judica me , Deus , & dicerne Causam meam de gente non sancta : ab homine iniquo , & doloso erue me.*

**Lag.** Quia tu es Deus fortitudo mea , quare me repulisti , & quare tristis incedo , dum affigit me inimicus.

**Ap.** Emitte lucem tuam , & veritatem tuam , ipsa me deduxerunt adduxerunt montem Sanctum tuum , et in tabernacula tua.

**Lag.** Et introibo ad Altare Dei , ad Deum , qui latifidat juventutem meam.

**Ap.** Confitebor tibi in cithara , Deus , Deus meus , quare tristis es anima mea , & quare conturbas me ?

**Lag.** Spera in Deo , quoniam adhuc Confitebor illi , salutare vultus mei , & Deus meus.

**Ap.** Gloria Patri , & Filio , & Spiritui Sancto .

**Lag.** Sicut erat in principio , & nunc , & semper , & in saecula saeculorum . Amen .

**Ap.** Introibo ad Altare Dei .

**Lag.** Ad Deum , qui latifidat juventutem meam .

**Ap.** Adjutorium nostrum in nomine Domini .

**Lag.** Qui fecit Cœlum , & terram .

**Ap.** Confiteor Deo . :: Et vos fratres orare pro me ad Dominum Deum nostrum .

**Lag.** Misereatur qui Omnipotens Deus &

dimissis peccatis tuis perducat te ad vitam æternam. *Ap.* Amen.

**Lag.** Confiteor Deo Omnipotenti, Beatae Mariae, semper Virgini, Beato Michaeli Archangelo, Beato Joani Baptista, Sanctis Apostolis Petro, & Paulo, omnibus Sanctis, & tibi. Pater; quia peccavi nimis cogitatione, verbo, & opere, mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa. Ideo precor Beatam Mariam semper Virginem, Beatum Michaelem Archangelum, Beatum Joannem Baptistam, Sanctos Apostolos Petrum, & Paulum, omnes Sanctos, et te, Pater, orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

*Ap.* Misereatur vestri Omnipotens Deus, & dimissis peccatis vestris perducat vos ad vitam æternam.

**Lag.** Amen.

*Ap.* Indulgentiam, absolutionem, & remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis Omnipotens, & misericors Dominus.

**Lag.** Amen.

*Ap.* Deus tu conversus vivificabis nos.

**Lag.** Et plebs tua lætabitur in te.

*Ap.* Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam.

*Lag.* Et salutare tuum da nobis.

*Ap.* Domine, Exaudi orationem meam.

*Lag.* Et clamor meus at te veniat.

*Ap.* Dominus vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritu tuo.

Hillen, edo *Requiem-go* Mezan apaizač sarreran dio: *In nomine Patris... Introibo ad Altare Dei: guero Adjutorium nostrum in nomine Domini. Urrena: Confiteor Deo &c.* gañeracoa emen ipiñi dan eran.

*Ap.* Kyrie eleyson.

*Lag.* Kyrie eleyson.

*Ap.* Kyrie eleyson.

*Lag.* Christe eleyson.

*Ap.* Christe eleison.

*Lag.* Christe eleyson.

*Ap.* Kyrie eleyson.

*Lag.* Kyrie eleyson.

*Ap.* Kyrie eleyson.

*Ap.* Dominus vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritu tuo. *Eta oracioen bucaeran eranzuten dá: Amen. Epistolaren bucaeran: Deo gratias.*

*Ap.* Evangelioaren asieran. dio:

Dominus vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritu tuo.

*Ap.* Sequentia, *edo* initium Sancti, &c.

*Lag.* Gloria tibi Domine. *Lenengo Evangelioaren bucaeran eranzuten dá:* Laus tibi, Christe.

*Ap.* Orate, fratres.

*Lag.* Suscipiat Dominus Sacrificium de manibus tuis ad laudem, & gloriam nominis sui, ad utilitatem quoque nostram, totiusque Ecclesiæ suæ Sanctæ.

*Ap.* Per omnia sæcula sæculo rum.

*Lag.* Amen.

*Ap.* Dominus vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritu tuo.

*Ap.* Sursum corda.

*Lag.* Habemus ad Dominum.

*Ap.* Gratias agamus Domino Deo nostro.

*Lag.* Dignum, & justum est.

*Ap.* Pater noster asitzeco dio : Per omnia sæcula sæculorum.

*Lag.* Amen.

*Ap.* Aita gurea bucatzean dio ; Et ne nos inducas in temptationem.

*Lag.* Sed libera nos á malo.

*Ap.* Ostia puscatzen duanean : Per omnia sæcula sæculorum.

*Lag.* Amen.

*Ap.* Pax Domini sit semper vobiscum,

*Lag.* Et cum spiritu tuo—*Comunio ondoko oracioaren bucaeran erantzuten dà amen*

*Ap.* Dominus vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritu tuo.

*Ap.* Ite Missa est.

*Lag.* Deo gratias—*Baldin Apaizac Ite Missa est ez, baicic esaten badu Benedicamus Domino, erantzuten zaio: Deo gratias. Pazcoaco astean esaten du Apaizac: Ite Missa est alleluya, alleluia eta erantzuten dà: Deo gratias alleluya alleluya. Hilen Mezan esaten du Apaizac: Requiescant in pace: erantzuten da: Amen. Bendicioa ematen dua-nean ere bai.*

*Ap.* Azqueneco Evangelioa asitzean: Initium, edo Sequentia Sancti Evangelij, &

*Lag.* Gloria tibi Domine.

*Lenago dio Apaizac: Dominus vobiscum, eta jaquiña dà cer erantzun bear dan. Azqueneco Evangelioa bucatzean eranzuten da: Deo gratias.*

*Iracurleari.*

**B**ucatzen ditut Eracusaldi oec. Gauz onic arquitzen badezu, hori dá on guciaren Emalleangandic datorrena; baña utsegunteac izango dira nereac bacarric, eta guciac, diranac dirala, ipintzen ditut Eliz Ama Santaren, eta Iruñeco gure Apaiz nagusiaren mendean. Uquitu diran ga iac dira ederrac, eta doai obeetaco besteren batec edertu, eta apaindu litzaque erraz.



%

%

%

**LIBURU ONEC DACARTZIAN, ERACUS-  
aldien Arquividea.**

**LENENGO PARTEA:**

*Confesioko Sacramentuari dagozcan,  
Eracusaldia e.c.*

**Lenengo Eracusaldia :** Cer dán, eta nore Elis Ama Santari utzi eion Penitenciako, edo Confesioko Sacramentua. 19.

**Bigarren Eracusaldia :** Certako ipini zuan Jesu-Cristoek confesioko Sacramentua, eta cer ondasunak discartzian. 22.

**Hirugarren Eracusaldia :** Confesio on hateg es-  
catzen dituan gauzae. 24.

**Laugarren Eracusaldia :** Cer dán, eta nola eguna  
ditequean exámina. 26.

**Bostgarren Eracusaldia :** Confesio gisstonek ber-  
ritzeko nola eguna ditequean exámina. 28.

**Sei-garren Eracusaldia :** Cer dán Confesio onak  
escatzen duan bigarren gauza, eta onec es-  
catzen dituan doziak. 30.

**Zaspigarren Eracusaldia :** Cembalet guisatara dan  
damu *Ceruticacoa*, edo Sobrenaturala; cer  
dán Atricioa. 32.

**Zortzigarren Eracusaldia :** Onexko damu, edo  
Contricioaren gañean. 35.

**Bederatzigarren Eracusaldia :** Cer dán Confesio  
onak escatzen duan hirugarren gauza. 37.

**Amargarren Eracusaldia :** Asmo ergaileak es-  
catzen dituan neurgi egozquierien gañean. 39.

- 414  
**Amaicagarren Eraeusaldia:** Ontzeo asmo-iduri  
 utsarequin confesatu oī diran becatarien ga-  
 ñean. 41.  
**Amabigarren Eraeusaldia:** Cer dán Confesio onae  
 escatzen doan, laugarren gauza. 45.  
**Amairugarren Eraeusaldia:** Cer dán Confesio  
 onae escatzen dnan bost garren gauza. 46.  
**Amalaugarraren Eraeusaldia:** Cristau gucioe Con-  
 fesatzeko degun egoiuvidearen gañean. 47.  
**Amahostgarren Eraeusaldia:** Confesatzeko pres-  
 tatzetzen ceranean, acusatzen asi baño len  
 eguiñ bear dezuna. 49.  
**Amascigarren Eraeusaldia:** Acusatsen, edo ee-  
 re burua salatzen asitzen ceranean, nola  
 hau ongi egingo dezun. 52.

## BIGARREN PARTEA.

*Comunioco Sacramentnari dagozcan  
 Eraeusaldiac.*

- Lenengo Eraeusaldia:** Cér dán Comunioco edo  
 Aldareco Sacramentua. 55.  
**Bigarren Eraensaldia:** Comunioco Sacramen-  
 tuari eman oī zaizean, beste cembait icen en  
 gañean. 57.  
**Hirogarren Eraeusaldia:** Nore, eta noiz nizi-  
 cion Eliz Ama Santari Comunioco Saera-  
 mentua. 60.  
**Laugarren Eraeusaldia:** Cér dagoan Ostian Con-  
 sagracioco hitzac Apaizac esan ditzan ar-  
 tean, eta esan ezqueero. 62.  
**Bostgarren Eraeusaldia:** Cér dagoan Calizan,  
 consagracioco hitzac Apaizac esan ditzan ar-

Iesu , eta esan ezquero .

**Seigarren Eracusaldia :** Comunioco Sacramen-  
tuan jartzeseñ , eta jarri ezquero Jesu-Cristoeg  
eguitem ditoan , gauza miragarriac . 65;

**Zazpigarren Eracusaldia :** Comunioco Sacra-  
mentuac dekaritzian ondasunac . 69.

**Zortzigarren Eracusaldia :** Ceñi becatu izugar-  
ris dán Comunio galistoa , eta cer bear dán  
becatu onetan ez erortzeo . 71.

**Bederatzigarren Eracusaldia :** Cér bear dán-  
Comunioco Sacramentuaren ondasunac arize-  
co naroro , edo ugari . 73.

**Amargarren Eracusaldia :** Comunioco dembo-  
ran , eta ondoren egun bear dana . 76.

**Amaicagarren Eracusaldia :** Comunio gogorco-  
edo Espíritualaren gañean . 79-

**Amabigarren Eracusaldia :** Comunioco Sacra-  
mentua artzeo Cristau guiac duen , egun  
vide , edo obligacioaren gañesn . 81.

**Amairngatzen Eracusaldia :** Noiz egain bear dán  
lembicico Comunioa . 84.

**Amalangatzen Eracusaldia :** Mezaren Sacrificio  
miragarriaren gañean . 87.

**Amabostgarren Eracusaldia :** Certaco esqueint-  
zen zeyon Jaungoikoari Mezaco Sacrificioa . 89

**Amaseigatzen Eracusaldia :** Nola enzon bear dau  
Meza , eta ceñi dan moduric errazena . 91.

### HIRUGARREN PARTEA.

**Lenengo bistan adiraci diran , gauzac obraz  
eguiteco Eracusaldiac .**

**Lenengo Eracusaldia :** Nola egain ditequean az-

- queneco Confesiotic oraiñ dañoco exámina. ga  
Bigarren Eracusaldia : Aurtasunetic oraindañoco Confesioac berritzeko exámina, 109.
- Hirugarren Eracusaldia : Beldurrezco ta Onezco  
dauua, edo Atricioa biotzean sortzeo vide  
egoquiae. 115.
- Laugarren Eracusaldia : Azqueneco Confesiotic  
oraiñ dañoco becatuen aitormena, edo Con-  
fesatzea. 126.
- Bostgarren Eracusaldia : Aurtasunetic orainda-  
ñoco becatuen aitormena, edo Coefesioa, le-  
necoac gaistoac izan diranean. 134.
- Seigarren Eracusaldia : Confesioa egun, eta  
Jaunaren maiean jartzeko prestaera Cristau  
gucienzat. 136.
- Zazpigarren Eracusaldia : Lembicico Comunioa  
eguitera dijoan, Aurrac nola berritn ditza-  
quean bere Arzairequin hatean Bataioan  
emandako hitzak. 142.
- Zortzigarren Eracusaldia : Comunio ondoan  
porc-ere nai egun bear luqueana. 147.

### LAUGARREN PARTEA.

*Eracusten zayo, ala lenvicico Comunioa egun  
duan, aurriari, nola edocein Cristauri, betiko  
vicitza doatsuaren vide edergarbia.*

Lenengo Eracusaldia : Betiko vicitza doatsu  
iristeko, ez dä asco lembicico Comunioare-  
quin, edo beste edoceinequin ongi asitzea,  
basice iraun bear dä vicitz onean : eta eet  
onataraco bear dan. 154.

- Bigarren Eracusaldia :** Cer becatutic gazte Eus-  
caldonac berezquiero aldeguin bear duan. 157.
- Hirogarren Eracusaldia :** Cer dan , eta nola al-  
deguin bear duan gazteac *escandaloa* derit-  
zan becatutic. 162.
- Laugarren Eracusaldia :** Jocoaren gañean. 166.
- Bostgarren Eracusaldia :** Miñance ceñ izugar-  
ria dan becaturaco oitura , eta nola ardura  
andia artu bear dan onelan ez erortzeco. 180.
- Seigarren Eracusaldia :** Becatuau erori nai ez  
duanac aldeguiu bear do becaturaco vide,  
eta perill , batez ere urcoetutic. 185.
- Zazpigarren Eracusaldia :** Becaturaco videac ez  
utzitzeagatik becatariac eman oi dituen , ait-  
zaquien gañieso. 191.
- Zortzigarren Eracusaldia :** Errietau egniñ oi di-  
ran festegunetsn etsaiac prestaturic dauzean ,  
becaturaco vide , eta lazoen gañean. 199.
- Bederatzigarraren Eracusaldia :** Iñoteria deritzan  
demboraco perillen gañean. 203.
- Amargarten Eracusaldia :** Becatutic aldeguite-  
co , gauza bearra dá animaren lenengo etsaia ,  
edo Demonioa garaitza. 207.
- Amaicagarren Eracusaldia :** Becatutic aldeguite-  
co gauza bearra dá animaren bigarren et-  
saia , edo mundua garaitza. 211.
- Amahigarren Eracusaldia :** Becatutic aldeguite-  
co gauza bearra dá animaren hirugarraren et-  
saia . edo aragoia garaitza. 215.
- Amairugarren Eracusaldia :** Becatutic aldeguite-  
co gauza bearra dá gaitzeraco gura , griña ,  
edo pasio nagosia garaitza. 217.
- Amalangarren Eracusaldia :** Becatutic aldeguite-

- teco gauza bearra dá berenez becatu ez diran  
gauzen gorac-ere dagoten neurri , eta muga-  
barrumbean loturic idnquitzea. 221.
- Amabostigarren Eracusaldia :** Becahtic aldegu-  
teco gauza bearra dá tentacioa garaitzea :  
eta ecr onetaraco egnin bear dan , tentacioa-  
ren arretic , tentacioaren demboran , eta  
ondoren. 225.
- Amaseigarren Eracosaldia :** Moden Zoraquerien  
gañean. 230.
- Amazazpigarren Eracusaldia :** Janciera arroá ,  
ta gneieguien gañean. 242.
- Emezortzigarren Eracusaldia :** Onestidadearen  
contra etsayac asmatzen dituan jancieren ga-  
ñean. 250.
- Emeretzigarren Eracusaldia :** Apaiodura gueye-  
goi , ta lotsagarriac jancitzeko asmatzen di-  
ran nitzaquiac. Deseguiten dira oec , eta  
aguertzen dá , nola becatoric gabe , eta mun-  
doaoc erasunten dicon baño ederquiago apain-  
du zaitezquean. 265.
- Ogueigarren Eracosaldia :** Jancian , edo soñe-  
coetan modestia , ta onestidadea gordetzeko  
biru pensamentu egoqui. 277.
- Oguei ta batgarren Eracusaldia :** Belico vicitza  
doatzua iristeko ez dá usco becatotic aldegu-  
tea ; gauza bearra dá gañera bacoitzac bere  
estadu , eta viciomodnan obra onac , edo Ce-  
turako irabaciak egitea. 285.
- Oguei ta bigarren Eracosaldia :** obra on , edo  
Cernrako irabaciak escatzen duen , astmo , edo  
intencio garbiaren gañean. 290.
- Oguei ta hirugarren Eracusaldia :** Ceiñ fruta

ederrac, eta Santutsson ceñ miragarria da-  
cartzian, bacoitzac bere vicimadueo lanac  
asmo, eta intencio garbiarequin eguiteac. 295.

Oguei ta laugarren Eracusaldia : Obra on, eta  
Cernraco irabaciak egin nai haditugu prest  
egon bear degu Jaunaren vorondatea egoite-  
co, eta vorondate onequin gares, bat egaín  
bear dega. 301.

Oguei ts bostgarren Eracusaldia : Ohra onen,  
edo Cernraco irabaciak gordairu ugari-abe-  
ratsak daude ewengo neque, eta gorutzak  
paciencias, eta Jaunaren icenean etanalean.  
Uquitzen dí virtute hau eta ipintzen dirá he-  
ra iristeko cembait pensamendu. 306.

Oguei ta seigarren Eracusaldia : Virtute, eta  
Santutason andira igotzecko beardi neque, eta  
gurutzeetan, eta gauza gocietan Jaunaren  
vorondateari beguiratuta Jaunac nai duana  
bera nai izatea. 311.

Oguei ta zazpigarren Eracusaldia : Jaunaren  
aurrean, edo beguietan jartze, eta ibiltzaaren  
gehean. Adirazten da, cer dan ibillera hau,  
eta ceñ vide ederra dan, ala becatutik alde-  
guiteko, nola obra onac ongai eguiteko. 316.

Oguei ta zortzi-garren Eracusaldia : Goiceco jaye-  
ra, Dotrinako liburuchoan ipili zan eran. 320.

Oguei ta bederatzigerren Eracusaldia : Nola,  
goicetic asmoa arta desun eran, eguartean  
egin ditzaquezun zure lan, eta nequeak  
Jaunaren onra, eta gloriaraco. 325.

Oguei ta amargarren Eracusaldia : Arrats oro  
egin ditzaquezun obra onac. Emen ipintzen  
dira Letaniac latinez, eta Eusqueraz. 334.

- Ogsei ta amaiçagarren Eracusaldia : Igande, eta  
beste jay egnac Santifikatzearen gañean. 554.
- Ogsei ta amabigarren Eracusaldia : Illaren len-  
dabiziko Igande, eta Virgiña chit Santaren  
festetan Jesus maitugaciati Aldareco Sa-  
cramentan, eta beraren Ama guez santari Er-  
rosarioeo Aldaréan agur umilse, ta ongi-  
naieteko visitze egaiteko vide erraza. 559.
- Ogsei ta amairuzgarren Eracusaldia : Illaren iru-  
garren igandeetan Aldareco Sacramentos vi-  
sitatzeko modu erraza, ... 565.
- Ogsei ta amilaogarren Eracusaldia : Noiz nai,  
baña iñuterico azqoeneko hiro egunetan, eta  
ostiraletan Jesus Sacramentatu visitaetzeo  
modu erraza. 569.
- Ogsei ta amahostgarraren Eracusaldia : Urteko  
dembora jaquifetan, eta premio-danean eguiñ  
bi diran, erregu, eta Letanien gañean. 575.
- Ogsei ta amaseigarraren Eracusaldia : Eusaldun  
onac bere batzyoco egunaren urte-beteak  
eguin bear luqueaus. 577.
- Ogsei ta amitzazpigarraren Eracusaldia : Eusaldun  
onac urtearen bucaeran eguiñ bear doana. 585.
- Ogsei ta emezortzigarraren Eracusaldia : Meza en-  
zuteko vide, edo modu erraza. 589.
- Ogsei ta emeretzigarraren Eracusaldia : Aurrac  
Meza laguntzeo ongi icasteko, Escola-Maisne-  
tatic adito bear, hitoquean cembait gauza. 599.
- Berrogeigarraren Eracusaldia : Errromako Misalae  
diskarren eran Meza esaten duan Apaizari la-  
gautzeco modua. 405.

**LIBURU ONETAN OQUER EZARRI**  
*diran, bitzen zucentzeco videa.*

*Aurrena ipiñico dá, bitza gaizqui ezarrid  
dagoan orria; urrena Errencada; guero  
bitz gaizqui ezarria; ta azquenean bear  
dan bitza bera.*

*Covrigiōs.*

*Oria. : Errencada. utza . . . , iraeurri bedi.*

51.	7.	12.	esaten	esaten.
45.	.	18.	dituzque.	ditezque.
75.	.	17.	tificantia.	tificantis.
78.	.	16.	esquerrarc.	esquerrac.
80.	.	16.	duenac.	duanac.
86.	.	5.	gaiztooz.	gaizloac.
93.	.	18.	umiltazun.	umiltasun.
99.	.	17.	soñecoac.	soñecoac.
101.	.	14.	ezcondiuoc.	ezconduac.
102.	.	19.	lotzagorri.	lotsagarri.
102.	.	22.	erauciac.	eransiac.
105.	.	10.	gasteren.	gazteren.
108.	.	10.	estan.	eztan.
111.	.	4.	bearzuen.	beartsuen.
116.	.	11.	lice.	leice.
118.	.	6.	egoanía.	egouhiac.
125.	.	12.	gorozuzun.	gorolazun.
124.	.	10.	bastergubea.	bastergabea.
124.	.	15.	ontacun.	ontiasun.
129.	.	15.	gait.	gaitz.

Corrigéas.

422

151.	4.	<i>ezan.</i>	.	.	.	.	esan.
153.	12.	<i>ado.</i>	.	.	.	.	edo.
159.	16.	<i>guar.</i>	.	.	.	.	gaur.
140.	19.	<i>odala.</i>	.	.	.	.	odala.
140.	20.	<i>doatzua.</i>	.	.	.	.	doatsua.
145.	14.	<i>ezan.</i>	.	.	.	.	esan.
156.	15.	<i>norc.</i>	.	.	.	.	nere.
161.	15.	<i>aragizco.</i>	.	.	.	.	araguizco.
164.	18.	<i>doatzua.</i>	.	.	.	.	doatsua.
165.	1.	<i>espadaqui</i>	.	.	.	.	ezpadaqui
170.	16.	<i>gurazoen.</i>	.	.	.	.	garasoen.
174.	15.	<i>cumque.</i>	.	.	.	.	eumque.
176.	25.	<i>legueaz.</i>	.	.	.	.	legueac.
184.	12.	<i>itzua.</i>	.	.	.	.	itsua.
184.	17.	<i>irritatzea.</i>	.	.	.	.	irristatzea.
197.	16.	<i>basteren.</i>	.	.	.	.	besteren.
217.	19.	8.	.	.	.	.	5.
225.	21.	<i>ondazun.</i>	.	.	.	.	ondasun.
250.	4.	<i>berber.</i>	.	.	.	.	bear.
245.	18.	<i>llilluratuac.</i>	.	.	.	.	llilluraturic.
250.	5.	<i>arroz.</i>	.	.	.	.	arrotz.
255.	9.	<i>eracutziak.</i>	.	.	.	.	eracutsiąż.
266.	20.	<i>escondua.</i>	.	.	.	.	ezcondua.
277.	7.	<i>ematea.</i>	.	.	.	.	ematen.
289.	3.	<i>necasariac.</i>	.	.	.	.	necazaric.
299.	13.	<i>virtutetzuena.</i>	.	.	.	.	virtutetsuena.
302.	5.	<i>ezaten.</i>	.	.	.	.	esaten.
312.	20.	<i>es det.</i>	.	.	.	.	ez det.
324.	8.	<i>danis.</i>	.	.	.	.	danic.
326.	13.	<i>hun.</i>	.	.	.	.	hau.
335.	5.	<i>eun eun,</i>	.	.	.	.	eun.
336.	1.	<i>esta.</i>	.	.	.	.	eta
354.	7.	<i>bilduratzena.</i>	.	.	.	.	hilduratzena.

*corregida*

425

363.	1.	ete	eta
365.	24.	vicit.	visit.
367.	5.	arratzean.	arratsean,
569.	5.	etzai.	etsai.
578.	8.	ezqueintzen.	esqueintzen]
584.	4.	pensamēntu.	pensamentua.
386.	18.	hitzai	hitza.
399.	8.	laguntzen.	laguntzen?
401.	5.	profesia,	profecia;
403.	5.	apaizac.	apaiza.
407.	5.	naddujerunt.	et addue-
xerunt in			

*Nota.*

Badira beste cembait utseguite chiqui, baña ez dira emen ipintzen, ceren irakurle Euscaldunac erraz iguerrico dienac diran.



